

**Manuel Antonio Antia**

**AITA SAN FRANZISKO  
ASISKOAREN BIZITZA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Aita San Franzisko Asiskoaren bizitza*, Manuel  
Antonio Antia (Ainhoa Beolaren edizioa). Euskal  
Editoreen Elkarte, 1996

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00734.htm>

**Aita San Franzisko Asiskoaren bizitza**  
(1182-1226)

Aita Leopoldo Cherance, Kaputxinoen  
Ordenakoak Pranzez-izkuntzan  
Argitaratu zuenetik Giputz-euskarara  
Manuel Antonio Antia,  
Urnietako erretoreak itzulia.

# Itz-aurrea

San Franzisko Asiskoaren bizitzak ez dira falta, zergatik bada itzkribatu beste berri bat?

Au esango du irakorleak liburu onen izengaña ikustean. Erreparu oni bear bezela erantzuteko, askoko degu kontatzea itz bietan lan aiñ nekoso oni ekiteko izan degun erakaia.

S. Franziskoren gañean itz egiten duten oraingo liburuak irakortzean ikusten ditugu, kondairazko utsegiteen batzuek: nola diran S. Franziskoren Ordena 1210garren urtean jarria, eta aurreneko konbentua Rivo Torton egon zala &., eta gure Aita doatsuaren oroipen errespetagarriagatik egikariak, gertatu bezela esateko asmoa artu genduen, denboraren buruan utsegi-teak egitzat artu etzitezten. Bolandotarren eta beste jakintsuen lanai eskerrak zalla erraztu zan, eta are geiago billatu zanean XVgarren eunkiko eskuskribu balioso bat, XIIIgarreneko beste baten erakoa, kondaira billakindetarako bide berriak agertzen zituena. Eskuskribu onen izena zan: *Txikienen Ordenako kondaira, Bernardo*

*Besek Akitaniako probinziakoak itzkribatua. S. Franzisko Asiskoaren eta bere lagunen bizitza.* Eztago dudarik gerekiñ gendukala Bernardo Beseren kondaira sonatu ura, zeñaren izaera eta egiatasuna Bolandotarrak ikusierazo duten, aren lenbiziko itzak siñalatu dituztelako, eskuetaratu eziñ izan bazuten ere. Badirudi Wadingok etzuela izan onen aditzerik, zeren ez duen aitutzen Bernardo Bessen lan bakar bat baizik: *Ordenako Buruzaien Kondaira*. Nola nai dala ere, eziñ dudatu diteke kondairatzalle aiñ anziñakoaren egiatasunaz eta liburutxo onen egiatzko izaeraz.

Bernardo Besse izan zan S. Buenabenturaren goarpelari eta lagun maitea, eta onek bezela, erraz tratatu zezakean ark ere S. Franziskoren atzeneko lagunakiñ. Bazuen irakasle santu onen irakorgaiaren berri, eta aren ondoren itzkribatu bazuen, egiñ zuen biltzeko S. Buenabenturak bere gabillatik erortzen utzi zituen galburuak biltzeko, eta Aitalen santu onen oroimen aiñ aundiari dagokanik ezer ere galdu ez dediñ. Ala dio berak. Kondaira da, bada, kidako baten sinitsgaia, kondailari zuzen, jakintsu beziñ birtutesuarena, eta beragatik merezi du Tomas Zela-

norri eta S. Buenabenturaren iru lagun Leon, Angel eta Errufino beziñ kondairatzalle sonatuai ematen zaien sinistamentua.

Alakoa da billatzeko patu ona izan degun itzkribua, eta egiaren zale diranak atsegiñ artuko dutena, bada berez daukan balioaz gañera, argitasun aundia ematen du ezagutzeko XIV- garren eunkiaren aurrenean argitaratu zan itzkriburik onenetako bat egillearen izen gabe, au da, *Fioretti*-ak, edo *San Franzisko Asiskoaren loretxoak*. Oraindaño *Fioretti* edo *Loretxoak* buruzko somaketa edo ipui on bat baizik etzala uste izandu da, baña bi lan oek elkarrekiñ bekaldurik argiro ezagutu degu, *Fioretti*-an arkitzen diran irakorgai eta gertaera geienak Gubioko otsoa, ... legendar-tsuaren sendaera, Frai Rufinoren sendaera, abittuari gorrotoa zion nobizioaren ikusketa, eta beste zenbat orrelako, Bernardo Besseren kondairatik bat banaka artuta daudela; beragatik Ozanamek ondo esaten du, dionean: *Fioretti*-ai begiratu lezaieke S. Franziskoren Ordenako egi-kera arrigarrien bilkui edo erlikario bati bezela, zeñaren edergarriak adierazten dituzten garbiro

Santuaren millagroak eta bere lagunen giz-irudiak.

Arkitze onekiñ pozturik, artu degu liburu au itzkribatzeko enpeñoa, eta utzirik alde batera, beartzen bagera artzeko asmoarekiñ, Wadingotik asita Markes Segur-rerañoko oraingo itzkribatzaileen lanak ezezik, oek baño lenagokoak ziran Bartolome Pisako, Mariano Florenziako eta Markos Lisboakorenak ere, igo nai izandu degu Franziskoarren egikeretako iturri egiazkoetara, eta irakorri berriro eta zearo XIIIgarren eunkiko sinitsgai egiazkoak. Gure lan au uste baño obeto atera zaigu. Anziñako kondaira autsez beterikoko aetan sentitu degu tupoka S. Franziskoren biotza, eta Tomas Zelano, Angel, Leon eta Errufino, S. Buenabentura eta Bernardo Bessek beren Aita aiñ senzilloro irudikatzen zuten liburu-orrietan jarraitu diogu pausorik pauso gizon miragarri oni, bizitu gera beraren bizitza, sufritu ditugu beraren naigabeak eta gozatu beraren garaipenak.

Gure lan neke eta billakindeen frutua da gaur argitaratzen deguna. Asisko Eskale umillaren anima nolakoa zan agertzea, izaera edo natura-

lezak ze lanak egiñ zituen argan kontatzea, nola izaerari gogor egiten zion, eta grazia garai ateratzen zan, bere kidakoen artean zeukan itzala argiroago ikusierazotzea, lagunen giz-irudi estimagarriak bere inguruan jartzea, eta gure santuari eta aren denborako gauzai ematea izan zuten itxura berekia, au izandu da gure asmoa. Eztegu uste iñola ere lan au ondo egiñ degunik; alabaña S. Franziskoren irudiarekiñ gertatzen da Jesus gurutziltzatuarenarekiñ gertatzen dana, ez dagoela lumarik, ez pinzelik aren antz-irudia ondo atera dezakenik. Baña benik beiñ, izango degu gure Fundatzalle santuari oroikarri berri bat altxa diogulazko konsueloa.

Liburu au eskeintzen diegu konfianzarekin Obispo Jaunai, bada seguru gaude S. Franziskoren umiltasunak eta Aita Santuarenganako agertu zuen jaiera eta mendetasunak on biderik asko emango diotela.

Eskeintzen diegu Aita onen ume, Ordena guzietakoai, Santa Klararen alabai, eta zenbat milla kristau, Irugarren Ordenakoak diralako edo kordioa daukatelako S. Franziskoren familiarekiñ elkartasun gitxi edo askoan daudenai. Beren

Aitaren dotriñak indartuko ditu oraingo dotriña gaiztoen kontra, eta beraren ejenploak bai sendotu ere aen animak, ondatu ez ditzan gizaaldi onetako lasaikeriak, ugaldearen gisan artzen duten guzia menderatzen dutenak.

Eskeintzen diegu, azkenik, Eleiza Katolikoaren ume guziai, eta baita gaurko eguneko zenbat gizon, zorigaistoan fedea galdu dutenai ere. Baldiñ Asisko Pobrean ezpadute ikusten Santua, mirarigille eta Orden erlijiozkoaren Fundatzallea; aren sakrifizioak eta beeratzepen arrigarriak ezpadira oentzat gure Erlijio Santuaren egiaren probabide argi bat, benik beiñ, ikustean beraren biotz aundi eta ongillea, elkartasunezko espiritua eta artezko obrari zien jaiera, egiñ bearko zaie beren gogokoa. Eta egiaz, XIIIgarren eunkiko bizi modu eta oiturak ezagutzen dituenak, nola ez du alabatuko Bernardonen semea gizon miragarria, beartsuenganako amorioan iñork eraiñ ez diona, bere iru Ordenen bitartez mundu guzia jirabildu eta datzan obitik ainbeste millagro egiñ dituenak?

Ondo pagatutzat idukiko degu gure lana, baldiñ guk ere zerbait egiten badegu berrituerazi-

tzeko gure artean Asisko Serafiñari gure aurrekoak erreboluzioko denboraraño ekarri zioten debozio, onra eta amoriozko begirunea.

# San Franzisko Asiskoa

## Lenbiziko bereziera

*Unbriaren azaldaera.*

*Franziskoren jaiotza.*

*Aziera. Gaztetasuna.*

(1182tik-1206ra)

Erromatik Italiako Ifar alderonz dihoan bidelaria, Erroma inguruko kanpoaren bakartasun triste eta illuna igarotakoan, iristen da Unbria izendatzen dan ibar eder eta zabal batera. Izen au eman zioten Galo edo Unbroak Alpe-mendietatik Italian sartuta probinzi aberats onezaz zaletu eta menderaturik, bertan jarri ziranean lareun bat urtez Jesu-Kristo mundura etorri baño lenago. Unbria zabaltzen da Espoletotik Perusaraño, eta bere goi aldean, Tiberko ibai ertzetik Apeninoko mendi oñeraño. Eztegu ezagutzen lurbira au baño alegere eta atsegiñgarriagokorik. «An ikusten dira Alpeetako kanpo ederrak, mendi gañak iturri ugariz ornituak, baso zabalak, dunbots aundiarekiñ ura amiltzen duten arkaitzak, eta bere klima edo aizetorkia beraa elurte luzerik

eziñ iñoiz izan ditekeana. An izaera agertzen da aundi beziñ zoragarria, arritu arazten gaituena ikaratu gabe, eta Egillearen guziala sentiarazten badu ere, era berean bere ontasuna adierazten duena».

Toki zoragarri edo lurreko Paraiso onen sarre-ra gordetzen du Espoletok eguerdi aldetik, eta Perusak Ifarrekotik. Uri onetatik Ifarkoi alderonz bost bat leguara, eta ingurumai guziai eraiten dien mendi-muño baten gañean altxatzen da Asis, Unbriako porta, bidelari eta erromesak elkarganatzeko toki señalatua, eta gañera Loreto eta Erromaren parekoa, Aita aundi onen jaio-terria izateko ditxa izan zuena.

Uri onetan jaio zan San Franzisko 1182garren urtean Luzio Illgarrena Aita Santu, eta Federiko Barbaroja Alemaniako Enperadore zirala. Bere aita zan Pedro Bernardo di Morikoni, Pedro Bernardon-en izenez obeto ezagutua zana, merkataria aberatsa, Lukkesko jatorrikoa, Asisera oraño bizitzera joan, eta Franzian sal-erosi aundiak egiten zituena. Ama zan Pika, Bourlemontekoen leñargikoa Probenzan, bere birtuteakgatik santu baten ama izatea merezitu izan zuena.

Pikak etzituen izan bi seme baizik, Franzisko eta Angel; au ezkondu zan, eta Asisko Morikonitarren etxadiak bazirauen oraindik XVIgarren eun-kiaren aurreneko erdian.

Jaungoikoak nola bai zeuzkan Franziskorengan besteengan ez bezelako usteak, mirari arrigarriz inguratu nai izan zuen aur aren jaiotza. Baziran egun batzuek Pikak aurgiteko miñ bizi-biziak zeramazkiala, erromes batek esan zien etxeko mirabeai limosnarekiñ joan zizaiozkanean «amak okullu batean aurra egingo zuela, eta aurra lasto tartean jaioko zala». Esan onezaz arritu baziran ere, jarri ziran egitera. Eraman zuten Pika aldameneko okullu batera eta antxe argitaratu zuen ongi bere aurreneko semea.

Ara nola jaio zan Franzisko, abere tartean, onetan gure Salbatzallearen antzeko egiñik, kriatura kriatzalleari iruditu al dezaiokean anba-tean eta imajiña bere moldeari iruditu al dezaio-kan moduan.

Oraindik okullu ura ikusten da Asisen, S. Franziskutxo izendatzen dan kapilla biurtua. Atalburuan irakortzen da txit anziñako latiñ-itz-kribu au:

*Hoc oratorium fuit bovis et asini stabulum,  
In quo natus est Franciscus, mundi speculum.*

«Erregutegi au idi ta astoaren okullu izan zan,  
Franzisko, munduko ispillua, emen jaio zan».

Esan izan zitekean Asis beste Belen bat zala. Gau artan zeruko aingeruak kantatu zituzten atsegiñ pozgarrizko kantak Ama Birjiña Aingerukoen Eleiza-gañean.

Aur lendaukeratu onek bere profeta izan zuen Joakiñ, Fiorako Abade doatsua: zeñak amar urtez lenaztandik *Isaiasen gañeko* bere itzkribuan esan zuen: «Unbriak eta Españiak sortuko zituztela bi Orden Erlijioso berri, Ebanjelioko argia mundu guzira eramateko eginkizuna artuko zutenak». Oro bat izan zuen Berri—emallea ere bere erritar bat: zeña denbora aldi batean ibili zan Asisko karriketan deadarka esaten: *Pax et bonum*, «Pakea eta ontasuna». Ala dio Bartolome Pisakoak.

Pikak San Juan Ebanjelariari zion jaierragatik nai izan zuen bere semeari bataioan Joan izena

jartzea, eta oraindik dirauen anziñako kontaera batek dionez, persona arrotz, itzaltsu eta errespagarri bat agertu zan aurra pontean iduki naiean, iduki ere zuen bere besoetan bataioko denbora guzian atsegiñ zerukoizko begiradak egiten ziozkala, eta gero desagertu zan utziaz aldareko malletan bere belaunen siñaleak. Oraindik Asisko Eleiz-Katedralean erakusten dira marmol miraritsua eta ponteoa, nun dauden otallatuak itz oroitgarri oek: *Questo é il Fonte dove fué batterato il seraphico Padre San Francesco*: «Ona Aita Serafiñdar San Franzisko bataiatutako ponteoa».

Bataiotik itzultzean, beste arrotz bat, beste Jainkoak bialdu bat sartu zan Pikaren etxean, eta errugutu zien, arren, utzi zizaiotela aur jaioberria ikusten. Eta nai zuena iritxi zuelako pozez beterik, artu zuen besoetan Simeon zarrak bezela, eta graziara jaiotako aur artan ikustean Jaungoikoak autu bat, senide txiki, eta glorian izango zuen lagun bat, bete zuen musuz eta palagu gozoz, markatu zion sorbaldan gurutzearen siñalea, jaiotzatik Kristoren zaldun armatzeko bezela, eta itzuli zion iñudeari, esanaz: «Kontu egiozu

ongi aur oni, bada iritxiko da aundi izatera Jaungoikoaren aurrean. Infernuko deabruak lenaz somatzen dute, eta alegiñik asko ere egiñgo dute bizia kentzeko; zuk ordea, arretaz kontu egiozu aren sareetan erori ez dediñ». Itz oek esanda, desagertu zan, eta errian aren billa ibili baziran ere, etzuten aztarnarik ere izandu.

Aingeruaren enkarguak txit egoki emanak izan ziran. Andik laister gizon gaizkindun batek, Eleizako orazioakin gaizkiñak kentzen ari zizagokatela, aitortu zuen ala, eta deabruak berak, galdetuta, aren aotik erantzun zuten, aur ari bizia beiñ baño geiagoetan kendu nai izan ziotela. Eta anziñako kondairatzalleak diote gañera, uraren indarretik Moises gorde zuen Probidenziak berak gorde zuela Franzisko deabruen amorru eta era-soetatik. Andik geroago Santu onek berperak libratu zuen gaizkiñdun errukarri ura, menderaturik zeukaten deabru aetatik.

Leialki eta senzilltasun guziarekiñ kontatu nai izan ditugu asiera miragarri oek. Graziak argitzen ditu, sartzen zaie barrunbean eta aiñ ekarrai indartsuarekiñ ornitzen ditu, non sinistgorrak berak sentitzen dira menderatuak bezela; eta

gizon prestu guziak orrelako mirarrietan ikusi bearko dituzte XIIIgarren eunkiko kondairan argiro azaldu bear duen bizitza baten aurreneko doaiak.

Denbora artan Franzian zebillen Pedro Bernardon, eta etxera itzultzean jakindu zuen seme bat jaio zizaiola, poz aundia eman ziona. *Iru lagunen irakorgaiak* dio, Franziko erreinoaren oroipenean Juani jarri ziola Franzisko izengoitia, eta bera da kondairan ematen zaiona.

Beste batzuek diote izen au etzitzaiola eman orduan, geroago baizik, pranzas-itzkuntza aixa ikasi eta grazi aundiarekiñ itz egiten zuelako; baña onezaz dana dala «oial saltzalle umill ari zeñ gitxi gogoratuko zizaion ark sortutako izen ura Eleizak deitu eta Erregeak eramango zutela». Franziskok, ala deituko diogu emendik aurrera, beti izan zion Franziori amorio biotzekoa, eta gure erriak onra aunditzat dauka bera seme-ordekotzat idukitzea.

Aren aurreneko urteak igaro ziran, bada, gurasoen etxe itzalpean soseguz eta pakean, Jesus aurrarenak Nazareten bezela. Errugabeko bizitza, pake, esperanza eta amorezkoa, zergatik

etzagu eman guri zure urriñ gozoa sentitzea? Jaungoikoaren Probidenziak ala nairik, Pikak, Ama Birjiñak bezela gorde zituen bere biotzean aren lenbiziko parra gozoak, itz erdixkak eta jostatxoak. S. Franziskoren kondairatzalleak ozta ezer esaten digute beraren aurtasunaren, etxe barrunbeko bizitzaren, eta griña edo berezko ekarraiai ama biguñak eman zien zuzenbidearen gañean. Alaz guziaz ere, jaulkitzen zaizten itz banakaen batzuetatik igerri dezaiokegu, Pikak azi zuela bere semea arreta guziarekiñ, ama gazte batek bere aurreneko semeari agertzen dion kariñoarekiñ ezezik, baita anima bat zerurako prestatzen duen ernaitasun guziarekiñ ere.

Jakiñik amatasuna dala etxe barrunbean apaiz gisako kargu bat, artu zituen bere gañean amaren eginbideak, ditxa au izan zuelazko pozean. Berak eman nai izan zion bularra aurri, amaren izena merezi nai dutenak egiñ bear duten bezela, eta eginbide au bete zuen pozik eta esker onez, zeren Franzisko zan Aingeruen Erregiñari egindako orazioen bitartez iritxitako semea, eta Jaungoikoak aren kontura uzten zuen gauza balioso bat bezela. Nola utzi zezakean

bedeinkaziozko seme ura besteren eskuetan bular arrotzetan, galtzeko aïñ arrisku aundiarekiñ? Bereetan iduki zuen, bada, eta Franziskok beiñ baño geiagoetan eskerrak eman bearko ziozkan Jaungoikoari esanaz S. Agustinekiñ: «Bedeinkatua izan zaitez, Jaungoikoa, zuk jarri-razo zenduen bigunki nere ama ematera neri neurri gabe, zugandik neurri gabe berak artzen zuena! Aïñ atsegiñez edaten nuen bularrarekiñ edan nuen zure Seme eta nere Salbatzalle Jesu-sen izen adoragarria».

Franziskok, azitzen zijoan eran, agertzen zuen zetorrela berez bizkorra, atsegille eta buru azkarrekoa. Doai oek ondo giatzea aztu gabe, Pika saiatu zan aren biotza moldatzen, eta semeagan ikusten zituen ekarrai onak indartzen, au iriste arren ezertan artu gabe bere neke eta alegiñ guziak. Bere semearen biotzean Fedearen eta birtuteen azia ereitea, orazio egiten oituerazitzea, eta bere buruaren ukatzeak eta karidadeak erakartzen duten barrengo satisfazioa erakustea zan aren betiko burutzioa; eta aur aingerukoi arrek bere aldetik erantzuten zion leialki ainbesteko ernaitasunari. Amaren ikasbide gozo-

ai idikitzen zien bere anima, loreak bere barrun-bea eguzkiaren lenbiziko argi-errañuai bezela, eta ordutandik igerri zizaiokean landare biguñ arrek denborarekiñ frutu eder ugariak emango zituela.

Ikusi degu gure Santuaren azieran Pikak artu zuen parte aundia. Esandako pixka asko da bera gloriatz betetzeko; alabaña, seme baten birtuteak dira guziaz gañ amaren obra: zeñazaz, berezko lankai bezela baliatzen dan Jaungoikoaren Probidentzia santutasunezko egitekoan. Ark ereiten du, eta Jaungoikoa da aziari bizia eta errua ematen diona. Franziskok gero beartsuai aiñ amorio bizia baldiñ badie, naitasuna bada bere sentimentu onen siñalerik bikañena, Erromako Aita Santuari jaierarik biotzekoena agertzen badio, Jaungoikoaren Semeak azkenik onratu bazezakian ezarriaz bere Pasio Santuko zauriak aren gorputz garbian, duda gabe diogu Pikari batez ere zor zaiola. Zorionekoak etxeak, nun amak aiñ ongi ezagutzen duen bere egiñ bidea! Zorionekoa, Jaungoikoak alako ama bat ematen dion semea! Ah, egunen batean, Franzisko beziñ leiala izandu eztalako, bide zuzenetik alde egiten

badu, itzuliko da lenago edo geroago amak magalean idukitzen zuenean erakutsi zion dotriña onera.

Iritxi zizaion eskolatzeko denbora, eta gurasoak eman nairik beren bizitza erosoai zegokan moduko aziera on bat, eraman zuten San Jorjeko Parrokiako apaiz piadosoak zeukaten eskolara. Bere buru ernaiarekiñ laxter asi zan gusto artzen letra onai, zeintzuetan aurrerapen aundiak egiñ zituen, ikasiaz txit erraz latinez eta prantzesez. Adituko diogu Franziskori osotoro Jaungoikoari emandakoan, ezer etzekiela esaten, baña oroitu bear gera, ala esaten zuela geiago umiltzeagatik. Munduko jakinduriaren kaso gutxi egiñgo du, libururik onenean, au da, Jesus gurutziltzatuan, betiro irakortzen egongo dalako.

Amalau urtera zanean, aitak artu zuen bere artu-emanetako laguntzat, eta biok segitzen zuten merkataritza benetan, baña asmo oso desberdiñarekiñ. Aita zan gizon gogorra, irabazi zalea, eta nondik nora geituko zituen besterik gogoan etzeukana: semeak kontrara zituen sentimendu obeak; zan otxana, errukitsua, emalle geiegirañokoa, dirutsu baño sona aundinaiago-

koa (txit itxutua zan Alemaniako enperadoreak eta Errege Normandiarrak Italiara eramanda, ango jendeak gero eta gogo geiago artzen zizten zaldun-pestatarara). Gustatzen zitzaizkan jantzi ederrak, kantuak, joko eta pestak, bere adiskideai ematen ziezten gonbite aundiak, eta igarotzen zuen jostaketetan etxeko lanbideak uzten zioten denbora guzia. Bernardonek etzituen begi onez ikusten bere semearen gastu geiegi oek, eta bai arpegira eman ere: «Egiaz, esaten zion, artuko zaituztela errege-semetzat, eta ez merkatarari baten umetzat». Baña etzitzaion geiago aurreratzen, atsekaberik ez emateagatik. Amak utzitzen zion libertade geiagoan, eta iñoiz adiskideren batek aitatzen bazien Franziskok zeraman bizitza lasia, bera ateratzen zan aren alde, esanaz: «Itxedon zazute piska bat, deritzat onduko dala, bada bere jostaeratan ere aiñ prestu eta noble ikusten det, non sentierazten dizkidan esperanzarik atsegiñgarrienak». Gurasoak maitezuten Franzisko amorio biguñenarekiñ, eta aren gastu aundiak pena ematen bazien ere, poztutzen ziran ikustean aren garaipenak, eta ezagun guziak ekartzen zioten errespeto amoriozkoa.

Sartzera dioa Franzisko beti aiñ perill aundi-koa dan gaztetasunean, baña aurrera pasa bañolen, gera gaitezen begiratzera ez pintatzalleak erretratatzan, eta ez jendeak mirestutzen asper-tzen diran aingeru-irudiari.

Ona emen Tomas Zelano aren jarraile eta lagun maiteak utzi zigun erretratoa. Zan gorputz txikikoa, me eta argalekoa. Zeukan arpegi luzea eta egokia, kopeta zabala, ortzak txuriak eta estu estuak, kolore beltztxoa, buruko illea beltza, ezpañak gorri eta parregiteko zorian, eta begirada alaia. Aren begi bizi, beltz ederrak zeuden modesti eta ez-titasunez beteak, eta arpe-gian agertzen zuen bere animaren sosegu, ino-zenzi eta edertasuna. Prenda oezaz gañera bazi-tuen beste batzuek edozeiñ galairi naitasuna erakartzen diotenak: nola diran jenio alegere, irudikiñ bizi eta biotz samur eta ongillekoa iza-tea. Zan txit begiratu eta leiala bere agiñduetan, ekarrai on eta biguñetakoa, guzientzat guzia egi-ten zana, santuen artean santua, eta pekatarien artean aiñ umilla, non edozeñek artuko zuen oetako aunditzat eta denboran biotz alai eta

egin-naiekoa, lan biderik nekosoenetan ere atzeratzen etzana.

Onelako prenda on eta birtuteak, erakarri bear zioten, erakarri zioten bezela, bere erritarren estimazio eta kariñoa, eta ala, Franziskok emezortzi urteetara zanean aen gañ zeukan itzal eta mendetasun bat iñork ukatzen etziona. Gazteak obeditzen zioten, bera zan aen billeretako burua, berak alaitzen zituen aen jostaldiak eta giatu aen egitadeak, alako moduan non Asisko biztanleak pozgarrizko deadarrakiñ deitzen zioten *Galaien errege*. Gauza arrigarria! Denbora aldi onetan, au da, bere gaztetasunetik konbertitu zan arterañoako amar urte aetan (1196tik-1206era) Bernardonen semea bizi da sarturik gazteen ibillera irabiatuetan, sentitzen du losentxa eta alabantzen urriñ gozoa, darama ezpañetara munduak eskeintzen zion atsegiñezko edontzi urreztua, beste zenbaiti eriotza erakarri ziena, guziak billatzen duten edadean, sasoirik ederrenean, bizitzaren lorean zegoenean. Eta ala ere, aren anima atera zan kutsatu gabe ainbeste zorakeria eta arriskuetatik, leiz-ertzetik dabillena, leizean amilldu gabe pasatzen dan

bezela. Ikusierazotzen du garbiro gorroto diela oitura gaiztoai, debekatzen ditu ongi ez dirudien itzak, lasaikeriarik ikusten badu, jartzen du kope-ta beltza, eta ala gordetzen du loitu gabe bere garbitasuna, mundu ustel eta galdu aren erdian. Aren gaztetasunezko sinitsgaia ematen digute beraren lenbiziko lagun eta kondairatzalle Tomas Zelano, Frai Leon eta S. Buenabenturak. Birtute guziz kupera au gordetzen aren irmotasuna badirudi zeruko doaia zala, bada onetarako biotz aundi bat izatea asko dala edo munduko beste motiboren bategatik gorde ditekeala esatea, ez da bear ainbateko arrazoia, eta beragatik au adierazteko joan bearko degu grazia guzien iturrira, S. Buenabenturak egiten duen bezela, eta bedeinkatu Jaungoikoa bere serbitzariaren burua koro ederrenarekiñ eta doai berezienarekiñ, au da, birjintasuneko koro eta doaiarekiñ ornitu zuelako.

Gañera Franziskok billatu zuen bere biotza-ren erdian beste doai Jainkozko bat, munduaren palagu eta aragiaren tentazioetatik gorde zuena, au zan beartsuai zien amorio berezia, bere aurtasunean sentiturik, eta edadean aurreratzen

zan bezela geituz joanik, ainbeste millagro egiñ bear zituena. Senide batzuek bezela estimatzen zituen, eta aren atsegiñ guzia zan limosna ematea, batez ere Jaungoikoaren izenean eskatzen ziotenean. Aditzean «Jaungoikoaren izenean» barren guziak dardar egiten zion, kolpe misteriozkoren batekiñ erituta bezela, eta oraindik lurreko gauzetara etziña bazegoen ere, geratzen zan osoro irabiatua. Beiñ batean bakarrik, bere egitekoetan txit arazotua zegoela, bialdu zuen limosna eman gabe eskale bat, Jainkoaren izenean eskatu ziona. Berealaxe etorri zizaion burura pentsamendu bat arantza zorrotz baten gisan biotza zulatu ziona: «Franzisko, esan zion bere buruari, gizon ori etorri izan bazizaizun konde, edo markes edo beste giza nobleren baten partetik, arrera ona egingo ziñion, eta erregeen Erregearen izenean eskatzen dizunean, orrela bialtzen dezu?». Eta animako damuarekin eta negar malkoak zeriozkala, joan zizaion korrika pobreari eta zillar diru batzuek emanik, berbertan artu zuen asmo eragillea iñori ez ukatzeko limosnik, Jainkoaren izenean eskatzen bazion; au izandu zan asmoa bere bizitza guzian leialki kun-

plitu zuena, eta zeruko grazi eta bedeinkazio ugariagoak merezi erazi ziozkana. Era onetan iristen zuen, gaztea zala ere, pobreaken adigarri kristau eta Jainkozkoa, eta erremediatu zuen istant patean egiñdako utsegitea.

Aren portaera eta ibillera zaldun gisakoak ikustean, edozeñek uste izango zuen gerra gizonen buru izateko, edo Palestinako kanpoak odolez gorritzeko señalatua zegoela; nori alabaña gogoak eman bear zion iritxiko zala izatera bere denborako salbatzalea, eta bizitza kristauera biurtzeko arteraño jendeen artean ikusi zan mugida aundienaren asiera emantzalea izango zala? Onelakoak ziran, bada, Jaungoikoak argan zeuzkan asmoak, eta ala adierazten da zergatik zeukan Jaun zerukoak beti beraren kontu berezia. Konbeni zan jendeak aldearez argan begiak jartzea? Konbeni zan zeruko mirariz bera inguratzea, guziok ezagutu zezaten Jaungoikoak bialdutako lanbidean zebillela, beartzen zirala aren itza aditzera? Orregatik aren aldeko zeruko laguntza da beti dirauena aurtasunean asirik, gero eta geiago sentitzen zan, zeruko itzal gisako batek inguratzen zuela, eta aurtasunean arri-

turik ikusi genduen bezela, ikusten degu emen berriz ere, S. Buenabenturak kontatzen duen gertaera onetan.

Asisko txoro ergel batek egiten zion santu gazte oni, dudarik gabe Jaungoikoak gogargiturik, garaipen sinale onrotsu bat, kondairetan alakorik irakortzen ez dan modukoa. Ez al zuen ikusten Asisko karriketan, bereala zabaltzen zuen lurrean bere kapa, gañetikan pasa zediñ, eta ari begira arriturik geratzen ziranai deadarrez esaten zien: «Gazte oni egiten diozuten onrarik andiena, ez da izango geiegi, bada erri-tar guziai eraingo die, eta kristau guziak onratua izango da». Franziskok aditzen zituen alabantza oek, zer esan nai zuten ezagutu gabe.

Onrak eta zorionak dira edari goxo engañagarriak, gizonik onenak nastu erazitzen dituztenak, eta benturaz gure gazte piadoso onen biotza ere galduko zuten, baldiñ Jaungoikoak kontu berezia iduki izan ezpazuen nastutzeko beste edari samiñ, baña protxugarriagoakiñ, au da, prueba eta oñazezkoakiñ.

Prueba ori izan zan luzea beziñ ustekabekoa. Naspillazko denbora aetan Unbriako uriak bizi

ziran beren gisa, iñoren mende eta uztarripetik libre beti elkar eziñ ikusiaz eta gorrotoan, sortuaz maiz asko gerra auzoak auzoen kontra. Milla berreun eta bateko urtean Asisko uriak gerra zeukan Perusakoarekiñ, baña etzitzaion ondo juan, Franzisko eta bere lagun batzuek zabartuak zeudela sartu zizaizkaten kontrarioak itxumustuan, eta atxiturik, eraman zituzten Perusara, nun egon ziran itxian urte bete osoan. Ustekabeko zorigaitz onekiñ galai gazte aek erori ziran barrengo tristura aundi batean. Franzisko bakarrik zegoen alegere eta umore onekoa, eta esaten ziezten itz jostalluakiñ egiten zuen alegiña aen biotz eroriak alaitzeko. Oek orde, aren konfianza eta umore ona ontzat eraman bearrean, aserratu zizaiozkan, eta beren disgustoa agertu zioten, gogorkiro egun batean bera tratatuaz. «Erruki zaituet, Franziskok erantzun zien, bada nik eztaukat zuek bezelako etsimenik. Oraiñ kateaz lotua ikusten banazute ere, etorriko da egun bat, noiz ikusiko nazuten mundu guzian onratua». Franziskok etzien orrela itz egiten arrokeriaz, ezpada gogoraerazitzen

zien lenago aitatu degun Asisko agure aren asmegia.

Ez dirudi onelako jolasakiñ zaldun aek konsuelo aundirik sentitzen zutenik, baña ala ere Franziskok etzien utzi beñere aekiko zeukan karidade aundiaren prueba señalatuak eman gabe, batez ere bere kondairatzalleak esaten diguten mugaldi onetan. Karzelatu aetako batek zeukan jenio bizia, eta zeraman zorigaitzarekin sumiñdurik, ainbesteraño aserraerazi zien lagunai, non erabaki zuten berarekiñ geiago ez tratatzea. Gure gazte gozatsu au jarri zitzaien bitarteko, eta erregutzen zien, arren, barkatu zezaiotela, baña ikustean etzuela ezer aurreratzen, joan zizaion aldamenera, eta bere palaguakiñ alako moduan gozatu eta eskuratu zuen, non galai aek gure santuaren pazienza eta biguñtasunez menderaturik, agertu zioten gero Franziskori beren amorio eta estimazio guzia. 1202garren urtean egiñ ziran pakeak bi uri etsai aen artean, eta Franzisko eta bere lagunak iritxi zuten ostera libertadea.

Emen bukatzen da Franziskorentzat bizitza mundutar eta iskanbillazkoa, santuak berak

*pekatuzkoa* deituko diona negar samiñak egiñaz zabarkiro igarotako urteakgatik, eta Jainkoari eskerrak emanaz, atera zuelako millagroz munduko perilletatik.

XVI eta XVIIgarren eunkiko izkribatzalleak adigarri estuegian arturik Santuaren itz oek, *Nere bizitza pekatuzkoa*, uste izan dute S. Agustiniñen gisako bizitza galdu bat eraman zuela, ura bezela Jaungoikoagana biurtu zan aurretik. Baña iritzi au da utsegite gorrotagarri bat, denbora artako kondairatzalleak berak desegiñ zutena. Guziok ao batera diote, ill zan arteraño gorde zuela bataioko grazia, eta Fr. Leonek aseguratzen digu, millagroz au jakindu zuela. Amets batean, dio, «ikusi nuen gure Aita doatsua zegoela mendi tontor batean, lorategi baten erdian, lirio ederra eskuan zeukala, eta galdeturik ikuskerak ark zer esan nahi zuen, zeruko itz ots batek erantzun zidan, ezen, lirioak aditzera ematen zuela Franziskoren garbitasun aingerukoia». Aiñ itzal aundiko sinitsgaiak agertzen digu zer lekutan dagoen Bernardonen Semea Santuen artean.

Asko dira duda gabe zeruan dauden anima doatsuak, baña guziak egiaz berezi litezke bi salletan, S. Juan eta Santa Marta, au da, beti garbi gorde izan ziran animak batean, eta S. Pedro eta Santa Maria Magdalena, au da, penitentzia egiñ bear izan zutenak bestean. S. Franzisko lenbiziko sallekoa da, eta bere testamentuan aitortzen badu gazte denbora munduko erakeria eta zirtzillkerietan alperrik galdu zuela, aditzen da itz egiten duela Santuak oi duten moduan, zeñak negar egiten duten lenagoko utsegiteakgatik ezezik, alperkeria eta epeltasunean egon ziran denboragatik ere.

Alakoak izan ziran, itz gutxietan, S. Franziskoren aurtasuna eta gaztetasuna.

Zer poza sentitzen duen bidelariak, gau illun eta ekaitztsuaren ondoren egun sentiaren aurreneko argi errañuak ikusten dituenen! Alakoa, eta are atsegiñtsuagoa da guk sentitzen deguna, noiz eta gure denborako billaukeri eta gaiztake-riaz azturik, arkitzen geran ikusten pensamentuarekiñ, nola agertzen diran Eleizaren zeru urdiñ eder orretan zintzilik Jaungoikoak jarri zituen argikari aundi oriek, «santuak» deitzen

diranak. Asisko Patriarka da argikari oetako, benturaz denbora aetako guzien artean palakariena eta argitsuena. O zeñ atsegiñtsuak diran beraren jaiotza, aren seaska inguruan gertatutako mirariak, aurtasuneko garbitasuna, eta gartasunean egindako egikari jostalluzkoak Jainkoaren eta pobreenganako amorioarekiñ aiñ markatuak zeudenak! Aldeaurrez somatzen degu izar onek igaroko dituela Jainkoaren eskuak señalatu diozkan bideak ibillera guziz azkarrarekiñ; baña zeru urdiñ orretan agertu, eta bere argi diztiazalleak zabaldu baño len, zalantzan ibiliko da, eta gogor egingo dio Jainkoaren deiari ere; eta ondorengo berezitan ikusiko degu nola gertatuzan animaren eta bere Egillearen arteko gerra luze eta beti berritua, onen gora-berak, gerra, zeñean Jaungoikoa dan garailari, eta Franzisko zorioneko garaitua.

# **Ilgarren Bereziera**

*Franziskoren on-biurrera.*

*Erretiratzen da arzulo batera.*

*Bisitatzen du Apostoluen*

*obi edo sepultura. S. Damiango*

*estamp-imajiña. Franzisko*

*Obispoaren tribunalean.*

(1206-1207)

Franziskok itsatsia zeukan oraindik biotza munduarekin eta bere zorakeriakiñ. Jaiera au kulpagarria ezpazan ere, perill egiazko bat zan aren animaren betiko zorionerako, eta eragozpen bat Jaungoikoak argan zeuzkan asmoetarako, zeñezaz baliatu nai zuen bere miserikordiak agertzeko. Eta nola eragozpen oek eten edo urratu bearrak bai ziran, Jaungoikoak kolpea kolpearen gañean eman zion, alik eta osotoro urratu zituen arteraño. Perusako katibuera luzeak anima argitu bazion ere, berekiñ utzi ziozkan lenagoko lilluramendurik geienak, eta ala ez al zan itzuli bere errira, Jaungoikoak bialdu zion beste prueba bat, edo obeto esateko, grazia

berri bat, samurtu erazotzeko aren biotza beraren goiargitarako; grazia au izan zan sufrimentua. Gaitz luze eta gogor batek iduki erazi zuen oatua eta ekarri zion bakartasunik aundiena, eta desgraziarekiñ asitako lanari bukaera emanik, desegiñdu ziozkan bere atzeneko lilluramenduak. Indarrak egiten zerbait asi zizaiozkanean, atera zan erritik makillaren anparoan kanpoko aireak artzera. Baña arriturik gelditu zan ikus-tean etzutela poztutzen aren biotza ez kanpo zoragarri aek, ez ordeka laboretsu aek, ez eguzkiaren sarrera ikuskarri, mendi tontorrek erretzen dituela dirudienak, ez illunabarreko ipar aize gozo, erdi sendatuak indartzeko aiñ protxugarria danak; kontrara, guzia iruditzen zizaion tristea, illuna eta otza, ikusiaz animako begiak munduko gauzen ezereza eta Jaungoikoaren betiko edertasuna. Bere barrunbean sentitu zuen gauza bat, arteraño ezagutu etzuen, iguiña, despreziatu zuen lenago geien maitatu zuena, eta iduritu zizaion lenagoko bere bizitza, arrokeria utsa baizik izan etzala. An sentitu zuen biotz mugida bizi bizia izan zan, baña aisa pasa zizaiona. Biotzean lo bezela zeukan aundi-naia

suspertu zizaion sendatzearekiñ batean, eta griña bizizko gazte au laister itzuli zan lenagoko gogoetara, ondo jantzita zaldun ibillera probaketara, alatan non, esan zitekean Franzisko Jaungoikoak zion amorio berezitik igesi zebillela. Eiaka zijoan, bada, gure zorionaren etsaiarengana, batere gaitz pensatu gabe para zezaiozkean lazoak, arako mundu, Ebanjelioak gaiztotzat daukanak, gu errazago galtzeko itxutzen, engañatzen eta palakatzen gaituenak.

Gizonaren berezko argaltasuna ezagutu eta dakienak nolako indar alaideak egiñ bear izaten dituen Jaunak anima bat osoro menderatzeko, ez da arrituko kriaturarenganonz itzulera oezaz, kontrara, arritzeko bide geiago izango luke ala ez izatera, zergatik justu bat bakarra izandu zan izatez pekatu gabea, eta beñere erori etzana, eta ura da Jaungoikoaren Semea; eta emakume bakarrak etzuen beñere graziaz pekaturik txikienik egiñ, eta zan Maria, Salbatzallearen Ama eta gure Bitartekoa deitzen dioguna. Osterontzeko kriaturak dakarte berakiñ jatorrizko pekatua, eta guziak, grazia txit berezi bat ez dutela, sentitu dituzte gaitzerako griña makurrak, eta erori dira,

azken garaipena iritxi baño len, baña beiñ altxa ziran ezkeru, garbitu dute arrigarriru «beren bizitza pekatuzkoa», iraun dute obra onetan, eta eriotzak atxitu dituenen izandu dira koroatuak.

Etzan Franzisko zaurit-ezgarria eta utsegite gabea, munduarekiñ lotua zeukan lazoa, bere burua agertu naia baizik ezpazan ere, lazo au etzan eten erraza, eta etzuen oraindik eten. Munduko uts eta txeakeri, gazteen biotzak anbesteraño lilluratzen dituztenak, bere begien aurrean jarririk, bazirudien esaten ziotela S. Agustiñi konbertitu zan aurrean bezela: «Betiko agur egiten diguzu? Zer bada? Ez gera geiago zurekiñ egongo? Gaurdandik onelako eta alako gauzak betiko debekatuak izango dituzu!».

Baita ere menderatu nairik oiturak ematen duen indarrekiñ, ixekatuaz esango zioten: «Uste dezu biziko al zerala gu gabetanik?».

Franzisko etzan benturatzen lazo biguñ aek urratzera, baña aitatu degun pasia ura ezkeru, are eta geiago bateratu zan Jaungoikoarekiñ, eta bere senide maite, pobreen miseriarekiñ. Arkiturik egun batean gerra gizon noble bat gaizki jantzia, argan ikusi eta amatu zuen Jesu Kristoren

pobreza, eta errukiturik, erantzita eman ziozkan bere soñeko ederrak, larruak estaltzeko. Jaunak nola ez baiduen utzitzen obra onik bat ere sari gabe, bialdu zion arratsean amets misteriozko bat. Franzisko arkitu zan bat batetan jauregi aundi batean, zeña zegoen gurutzearen señalearekin markatutako arma mota guziaz betea, eta galdeturik norentzat ziran armak eta jauregi ura, itz ots batek erantzun zion: «Zuretzat eta zure soldaduentzat».

Egun sentian jaiki zan amets artzaz arriturik, eta konfianza osoa Jaungoikoaren aginduetan jarririk; baña nola baizan oraindik asi berria Jainkoaren bide misteriozkoetan, buruan etzerabiltzian jazarre aundi eta garaipen ospatsuak baizik. Eta egiaz, orduko aldekoiak laguntzen ziozkatzen bere esperanzai eta gerra gauzetarako zeukan gustoari.

Zan 1206garren urtea. Berritu zan Guelfo Jibelinoen arteko anziñako despita Italiako eguerdi aldean, nun Brienako Konde Gautier IIIgarrenak Italiako lokabetasunaren buru egiñik, kendu nai zion Federiko Igarrenari bere mendean zeukan Napolesko erreinu ederra. Italia

osotoro lokabe edo besteren uztarpetik libre ikustea nai zuten guziak zeuzkan bere alde. Franzisko txit gogotik bildu zizaion, eta etxekoai agur egiñ, eta adiskideai beiñ eta berriz esanik iritxiko zala kapitan aundi bat izatera, joan zan prestamen ederrakin eta lanza eskuan bere serbitzuak eskeiñtzera denbora aetako gizonik nobleenekotzat zegoen Brienako kondeari.

Jaungoikoak norbaiti biotzera deitzen diorean aditzen ezpadio, alde egiten du ez geiago itzultzeko. Baña kontrara aditu eta obeditzen badio, obeditzeko moduan utsegingo balu, berak gaztigatzen dio, baliatuaz onetarako mundu onetako bidez edo mirarizko siñaleaz, argitzen eta giatzen du eskutik artuta bezela. Orixe gertatu zizaion gure zaldun gazteari. Bidea utsegiñ zuen, eta mundutik alde egiñ bearrean, zijoan beragana, orduan Jaunaren Probidenziak artu zuen bere kontura, eta millagro baten bidez aldatu zituen aren asmoak, erakutsiaz zer egin bear zuen. Lurreratu zuen, bada, Franzisko Espoletoko bidean, Damaskokoan Saulo lurreratu zuen bezela, eta adierazi zion beste ikusketa batean, lenbizikoan esan nai ziona. Loxustan

zegoela aditu zuen zeruko itz ots bat ziona: «Franzisko, nork eman dizakezu sari ohea, nagusiak edo serbitzariak, aberatsak edo pobreak?» «Nagusiak, aberatsak» erantzun zion. «Zergatik, bada, alde egiten dezu nagusi eta aberatsa dan Jaungoikoagandik, billatzeko serbitzaria eta pobrea dan gizona?». Eta Franziskok orduan: «Jauna, zer nai dezu egiñ dezadan?». «Zuaz zere errira, esan zion itz otsak, bada zuk izan zenuen ikusketak, gauz espiritualak ditu adierazten. Ez gizonak, ezpada Jaungoikoak egingo du zuk oik kunplitzeko modua».

Franzisko, Sauloren gisan makurtu zan Jaunaren borondatera. Onen erantzuera zan Apostolu aundiarenaren modukoa, eta saria izango da alakoa; ura bezela izango da ere Eleizako argia, desegiñgo ditu mundua inguraturik daukaten illunpeak, eta fedegabeen oituretara biurtu diran kristau errietara eramango du itzaltzen ez dan Ebanjelioko argia.

Emen batek ez daki zer geiago miretsi, edo Jaungoikoaren jakinduria, gogoratzean nola enpleatzen dituen bere perfezio guziak anima bat beretzat irabazteko libertadea kendu gabe,

edo galai zaldunaren obediencia azkarra, bada kentzen du bereala gerritik ezpata, eta utzitzen ditu buruan zerabitzkian ots aundi naieko ametsak sartzeko Kristoren soldaduzkan.

Egun sentian Franzisko, utzirik aurrera joateari, irten zan Espoletotik eta itzuli zan Asis bere errira, jendeen esamesak ezertan artu gabe, eta osotoro erabakia Jaunaren borondatea egiteko. Bere lagunak etorrera aiñ ustekabekoa-ekin arritu baziran ere, atsegiñ artu zuten eta nola etzuten batere sospitxarik, erregutu zioten izan zedilla pesta giari, lenago bezela. Egiñ zien beti bezelako arrera ederra, eta bilduerazi zituen azkenekoa izango zuen pesta batera. Eman zien bazkari aundi bat, baña aren ezpañetan ozta ikusi zan farra irrik, biotza zeukan askozaz gorago. Bazkal ondoan guziak irten ziran, eta bazijoazen parraz eta jolasian karrikak barrena, eta Franzisko pestako errege, zerraikien aginte zigorra eskuan zuela, eta anima pensamentu aundietan murgildua zeukala. Une artan jarri zizaion begietan zeruko ikusketa bat, eta inguratu zuen aiñ argi gozo eta indartsuarekin, non, geratu zan ez itz eta ez mugida gabe. Eta gero

au guzia konfesoreari kontatu zionean esan zion, eze, denbora artan gorputz guzia txex txex egiñ izan bazioten ere, etzuela deus sentituko; anbesteraño zeukan anima Jaungoikoarenganatu! Lagunak ikusi zutenean deskanatu, korrika joan zitzaizkan, baña laister etorri zizaion kontua, eta orduan beren jostaketari zerrai katela, galde-tu zioten ixeka gisan, ea zertan egon zan pentsatzen. «Edo ezkontzera al zoaz?». «Bai, erantzun zien, eta nere emaztea izango da aiñ ederra, aberatsa eta noblea, munduan parekorik egundano izandu ez duena». Eta ori esatean gogoan zeukana zan Ebanjelioko Pobreza, bere aurreneko senarra Gurutzean ill zan ezkerreko, alargun zegoena. Auxe zan aren Esposa, Espiritu Santuak agertu zion edertasun paregabearekin; esposa misteriozkoa, anbeste denboran gizonak despreziatua, zeñarekiñ zijoan bateratzera Franzisko urrateziñezko lazo sagraduakiñ, egiten zuela bere lagun bakarra, dama eta erregiña.

Agur egiñ zien betiko munduko arrokeriak, eta etxeko lanbideak al zuen guzia utzirik, billatu zuen bakartegi bat, ikasteko an nola iritxi zezakean Jaungoikoaren amorioaren perla pre-

ziosoa, zeñarekiñ betetzen zituen bere animako deseo aundienak, Jaunaren borondatearekiñ batean; zergatik gizonak graziaren mugida gozotan, desgraziaren kolpe gogorretan bezela, sentitzen du lagun artetik alde egiteko premia, osoro meditaziora emateko, zeña dan gauza bat santu bakoitzaren bizitzan ikusten dana, eta ala, munduko izatez gaindikako gauzen gobernuan Jaungoikoak segitu oi duen legea da; baldiñ Jaungoikoak aututzen badu anima bat, santu miragarria bera egiteko, bereizten du mundutik eta darama leku bakar eta iñork ez dakienera, beraren itza arretaz aditu dezan; bada turmoi gisako ujua egiñgo balioke ere, ez lioke adituko munduko arazo eta iskamillen artean.

Inguru artako arzulo batean arkitu zuen Franziskok ain deseo zuen bakartasun eta ixiltasuna, eta an zeramazkian egun osoak Jaungoikoari negar samiñakiñ eskatzen, arrokerian alperrik galdutako denbora barkatu eta giatu zezala onerako bidean. Utzi dezaiogun S. Buenabenturari kontatzen, nola pagatu ziozkan zeruak anbeste erregu eta orazio: «Besteetan baño orazio iraze-kiagoan eta osotoro Jaungoikoagan pensatzen

zegoen egun batean, agertu zizaion Jesu Kristo gurutzean josia, eta ikuste utsarekin aren biotza oñaze-amoriorz desegiñdu zan, eta alatan sillatu zizaion Pasio santuaren oroipena, non ordutan-dik eziñ pensatu zuen Jesus gurutziltzatuan malko ugariak ixuri gabe bere bizitzako azkene-ko urteetan berak aitortu zuen bezela».

Onerako bidean ere daude saillak, gaitzera-koan bezela. Iru berezitzen ditugu batezere S. Franziskoren bizitzan: lenbizikoa, pobrezaren ikusketa, bigarrena Jauregi eta Palazioarena, eta irugarren eta azkenekoa Jesus gurutziltzatuare-na, zeñak bukatzen duen aurreneko bietan asita-ko obra, zergatik onetan, zeruko argi erraiñu gozoen tartetik ikustean Kristo sufritzen, ikusi zuen edertasun, aunditasun eta osande edo per-fezio guziaren irudiera, beti bere animan josia idukiko duena eta egingo duen guzia aren antze-ra egiten alegiñean saiatuko dana. An ikusi zuen santutasuna, Jainko Gizonaren antzekoa izatea baizik ez dala, eta zer moduz iristen dan; kris-tauaren perfezioa edo on ona izatea, dagoela munduaren despreziotik asitzen dan tratuan, nork bere buruari gerra egitean, bere gurutzea

artu, eta Jesusi jarraitzean. Santuak au ondo eza guturik, ala egiñ zuen, egundaño atzeratu eta desalaitu gabe. Ordutandik ikusten degu kobazulotik maizago ateratzen dala, bai zeruko gauzen gañean itz egiteko geratu zizaion adiskide bakarrarekiñ, eta bai aritzeko piedade eta miserikordiazko obrak egiten.

Aren atsegiñ guzia egiten zuten gauzak ziran beartsuai dirua, jana eta jantziak ematea, atsekabetuen penetan part-artzea, utzi gabe iñor konsuelorik gabe, apaiz pobreak modu txit onakiñ sokorritzea, eta Sakramentu Santuaren begirunez, utziak zeuden aldareak jantzi eta apaintzea. Egiaz zan beartsuen aita, aita lenena, San Buenabenturak dion bezela. Aita etxean ez zanean, maia betetzen zuen ogiz otorduko denboran, eta galdeturik amak egun batean ea zergatik orrela egiten zuen: «Ama, Jainkoaren pobreakgatik, oek txit maite ditudalako» erantzun zion, aingeru-parra gozoarekiñ. Pikak begiratu zion amorio eta atsegiñtasunez, sentitzen zuela barrengo poz bat, ama batek egundaño sentitu etzuen modukoa.

Obra piadoso oek aĩñ bikañak izan arren, etzuten betetzen kristau perfezioaren zeukan irudia, ez ta ere mendetasun eta sakrifiziozko egarri irazekia. Franziskok zeukan guzia ematen zuen, eta bere burua ere eman nai zuen; baña noiz eta nola? Enura eta zalantza onetan zebillela gogoak eman zion joan bear zuela erromerian Apostoloen gorputz-obia bisitatzera, iritxi uste zuelako an pekatuen barkazioa eta zeruko argi berriak, bere dei edo bizi modua artzera erabaki eraziko ziotenak. Joan zan, bada, Erromara, eta belaunikaturik S. Pedroren obi aurrean, egon zan luzaro orazioan gure irakorleak pensa dezatekean arreta eta jaierarekiñ; eta altxa zanean oarturik zeĩñ eskasak ziran erromesen limosnak Eleiz galant ura egiteko, deadar egiñ zuen esanaz: «Zer! orrenbesteraño oztu da jendeen debozioa, izanik berak Apostoluen Buruaren erlikiak gordetzen dituen Eleiza altxa eta ornitu eta apaiñdu bear luketena besterik ez bezela Jesukristok jarritako Eleizaren zimendu arri dana?». Eta zeukan diru guzia bere zizkutik aterata utzi zuen marmolarrizko obiaren gañean. Andik irureun urtera S. Franziskoren deseoa bete zituen

beraren seme espiritual batek, Aita Santu Sisto Vgarrenak, emanaz azken esku edo bukaera Eleiz guzietan ederrenari.

San Pedrotik irten zanean ikusi zituen pobre asko limosna eske zeudela, eta aenganaturik trukatu ziozkan bere erropak zarpa zarrenak zeuzkanari, eta eseririk Eleiz atariko eskallera malletan, egon zan egun guzian limosna eskatzen pranzez izkuntzan. Egikera arrigarri onek esan erazi ziozkan Bosuet aundiari itz oek: «Ah! asi da Franzisko gordetzen Gurutzeko erokeria eta Ebanjelioko pobreza».

Bigaramonean etxeronz abiatu rik, laister itzuli zan Asis bere errira, nun itxedoten zion Jesu Kristok agertzeko bere borondatea artu bear zuen bizimoduaren gañean, eta grazi berezi bat egiten ziola, agertu zion, izanaz bera erakusle eta giari zerurako bidean. Zorioneko ikasle onek, bere aldetik arretaz jarraitzen zien maixuen maixuaren ikasbideai, eta jakiñik ez dala ondo Errege aundiaren ixill gauzak azaltzea, etziozkan iñori agertu bere konfesore eta anima giari Asisko Obispo Jaunari baizik.

Goiz batean Asisko murruetan pasean zebillela, Jaungoikoak gogargiturik sartu zan San Damiango Eleiza zar eta arrakatu, erortzeko zorian zegoenean. Etzan iñor arkitzen bertan, eta belaunikaturik Jesus gurutziltzatuaren kua-dro eder baten aurrean, esan zuen iru bider, gero aiñ maiz esan oi zuen orazio au: «Jaungoiko aundi gloriaz betea, eta Zu, nere Jesukristo Jauna, entzun itzatzu nere erreguak eta argitu nere adimentua. Indazu fede bizi, esperanza sendo eta karidade osoa. Egizu, nere Jaungoikoa, zu ongi ezagutu zaitzadala, ez dezadan beñere obratu zuk argitu, eta zuk nai dezun erara bai-zik».

Otoitz au egiñ bitartean, amorioz beterik eta negar malkoak zeriozkala zegokion begira Salbatzallearen imajiñari, eta ona non bat batetan Kristoren abetik aditu zituen iru bider itz misteriozko oek: «Altxa zaitez, Franzisko, eta konpon-du ezazu nere etxea, bada ikusten dezu erortze-ra dijoala». Gure Santuak etzezakean dudatu itz ots ura zerutikan zetorrela, eta ikaraz beterik egondu zan mugida gabe piskatxo batean, gizon eroriak berezko gauza du, alabaña, Jaungoikoari

bildur izatea. Laister beregandu zan, eta Jaungoikoaren agintea ondo ezaguturik, irten zan kunplimentu ematera. Eleizako atean arkitu zuen bertako apaiza, eta zeraman zizkua emanik, esan zion: «On Pedro Jauna, ar beza diru au Jesus gurutziltzatuaren aurreko lanparan argia jartze-ko». Eta aren errespuestari itxedon gabe, itzul-tzen da etxera, artzen ditu balio aundiko tela-pieza batzuek, eta aberean igorik, badijoa Foli-ñora, saltzen ditu zaldia eta telak, eta egiñdako tratu on aren dirua ematen dio S. Damiango apaizari.

Apaizak utzi zion Franziskori egun batzuetan Eleizan egoten, erregutu zion bezela, baña nola bildur baizizaion Bernandonen aserreari, etzion ofrenda edo limosnarik artu; orduan Santuak, lurreko autsari anbat kaso diruari egiten zionak, desprezios bota zuen Eleizako leio batetik.

Jaungoikoarengana benaz itzuli, eta osotoro eskeintzen zaion animak, pensa dezake bere kontra altxako zaizkala mundu-infernuen indar guziak, zeruko Maixuak esana daukan bezela: «Nere izena dala bide gorrotatuak izango zera-te» (Math. X, 22). Persekuzioa da Kristoren

jarraileen saria eta onra, eta onra berri au etzaio paltatuko noski Bernardonen semeari, etortzen zaiola aurrena bereetatik.

Zerbait denbora bazan Bernandon zebillela bere artu-emanetan Asistik kanpora; eta etxera itzultzean, ez al zuen jakindu bere semearen portaera, egiten zituen limosnak, eta guziaz gaiñ, artu zuen bizi modu berria, non aserre bizian sartu zan, eta etxeko batzuek lagun arturirik, joan zan San Damiango Eleizara. Aren pauso otsak eta uju keñadazkoak aditurik, gure gazte senzilloa, alako gauzetara oraindik oitu gabea bezela, bildurtu zan, eta bere burua gordetzeko joan zan apaizaren oe-gelara, eta aurrekoetatik datorren esaera batek dionez, Bernandon gelan sartzearekin batean, Franzisko itsatsi zan paretean, eta ala iges egiñ zuen millagroaz aita aserratuaren begietatik.

Aita eleizatik irten zanean, Franzisko joan zan ostera Jesus gurutziltzatua agertu zizaion arzulo artara; toki aren berri iñork etzekien etxeko morroi batek baizik, zeñak eramaten zion ezkuntuan bizirik irauteko ozta bear zuen janaria. An egon zan illabetean otoitzean, Jaungoikoari argi-

tasun eta laguntzak eskatzen, eta gorputza penitentzia latzakiñ eskuratu eta ilduratzen, bere gogoan San Damiano Kristoren itz misteriozkoak erabili, eta Jaungoikoak beragandik zer nai zuen jakiteratzen zan bitartean. Deabruak sumiñdurik, eskuetan zeukaten ura iges egiten zielako, askotan joan zizaiozkan an zeukan pakea galeraztera, eta gerra bizi bat egiñ zioten itzulierazotzeko ostera ia utzia zeukan munduaren uztarripera. Oraiñ oroituera ziotzen geiena palakatu zezatekean gauzak nola ziran pestak, bera giari edo errege zala egiten zituzten gau-billera atsegiñgarriak, gauza jakiña izanik onelako oroipenak zenbat dezatekean ogei urteko galai baten biotzean; oraiñ meatxatzen zuten arpegia itxusitu eta gorputza elbarrituko ziotela; Franzisko ordean, etzan erori sare oetan, ezpada egon zan irmo eta sendo egiñ ziotzen eraso guzietan. Azkenik erretiro artatik irten zan bere etsaiai arpegiz arpegi gogor egiteko, soldadu batek indar berritzen danean, armak ostera artzen dituen bezela asitako gerrari alimo geia-gorekiñ jarraitzeko. Sartu zan Asisen arpegi ubel zimurtuarekiñ, begiak erreak ixuritako negar

malko ugariakiñ, baña ez bildurti eta eroria, ezpada biotz aundi eta bulardetsuarekiñ Kristoren zaldun portitz bati zegokion moduan. Jendea, itxura artan ura ikustean, geratu zan arritua, ixilik eta kupitua, baña nola baidan itxas bagak beziñ mudakorra, laister asi zizaion ujuka, parra eta burlaz isekatzen, arri eta lur tiraka, lenago ainbeste naitasun agertu zion, eta txaloka artzen zuen ari berari. «Txoratu da!» zioten guziak, eta, gauza arrigarria! bere adiskideak ziran ixekatzera aurrena joan zitzaiozkanak. Baña Franzisko zijoa soseguz infernuko iskamilla artan, aen garraxiai erantzuten ziela ixiltasunarekiñ, injuriei barkazioarekiñ, eta gorrotoari bere karidade irazekiarekiñ. Erotua zegoen, ez aek uste zuten bezela, ezpada gizonak salbatu zituen gurutzeko erotasunarekiñ.

Denbora asko baño len jakindu zuen Bernardonek gertatzen zana, eta berri ura izan zan berarentzat labana ziskateko bat bezela, eta ala izan bear zuela edozeñek ezagutu dezake: zergatik, zeñ guraso da bere semea jendeen parregarri ikusita ontzat eramaten duena? Bernardon, bada, joan zan plazara, ez Franzisko jende

uen artetik gorde eta libratzeko asmoarekiñ, ezpada berak *eskandaloa* deitzen zuena ebakitzekoarekiñ. Arrabiz beterik eta arpegia suturik ezarri zizaion Franziskori, otsoa arkume gaxoari bezela, eta ezeren begiramentu gabe kolpatuaz eta lotsagabekeriak esanaz, agindu zion utzi zezala alako erakeria, eta ikusirik etzala biguñtzen ez keñada eta ez erreguetara, eraman zuen etxera, eta sarrerazi eskallerapean zegoen gordarte txar batean, esanez, etzuela andikan libratuko, alik eta bizimodu ura mudatzen etzuen bitartean. Eta Santuaren lagunak au kontatzean diote, gogortasun oek guziak etzutela serbitu, santuaren birtutea sendotu eta argierazitzeko baizik. Aitaren injuriei erantzuten zion ixiltasun eta pazientzia aundienarekiñ, zeren uste zuen zorionekoa zala justiziagatik sufritzen zegoenean, eta bere deseo bakarra zan Jaungoikoaren naia egitea, argatik aitari askotan esan bear izan zion Apostoloak Jerusalengo agintariai erantzun ziena: «Obea da gizonai baño Jaungoikoari obeditzea».

Oraindaño eztegu egiñ, gertaera au Santuaren denborako kondairatzalleak dioten bezela

kontatzea baizik, baño badago emen puntu bat ukitu ez deguna, eta argitzea txit konbeni dana. Ona emen, *Zertan da kargu artzekoa Bernardonen portaera, eta zer erantzuki dauka gertaera aetan?* Emango degu gure iritzia llanoro, alde batera baño bestera geiago makurtu gabe kondairatzalleari dagokan eran; eta ala diogu, Bernardonen gaizkia dagoela bere semearen bokazioari setaz eta bidegabekiro eragozpenak jartzean. Bokazioa! au da itz kristau bat esan nai duena «zerutikako deia», da itz bat giza-bizitzaren misterio ezkutatuenetakoa gordetzen duena. Jaungoikoak ematen du, eta naiz izan dedilla munduan geratzekoa, naiz erlijioan sartzekoa, gauza bearra da berari obeditzea. Dei oni ondo edo gaizki erantzutetik dator gure betiko patua beste munduan, eta emen jendeen arteko pakea edo naspilla, zoriona edo gaizki izatea. Giza-elkartasuna ez da martizti bat, nun gerrari bakoitzak gorde bear duen Jaungoikoak para dion tokia? Eta toki au utzitzen bada, zer besterik itxedon bear degu naspilla eta elkarren arteko konpondu eziña baizik, egungo egunean geron begiakiñ zorigaiztoan ikusten degun bezela? Gai

onetan gurasoak Jaungoikoaren laguntzalle eta ordezeko batzuek baizik ez dira, eta ala eskubide eta egiñ bear bat bakarra daukate, zeña dan, giatu eta probatzea beren semeen deia, eta beiñ ezagutu ezkeru, lagundu bear diote, ala bear bada, baña ez kontra egiñ egundaño. Franziskorena ezagutua zegoen, Jaungoikoak alabaña argiro agertu zion, esan zionean San Damiano Eleizan: «Franzisko, zoaz, konpondu ezazu nere etxea, bada erortzera dijoa». Gure Santuak obeditu zion, bear zuen bezela, eta bere aitak gelditzen duenean, zeruko deia aintzakotzat artu gabe, eta itxian sartzen duenean, aren bizimodu berria familiaren desonra dalazko apukoarekiñ, zeru lurretako Jaun eta Jabeari kentzen diozka bere eskubideak, argatik kondairak konzienziarekiñ batean kondenatzen du aita, guraso eskubideaz gaizki usatu zuelako. Gañera, zer erokeria, Jainko guzaldunaren borondatearen kontra joatea! Despita aiñ desberdiñ onetan Bernardonek bentzutua izan bear zuen, eta ala izan zan.

Eztakigu zenbat denboran egon zan Franzisko itxian (badirudi bi illabete bezelatsu), baña bai libratzeko zer moduz baliatu zan Probidentzia.

Franziskok zeukan trataera gaiztoarekiñ anbat sufritzen zuen Pikak bere ixillean, eta amaizateak ematen zion eskubidearekiñ saiatu zan pakeak egitera aĩn maite zituen bi persona aen artean. Bernardonengandik asi zan aurrena, baña onek etzion aditu nai izandu ere; etzuen orregatik esperanzarik galdu, eta zuzendu zan presoarengana. Senarra etxean etzan egun batean sartu zan semearen ziegan, eta jolas aldi batean saiatu zizaion alegiñ guzian, arren, biur zedilla lenagoko bizimodura. Artarazitzeko enpleatu zituen ama kariñoso batek dakitzian bide guziak, baña aren negar, palagu eta losentxa guziak izan ziran alperrak; bada amaren soma al guziari preso santuak aurkaratzen zion Jaungoikoaren borondatea, San Damiango imajiña millagrozkoren bidez agertua.

Azkenik Pikak ezagutu zuen arako Jaungoikoak emakumeai eman dien argi bereziarekiñ, Franziskoren bokazioa zala zerutikakoa eta egiazkoa, eta beregan pensaturik zeĩn gaizki egingo zuen baldiñ bazijoan Jaungoikoaren kontra, artu zuen preso libratzeko asmo zentzuzko beziñ arrisko aundikoa. Ebaki ziozkan lotua zeu-

katen lokarriak, idiki zion presondegiko atea, eta laztan gozo bat emanik utzi zion libertade guzian jarraitzeko Jaungoikoak deitu zion bidea.

Pikak egiñ zuen ori ama, eta ama kristaua zan bezela. Franziskok bere libertadeagatik eskerrak eman ziozkan Jaungoikoari eta amari, eta itzuli zan bereala San Damiango Eleizara. Bernardonek etxeratzean, aserre bizian eraso zion emazteari, esanaz: «Zergatik askatu dezu zure semea? Ez dezu ikusten bere eman geiegia-kiñ ondatzen, eta bere erokeriakiñ desonratzen gaituela? Nerau joango naiz aren billa, eta erakarriko det etxera, edo erbestetua izango da». Eta au esanda bereala, joan zan San Damiana. Eta munduan ondo ikusia izateagatik gastu aundi eta alperrak egitea ontzat eman ezezik, Briena-ko kondearen mendean gerra egiteko luju aundi-ko tresnaz zaldia ornitzea Franziskori gogo onez utzi zion aita onek berak, eziñ eraman zuen bere semeak Jaungoikoarengana biurtu zanean, aren serbitzuan iraun eta limosnak egitea.

Gure santuak txanda artan etzuen iges egiñ, aurreratu zizaion aitarengana, eta aditurik eman ziozkan espak, erantzun zion errespeto aundia-

rekiñ: «Utzi itz gogor eta keñadak, bada ez didate mellarik egiñ bear; erabakia nago sufritzera guzi guzia Jesu Kristogatik».

Aitak ikusirik aren biotzeko irmotasuna zala itxas bagak desegiten dituen arroka bezelakoa, etzuen pensatu saldu ziozkan tela eta zaldiaren balioa kobratzea baizik, eta billaturik an Franziskok leiotik botatako dirua, bereala artu eta atera zan penaz eta sumiñdurik, uste zuen anbat iritxi etzuelako. Etxera bidean gutiziak gogoraerazi zion beartu bear zuela Franzisko utzierazotzera legez tokatzen zizaion seni-partea, eta tentazio oni leku emanik, deitu zuen Juezetara, eta oen barruti edo mendekoa etzalako, Asisko Obispo Jaunaren aurrera.

Gido Sekundi orduko Obispo Jaunak deitu zion bere Tribunalera; eta aditzera ematera joan zitzaienai, esan zien: «Bai, ni joango naizaio Obispo Jaunari, bera dalako animen aita eta artzaia». Obispoak Franziskoren birtuteen berri lendikan bazekien, eta artu zuen juez gogor baño obeto aita biguñ batek bezela, eta esan zion: «Ene seme, aita oso aserratua daukazu, itzuli zaiozu bere dirua. Para ezazu konfianza

Jaungoikoagan, zabilta zuzen, eta ez izan eze-  
ren bildurrik, bada Jaungoikoa izango dezu  
laguntzalle, eta emango dizu Eleizaren onerako  
bear dezuna».

Itz oekiñ alaiturik, altxa zan Franzisko, eta  
Espiritu Santuak goiargituta bezela, erantzun  
zion onela: «Jauna, guzia biurtuko diot aitari,  
baita jantzita daramazkidan soñekoak ere». Eta  
beste gela batera joanda erantzi zan, eta gorpu-  
tza zilizio latz utsarekiñ estalia zeukala, bota  
zituen arropak Obispo Jaunaren oñetara, begira  
zeudenak ikaratzeraño deadar egiñaz: «Entzun  
eta jakiñ, oraindaño Bernardoni deitu diot aita,  
baña gaurdandik agitz goitik esan dezaket: Aita  
gurea, zeruetan zaudena, zugaran utzi ditut nere  
ondasunak, eta para nere esperanzak».

Pasarte arrigarri aren testiguak biotz aunditu-  
rik negar egiten zuten, Obispo Jauna ere kupitu  
zan, negar malko lodiak begietatik ixurtzeraño,  
eta kataberatik jetxirik, estali zuen bere mantua-  
rekiñ, idukiaz laztandua denbora luzean. Sakrifi-  
zio aiñ aundi onetatik ezagutu zuen Pikak beze-  
la, Jaungoikoak giatzen zuela gazte ura oi ez

bezelako bideetatik, eta aditzera emanik biotza irabazi ziola, aseguratu zion bere laguntza guzia.

Ekarri zioten Obispoaren morroi zegoen baserritar baten kapusaia, Franziskok artu zuen esker onez, eta gañean morteroarekiñ gurutzea egiñda jantzirik, aldendu zan andik, guzia utzita, danik pobreena baño iñor baño alegereago, Jaungoikoa beste anparu gabe, Jaungoikoagan bestetan esperanza gabe, eta Jaungoikoaren amorioz emango ziotena beste gabe. O zer malkirot edo galera ederra egiñ zuen orduan merkatarari onek! Ongi merezitua zuen aren izena itzkribatua izan zedilla Ebanjelioko beartsuenen artean, bizitzeko geroztandik Jaungoikoaren Probidenziako ondasunetatik. Au gertatu zan 1207garrengo apirillean, Franziskok ogeita bost urte zituenean.

Andik lareun urtera erakai berak ekarri zuten beste gertaera bat kontatu degunaren txit antz aundikoa, eta nola serbitzen baiduen gure iritzia-ren argitasun geiagorako, esango degu gertatu zan bezela. Beste S. Franzisko bat, S. Franzisko Saleskoa, otxana, maitagarri eta zelotsua gure Asiskoa bezela, oraindik apaiz ordendu berria,

bialdu zuen on Klaudio Garnier Jinebrako Obispo Jaunak Chablesko misio arrisku aundikora. Beraren aita Boisy jaunarentzat izan zan berri au erio kolpe bat bezela; eta ikusirik eziñ bentzutu zuela misiogille gaztearen irmotasuna, eta eziñ etsirik bera gabe egotera, eraman zuen ere Obispo Jaunarengana, eta aren aurrean belaunikaturik, itz kupigarrienakiñ esan zion: «Jauna, nere etxearen esperanza eta nere biziaren eta zartzaroaren poza dan seme au nai izan det apaiz egiñ eta izan dedilla konfessore, au da, Ebanjelioaren gordetzalle guztiz leial bat, baña eziñ det eta ez det nai martiri izañ dediñ, eta bialdu dezala berorrek arategira larrutzerako dijoan bildotsa bezela». «Oroitu zaitez, erantzun zion Obispoak, biok S. Franzisko Asiskoaren izena daukazutela, eta begira ez dezazun beartu zure semea bere patroigloriatsuak egiñ zuena egitera, gure aurrean erantzi eta arropak zuri ematera, bilostasun onetan jarraitzeko Jesus gurutziltzatuaren bandera».

Orduan semea auzpeztu zan aitaren oñetan, erregutuaz, arren, bere baimena eman zeiola, baña etzuen iritsi. «Zaude seguru, esan zion,

lanbide orretarako ez baimenik eta ez bendizio-rik, egundaño emango ez dizudala». Eta penaz beterik erretiratu zan Salesko bere gaztelura. Baña gero, bere semeak misioetatik atera zituen frutu aundiak aditu zituenean, idiki zituen begiak ezagutzeko beraren bokazio egiazkoa, eta alabatu zuen beste guziak bezela; eta uste degu ori bera gertatuko zizaiola Bernardoni, kondairak gai onetan ezer esaten ezpadigute ere.

Bernardonek eta Boisy jaunak beren semeakiñ egiñ zutena, da guraso geienak beren semeakiñ egiñ oi dutena. Ez dute ontzat ematen aen bokazioa, nun eta aengan artu dituzten asmoai, edo aekgandik atera uste dituzten irabaziai ez dien erantzuten, berak nai bezela; Jaungoikoa baztertzen dute, berazaz oroitzen ere ez dira.

# Ilgarren Bereziera

*Legenartsuak. Franziskok konpontzen ditu iru Eleiza. Santuaren zerutikako deia.*

(1206-1209)

Franziskok, Obispo Jaunaren etxeko pasartea ezkerre ikusirik bere burua libre eta ezeren eragozpenik gabe, billatzen zituen toki erritiratuenak Jaungoikoaren itz otsa obeto entzuteko. Maiz joan oi zan Asis inguruko baso eta mendietara, eta Jainkoaren amorioan sutua zeukan biotz irazekiarekiñ kantatzen zuen pranzez himnoakiñ txandaka, Dabid errege santuaren esker onezko salmo au: «Eskerrak, Jauna, nere kateak urratu dituzulako; ordañez eskeñiko dizut alabanzazko sakrifizioa, eta bedeinkatuko det zure izen santua».

Beiñ batean billatu zuten lapurrak, eta galde-tu zioten: «Nor zaitugu?». «Errege aundiaren aginte eramallea» erantzun zien; «Eroa da!» deadar egiñ zuten lapurrak, eta kupida gabe kolpatu ondorean, bota zuten elur-zulo batera, esanaz: «Zaude or, Jainkoaren aginte eramalle tta-

ttarra». Aek alde egiñ zutenean irten zan elur-zulotik, eta pozez beterik, asi zan berriz ere lengo kanta eta errezoetan; eta joan zan limosna billa an aldean zegoen konbentu batera, nun egon zan egun batzuetan sukalde-lan bilutsenak egiten. Andik igaro zan Gubiora, eta an ikusirik aurtasuneko lagun batek aiñ mixeri aundian zarpa zar batzuek baizik gabe, kupitu zizaion, eta eman zion erumatarren jantzi bat, au da, tunika motza, larruzko ubala, zapatak eta esku-makilla; penitenziako jantzi onekiñ laister ikusiko degu nola ematen dan Franzisko pobreen serbitzura, baña batezere legenartsuenera.

Legenar gaitzak gure denboran ia osoro alde egiñ badu ere, konbeni da jakitea zer zan bera denbora aetan kristau errietan.

Gaitz nazkagarri, gorputz guzia sorna pilla odoltsuz betetzen duen au zan orduan kiratsua eta sagradua: kiratsua, kutsatzen zuelako, eta sagradua, Testamentu Zarrean eta Berrian gauza misteriozkoak berak adierazten dituelako. Isaias profetak etzuen irudikatu Mesias, Jaungoikoak legenarrez zauritu eta humildua bezela? Eta Jesusek berak, etzuen iduki beti legenar-

tsuen errukimentu aundia? Bildurra eta benerezioa, ona emen fedezko denbora aetan kristauak zeuzkaten sentimentuak. Eleizak, ama biguñ eta kupikor onek antolatu zuen errezo berezi eta txit biguña legenartsuentzat. Erregutzen zuen aekgatik, eta zeremoni aetako orazioetan ikusten da eriotzako tristura, eta erlijiozko profesaren alegeranza. Apaizak, *gaizki daudenen meza* emandakoan, bedeinkatzen zituen legenartsuak bere serbitzurako bear zituen ontzi eta gañerako gauzak, eta eramaten zuen prozesioan bakardadean bizi bear zuen txabolara. Txabola gañean botatzen zituen iru palakada lur, Kanpo Santutik eramana, legenartsuari esanaz denbora berean: «Ill zaitte mundurako, eta jaio berri Jaungoikoarentzat». Gero erregutzen zion gaitza eramatera pazienzian, eta Jaungoikoarengana osoro menderaturik, aseguratuz munduko Eleizaren sokorru eta orazioak izango zituela, eta ikusierazoaz zerukoan zeuzkan atsegiñak. Azkenik atean zurezko gurutze bat, eta andikan zijoazenak limosna botatzeko kutxatilla bat jarririk, guziak alde egiten zuten. Kristoren piztueraren oroipean, Pazkuetan bakarrik irten zitezkean lege-

nartsuak karzela gisako toki artatik, eta ibili libreki erri aundi eta txikietan partartuaz kristauen poz kontentuan. Errukarri aek bazituzten beren konsueloak zeramaten bakardadean, eta bai gozamenduak ere beren oñazeetan. Etzitzaioten eragozten komulgatzea, komunio santua animen janari dalako, eta ez berezi ere beren emazteakgandik, Jaungoikoak bat-egitiñ dituenak gizonak berezi bear ez dituztelako; eta zauri nazkagarri aek ikuste utsak berak aldegiteko zalea ematen bazuen ere, sortuarazten zuen kristauen biotzetan aenganako benerazio gisako gauza bat; eta ala deitzen zitzaien «Jaungoikoaren eriak» eta «Jaungoikoaren pobretxoak». Obispoak zeukaten aen mantenuaren kontua, eta begiratzen zien beren kargu onragarrienari bezela. Fededunak iruditurik aen arpegi ubel ori odoltsuetan Jesu Kristoren arpegi adoragarria, etziran igarotzen aekgandik limosna eman eta aen orazioetara gomendatu gabe. Aundizki eta dama nobleak zeukaten onratzat aen zauriak sendatzea, eta are arrigarriagoa dana, Eleiza bera zan aen serbitzurako zaldun-donzellen billerak egite-ratzen zituena, San Lazaroren zaldunena, bere

buru maixutzat legenartsu bat zeukana, eta San Juan Limosnagillearen ospitaleko donzellaena.

Legenartsuen edo Jaungoikoaren pobretxoenganako jaiera au zabaldu zan ixurria bera bezela sort-aldetik sart-aldera. Gurutzadeko gerra denboran gaitz au jendeak ondo ezagutua bazeukan ere, Franziskok konbertitu zan aurretik eziñ ikusi zuen legenartsu bat, begiratze utsarekiñ barren guzia irabiatu gabe; eta txit arrigarria da ikustea zer moduz zuzendu eta eskolatu zuen gure Jaungoikoak, aren izaerazko ondarkiñetatik altxatuaz bere graziatzko erreinua.

Jaungoikoarekiñ izan zituen aurreneko traetaerak gertatu ziran 1206garren urtean. Espoletoko ikuskeratikan laixter, eta Obispoaren jauregiko pasarte baño urte bete lenago, gure santuak aditu zuen, otoitzean zegoela, zeruko itz bat ziona: «Ene seme, nere naia jakiñ nai badezu, despreziatu eta gorrotatu bear dezu aragiaren aldetik nai eta estimatu dezuna. Eta etzaitezela miretsi santutasunezko bide berri onezaz; zergatik gustokoak ziñituen gauzak, samiñak izan bear bazaizkitzu, miñkaistzat zenduzkanak izango zaizkitzu txit gusto eta atsegiñezkoak».

Denbora asko baño len izan zuen bere Maixu Jainkozkoaren erakustea egiteratzeko egokiera. Aisisko ibar zabalean zaldiz zijoan batean, ona non ikusten duen legenartsu bat datorkiola. Ustekabeko topo onekiñ guda bizi bat igaro bear izan zuen bere barrunbean. Lenbizi bururatu zizaiona izan zan andik alde egitea, baña berea-la oroiturik egunetik egunera obetzeko asmoa artuta zegoela, eta nork bere burua bentzutzea dala garaipenik aundiena, jetxi zan zaldi gañetik, eta sentitzen zuen goragaleari gogor egiñik, alderatu zizaion eriari, eta eskuan muñ egiñda eman zion limosna. Berriz zaldigañeraturik itzuli zan ostera legenartsua ikusteko, baña, o gauza arrigarria! aren begiak etzuten geiago ikusi, eta arkitu zan bera bakarrik kanpo zabal artan. «Gizonen Salbatzallea askotan agertu izan da legenartsuen itxuran» pensatu zuen beregan, eta poz aundiarekiñ belaunikaturik, asi zan kantatzen Jainkoaren alabanzak. Orduan sentitu zuen bere burua osotoro mudatua, besterik bazan bezela, eta ala, gertakari aren oroipena ondorengoai utzitzeagatik, bere testamentu edo atzenaiaren aurrenean izkribatu zuen: «Egun ura

ezkeroz samiña iduritzen zizadana, biurtu zizadana gozo ala gorputz nola animarentzat». Nork bere burua orrela bentzutzen duenak, mundu guzia menderatzen du, eta aurreneko garaipena osoa danean, geroeneko segurua da.

Alaz guziaz ere, gure santuak etzuen oraindik mundua osoro utzi, bada bere burutazioak eta lurreko interesak eragozten zioten benaz birtutezko bideari jarraitzea; baña bere senipartearen errenunzia urrengo urtean (1207) Obispo Jaunaren aurrean egiñ zuenean eman zien libertatea sakrifiziozko eta mendetasunezko deseoi. Ikusi degu nola Obispoaren etxetik irtenda joan zan Gubiora; an bere atsegiñ guziak ziran legenartuen ospitalean bityzea, eri errukarriai kontu egitea, oñak garbitu eta zauriak sendatzea, muñ egiñaz danik nazkagarrienak izan arren. Era one-tan prestatzen zan animen sendagiñ zerukoi izateko; eta Jaungoikoak saristatu zion karidade au emanaz millagroak egiteko doaia.

Ona emen aurrenekoa, eta benturaz egiñ zituen guzien artean bikañena: «Espoletoko probinziako gizon batek zeukan arpegian miñ bizi aiñ izugarria, non artu ziozkan ao eta masallak;

alperrik joan zan sendagiñ sonatuenetara, alperrik promesaz Erromako San Pedrora, miñ biziagero eta geiago zijoakion azitzen; Franzisko Asiskoaren gañean itz egiten aditurik, artu zuen bera ikusteko asmoa, eta arenganatu zanean, belau-niko jarri izan zizaion, Franziskok ordea, etzion utzi, eta besarkaturik, musu eman zion arpegian; eta, o gauza arrigarria! Santuaren ezpañak ez al zioten ukitu, miñ biziak alde egiñ zuen, eta gelditu zan osoro sendatua. Egiaz ez dakit nik gertaera artan zer geiago miretsi, musu emate ura edo sendaera.

Legenartsuenganako jaiera biguñ eta bizia, da Franziskoren on biurrera adierazten duen señale berezia, bizi guzian gorde eta bere Ordena guzira zabalduko duena: itz batean esateko, aren ejemploa konbentuetako ormak eta Unbria-ko mugak igarorik, banatuko da alde guzietara urriñ gozoko likurtaren gisan, pizkortu eraziaz munduan bizi diranen debozioa. Anima asko eta askok jarraituko dituzte aren pausoak, eta Franziako Luis IXgarrena, Inglaterrako Enrike IIIgarrena, Isabel Ungriakoa, Anjela Foliñokoa, Katalina

Senakoa eta beste zenbat ikusiko dira onratzat daukatela «Jaungoikoaren eriak» sendatzea.

Franzisko, uste danez, etzan egon Gubioko legenartegian illabete baizik, biurtuaz osteras Asisko urira 1207garren urteko maiatzean. Jesus gurutziltzatu millagrozkoren itzak beti belarrietan zeuzkan, eta bazeritzaion, San Damiango Eleiza konpontzeko eman zizaion ordena kunplitu bearrean zegoela.

Sartu zan bada Asisen, anziñako profetak Jerusalenen bezela, eta asi zan predikatzen karrika eta plazaetan Jaungoikoaren aunditasuna eta Eleizaren neke-naigabeak, eta eskatzen ziezten arriak, Jaungoikoaren amorez esaten ziela senzilltasun guziarekiñ: «Arri bat ematen didanak sari bat izango du, bi ematen dizkidanak, bi izango ditu, iru ematen dizkidanak, iru». Arrigarrizkoa izan zan uri guzian egiñ zuen mugida; etziran orde berdiñak guzien sentimentuak; batzuek egiten ziozkaten burlak eta bidegabeke-riak, besteak pasatzen ziran kasorik egiñ gabe; eta beste batzuek pensaturik bizi-mudantza ura Jaungoikoaren obra zala, laguntzen zioten beren esku-lan edo limosnakiñ San Damiango Eleiza

konpontzen. Esker igualarekiñ artzen zituen limosnak nola injuriak, limosnak Eleiz-lanak aurreratzeke, eta injuriak bere animaren onerako. Orduan ikusi zan aiñ eroso azitako galai au, obrarako bear ziran gaiak eramaten bere bizkar gañean peoiak bezela. Lan egiten zuen deskanstu gabe, eta nola zeukan gorputza barau eta penitenziakiñ nekatua, pixu txikienarekiñ makurtzen zizaion. Eleiz artako apaiz on Pedro urrikaldu zan arzaz, eta ezer gitxi bazeukan ere, pres-tatzen zion eltzekaria illumabarrenetan; Franzis-kok aurreneko egunetan artu zion, baña gero ziozan bere buruari, etzituela topatuko toki guzietan ark beziñ ongi artuko zuten apaizak; etzala ura berak aukeratu zuen pobreza, eta ala atez ate ibili bear zuela katillu batekin, eta artu ematen ziozkaten kondarrak, eta orrela bizi bear zuela, arako pobre jaio, pobre bizi, pobre ill, eta besteren mandirean bilduta obiratua izan zana-ren amorez. Biaramonean asi zan eskean ethez etxe, eta eseri zan karrikan bildutakoa jateko eskaleak egiten zuten bezela. Katilluan anbeste eltze-kondar mota batean ikusteak nagatu zuen, ustekabean begiak itzultzeraño, baña oartu zan

beziñ laixter bere barrenari gogor egiñik, asi zan jaten gogoz, eta gero aitortu zuen, etzuela izan egundaño jaki gustoagokorik. Arratsean on Pedrori esan zion alegere, billatu zuela gauz bil-tzalle eta jan-maneatzalle bat bestek ez bezela jana prestatzen zekiena.

Oraindik, azkenengo aldiz bederik itz egiñ bear degu Bernandonen gañean, ez ordea bera- ren onran. Nola ez baizuen ezagutzen graziaren deirik, eta ez gurutzeko erokeria santurik, eziñ eraman zuen iñola ere ikustea bere semea eska- le moduan eta jendearen farragarri egiñik. Bidean topo egiten bazuen, alde egiten zion kopeta aserratuarekiñ, eta noizbait biraua ere bota zion. Pensatze utsak biotza naigabetua uzten du! Jaungoikoak etzituen noski ontzat ematen guraso aren birauak, bada zauritzen zuten biziro semearen biotz biguñ eta kupera anbesteraño non, andikan askoz geroago enura- tzen zan modu onetan: «Izandu ditudan eraman bear guzietan, ura izandu nuen samiñena». Pena aiñ aundiaren gozamendurako, agure pobre bat billaturik, esan zion: «Izango naiz zure seme, eta aragiaren aldetik nere aita danak birau egiten

diran bakoitzean, zu, nere aita ordekoak bedein-  
katuko nazu». Eta agureak gogo onez obeditu  
zion.

Angel, Franziskoren anaia bakarrak, badirudi  
gurasoen interesakiñ batean beretu zuela aita-  
ren gogortasuna, ondorengo gertaera onetan  
ikusten dan bezela. Neguko goizgiro gogor  
batean gure doatsua arkitzen zan Eleizan otoi-  
tzean, eta nola etzeukan eremutarren jantzi txar  
bat baizik, zegoen otz-ikarak ortzak dardar egi-  
ten ziotela. Angelek andik pasatzean, esan zion  
burlaz aldamenean zeukan lagunari: «Galde  
zaiozu ea izerdi tanto batzuek saltzen dituen».  
«Ez, santuak erantzun zion, nere izerdia ez diet  
nik gizonai saltzen; saltzen diot Jaungoikoari  
askozaz prezio obean».

Anbeste pruebaren artean Franziskok jarrai-  
tzen zion bere obrari, uso tortolak toki bakarrean  
bere umeentzat kabia egiten duen moduko  
pozarekiñ, andikan igarotzen ziranai esanaz:  
«Atozte lanean laguntzera, bada emen egongo  
da dama pobreen konbentu bat, zeñtzuen bizi-  
tza santu eta birtuteakiñ onratuko duten Aita  
Zerukoa Eleiza guzian». Profezi edo aurrez-esan

au bete betean gertatu zan andik bost urtera Santa Klara eta bere lagunak San Damiano Eleizan jarri ziranean. Orrela lana eginda, orazio eta pobreza aundienean bukatu zuen 1207garren urtean, eta San Damiano Eleiza konpondu beziñ laister, ekiñ zion Asisko atietan zeuden beste bi Eleiza konpontzeari. Bata zan San Pedrori konsagratua zegoena; eta nola baizan Apostoluen buruaren guziz debotoa, 1208garren urteari asiera eman nai izan zion Eleiz onen berritzearekiñ, zeñaren lanak txit denbora laburrean bukatu zituen orretarako bere erritarrak eman ziozkaten limosna ugariakiñ. Bestea zan kapilla pobre eta anziñako bat. 352garren urtean Palestinatik etorritako eremutar batzuek egiñik, eta seigarren eunkiaren erditik aurrera praile Benitoak bertan biziturik, deitu zizaion aurrena Santa Maria Josafatekoa, Ama Birjiñaren obi edo sepulturako erliki prezioso bat bertan gordetzen zalako; gero *Porziunkula*, Subasoko Benitoen lurraren partetxo batean zegoelako, eta geroago Ama Birjiña Aingeruena, zeruko agerkerak bertan maiz gertatu oi ziralako. Lenagoko denboretan bertara zijoazen erromesakgatik sonatua

izan bazan ere, orduan nola baizegoen osoro utzia, pixkaka pixkaka erortzen zijoan, eta etzuen serbitzen eguraldi gaiztoetan artzai-artaldean estalpetzat baizik. Gure santuak enpleatu zituen Eleizatxo au lenagoko oñean ipiñtzeko, bere zelo irazekiak somaerazotzen ziozkan neurri guziak, eta 1208garren urtearen bukaerarako, iritxi zuen konpondu ezezik lenago beziñ apaiñdua utzitzea.

Konpondu zituen iru Eleizetan maiteena zuen Porziunkulakoa, au zan bere erregutegi eta bizilekua. Aingeruen Erregiña bitartekotzat arturik, belaunikatzen zan bere imajiñaren aurrean erregutuaz gau ta egun ezaguerazo zeiola jarraitu bear zuen Ebanjelioko perfeziozko bidea; zergatik amar urte aetan graziaren mugida guziak egiaz segitzen bazituen ere, etzuen oraindik ezagutzen bere bokazio egiazkoa, lenago iñor ibili ez dan itxasoetan batere bildur gabe mariñel bat sartzen dan bezela portua billatzera bere ontzia aseguratzeko. Jaungoikoak berak erakutsi zion portu deseatu au, ara nola.

1209ko otsaillaren 24ean Franzisko zegoen belauniko entzuten Porziunkulako erregutegian

Apostoluen onran beraren enkarguz on Pedro ematen zegoen Meza. Ebanjeliora zanean, apai-zak irakorri zituen itz oek: «Ez ezazute eraman zizkuan urre, zillar eta beste dirurik, ez ezazute iduki sakurik, ez soñeko bi, zapatik eta eskumakillarik». Itz oek argitu zioten bere entendimientua, ezagutu zuen bere portua zala erlijiozko bizitza, eta bere bokazioa apostoluen pobreza. «Au da nik billatzen nuena, au biotz biotzetik deseitzen nuena!» deadar egiñik, bota zuen bere zizkua, zapatak eta makilla; eta auts koloreko tunika basto bat jantzirik, lotu zuen gerria soka batekiñ, eta oñutsik, abiatu zan Asisa penitentsia predikatu eta Jesu-Kristorentzat animak irabaztera. O Jaungoikoaren itzaren indar miragarria! Irugarren eunkian San Antonio Ijitoar nobleak aditu zuen Ebanjelioko pasarte au: «On ona izan nai badezu, dezun guzia saldu eta emaezu pobrei» etaonseju au jarraiturik, iritxi zan sortaldeko monje edo praille bakartarren aita izatera. Andik amar eunkira Franzisko Asisko merkatari aberatsaren semeak, aditzen du irakorten Ebanjelioko beste pasarte bat, eta sentiturik bere anima graziak menderatua, egiten

da Sartaldean erlijiozko bizitza perfektoenaren aita. Egun artan esposatu zan egiaz Probreza santuarekiñ, eta jaio zan Erlijioso Txikiagoen ordena.

Franziskok bere lenbiziko predikuetan izan zuen, eskean asi zanean bezelako patua, bildu zituen beretzat injuri asko, eta Aita Zerukoarentzat anima banaka batzuek, baña guziz ederrak, laixter ikusiko degun bezela. Ala segitu zuen bi illabete aldean, partitzen zuela denbora orazioan eta predikazioan, eta San Damiano apaizak jaten ematen ziola.

Ordutandik Ama Birjiña Aingerueneko Eleiza-txoari zion gure santuak jaiera berezia. An egoten zan meditatzen soseguz eta naierara Jesu Kristoren Pasio txit santua; an bere biotza zabaldurik eta bere Jaungoikoaren neke oñazeak penaturik, negar malkoak ixurten zituen. Beiñ batean bere lenagoko lagun batek aren negar oiuskak aditzean, sartu zan kapillan, eta ikusirik negar betean zegoela, galdetu zion ea zer zuen orrela egoteko. «Ah, erantzun zion, negar egiten det nere Jesu-Kristo Jaunaren Pasioa, eta ez nitzake lotsatuko mundu guzian negar egiñda

ere». Itz guziz ederrak, Santuaren biotz biguñ eta maitatia eziñ obeto adierazten dutenak, eta Santuaren ezpañetan, etorkizun zeuden gauzen asmegitariak ziranak.

Igaro degu San Franziskoren bizitz, bakardadekoa deitu genezakeana, eta Jesusek Nazareten eraman zuen ezkutukoari dagokana, orain asiko gera kontatzen beraren bizitza agirikoa, gertaerak esaten goazen bezela ikusiaz zeñ itzal eta egikari aundia izan zuen Franziskok Eleizan eta soziedadean edo jende elkartean.

# **IVgarren Bereziera**

*Praile txikienen Ordenaren asierak.*

*Santa Maria Aingeruena. Mixio-saioak.*

(1209-1212)

Jaungoikoaren bidakai edo ordenamentuan daude gauza bi, onra berezia gizonari ematen diotenak: Apostolu eta fundatzalle izatea. Zorionekoak doai oetakoren batekiñ Jaungoikoak ornitzen dituenak! San Franziskok bada, izan zuen bi doai oek bereganatzeko ditxa, eta ikusiko degu beragan Apostolu batengan bear dan bere buruaren ukatzea, eta Fundatzallearen indar sortu-eragillea.

San Franzisko izan zan Apostoluen ezezik Jesu-Kristo beraren irudikaria. Salbatzallearen gisan, beste iñork ez bezela artu zituen amabi jarraile, amabi Ebanjelioko langille, Franziskoarren Ordenaren euskai edo irozgarriak, munduan beren millagroen son aundia eta birtuteen usai gozoa utzi ondoren, distiatzen dutenak orain Eleizan izarrak bezela, txirku argitsu bat egiñaz beren Aitaren inguruan. Nola igaro aingeru-irudi

oen aurretik begirada bat egiñ gabe? Oen gañean itz egiñgo degu, bada, beren gertaeraen egokiera datorkigunean, miretsiaz denbora berean Jaungoikoaren jakiñduria, nola eratzten dituen egiñ-asmu duen lanaren aunditasunak eskatzen duen santutasunarekiñ ornituak dau-den langilleak.

Asis izan zan lenbiziko lagunak Franziskori eman ziozkana. Guzietatik aurrena aitatu bear deguna da Bernardo Kintabal, gizon jakintsu eta zentzu aundikoa, Asisko etxadi leñargitsueneta-koa, eta aginte aundia bertan zeukana. Bernardonen semeak bi urtean egiñ zituen obraen tes-tigu izan zan, eta ikusirik munduko ondasun eta arrokeriaz egiten zuen desprezioa, ezagutu nai izan zuen alde aldetik aren birtutea, eta bentu-raz, bai probatu ere. Gau batean gonbidatu zuen elkarrekiñ apaldu eta aren etxean lo egitera, eta Franziskok esker onez, baietzkoa eman zion. Apal ondoan Bernardok oea para zion bere gelan, eta bakoitza berean etzanik, asi zan zurrungaz lo betean bazegoen bezela, gelan zegoen argitara bere ostalariak egiten zituen mugida guziaz erreparatu baizik egiten etzuen

bitartean. Franziskok zurrungak aditzean uste zuen lo zegoela, eta oetik jaikita jarri zan belau-niko, para zituen besoak gurutzean, eta begiak zeruronz eta negar malkoak zeriozkala, esan zituen, eta gau guzian aritu zan esaten onako itz oek: *Deus meus et omnia*, «Nere Jaungoikoa eta nere guzia!». Ikuskarri onek mugida aundia egiñ zion Bernardori biotzean, eta esan zuen beregan «Auxe da, egiaz, Jaungoikoaren gizona». Eguna zabaltzean, deiturik Franziskori, egin zion galdeera au: «Baldiñ maestar bati emango balio nagusiak dirutza aundi bat onenbeste urte pasata osterita itzultzeko, eta seinalatutako epea baño len maestarrak diru aren bearrik ezpaleukake, zer egiñ bearko luke?». «Itzuli bere nagusiari». «Ni nazu bada maestar ori. Jaungoikoak eman dizkit ondasun aundiak batere merezitu gabe; baña gaur bertan itzuliko diozkat eta jarraituko dizut». Franzisko geratu zan arriturik ikustean nolako gaia bialtzen zion Jaunak, altxa bear zuen obraren zimendutzat serbitzeko; eta ala, esan zion: «Ene anai, zure asmo ori inportanzi aundietakoa da, eta tratatu bear degu Jaungoikoarekiñ; goazen Eleizara, entzun dezagun Meza, eta

Espiritu Santuak erakutsiko digu zer egiñ bear degun». Biaramonean San Nikolasko Eleizara zijoazela, bidean topo egiñ zuten Pedro Katanio, Katedral artako Kanonigoa, gizon jakiñduria eta santutasun aundikoa, eta bildu zan aekiñ batean. Mez-ondorean San Nikolasko apaizak idiki zuen iru bider Ebanjelioetako liburua, denbora aetan oi zan bezela. Lenbizikoan irakorri zituen itz oek: «On ona izan nai badezu, zoaz, eta dezun guzia saldu, eta emaezu pobrei» (Math. XIX, 21). Bigarren goan: «Ez ezazu eraman ezer biderako» (Marc. VI, 8). Eta irugarren goan: «Nere ondoren iñork etorri nai badu, ukatu beza bere burua, eta bere gurutzea artuta berraikit» (Math. XVI, 24).

«Ene anaiak, esan zien Franziskok lagun biai, ona gure bizitza, ona gure erregla, eta guri jarraitu naiko diguten guziena. Zoazte, bada, eta egizute aditu dezutena». Au gertatu zan 1209ko apirillaren 16ean. Biok saldu zituzten beren ondasunak, balioa eman zioten pobrei, eta itzuli ziran fundatzalle santuarengana, beragandik geiago ez alde egiteko. Berak zeukan bezelako soña aei emanik, egiñ zuen bereala txabola bat

Porziunkularen itzalean, an elkarrekiñ biziera bat egiteko Ama Birjiña Aingeruenen aurrean. Lenbiko egunetik zer moduz bizitu izan ziran aurrenautu aek, nolako jaierekiñ jarraitu zituzten beren Aita zorionekoaren pausoak eta birtuteak, Ordenako kondairatzalleak esana utzi ziguten itz guztiz biguñakiñ.

Pazienzi eta umilltasunezko ispillua, doai preziosoenaikiñ ornitua, Aingeruen eskuetan Ebroko ibai aundiaren ertz batetik bestera pasatua, Apeninoko basoetan maiz asko gozoro kordegabetua, Jainkoak maitatua, eta San Franziskok berriztion kariñoagatik bere seme-aurrenekoa deitzen ziona; orra zeñ zan Bernardo Kintabal; eriotzako tranzean zegoela, esaten zien aldamenen negarrez zeuden praideai: «Nere anai maiteak, milla mundugatik ere ez nuen nik serbitu naiko gure Jesu-Kristo Jauna beste nagusirik! Eta oraiñ, zuekgandik aldeegiteko nagoen onetan, bi gauza eskatzen dizkitzutet; oroitu zaitezte nizaz zuen orazioetan; eta elkar maitatu zaitezte, nik ejemploa eman dizutedetan moduan». Une artan bazirudien zeruko argi-errañu batek aren arpegia inguratu zuela, eta animak utzi zituen dese-

rri onetako neke oñazeak, joateko zerura gloria-ko atsegiñak gozatzera.

Pedro Katanio izan zan Ordenako lenbiziko Buru-nagusi ordezkoa, eta merezimentu eta birtutez beterikako bizitza baten ondoren, ill zan gozoro Jaunaren laztanean. Obedienzia izan zan beti onen birtute estimatuena, eta segitu zuen gordetzen ill da gero ere. Nola millagro arrigarrak gertatzen baiziran egun oro aren sepulturan, eta ara zijoazen jendetza aundiak eragozten zien erlijiosoai nai zutekean ixiltasun eta erretiroan bizitzea, fundatzalle santua makurtu zan egun batean doatsu onen obi gañean, eta esan zion: «Anai Pedro, bizi ziñala beti obeditzen baziñidan, nai det oraiñ ere obeditu zadazula. Zure obia ikustera datozenak zabarrerazotzen gaituzte txit, au dala bide pobreza kaltertzen da, eta ixiltasuna ez da ondo gordetzen; beragatik obedienzi santuaren izenean agintzen dizut, ez dezazula geiago millagrorik egiñ». Jaungoikoaren Semeak kunplitu nai izan zituen bere serbitzari leialaren deseoa, eta egun ura ezkeroztik, etzan egiñ millagro geiago Pedro Katanio doatsuaren obian. Anbeste millagroen ondorengo

ezer-ez-egite ura izan zan Santuaren lagunentzat ikasbide bat erakutsi ziena zenbateraino estimatzen duen Jaungoikoak erlijiosoen obediencia, eta ala, gero eta zelo gehiago agertzen zuten birtute onen jardueran.

Bi jarraile oei laister bildu zizaien irugarrena, aurrekoak beziñ ezagungarria. Zan gizon zuzen eta Jainkoaren bildurrezkoa, Asisko etxe noble batekoa, Jil edo Ejidio zeritzana.

Kintabal eta Katanio bere adiskideen konbersioa jakiñdu zuenean, erabaki zuen aei jarraitzea, etzekien ordea nun bizi ziran. Apirillaren 23an dan San Jorje egunean, meza santua entzunda eman zizaion bideari, Jaungoikoaren Probidenziak giatuko zuelako uste osoan, eta zuzen zuzen joan zan Porziunkulako txabolara. Franzisko, aldameneko basoan otoitzean zegoen tokitik altxaturik atera zizaion bidera, eta Jilek belauniko jarrita erregutu zion ar zezala bere lagunen artean. «Ene anaia, erantzun zion Santuak, zuk eskatzen dezuna da Jaunak bere serbitzaritzat artu, eta arma zaitzala zaldun: ez da ori mesede txikia. Enperadorea Asisera etorrita bere gogoko persona kutun bat aukeratu nai

baluke, guziak berengan esango luteke: Jainkoari nai dakiola ni izatea! Orain bada, nola ez dezuzuk bedeinkatu bear zeruko errege aundia, bere begiak zугan ezarri dituelako?». Eta altxaerazo, eta laztandurik, aurkeztu zien Bernardo eta Pedrori, esanaz: «Ona emen Jaungoikoak bialtzen digun anaia».

Elkarrekiñ piskatxo bat jandakoan, gure Santua lagun berriarekiñ batean joan zan Asisa, berak zeukan moduko jantzi bat ari eratzera. Bidean andre batek eskatu zioten limosna, eta Franziskok, Jili begiraturik, esan zion: «Anaia, Jainkoaren izenean eman zaiogun pobre oni daramazun kapa» eta Jilek, berealaxe eman zion, irudituz bere limosna zeruraño zijoala. Joan ziran biak alegere urira, eta eskaturik limosnaz oial basto bat, itzuli ziran Ama Birjiña Aingeruenera, eta an artu zuen Jilek abittua fundatzalle santuaren eskutik, zeñari utzi zion geroztik osoro bere animaren kontua. San Franziskoren irugarren lagun au, gizon senzill eta eskola gabea izan arren, da Franziskanoen familian persona estimagarrienetako bat. Aita San Franziskok arriturik aren mendetasunezko espirituaz

zion: Ura zala bere ezkutari portitzenetakoa. San Buenabenturaren sinitsgaia da oraindik argia-  
goa: «Beiñ baño geiagotan ikusi det nere begia-  
kiñ kordegabeturik, eta ez tet uste geiegi diodala  
esaten badet aingeru bizitza egiten zuela». Jaun-  
goikoaren perfezio guziak antzeztutzen ziran  
aren animan leiar garbi batean bezela, eta ben-  
turaz San Franziskoren lagunetan etzan iñor  
onek beziñ maiz zeruko gozamenduak medita-  
zioan sentitzen zituenik, eta izaten zituen zeruko  
doaien artean senzilltasun eta inozentzia geiago  
agertzen zuenik.

Joan zizaion egun batean San Buenabentura-  
ri Ordena guziko buru nagusi zala, eta esan zion:  
«Ene aita, Jaungoikoak zu bete zaitu bere gra-  
zien doaiez; baña gu ezjakiñ errukarriok zer  
egiñgo degu salbatzeko?». «Ene anai, erantzun  
zion San Buenabenturak, Jaungoikoak bere amo-  
ria eman badizu, ori bakarra asko dezu». «Baña  
ezjakiñ batek amatu dezake Jaungoikoa jakin-  
tsuak anbat?». «Dударik gabe, erantzun zion  
San Buenabenturak: amona zar batek amatu  
dezake Jaungoikoa Teolojiako irakasle batek  
anbat edo geiago». Ori adituta beregan eziñ ego-

nik joan zan baratzara, eta uri aldera begira jarri-rik, asi zan Jil deadarka, al zuen indar guziarekiñ esaten: «Andre pobre, senzill eta ezjakiñak, maita ezazute zuen Jaungoikoa, eta izango zera- te frai Buenabentura baño aundiagoak».

Beste batean praide dominiko bat Teolojiako irakaslea, Ama Birjiñaren garbitasunaren gañean zeukan duda bat burutik iñola kendu eziñ zuena, joan zan praide umill onen billa. Jil doatsuak millagroz jakindu zuen, eta bidera aterata itz egi- teko betarik eman gabe, eta bere eskumakillare- kin lurra joaz, esan zion: «Anai predikaria, Maria izan zan Birjiña aurgitea baño len». Eta azuzena eder bat sortu zan lurretik denbora berean. Makillarekiñ ostera lurra joaz, esan zion: «Anai predikaria, Maria izan zan Birjiña aurgitean» eta beste azuzena bat sortu zan. Eta irugarren kol- pea emanaz, berriz ere esan zion: «Anai predika- ria, Maria izan zan Birjiña aurgite ondorean» eta beste azuzena zuritasun arrigarrizko bat irten zan lurretik; orduan praide dominikoa arriturik aren itzaren indar nola ikusi zituen iru millagroa- kin, itzuli zan bere konbentura, anbeste denbo-

ran billatu etzuen pake Jainkozkoa animan zera-  
mala.

Nork ez daki frai Jil eta San Luisen arteko ikusketa? Franziaiko Erregeak San Franziskoren obia bisitatzera joan zanean, aurrena frai Jil ikusi nai izan zuen. Eta ala iritxi zan Perusara errege-  
ezagungarri gabe, eta konbentura joanik, artzaz galdetu zuen. Jaungoikoak agertu zion zein zan bisitatzera zijoakiona, eta ez al ziran jetxi jolas-  
tegira non laztandu ziran aspaldiko adiskideak izan baziran bezela, egonaz orrela luzaroan itzik egiñ gabe. Biaramonean beste praideak errietan eman zioten Franziaiko erregeri zegokan moduko arrera egiñ etziolako, baña ark erantzun zien onela: «Ene anaiak, zeruko argiak agertuerazi dizkigu elkarren biotzak itz eginda baño argitasun eta poz geiagorekiñ; alabandan ere gizonen mingaña ez da gai Jaungoikoaren misterioak azaltzeko».

Aita Santu Gregorio IXgarrenak, berari zion estimazio eta begirune aundiarekin deiturik egun batean erregutu zion, esan zezaiola garbi-  
ro zer egiñ bear zuen. «Aita Santua, erantzun zion doatsuak, zure animako begiak iduki itzatzu

beti irikiak. Eskuiko begia, beste munduko edertasuna eta Jaungoikoaren perfezioak kontsideratzeko; eta ezkerrekoa, zure kontura daukatzun lurreko gauzak ondo ikusteko». Ala jarraitu zion bere itzaldiari, utziaz Aita Santua osoro arritua anbesteko jakiñduria serbitzari umill ari eman ziolako.

Alakoak ziran San Franziskoren iru lagunak. Lenbizi ikusi zituenetik, ezagutu zuen aen balio aundia, eta aprobe txatu nai izan zuen animen onerako. Ez ote zan iritxi Kristoren zaldun armatu aek gerrara joateko ordua, eta Jaungoikoaren jazarretan lazki peleatzeko? Ala uste izan zuen gure Santuak, eta bialdu zituen Bernardo eta Pedro Erromanira, eta bera Jilekiñ joan zan Ankonako Probinzira. Lenbiziko ater-aldi onek serbituzien probatzeko beren birtute arrigarria, bada askotan arkitu ziran mantentzeko gauzarik bearrrenak gabe, jendeak parra eta burla egiten ziela, idukiaz beren buruak zorionekotzat Jesu Kristogatik padezitzen zutelako. Ater-aldi ura saio bat baizik etzan izan, eta amar bat egun igarota itzuli ziran beren bakartegi maitera, ixilta-

sun, orazio eta gorputz ildura edo mortifikazioa-  
kiñ animak indartzera.

Beste lagun geiago bilduko etzitzaiola kezka idukitzeko biderik ia etzegoen; zergatik Ama Birjiña Aingeruenekotik atera eta banatzen zan bir-tute-usaia aiñ garbi eta gozoa zan non erakarri bear zituen Jainkoaz amoreztuak zeuden, eta beren buruak umildu nai zituztenen animak. Illa bukatu baño len, bazituen beste iru berekiñ. Pena aundiarekiñ bada ere, oen izenak baizik ezin esango ditugu, oen gañ beste berririk ez dakigulako. Franziskoren laugarren lagunari zeritzan Sabatino, zeña ill zan santutasunean Erroman Ara-Zeliko konbentuan 1252ko otsaillaren bian Wadingok dionez, eta bostgarrena zan Maurizio edo Moriko, Gurutz-eramalleen Ordenakoa. Ospitalean oatua eta etsimena arturik zegoela, eskatu zion Santuari artzaz erregutu zezala. Etzan engañatu bere ustean, San Franziskok orazio egiñ zuen, eta ogi mamia Ama Birjiña Aingeruenaren lanpara olioan bustita bialdu zion mandariarekiñ, esanaz: «Emaiozu au Morikori; eta Jaungoikoak osasuna emanaz gañera, egiñgo du soldadu bulardetsu bat, bada sartuko da gure

soldaduzkan eta iraungo du eriotzaraño». Etorki-zun au esan bezela osotoro kunplitu zan.

Badago gauza atsegiñgarriagorik irakortzea baño anziñako kondairetan nolakoak izan ziran Orden onen asierak? Edozeiñi irudituko litzaioke arkitu duela argitaratu gabe zegoen Ebanjelioko edo Apostoloen egikerako pasarte bat. Franzisko, kiñu bat egiñarekin arkitzen da jarrailez inguraturua, beste denbora batean Salbatzallea bezela. Biak dira elkarren antzekoak, batak anbat jarraile besteak, birtuteak berak, anziñako apostolu bilkuieko millagroak berak dira bilkui berri onetan ikusten diranak; ez da ezer falta, ezta Judasen saldukeria ere. Judas au, Juan Kapella zeritzana, izan zan Franziskoren seigarren laguna. Onek zeukan biltzen ziran limosnak laguneren artean partitzeko kargua, eta asi zan pixkaka pixkaka ondasunak gutiziatzen, itzuli zan munduko gustoetara, eta galdu zuen orazio eta pobrezako espiritua. Alperrik fundatzalle santuak ikusierazo zion zeññ irrisku aundian jartzen zuen anima, alperrik gaztigatu zion oraiñ biguñki, gero txit zorrotz, biur zedilla sakrifiziozko bidera, alperrik oroituerazi ziozkan beste mun-

duko kastiguak. Orduan, Jainkoaren gizonak alde aurrez esan bezela, laister izandu zuen gañean Jainkoaren justizi ikaragarria. Legenar izugarriak artu zion gorputz guzia, eta nola etzeukan biotzik prueba ura eramateko, bota zuen abittua, itzuli zan mundura, eta bere buruaz etsirik, urkatu zan Judas bezela. Au gertatu zan 1212ko urtean, gero ikusiko degun bezela. San Franziskok berri miñgarri au aditu zuenean Erroman zegoen tokian txit sentitu zuen, eta Jakob patriarkaren gisan, etzuen artu nai konsuelorik. Lagunak etzitzaiozkan itz egitera benturatzen, eta tranze artan zegoela, ona non joan zizaion beste bat, Inglaterrako semea, abittua eskatzerara. Bereala Franziskok eta bere lagunak ezagutu zuten onen etorrerarekiñ Jaungoikoaren Probi denziak aezaz zeukan kontua, eta erabaki zuten, Gillermo anaiak artu zezala seigarren lagunaren tokia, San Matiasek Judas saltzallearena artu zuen bezela. Ala gero eta antz geiago ikusten zan Ordena berri onen jartzean eta Apostolu-Bilkuian.

1209garren urtean Jaungoikoaren obra oraindik jaio berria zan, eta Patriarka santuaren fami-

lia lagun askogatik baño obeto señalatzen zan santutasunagatik. Franziskok ezaguturik ongi pobrezia dala Ebanjelioko perla baliosoena, saiatu zan bere lagunak birtute onetan batez ere sendotzen. Bialdu zituen etxez etxe eskean ibiltzera, eta biltzen zituzten limosna baño desprezio geiago, izanik beren etxetakoak burla geienak egiñ zieztenak. San Franzisko bera joan zan Obispoa ikustera, zeñak arriturik aek zeramaten bizitzaz esan zion biguñki: «Gogorregia da, ene seme, guziaren errenunzia egitea». «Nik, bada, erantzun zion, uste det gogorragoa dela zerbaiten jabe izatea, zergatik gauza izateak berekiñ dakarte kontu egiñ bearra, kezkek eta auziak, eta askotan etorri oi da armaz gorde bearra ere, zeña guztia dan Jaungoikoaren amorioaren eta lagun urkoaren kaltean». Erantzuerara ura txit gogokoa izan zizaion Obispoari, eta berritu zion lenago agindu zion bere anparu eta balimentua.

San Franziskogan mirestutzen dan zentzu segurua eta lege-emallezko jakinduria etziran anbeste berezko azkartasunetik zetozkionak, nola Aldareko Sakramentuan gure amorez preso dagoen Jaunarekiñ zeuzkan trataera onetsietatik

ateratzen zuen frutua. Etzan aspertzen egia, bizitza eta bidea danaren laguntzak eskatzen; eta maiz esan oi zuen: «Ez dago munduan bereala utziko ez dedanik, eta gauza aiñ gogorrik, nere Jesu Kristo Jaunaren amorez eta gloriarez pozik sufritzera jarriko ez naizenik, nun eta mugierazi al nitzakean gizon guziak beren biotz guziarekiñ eta gauza guziaz gañ Jaungoikoa amatzera». Eta amorio-mugida oen ordañez Jaungoikoak argitzen zion entendimentua, eta indartzen borondatea onerako amorioan.

1209ko udaberriaren azken aldera gure Santua jetxi zan Rietiko ballerara bere lagunakiñ batean. Gelditu ziran Poggio-Bastone pareko arkaitz batean, eta ikusirik an ermita bat iñor gabea, iruditu zizaien toki egokia zala eternidateko egiak meditatzeko, artu zuten bada beren egon-lekutzat, eta Poggio-Bastonen edo inguruan predikatu eta limosna eskatu ondorean, biribillatzen ziran ara arratsalde guzietan. Egun batean, gure santua bere gazte—denborako lasaikerien gañean examiña samiña egiten zegoela kordegabetu zan, eta Espiritu Santuak agertu ziozkan bi gauza oro bat konsolagarriak, bere

pekatu guzian barkazio oso osoa, eta bere Ordena arrigarrero zabalduko zala. Arratsean, ez al ziran itzuli lagunak, bereala esan zien: «Alimo, nere seme maiteak, poztu zaitezte Jaungoikoagan! Ez tristetu gitxi geralako, ez zaitzatela uzurtu zuen ezjakiñak eta nereak, bada Jaungoikoak agertu dit bere bedeinkazioarekiñ zabalduko dala mundu guzian famili au, zeñaren aita bera dan. Nai nuke gorde ixilik ikusi dedana, baña karidadeak beartzen nau zuei part-ematera. Jendetza aundiak ikusi ditut guganonz etortzen, gure abittua artu, eta gure bizimodua eramatera. Bide guziak ikusi ditut jendez beteak onoz eta presaka datozela. Franzesak iristen dira, Españolak korri egiten dute, Inglesak jarraitzen diote, eta Alemanak eta dietri guziak mugitzen dira. Begira! Obedientzia santuaren ordenak kunplitzeko mugitzen diranen pauso-soñua iristen da nere belarrietara!». Ala kantatzen zuen Isaias profetak zazpireun urtez aurretik Eleizaren jartze eta zabalera miragarria aditzera eman zuenean. Irudia da ezagungarria, eta Ordenako kondairatzalle guziak oarterazi dute.

Poggio-Bastoneko ermitan Franziskok igaro zituen egunetan, andikan ateratzen zan santutasunezko usaira, jende asko joan zizaiozkan bisitatzera. Oetako batek, graziak ukiturik, eskatu zion ar zezala Jesu Kristoren pobreen soldaduzkan. Izendatzen zan Felipe, eta zeukan tailluagatik, izengoitiz, *Luzea*. Au izan zan gure fundatzailearen zazpigarren jarrailea.

Au ere bere lagun artu zuenean, eraman zituen ostera Ama Birjiña Aingeruenetakora, an erlijiozko bizitzan eskolatzeko: o zer aurrerape-nak egingo zituzten alako maixuarekiñ...! Gau batean bildu zituen bere inguruan, eta berak zutik zegoela eman ziezten ikasbiderik ederrenak beren egiñbidearen, eta au kunplitzeko moduaren gañean. Esan genezake ura zala mendiko sermoia, eta San Franziskoren lagunak alatzat arturik, esaten digute, itz egiñ ziela era onetan: «Ene anaiak, begira ezazute ondo zeñ dan gure dei edo bokazioa. Jaungoikoaren miserikor-diak deitu gaitu geron salbazioa iristeko ezezik, baita lagun-urkoena ere, eta predikatu dezaiegun pekatariai itzez baño obeto ejemploakin, penitencia egiñ eta gorde ditzatela Mandamentu

Santuak. Despreziagarriak dirudigu, eta erotzat gauzkate; baña etzaitzte ikaratu, alaitu eta iduki konfianza, mundu-garailari dan Jesu Kristo gure Jaunak emango diela indarra zuen itzai. Guzia utzi degun ezker, kontu ez dezagula galdu zerua ezerezkeriatik. Inoiz dirurik topatzen badegu, ez dezaiozun egiñ, autsari baño kaso geiago. Ez dezazutela juzgatu eta despreziatu jantzi baliosoak dituzten eta eroso bizi diran aberatsak; zergatik Jaungoikoa da aen Jauna eta gurea, berak deitu eta ondu ditzake, eta ala tratatu bear ditugu gure senide eta nagusiak bezela: senideak bezela, guziok Kriatzalle bat bera degulako; nagusiak bezela, egiten dituzten limosnakiñ jende prestuak sokorritzen dituztelako. Zoazte, bada, adierazi zaiezute pakea gizonai, eta predikatu penitenzia, pekatuen barkazioa iristeko. Batzuek arrera ona egiñ eta gogoz entzungo dituzte zuen itzak, beste batzuek berriz biotz gogor, arro eta jenio bizikoak maixeatuko zaituzte eta kontra altxako zaizkizute. Eraman guzia pazientzian, eta etzaitzatela ezerk ere ikaratu. Denbora asko baño len, aundizki eta jakintsuak bilduko dira zuekgana, joate-

ko predikatzerare errega eta jendeen aurrean. Izan zaitezte sufrituak atsekabeetan, irazekiak orazioan, alaiak lanean, kontuzkoak itzegitean, garbiak oituretan, eta esker onekoak ongilleakiñ, eta zuen saria izango da zeruetako erreinua».

Aren jolasera, danok makurtu ziran, muñ egiñ zioten oñetan Jaungoikoaren ordezkoiari bezela, eta zeuden itxedoten zer agintzen zien. Franziskok partitu zien mundua gurutz-itxuran, bialdu zituen bi lagun iru parteetako bakoitzera, eta laugarrena utzi zuen berekiñ bere lagunarentzat, despeida ematean esanaz: «Para ezazute konfianza Jaungoikoagan, eta berak idukiko du zuen kontua» (Ps. LIV).

Segitu ditzagun pensamentuz piskatxo batean pake eta bendiziozko aingeru aen pausok. Bidean topatzen zituzten guziaz egiten zien beren Aita doatsuak erakutsi zien agur au: «Jaungoikoak bere pakea dizula». Eleizaren bat ikustean, beren lenbiziko lana zan ara joan, eta belaunikaturik esatea San Franziskok berak erakutsi zien beste orazio au: «Adoratzen zaitugu, o Jesu Kristo gure Jauna, emen eta lurrean dauden Eleiza guzietan, eta bedeinkatzen zaitugu, zeren

Gurutze Santuaren bidez mundua erredimitu zenduen». Galdetzen bazioten nungoak ziran edo zer egiten zuten, erantzuten zuten umillki: «Gera penitenzilariak, Asistik gatozenak», alabaña, etziran oraindik benturatzen *erlijiosoak* zira-la esatera. Txit senzilloro predikatzen zuten, oroitueraiaz itz gitxietan jendeai zeñ dan zeruko bidea. Esker onez artzen zuten ematen zizaien ogia, egundaño ez ordea dirurik, erregutzen zuten beren persegitzalleakgatik, eta estalpe edo anparu gabe arkitzen ziranean poztutzen ziran, bere burua atsedeteko arri bat izan etzuen Aren antzeko artan egiten ziralako.

Mixio ura laburra izan zan, aurreko biak beze-la. Franzisko, Jaungoikoak giaturik, itzuli zan besteak baño lenago Porzuinkulako bizileku maite-ra, eta an artu zituen iru jarraile berri: Juan San Konstantekoa, Barbaro eta Bernardo Biridante-koa.

Aita doatsuak bere familia txikia berriz ere ikusteko zaleturik, erregutu zion Jaungoikoari inguratu zeiola; bere erregua aditua izan zan, eta andik egun gitxira, iñork alakorik uste etzue-la, mixiogille guziak etorri ziran batean Porziun-

kulara. Konsideraturik Franziskok zenbat eta zein irazekiak ziran, uste izan zan iritxi zala ordua berak erlijiozko familian jartzeko, eta guziak bildurik, itz egin zien onela: «Nere seme txit maiteak, ikusten dezute nola gure laguntalde sortu berria dijoan azitzen eta geitzen Jaungoikoaren bedeinkazioarekin. Orain bada, egin bear deguna da, aukeratu bizimodu bat, eta erakutsi Aita Santuari ontzat eman dezan, zergatik uste dedanez, fedeari eta Ordena erlijiozkoai dagozkan gauzetan eziñ ezer egin diteke berak ala naia eta baimena eman gabe. Goazen, bada, Erromako gure Ama Eleizaren billa, eta Aita Santuari, Jaungoikoak gure bitartez egin duen guziaren kontu ematera, berak ala nai badu, eta beraren aginpean jarririk, asitako lanari jarraitu dezaigun.

Ona emen agerturik Erromako Kataberari San Franzisko Asiskoak dion jaiera biotzekoa, eta nolako fede garbiarekin ikusten duen Aita Santuagan Eleiza katolikoaren zimendu arria, Ebanjelioaren azaldari utsik ezin egin dezakeana, interes guzien gordetzallea eta etorkizunaren esperanza. Etzan orduan Eleiz-legerik, ordena

erlijiosoak Erromara joatera beartzen zuenik, alik eta andik sei urtera Letrango IVgarren Batzarre santuan Aita Santuaren baimen berezi bat ateratzeko obligazioa jarri zizaieneraño; baña baze-kien Franziskok, Eleizako beste pillareak erori ditezkeala, eta bakar bakarrik Pedrori esan zizaiola: «Zu zera Arria, eta arri onen gañean altxako det nere Eleiza, eta infernuko atea ez dute garaituko beraren kontra».

Aren plana zan senzill beziñ aundia: para gurutzea biotz guzietan eta altxa jende guzien gañean, eta ori iristeko bildu eta eskolatu onerako gaiak, eta egiñ berakin beti armetan dagoen martizti bat Aita Santua buru duena. Ona emen itz gitxitan ark somatu zuen plana, zeña ongi kunplitzen enpleatuko duen bere bizitza guzia. Ikusi dedilla onetan bere etorkiaren aterakai bat edo Jainkoaren goi argi bat, eztio inporta, ondo-reak dira beti berperak. Asmo ura artzearekin beartzen zituen bere ume guziak Pedroren ezpañetatik artzera Ebanjelioko dotriña garbia; aseguratzen zien Aita Santuaren utsik eziñ egiñezko doaiaren mesedea, eta Eleizaren betiko iraupe-na. Eta ezin esan diteke ere, sinistamentuaren

batasun au zala bide, jartzen zituela meza santuaren zeremonien batasunerako zimenduak, zeñaren mesedeak orain sentitzen ditugun?.

Lagunak eman zioten ontzat, berak esan zien guzia. Bereala Santuak izkribatu zuen biziera edo Erregla bat ogeitairu berezieratan; *Erregla* zeñean, pobreza, obediencia eta garbitasuneko iru botoaz gañera, agintzen dan munduko gauza guzieren utzitze edo errenunzia oso osoa egitea, eta obligatzen dan limosnan bizitzera. Erregla au izkribatzeko lana bukatzean, 1209ko uztaren aurreneko egunetan, abiatu ziran guziok Erromara giari zutela ez San Franzisko, zeñak zion etzala alako karguaren diña, ezpada Bernardo Kintabal.

Zeiñ atsegiñgarria dan ikustea amar seme aek beren Aita doatsuari jarraika Apostoloak Salbatzalleari bezela, nola dijoazen oñ-utsik, zizku eta esku makilla gabe, euzkiaren ziargiak erretzen dituztela, bidaje luzearen nekea ariñduaz orazio irazeki eta jolas santuakiñ!

Bidaje onetako gertaeratatik bi bakanak dira kontatuko ditugunak. Lenbizikoa da Anjel Tankredoren konbersioa. Rietiko karrikak igarotzean

Franziskok ikusten du zaldun ederki jantzi bat, eta lenago iñoiz ezagutu izan ezpazuen ere, itz egiñ zion onela: «Anai Anjel, aspaldi da zuk gerrikoa, ezpata eta ezproiak dakazkitzula, baña gaurdandik prezisoa da euki dezazula gerrikotzat soka lodi bat, ezpatatzat gurutzea, eta ezproitzat autsa eta loia. Darraidazu, eta nik egingo zaitut Jesu Kristoren soldadu». Zalduna, itz oek aditzean bildu zan San Franziskoren lagunakiñ, eta au izandu zan amaikagarrena.

Bigarren gertaera zan fundatzalle santuak izan zuen ikuskera konsolagarri bat. Jaungoikoak erakutsi zion Aita Santua palma-arbolaren itxuran, beraganonz adarrak emeki makurtzen zizaizkala. Ikuskera onek osoro poztu zuen, eta lagunai kontatu zienean, oek ere guziz alaituak geratu ziran.

# **Bostgarren Bereziara**

*Inozenzio IIlgarrena.*

*Rivo-Torto. Ama Birjiña Aingeruena.*

*Silbestre. Bedoikiñ edo*

*Nobiziaduren Ienbiziko Ioreak.*

*Errufino, Leon, Maseo eta Junipero.*

(1209-1210)

Bukatu zan XIlgarren eunkia, bere gloriak izan bazituen ere, XIIIlgarrenari gaiztakeri eta perill askoren ondadea utzi ziona. Inglaterrako Enrike Ilgarrenaren eragabekeriak, San Tomas Beketen illkintza, Legoi Biotzko Errikardoren katibutasuna, Felipe Augustoren bortxak Injertburga bere emaztearen kontra, Enperadore Enrike IVgarrenaren gogortasun aditu ez bezelakoak Sizilian, askatu zituzten griña txar guziak, eta bai lagundu ere gaiztakeriari ona menderatzeko, aragiari anima gañeztutzeko eta abere-indarrari fede katolikoa azpiratzeko. Amairugarren eunkiak biltzen zituen desegokiera oen frutuak, eta asi zanetik, bazirudien, irikitzen ziela atea naigabe eta ondamen guziaz. Europako izaera zan

guziz negargarria, bada nun nai etzan ikusten elkarren arteko gerra eta odol ixurtzeak baizik. Eleizak negar egiten zuen orrenbeste gaiztake-riaz, eta etzan bizi San Bernardo, toki santurano sartzen zan eskandaloaren ujola loiari presa jar-tzeko. Erejia sonatu batek ematen zien osaera anbeste gaitzi, guzia ondatu naiean; au zan Albi-tarren erejia. Franziaiko eguerdi alde odolez eta lutuz bete zuten fedausle oek, patarino, kataro eta baldeuseak izendatzen ziran beste ereje batzuekiñ elkar arturik, zabaltzen ziran Italiaren erdirano. Oen dotriña zan, aen aurrekoak eraku-tsi zituzten utsegite guzien bilkui edo antola-mendu bat bezela. Egiatzat emanik gauzen sor-tze edo asierak dirala bi, bata ona, bestea gais-toa, eta au dala mundu-egillea, bidezki igaro bear zuten erakustera dotriña danik izugarriena, au da, guk egiten ditugun obrak nai ta naiez bezela egiten ditugula, eta beragatik zer eran-tzunik eztaukagula, nondikan artzen zuten oña aragi-atsegiñetara osotoro entregatzeko. Oek ziran bada, elkar artutako jende batzuek, ezku-tuan azi eta geitu, eta beren buruak Europa kris-tauan agertzen asi ziranak. Nola ixiltasunezko

legeak anparatzen baizituen konzienziaren eta justizia agirikoaren kontra, eta Alemaniako Enperadoreak gordetzen zituen, begiratzen zielako Aita Santuaren kontra altxatzeko noiz nai prest zeuden eralle batzuei bezela, eta berak ere arroturik bereala garaituko zutela uste zutelako, utzirik estalki edergarriak, azaldu zituzten garbiero beren dotriña gaistoak. Ala ikusi zan nola batere lotsa gabe ematen zituzten eskandaloak, geitzen ondamenak, kentzen apaizai beren errentak, eskubide eta libertadea, eta orduan, oraingo moduan, aditu ziran itz injurigarrienak Eleizaren kontra, zeñari deitzen zioten «Babiloniako andregaldu aundia» esanaz alde aurrez, laister betiko ondatuko zala. Siñale oetatik argi-ero ezagutzen da, aek zirala anziñako manikeo erejeen semeak, eta gaurko eguneko frakmasonen guraso egiazkoak; aiñ ziertoa da utsegiña beti berpera dala, eta gorrotoa beraren marka kentzen ez dana, amorioa egiaren siñale dudagabekoa bezela.

Ala alde guzietatik ikusten zana zan, mundu kristaua bere ondamenera zijoala. Baña zergatik etsi, baldin eriotz-infarnuen garailari dan Jaun-

goiko-Gizon egiñak agiñdu badio Eleizari bere laguntza, eta beraren kontua beti idukiko duela? Etsimeneko ordua da izatez Jaungoikoaren ordua, da esatea, bera agertu oi dan denbora, eta guziok galdutzat zeukatena salbatzen duena. Onetarako asko da gertatzea giza-artean, egunoro itxasoan ikusten dan bezelako gauza bat. Itxasoan aizeak bat batetan burrukatzen dira, eta itxasoa azitzen da olatuakiñ plaia guzia estaltzeraño: oro bat gertatzen da munduaren gobernuan; ordu jakiñ batean Jaungoikoak bialtzen du aize zeruko bat errietara, irabiatzen ditu Kristoronz bultzatuaz, eta berritzen du lur-gañ guzia. Zeruko aize au sentitu zan orduan Europako sort-aldean, eta bereala agertu ziran erri-libratzalletzat Inozenzio Illgarrena Erromako Aita Santu aulkian, Luis IXgarrena Franziako jargoian; Simon Monfortekoa Langedoko kanpoetan eta Isabel Ungriakoa Alemanian. Denbora berean Jaungoikoak bere bitartekotasuna lanbide aundi onetan agertzeko sortu zituen bi gizon miragarri, bata Españian eta bestea Italian, Domingo eta Franzisko, bi pobre, bata bestearen berri etzekitela, lan bat berean zebiltzanak; zeña

zan zuzentzea mundua sakrifiziozko espirituaren bidez, aundinari kontra egiñaz umilltasunarekin, aberatstutzeko gutziari Ebanjelioko pobrezarekin, gerekiko amorio geiegiari karidadearekin. Jaungoikoaren plana etzan guziz aundia eta errukitsua? Bada bera egiteratzea etzan gitxiago arritzekoa, ikustera goazen bezela.

Franziskok izandu zuen ditxa arkitzeko Erroman Asisko Obispo Jauna, zeñak egiñ zion arrera txit biotzekoa, eta bai eratu ere bi kardenal itzal aundikoen balimentua, Juan San Pauloko eta Ugolino, Aita Santuaren illoba, eta gero bera Gregorio IXgarrenaren izenarekin Aita Santu izan zanarena. Añ laguntzalle baliosoakin kontatzen bazuen ere, Jaungoikoak bialdu zion beeratzen txiki bat, aren merezimentu geiagorako. Aita Santuak eman zion aurreneko entzundea, etzizaion izan bere aldekoa. Inozenzio IIIgarrenak, oroiturik nunbait beren arrokeria eta gaistakeria aundiakin Franziko eguerdi aldea naspillatzen zebiltzan Liongo pobre gezurrezko aiezaz, artu zuen gizon txatar ura pobre gogaikarritzat, eta bialdu zuen aditzeko lekuri eman gabe. Baña urrenge arratsean izan zuen amets misteriozko

bat: ikusi zuen bere oñetan palma geldi geldi azitzen, arbol eder bat egiñ zana; eta nola zebillen jakiñ naiean ikusketa ark zer esan nai zuen, Jaungoikoak adierazi zion goiz artan bialdu zuen pobrearen irudia zala. Ez al zan esnatu, bereala agindu zuen erakarri zeiotela beillako arrotza. Eremutar umilla arkitu zuten San Antonioko ospitaleko sala batean, eta eramán zuten Letrango jauregira. Entzunde onetan artu zuen jakintsu beziñ birtutetsua zan Aita Santuak, bere kardenalez inguraturik, eta aditu zion atsegiñtasun aundiarekiñ. Arriturik Santuaren senziltasun, alai eta zeloaz, bazijoan eskatu ziona ematera, noiz eta kardenal batzuek oarterazi zioten Aita Santuari, ezen, Franziskok jarri nai zuen Ordena izan bear zuela gauza berri bat Eleizan, eta eramán asmo zuen bizi modua zala gizonaren indarrak gaiñdikakoa. Baña Juan San Pauloko kardenalak erantzun zien, esanaz: «Jaunak, pobre onen eskaera desetxatzen badegu, bere *Erregla* berria eta kunpli-nekeza dalazko apukoarekiñ, Ebanjelioren kontra goaz zuzen zuzen, bada Aita Santuak ontzat emateko presentatzen duen *Erregla* da Ebanjelioko irakasdeakiñ ondo eratzen dana.

Alabaña Ebanjelioko perfezioa eta bera jarraitze-ko boto edo promesa arrazoiaren kontrako gauzak eta eziñ egiñ ditezkeanak dirala esatea, da Ebanjelioaren Egille dan Jesu Kristoren kontra blasfemia botatzea».

Aita Santuak, arrazoi oen indarrarekiñ mugiturik, esan zion Franziskori: «Ene Seme, erregutu zaiozu Jesu Kristori ezagutuerazo dizagula bere borondatea zuk nai bezela obratu al izan dezagun». Jaungoikoaren serbitzariak obeditu zion aur baten senziltasunarekiñ; irten zan otoitz egitera, eta ostera itzuli zanean, kontatu zien ipui au: Eremu batean bizi zan donzella guziz eder bat baña pobrea; errege batek ikusi zuen, eta aren edertasunaz eramanik, artu zuen emaztetzat. Bizitu zan berarekiñ urte batzuetan, eta izandu zituen seme alabak, arpegian aita eta edertasunean ama ziruditenak; gero errege joan zan gortera. Amak azi zituen bere umeak arreta aundiarekin eta aundi egiñ ziranean, itz egiñ zien onela: «Ene semeak, errege aundi batenak zerate, zuazte bere gortera, eta artuko zaituzte zuen leñargiari dagokan eran». Joan ziran bada galaiak gortera, eta erregeak ikustean aen eder-

tasuna, esan zien: «Noren semeak zerate?» eta erantzun zioten: «Eremuan bizi dan andre pobre aren umeak gera». Erregeak, ori aditzean, gozoro laztandu zituen, esaten zielarik: «Ez bildurrik izan, bada nereak zerate. Nere langilleai maieko apurrak ematen badiztet, zenbat geiago ez dizutet emango nere umeak zeratenoi?».

«Errege au, o Aita Santua, da Jesu Kristo gure Jauna, eta donzella maitagarri eta ederra, Pobreza, zeña guziak despreziatua, arkitzen zan mundu onetan eremu batean bezela. Erregeen erregek zeruko gloriatik lurrera jeistean ainbesteraño maitatu zuen, non jaio zanetik esposatu zan berarekiñ. Aur asko izandu zituen, apostolok, eremutarrak eta azkenik oraiñ daramatzigun denbora triste oetan berorren serbitzari au bere jarraileakiñ batean. Berak aseguratu dit gure mantenuaren kontua idukiko duela, gure aurreko senideena iduki zuen bezela, eta esan dit: Langilleak eta nere izenaren etsaiak ere mantentzen baldiñ baditut, arrazoi geiagorekiñ mantenduko ditut nere semeak eta jarraitzalleak; eta eguzkia pekatarienzat ateratzen badet, eta lurreko ondasunak oen artean partitzen baditut,

are eta obeto emango diet eguneroko ogia Ebanjelioko konsejuak jarraitzen dituztenai».

«Ona bere erakuste eta obrakiñ Jaungoikoaren Eleiza egiaz irozoko duen gizona!» deadar egiñ zuen Aita Santuak, adierazi naiean aurreko egun batean izan zuen amets bat, eta kardena-lai kontatu ziena: «Iruditu zizadan, ziozan, Letrango San Juanen eleiza zimenduetatik mugitzen zala, egiñalean saiatzen nintzan ni eusten erori etzediñ, alperrik bederik, noiz eta azaldu zan gizon aul eta pobre bat, bere bizkarrarekiñ eutsi ziona». Eta beste geiago gabe ontzat eman zuen itzez San Franziskoren Erregla, egiñ zuen bera betiko Fraide Txikienen Buru nagusi, orden-du zuen Diakono edo Apaiz urren, eta primaz bere beste amaika lagunak, eman zien eskubi-dea nai zuten tokira joateko penitentzia predikatzera, artu zien Erliziozko profesia, eman zien Apostolu bedeinkazioa, eta despeditu zituen laztan biotz biotzekoa emanda.

Gure erromes piadosoak ikusi zituzten kunplituak beren deseo guziak. Pobreza serafiñdarra, aek laztandu eta artu zuten pobreza oso osoa izan zan ontzat emana munduan zan agiñtaririk

aundienak. Ala, aen aurreneko lana izan zan joatea Apostoloen obi edo sepulturara, antxe belau-nikaturik eskerrak ematera; ondorean alde egiñ zuten Erromatik, beren biotzetan zeramazkiela poz aundiak eta esperanza are aundiagoak, eta juramentu egiñaz ekarriko ziotela Jesu Kristoren Ordezkoari obediencia itxu, oso eta betikoa.

San Buenabenturak kontatzen du Erromatik itzultzean izan zuten gertakari miragarri bat. Illunabar batean bidaje luzean nekatuak gelditu ziran fraideak bide bazterrean. Goseak zeuden, eta etzeukaten zer janik, eta inguruan ere etzegoen etxe-siñalerik, baña Probidenziak etzituen utzi aztuak, bada nondik eta nola etzekiela joan zitzaien mutill gaztetxo bat, eta ogi zuri bat aen ondoan utzita desagertu zan. Fraideak jan zuten, eta zeruko ogiarekiñ beren gorputz aulak alaitu zituen, Probidenziaren aenganako amorioaren pensamentuak animak konsolatzen ziezten bitartean. Biaramonean geratu ziran Orten, Tiber eta Nera ibaiak elkartzen diran tokian, Zimino mendiaren babesean dagoen ballera eder batean, baña andik amabost egunera toki zoragarri ura utzirik, joan ziran Tiberra gora eta gera-

tu ziran Foliñotik Porziunkulara bidean Asis aldean billatu zuten txaoia arrakatu batean, Subaso menditik jeisten dan u-kolpe sonatu baten ertzean, zeñari deitzen dioten Rivo-Torto (Errekatxo okerra).

Txaola au zan aiñ txarra eta txikia non ozta zeukaten esertzeko tokirik. Bizi ziran limosnan edo egiten zuten lanetik, eta iñoiz ikusi ziran arbol-zañ batzuek baizik jateko etzutela; ala ere beti zeuden alegere. Beren penitenzia eta eraman bearretan gustorago zeuden, mundutarrak egun bateko atsegiñ tartean baño. Nola etzeukaten Eleiz-errezoak egiteko libururik, biltzen ziran zurezko gurutze baten inguruan, eta aditzen zuten beren fundatzallearen itzaldi espirituala, edo meditatzen zuten Jesusen Pasio santua.

Iru gauza inportanziazkoak gertatu ziran Rivo-Torton igaro zuten denboran. Lenbizikoa da millagro bat zeñetan ikusten dan Jaungoikoaren bitartekotasunaren egokiera, eta beraren balioa edozeñek ezagutuko duena. Franziskoren jarraileak danik siniskorrenak izanda ere, dudaren bat sortu zitzaiekean berak paratzen zien bizimodu estu eta besteak ez bezelakoaren gañean; baña

Jaungoikoak desegiñ zien duda au millagroarekiñ. Nola Franziskok predikatu bear baizuen Asisko Katedralean igande goiz batean, bezper arrats aldean joan zan Obispoaren palaziora, eta illuntzean kanonigoen jardiñera jetxirik, geratu zan estalpe batean, zeren zeukan gaba orazioan igarotzeko oitura ona. Gauerdi aldean suzko gurdi bat eguzkiak bezela distiatzen zuen boilla gañean zuela sartu zan gure fraideak zeuden Rivo-Tortoko txaolan, eta egiñ zituen iru jira inguruan. Ez da erraz esaten nolako sustoa sentituko zuten suzko gurdia ikustean, baña are eta geiago arritu ziran, berak barrendik eta kanpotik aiñ argituak ikusi ziranean, non bakoitzak irakorri zezakean lagunen konzienzian liburu batean bezela. Eziñ engañatu zitezkean; suzko gurdi ura, argi boilla ura, Testamentu berriko Elias ura zan aen animen giaria, beren aita doatsua. Franziskok itzuli zanean indartu zituen ikuskera aren sinismen egiazkoan, agertu ziezten beren konzienzietako gauzarik gordeenak, eta adierazi zien zeñen etorkizun gloriatsua izango zuen beren Ordenak. Onenbeste señaletan jarraile aek ezagutu zuten Jaunaren espirituak alaitzen

zuela beren Maixua, eta batere zalantza gabe segitu zezaketela aren dotriña eta ejenploak.

Bigarren gertaera izan zan are ezagungarriagoa. 1209ko agor illaren azken aldean Oton IVgarrena zijoan Erromara, Aita Santuak koroatu zezan Enperadoretzat. Franzisko etzan irten bere txalotik arekiñ zijoan jende luzitua ikusteko, baña bialdu zion bere fraidetako bat enperadoreari itz oek esatera: «Jakizu, Prinzipea, zure gloriak ez duela luzaroan iraungo». Esan onezaz enperadorea miñkaistu zan, baña kunplitu zan. Jakiña da enperadore aren patu tristea. Aita Santuak eskumikatu zuen ondorengo urtean, koroa galdu zuen, eta andik zortzi urtera, errukarriro ill zan (1218).

Irugarren gertaera izan zan, Silbestre izendatzen zan lagun berri baten etorrera, zeña zan Franziskoen ordenan sartu zan aurreneko apaiza, eta beraren bokazioa da egiaz arrigarria. Saldu zion zerbait arri San Franziskori San Damiano eleiza konpontzerakoan, eta ajustatu zuten prezioa leialki pagatu bazion ere, kejavu zizaion esanaz kaltetua izan zala salera artan, noiz eta Bernardo Kintabalen ondasunak parti-

tzen ari zan denboran (1209ko apirillean) Franziskok, arekiñ auzitan ez ibiltzearren, artu zuen saku bat urre, eta eskuak betean emanaz, esan zion apaiz gutizioso ari: «Ori eskatzen dezuna eta zor ez dizudana». Silbestrek artu zuen, eta joan zan umilldua, baña kontentu. Arratsean ordea, pensatzen jarri bere dollorkeriaren gañean, sentitu zuen konzienziako kezka, eta eman zion Jaungoikoari bidegabekeri ura zuzentzeko itza, eta orduan iduki zuen amets misterioso batek desegiñdu ziozkan Jesu Kristoren pobreen kontra zeuzkan arrenkurak. Ikusi zuen iransuge izugarri bat Asis gañetik igarotzen bertako biztanle guziak irentsitzeko zorian, eta ondoren agertu zala Franzisko argitasunez inguraturik, eta aoran zeukala urrezko gurutze bat, zeñaren punta iristen zan zeruraño, eta besoak zabaltzen ziran munduaren ertzetaraño, eta ikusi utsarekiñ iransugeak ies egiten zuela. Iru bider iduki zuen amets au, eta igarririk zeruko gaztigu bat zala, joan zan Franziskorengana, eta auspezturik kontatu zion ametsa, eta erregutu zion bere utsegiña barkatu eta ar zezala bere lagunen artean. Franziskok, laztanduaz erantzun

zion: «Ene seme, bi gauzak gogo onez ematen dizkitzut». Ala ere, eztakigu zergatik, baña etzuen artu beregana Silbestre urte artako agorrilleraño, zeña izan zan Aita Santu Inozenzio III-garrenak Erregla ontzat emanda Penitenziako abitua jantzi zionean. San Buenabenturak eta Bernardo Bessek esaten digute, ordu ura ezkerroztik Silbestreren bizitza izan zala orazio, penitenzi eta pobrezazkoa, eta serbitu zuela kontatu digun ametsaren egiaren sinitsgaitzat. Silbestre izan zan San Franziskoren amabigarren laguna, eta onen etorrerarekiñ Franziskoren lagun taldea egiñ zan Apostoloen bilkuiaren antzekoa. Ala Jaungoikoaren Probidenziak egiñ zuen Ribo-Tortoko txaoa txarrak serbitu zezala birtute, millagro eta profezi arrigarrietarako.

Ribo-Torton illabete igarotakoan, Franziskok bildu zituen bere amabi lagunak, eta esan zien: «Ene anaiak, Jaungoikoak adierazi dit, nai duela geitu gure famili txikia. Beragatik bear degu bizileku aundiagoa, Eleiza, mez-eman eta errezoak egiteko, eta kanpo santu bat illak obiratzeko. Goazen Asisko Obispo Jaunarengana, eta eska

dezaiogun gordeleku bat gure Ordena jaio-berriarentzat».

Obispoak eziñ kunplitu izan zion aren deseoa, baña Subaso mendiko Benediktinoak eman zioten gogo onez Ama Birjiña Aingeruenetako eleizatxo, ari zegokan etxea, eta beste lur piska batzuek, baldiñ begiratu nai bazioten konbentu ari Txikienen Ordenaren asiera eta sustraiari bezela. Franziskok ontzat artu zituen doaia eta kondizioa, sentituaz pozik aundiena biotzean bere deseoa guztiak orrela kunplituak ikusten zituelako. Anbeste eunki igarota ere aren esker onak badirau, eta bere seme espiritualak diote, orain seireun urte ziotena, au da, San Benitoren jarrailei zor diotela lenbiziko konbentu eta orazio-etxea.

Franzisko joan zan bereala bere lagunakin Porziunkulara, an segitzeko aurreko urtean asi zuten penitenziazko bizitza. Ze biotz-mugida gozoak sentitu zituen Franziskok, lur pixka bedeinkatu aren jabe egiñ zanean Zeruko Erregiñaren izenean! Ai eman izan bazizagun amoriozko zizpiru aek aditu eta biltzea! Tokiaren aukera bera zan gure Santuarentzat oroipen eta espe-

ranza aundiak erakartzen ziozkana. An Pikak eskeñi zion Ama Birjiñari; an egiñ zituen lenbizi-ko saioak penitenziako jazarretan, bere lanbi-dearen sortzea izan zalarik Mariaren farra gozo batetik, eta andik irten zan Erromako Aita Santuaren oñetan belaunikatzeko. Onenbeste mesedek ongi adierazten zuten Birjiña txit Santak, Ordena onen ama izanaz gañera, nai zuela izan beraren aparatzallea, bada gauza jakiña da azi eta zabaldu bear zuela beraren mantu urdiñaren itzalean.

Onelako pensamentuak ziran buruan zebiltz-  
kianak, eta gizonen aparua danaren laguntza  
are eta geiago aseguratzeke, konfiatu nai izan  
ziozkan bertatik bere lenagoko poz-kontentuek  
eta geroko esperanzak, alatan, non, denbora  
aetako zaldunen oitura sagradu bat erlijiozko  
bizitzara eramaneke, Porziunkulara joandako  
aurreneko arratsean egiñ zuen beilla, eta pasa  
zuen gau guzia belauniko bere Erregiña zeruko-  
aren aurrean, Jesus eta Mariaren zaldun armatua  
izan bear bazuen bezela. Eta egiaz ala izan zan.  
Ama Birjiña agertu zizaion zeruko aingeruz ingu-  
raturik, eta farra irri gozoa egiñaz, agertu zion

Eleiz umillaren etorkizun gloriatsua. Egun sentian jaiki zan, eta Jakob patriarkaren gisan deadar egiñ zuen: «Egiaz au dala toki santua, ez gizonak, ezpada aingeruak bizi bear luketena. Ez naiz irtengo emendik al dezakedaneraño, eta neretzat eta nerekoentzat izango da Jaungoikoaren ontasunaren siñale beti dirauena».

Jaungoikoaren bedeinkazioa jetxi zan etxe artara alako moduan, non fundatzalle santua an jarri zan ezkerre, jarraile berriak zetozen geratu gabe Ordenan sartzera. Oen artean baziran beste guziaz erain zienak, eta jendeen artean oroipen txit onragarria utzi dutenak: aetakoak dira Frai Leon, Frai Rufino, Frai Mateo eta Frai Junipero, au txit sonatua bere senzilltasun eta sufrimentuetarako amorioagatik, eta zeñagatik esaten zuen San Franziskok, aren izenarekiñ jokatuaz: «Ah Jaungoikoak emango baligu onelako likabrazko baso bat» (bada *Juniperus* latinez, *likabra* arbola da euskeraz); frai Mateo Mariñan, itz eztitsu eta gozotasun paregabekoa Jaungoikoazko gauzetan itz egitean, eta aiñ obeditua, nun, gogoz egiten zituen konbentuko lan bilutse-nak; frai Errufino, Asisko famili noble batekoa eta

Santa Klararen aidea, Orden onetako lorea, zeñaren usai gozoak lurrintzen zuen Jaungoikoaren Eleiza, anima autua, zeñagatik zion San Franziskok: «Jaungoikoak agertu dit au dala munduan dauden anima leial eta garbientakobat, eta batere duda gabe eman nezaioke Santuaren izena; bada *kanonizatua* dago zeruan»; eta azkenik frai Leon, senzill eta aingerukoi frai Leon, bere errugabetasunagatik San Franziskok deitzen ziona Jaungoikoaren arditxoa, *la pecorella di Dio*, anima senzill, garbi eta otxana, munduaren mirariak antzeztutzen diran mendigoienetan dauden ainzirak bezelakoa. Ebanjelikoak baidigu esaten: «Zorionekoak biotz garbikoak, zeren oek Jaungoikoa ikusiko duten».

Frai Leonek dauka toki berezia San Franziskoaren estimazioan, eta Fraide Txikienen kondairan. Santuaren erritarra, goarpelari eta konfesorea, adiskide estu eta lagun aukeratua, zeñari Santuak agertzen ziozkan bere biotzeko ondasun guziak, zan, nolerebait esateko, San Franziskoaren bilkuieko San Juana, eta merezi izandu zuen munduan adiskidetasun estuenean bizitu ondorean, illda ere beragandik ez berezitzea, bada

obiratu zuten San Franziskori konsagratua zegoen aldarearen oñean.

Maixu-jarraileak iduki oi zituzten elkarren artean zeruko jolasak, zeñak badirudi Bernardo Besse kondairatzalleak aen ezpañetatik bildu zituela grazi paregabearekiñ kontatzeko, eta guk berriro aitatzen ditugunak ondorengoan protxu espiritualerako. Ona emen jolas biguñ aetako bi: Neguko goiz otz batean zijoazen frai Leon eta San Franzisko Perusatik Ama Birjiña Aingeruenetakora. Frai Leon zeruko pensamentuetan burua zeukala zerbait aurreratu zan, eta Santuak deiturik, esan zion: «Anai Leon, Jainkoari nai dakiola Erlijosio Txikienak munduari santutasunezko ejemplo aundia ematea, baña Jainkoaren arditxo maite orrek jakizu, ez dala ori ditxa osoa». Bide piska bat egiñ zuten, eta berriz esan zion: «Anai Leon, gu Erlijosio Txikienok itxuai bista emango bagiñie, deabruak aienatuko bagiñitu, mutuai itz egiñ erazi eta illak andik lau egunera piztuko bagiñitu ere, jakizu ez dala ori ditxa osoa». Joan ziran aurrerago, eta esan zion: «Anai Leon, Erlijosio Txikienak bagiñieki itzkuntza eta jakinduria guziak, eta alde aurrez gauzak asmatzeko eta

biotzak ezagutzeko doaia bagenuka, jakizu ez dala ori ditxa osoa». Eta andik geroxeago esan zion: «Jainkoaren arditxo maitea, Erlijioso Txikienak Aingeruen izkuntza itz egiñgo balute, izarren ibillerak balekitzie, eta ezagutuko baluteke landareen birtuteak, lurreko gauz eskutuak, egazti, arrai, gizon, abere, arbola, arri eta uraren izaera, jakizu ez dala ori ditxa osoa». Eta gero berriz esan zion: «Anai Leon, Erlijioso Txikienak beren predikuakiñ fedegabe guziak fede santura erakarriko balituzke ere, jakizu ez dala ori ere ditxa osoa». Ala segitu zuen jolasian ia ordu laurden bateko bidean bezela, eta azkenik lagunak arri-turik esan zion: «Aita, Jaungoikoaren izenean esan zadazu zertan dagoen ditxa osoa». Eta Santuak erantzun zion: «Demagun Ama Birjiña Aingeruenekora iristean otzak, bustiak, goseak illak, ateratzen zagula atezaia, eta esaten digula: «Zuek etzerate limosnak ostutzen zabilzaten alper batzuek baizik; kanpora emendik», eta uzten gaituela kanpoan otzak illtzen; baldiñ sufritzen badegu ixilik, kejatu eta murmuratu gabe, pensatuaz ez degula besterik merezi, eta Jaungoikoak nai duelako ala gertatu zagula,

sinistu nazazu, ori da ditxa osoa. Eta arratsean otzak eta goseak estaturik erregutzen badiogu atezaiari, Jaungoikoaren amorez atea idiki degula, eta ark makilla lodi batekin bizkarrak bertuaz botatzen bagaitu elurretara kolpatu eta zaurituak bertan utziaz, eta guk pazienziarekiñ sufritzen badegu trataera gogor au, pensatuaz part-artu bear degula Jesu-Kristo gure Jaunaren sufrimentuetan, sinistu nazazu, anai Leon, ori dala ditxa egiazkoa. Espiritu Santuak animetan ixuritzen dituen doai guzien artean onena da nork bere burua bentzutzea, eta pazientzian Jaungoikoaren amorez sufritzea».

Beste egun batean, Ordenaren aurreneko denboretan Franziskok egiñ zuen bidaje bat frai Leon lagun zuela, eta nola etzeukaten Eleiz-errezkoak egiteko libururik, esan zion lagunari: «Jainkoaren arditxo maitea, Maitinetako ordua da, eta eztaukagu errezatzeko libururik, eta ala kantatu bearrean gaude Jaungoikoaren alabanzak, eta ikusiko dezu zer egingo degun. Nik esango det: Anai Franzisko, zuk egiñ ziñituen orrenbeste pekatu munduan zeundenean, eta merezi dezu infernuaren ondora amildua izatea. Eta zuk eran-

tzungo dezu: Egiaz, merezi dezu infernura botia izatea». Eta frai Leonek erantzun zion usuaren senzilltasunarekiñ: «Ala egingo det, ene Aita». Baña Franziskok nai zuen bezela erantzun bearran, esan zion kontrara: «Jaungoikoak anbeste on egiño dizu, non joango zeran zerura». Eta Santuak esan zion: «Ez didazu erantzun bear orrela, ezpada nik esaten dedanean: Anai Franzisko, anbeste gaiztakeria egiñ dituzu, non zerutikan madarikazioak baizik ez dituzu merezi, zuk erantzungo dezu: Egiaz madarikatuen artean kontatzea merezi dezu». Frai Leonek ordea erantzun zion: «Anai Franzisko, Jaungoikoak emango dizu bere grazia, eta zerurako autuen artean izango zera bedeinkatua». Orduan Santuak aserre biguñ batekin esan zion: «Nola dezu ausardia obediencia austeko, eta anbeste bider agiñtzen dizudanaren kontra erantzuteko?». «Nere aita txit maitea, erantzun zion frai Leonek, Jainkoak ongi daki zuk esan bezela erantzun nai nizula, baña berak itzegiñ erazi dit nai zuen bezela, nere borondatearen kontra». «Oraingoan beintzat erantzun ezazu nik esango dizudan bezela. Nik esango det: Anai Franzisko, gizon txarra, anbes-

te gaiztakeria egiñ ondoren, badezu ausardia uste izateko Jaungoikoak barkatuko dizula? Eta zuk arditxo maitea, erantzungo dezu: Zuk eztaukazu beraren miseriardiara batere eskubiderik». Franziskok esan zituen itz oek negarrez eta zizpiruz, eta negarrez eta bularrak joaz, zegoen itxedoten frai Leonek esan zezala erakutsi zizaiona; baña lagunak erantzun zion: «Jaungoikoak emango dizkitzu grazia aundiak, altxa eta gloriaztuko zaitu betiko, zergatik beeratzen dana, izango da altxatua. Ezin itz egiñ det beste moduz, Jaungoikoa da nere aotik itz egiten duena». Onelako umillaziozko leian igaro zituzten bidajeko orduak. Ze jolasak, eta ze animak! Nun aurkitu pasarte mugigarriagorik, jolas aldi biguñagorik eta irakasde aundiagorik?

# **Vigarren Bereziera**

*Apostolutzako saioa.*

*Ama Birjiña Aingerueneko*

*bedoikiñ edo nobiziadua.*

(1211-1212)

1211ko urtearen asieran Franziskok, berak jarritako Ordena indartu eta zabaltzea anbat deseaturik pekatarien konbersioa, erabaki zuen bialtzea bere jarraileak animak irabaztera, eta orretarako bildu zituen gela batean, eta bakoitzaren doaiak zenbaterañoakoak ziran jakiteko agindu zien predikatu zezatela ark esaten zien gaiaren gañean; eta danok itz egiñ zuten aiñ dotriña on eta pensamentu zerukoi eta egokia-kiñ, non sinismen osoan geratu zan, Espiritu Santua zala goiargitzen zituena. Millagro bat gertatu zan aren ustea are eta geiago sendotzeko serbitu zuena. Ez al zuten bukatu beren itzaldia, ona nun agertu zizaien Jesu-Kristo galai txit eder baten itxuran, eta bedeinkatu zituen bat banaka esan eziñ bezelako ontasunarekin. Guziok gertatu ziran kordegabeturik, eta berengandu zira-

nean, Santuak itz egiñ zien onela: «Nere anai eta seme txit maiteak; eman zaiezkagun eskerrak Aita Jaungoikoari, eta bere Seme bakar Jesu Kristori zeruko ondasunak ixuri dituelako gure anima senzilletan. Zergatik bera da mutuai itza eta ezjakiñen miñgaña ongi itz egiteko trebetzen duena. Izanik gu predikari umill eta ezerez batzuek, autu gaitu munduari penitencia eta salbazioa adierazteko, aragizkoa danik beraren aurrean arrotu ez dediñ. Nai du joan gaitezela toki guzietara gure itz eta obrakin aren sinitsgaia ematera, ardi galduak beraren artaldera ekartzera, beraren Izen eta Lege santua munduko jende eta erregeen aurrean adieraztera. Zoazte bada, alaitasun eta amorioz beterik, prest egonik laño ongilleen gisan ixurtzeko obedienciazko espirituak eramango zaituen toki guzietan Jainkoaren itzaren euria biotz gogor eta legorren gañetara».

Biaramonean señalatu zion bakoitzari joan bear zuen Italiako parte, eta bera joan zan Toskanara frai Silbestrekeriñ. Egun batzuetan geratu zan Perusan, eta an saristatu zion Jaungoikoak bere zeloa makiña bat pekatarien konbersio-

arekiñ, eta are geiago uri artako zaldun gazte baten bokazio miragarriarekiñ. Uri inguruan pasean zebillen batean pensatzen beregan nola erantzungo zion Jainkoaren deiari eta beragana konsagratzeko deseoi, agertu zizaion Jesus, eta esan zion: «Deseozko gizona, deseitzen dezun pakea gozatu eta zere zoriona iritxi nai badezu, sar zaite erlijioan, eta darraidazu». «Ah Jauna, zer Ordenatan sartuko naiz?». «Franzisko Asiskoaren jarriberrian». «Eta an sartutakoan, zer egiñgo det zuri atsegiñ emateko?». «Egizu bizitza bakidakoa, ez ezazu iduki adiskidetasun berezirik, etzaitez ibili lagun urkoen utsegiteak jakiten, eta ez aen kontrako juzgurik egiten». Galaia joan zan Franziskoren oñetara, jantzi zion ordenako abittua, eta deitu zion frai Umill, aren biotzean ezagutu zuen umilltasun egiazkoagatik.

Misiogille biak gero Kortonara joanik, fundatzalle santuak artu zituen an zenbat nobizio, eta aen artean frai Elias sonatua, zeñazaz beiñ baño geiagotan itz egiñgo degun, eta Gido Kortanako doatsua, aberatsa, bere etxean Santuari ostatua ematea onra aunditzat artu zuena, eta bokazioa alde aurrez adierazi ziona: «Anaia, esan zion frai

Silbestreri, gazte au gaur bertan sartuko da gure soldaduzkan, eta santutuko da bere errian». Alaxe gertatu zan bezela.

Santuak egiñ zuen konbentu bat Zellesko erriaren gañean. Ango gobernua frai Silbestreri utzirik, autsterre egunean goizean goiz, alde egiñ zuen andik ogi bi beste jaki gabe, jetxi zan Pasiñanora, eta an txalupan sarturik, agiñdu zion barka-zaleari eraman zezala Perusako aintzirako ugarte batera, enkargatuaz ez esateko iñori nora joan zan, eta zijoakiola billa ostera asteazken santuz. Toki artan bakarrik ikusi zanean, joan zan aldean zegoen abartegi batera, nun zegoen txabola gisako estalpe bat arboladar eta larrez egiña, eta aldamenean ur garbizko iturri bat egarria iltzeko. An igaro zuen garizuma guzia gure Salbatzallearen gisan Jaungoikoarekin, Aingeru eta Santuakiñ baizik itz egiñ gabe, eta aiñ zuzen gorde zuen baraua, nun etzuen jan ogi baten erdia baño geiago. Asteazken santuz joan zizaion barkazalea, eta ugarotzen zijoazela ekaitza altxarik, Franziskok sosegatu zuen Gurutzearen siñalearekiñ beste denbora batean Jesusek Genezaretko ainzirakoa bezela. Zelesko konben-

tura joan zan Aste santuko egun aundiak bere anaiakiñ pasa, eta bere erretiroko berrogeita bi egunean artu eziñ izan zuen Komunio Santua artzera, bere lagun guziakiñ Ostegun Santuz artu zuen bezela.

Karidadearen zelo santuak ez die deskansurik ematen jabetuak dauzkan animai. Pazkoa ondorean Franzisko joan zan Arezzora bere betiko lagun frai Silbestrekeriñ. Uria zegoen bi alderadian berezia, batabestearekiñ burrukatzeko zorian, eta ikusi zuen deabru talde bat alderdi batetik bestera egatzen elkar iltzera zirikatzen zebiltzala, bereala itzuli zan lagunarengana, eta agindu zion zijoala uriko atera deabruak botatzera. Silbestrek obeditu zion, eta zituen indar guziakin deadar egiñ zuen: «Emen zaudeten espiritu loi guziak, joan emendik urruti; agintzen dizutet Jaungoiko guzieldunaren eta bere serbitzari Franziskoren izenean». Eta une artan bertan aingeru gaistoak ies egiñ zuten, gorrotoak itzali ziran, eta bi alderadiak bateratu ziran Franziskoren ondoan, onek itz egiñ zien pake eta amorioaren gañean aiñ egoki non eskuetatik

armak erori zizaizten, eta gorroto bizian egondu ziranak adiskidatu ziran.

Arezzotik Santua pasa zan Florenziara. Uri eder au, ezaguna ordurako bere merkataritzagatik, eta andik eunki batera aiñ sonatua izango zana Medizis agiñtarienpean, besteak beziñ prest arkitu zan Santuaren itza aditzeko. Ango egoera etzan luzea izan, baña ezagungarritu zan, aitatu gabe eziñ utziko ditugun gertakari batzuekiñ. Florenziako biztanleak doairik eman zioten Franziskori uriko sarreran zegoen San Galoren konbentua, eta egun beretik Jaungoikoa sortu erazi zituen bokazio asko, zeñtzuen artean señalatuena izan zan Juan Parenterena.

Juan Parente zan letradu aitu bat, *Citta Castellanako* juez lenena, aiñ merezimentu aundiko gizona, non eman zioten Erromako uritarraren izengañ onragarria. Uri inguruan pasean zebillen arratsalde batean ikusi zuen txerri zai bat zerriak eiera zeramazkiala, eta nola nai beziñ laister etziran sartzen, jotzen zituen makillarekiñ aserre bizian esaten ziela: «Ea, sar zaitezte zuen eian, juezak infernuan bezela». Eta ganadu beltzak bereala obeditu zioten.

Txerrizaia, birau ura botatzean oroitzen zan noizbait juezakiñ izandu zuen ikuskizunaz, eta birau arzaz baliatu zan Jaungoikoa juez jakintsu aren biotza ukitzeko; eta itzuli zan etxera pensatzen nolako kontu aundia eman bearko duten alako kargua dutenak, eta zenbait arriskoetan arkitzen diran, eta ala andik laister utzi zuen bere kargua eta joan zan Florenziara. Baña Jaungoikoak beretzat nai zuen ura, eta eratu zion ikusaldi bat San Franziskorekin, zeña miretsi eta amatu ezezik, artu ere zuen aren bizitza penitentziazkoa jarraitzeko asmoa. Aren seme bakarrak artu zuen bokazio berpera, eta ala biok, beren ondasunak obra piadosoetan enpleaturik, jantzi zuten pozik fraide Txikienen abittua. Ala asi zan betetzen Santuak alde aurrez esana: «Denbora gitxi barru giza-noble eta jakintsu asko bateratuko dira gurekiñ, joateko errege eta errien aurrean predikatzeraz».

Franzisko San Galoren konbentuan egon zan bitartean, joan zizaizkan bisitatzera uriko iru gizon beren semeakin, bedeinkatu zitzan. Santua itzik esan gabe joan zan baratzara, artu zituen bost piku, aurreneko aur biai eman zien

bana, eta iru atzenekoari, palakatzen zuen bitartean esanaz: «Aingerutxo, zu izango zera egunen batean nere semea». Esan ura bete zan andik urte gitxira bada azi zanean sartu zan fraide Txikienen Ordenan, artu zuen frai Anjel izena eta ala izan zan eramanaz bizitza osoro zerukoia.

Toskanan ibillera asko egiñ ondorean gure misiogille santua itzuli zan bere ikasleakin Ama Birjiña Aingeruenekora. Zaletua zegoen bere Porziunkula maitea eta lenbiziko lagunak ikusteko, eta gañera probatu nai zuen sartu berrien bokazioa, bada bildur zan sartu naiekoak geituaz zijoazen bezela ez ote zan gitxituaz joango oien berotasuna.

Denbora artan Ama Birjiña Aingeruneko konbentua zan Ordenako bedoitegi edo Nobiziduko etxe bakarra. Fundatzalle santuak ezaguturik lanbide baten ondo edo gaizki ateratzea, ondo edo gaizki asitzean dagoela, gorde zuen beretzat eskatzalleak artu edo ezartzeko eskubidea, baita ere erlijiozko bizitzako birtuteetan irakasteko kargua. Sartu nai zutenak geituaz zijoazen bezela, gogorrago portatzen zan nobizioak artzean, azi gaiztoa onarekiñ nastutzeko bildu-

rrrez. Mundukoak gauza gitxi dakite nobiziadu bat zer dan, eta esan diteke konbeni dala bera pasatzea jakiteko bertan sentitzen diran alegriak eta pruebak. Orregatik gure irakorleai gusto ematea uste degu, agertzen badiegu pruebako urte oetako misterioak, eta ikusi erazotzen badiegu zer izan bear duen fraide txikienen nobiziaduak San Franziskoren iritzian.

San Franziskorentzat nobiziadua da, ate bi iriak dauzkan Eleiza bat bezela, bata zerura begira, Jaungoikoari gizonaz itz egiteko eta bestea mundura, gizonai Jaungoikoaz itz egiteko. Fraide berri bakoitzarekin Kristoren zaldun leial, lagun urkoen serbitzari zintzo eta Ebanjelioko pobreza-ren maitatzalle egitea zan bere lan guziak zuzentzen zituen muga, eta iristeko ditxa izan zuena. Orra zergatik jartzen zuen al zuen arreta guzia eskatzalleen bokazioa ezagutu eta zuzentzen.

Lanik senzilloenak ematen zioten bidea aen birtutea prueban jartzeko, eta berariaz kondairatzalleak kontatzen dizkigute gertaera batzuek senzilltasun aiñ berezgarrikoak non ikasbide aundikoak badira ere, serbitzen ez dute munduko jendeai parra egiñerazotzeko baizik. Egun

batean bi joan zizaizkan abitu eske, eta Franziskok agindu zien baratzara joanda azak azpikoaz gora aldatzeko. Aetako batek ixil ixilik obeditu zion, ez ordea besteak, esanaz satisfazioarekiñ: «Aita, ez dituzte aldatzen orrela gure errian». San Franziskok artu zuen aurrenekoa eta despeitu bigarrena. Eta kondairatzalleak diote, obedienziaren sarian, landareak itzuli zirala berez zañaz beera, eta txit buru aundiak egiñ zirala.

Baña prueba aundia, bokazio egiazkoaren prueba, zan legenartsuen kontua idukitzea, zeintzuentzat Franziskok zeukan aiñ jaiera aundia, ikusi degun bezela. Miserikordiazko obra au zeukan beste guzien gaindikakotzat, sartuta laister esanaz eskatzalleai egin bearako zutela, eta bialduaz kanpora egiteko biotzik etzutenak, baño gogo onez legenartsuak serbitzera jartzen ziranak laztantzen zituen, esaten zien bitartean: «Ene anaiak, kontu egiñ dezaiegun legenartsuai, eta maitatu ditzagun, zergatik oek dira izatez anai kristauak». San Franziskoren dizipuluetako bat, frai Santiago, senzillua, berezitzen zuen guzien artean karidadezko obra ura egiten agertzen zuen zeloagatik, anbesteraño non ezagu-

tzen zan legenartsuen «adiskide eta sendagiñaren izenarekiñ». Franziskok enkargatu zion gorputz guzia zauri bat egiñik zeukan eri baten kontu berezia iduki zezala, eta aiñ ongi kontu egiñ zion non zerbait denbora pasata asi zan indarberritzen, eta bururaturik kanpoko aireak osoro sendatuko zuela, eraman zuen Porziunkulara. Franziskori txit gaizki iruditu zizaion ori egi-tea, eta itz biziakiñ esan zion Santiagori: «Ez da konbeni legenartsuak pasean erabilli ditzatzun. Nai det serbitu ditzatzula ospitalean, ez ordea kanpora ateratzea, zeren persona asko diran ikusi ere nai ez dituztenak». Legenartsua naigabetu zan, bere ongillari errietan ematen ikusi zuenean, eta Santua oarturik auspeztu zizaion eta eskatu zion barkazioa. Penitentzian jan zuen konbentuko atean eta legenartsuaren katillutik, eta gero laztandurik, bialdu zuen kontentuz.

Beste batean fraideak gaztigatu zioten, ospitalean kontu egiten zioten gaizki zegoen batek injuriatzen eta kolpatzen zituztela, eta gañera Jesu Kristoren eta bere Ama txit santaren kontra blasfemiak botatzen zituela. Injuriak eta kolpeak sufrituko zituzten kejatu gabe, baña blasfemiak

ezin eraman zituzten, eta bildur ziran ez ote zuten parte izango aren gaiztakerian, baldin segitzen bazuen ospitalean. Au Franziskok aditu zuenean, joan zan legenartsua ikustera, eta modu aundiarekin alderaturik agur egin zion, esanaz: «Jaungoikoak bere pakea dizula, ene Seme». «Pakea! Zer pake iduki dezaket Jaungoikoak kendu didan, eta nere gorputza zauri uts bat baizik ez dan ezker?»». Eta Santuak erantzun zion: «Anaia, iduki ezazu pazientzia. Gorputzeko gaitzak bialtzen dizkigu Jaungoikoak animaren onerako, eta ala, pazienziarekin daramazkigunean, biurtzen dira beste munduan izango degun koroari ezartzen zaizkaten diamante txit baliosoetan». «Baña, nola eramango ditut pazientzian, esan zion legenartsuak, une bateko deskansurik sentitzen ez badet, eta zure fraideak nere pena geitu baizik egiten ezpadidate?». Franziskok ezaguturik zeruko argiarekin errukarri ura gaizkiñak artua zegoela, andik zerbait alde egin eta arengatik erregutu zion Jaungoikoari, eta gero esan zion: «Nere anai errukarria, besteak gustorik egiten ez dizuten ezker, neronek serbituko zaitut». «Ongi da, erantzun

zion eriak, baña zer egingo didazu zuk besteak baño geiago?». «Zuk nai dezun guzia». «Atsegiñ artzen det. Garbitu zadazu gorputz guzia, bada aïñ usai kiratstua banatzen du, non neronek ere eziñ eraman det». Berealaxe Franziskok berotu erazi zuen usai gozozko belarrez nastutako ur likurtatsua, erantzi ta garbitu ziozkan zauriak. Eta Santuak eskua pasatzen zion tokietatik erortzen zizaitzkan kraka odoltsuak, azala agertzen zan gorriberritua, eta oraindik arrigarriagoa dana, gorputzeko legenarekiñ batean alde egiten zion animakoak. Konbertitu berriaren begietatik ixurtzen ziran negar malkoak, gañez egiten duen ontzitik ura bezela, eta damutasunezko itzak ateratzen ziran biotzetik ezpañetara, eta ezpañetatik igotzen ziran zerura. Ezagutu zuen umilki bere gaizki egiña, eta negarrez ziozan: «Nere zorigaiztokoa, infernua merezitu det erlijiosoak injuriatu eta Jaungoikoaz blasfematu dedalako!». Aren konbersioa izan zan osoa. Eraman erazi zuen apaiz bat, eta zeruko barkazioa jetxi zan, pekatuak egiteko beziñ bizia erremediatzeko ere izan zan anima aren gañera. Franzisko, mirari onen eskerrak misericordia guzia-

ren Aitari emanda, atera zan ospitaletik, bere umiltasunean alde egiteagatik konbersio arengatik emango ziozkaten alabanzetatik, eta utzi eman gabe Jaungoikoari, zor zaizkan onra eta gloria.

Andik amabost egunera Sakramentu Santuak arturik, Jaungoikoak eraman zuen beregana. Ez al zan ill, agertu zizaion Santuari suzko boillaren itxuran, baso batean otoitzean zegoela: «Ezagutzen nazu?» Santuari galdetu zion. «Nor zera zu?». «Zure merezimentuz Jaungoikoak sendatutako legenartsua. Gaur asten da neretzat betiko bizitza, zeñagatik eskerrak eman bear dizkitzudan, eta bai Jaungoikoari ere. Zure gorputz-animak, itz eta obrak bedeinkatuak izan bitez, bada anima askok zorko dizute beren salbazioa. Jakiñ ezazu ez dala egunik igarotzen Aingeru eta Santuak eman gabetanik eskerrak Jaungoikoari Zuk eta Zure Ordenak ateratzen dituzuten bizitzako frutuakgatik. Poztu zaitetz, bada, alaba ezazu Jaungoikoa, eta gera zaitetz beraren bedeinkazioarekin». Itz oek esanda ega egiñ zuen zerura, utzirik Franziskoren biotza konsueloz betea. Orra zer moduz alaitzen zituen nobizioak mendetasu-

nezko bideari jarraitzeko, eta nolako mirariakiñ saristatzen zuen bere serbitzariaren zela.

Fundatzalle santuak gorrotatzen zuen alperkeria, zeñari deitzen zion gaitz guzien iturria, anbesteraño non izatez jenio biguñekoa bazan ere, alperrentzat etzuen errukimenturik. *Iru lagun*en irakorgaian daukagu onen prueba. Nobizioen artean bazan bat jan eta edan ondo, eta lo lasaitasun guzian egiten zuena, ordea errezo gitxi, eta lana are gitxiago egiten zuen. Franzisko oartu zan, zeren etzitzaion ezerere pasatzen, eta beragana deiturik, despeitu zuen frailetzatik itz oekiñ: «Zoaz emendik frai Euli; aspaldi da bizi zerala, berak eztirik egiñ gabe, erleak egiten dutena jaten duten listor alperrak bezela»; eta akusakizun geiago gabe, despeitu zuen.

Franziskok gomendatzen bazuen ere lana, au da, lan onrotsu eta lagun urkoarentzat protxugarria, eta sarigabekoa, are geiago estimatzen zuen lagun urkoarekiko karidadea, zimendu Jainkozko au, zeña gabe etxerik zutik egon ezin ditekian. «Nai det, ziozan, gure arteko bakoitzak izan dezagula bata bestearekiko elkartasunik estuena eta senidetasunezko karidadeak erreina

dezala gure artean bere ondore estimagarriakiñ. Bedeinkatua izan dedilla bere anaiak maite dituen erlijiosoak, eta aen aurrean esango ez lukeana, aekiñ ez dagoenean esaten ez duena. Baldiñ arkitzen bada norbait zorigaistoan, lagun artean itz gaisto, eziñ ikusi edo gorrotoaren azi gaistoa erein duena, emango diozute kastigu gogoangarri bat, lagun urkoaren erraiak urratzeko bere mingañaz ezpataz bezela serbitu dala-ko». Amenazo oek egiñ eta laister eraman zioten aurrera karidadezko egiñkizunean utsegiñ zuen fraide bat, eta gure Santuak jakiñik, utsegite txikiak kastigu gabe uzten badira askotan ondore txit negargarriak ekarri oi dituztela, kondenatu zuen kulpaduna abitua utzitzera. Ura izan zan kastigu aundienetako bat, soldaduari desonratzeko graduak kentzea bezelakoa.

Prueba gitxi edo geiagoetatik pasaerazitakotan Fundatzalle Santua saiatzen zan sospertzen nobizioen biotzetan bere bokazioko birtute ego-kiak, eta erlijiozko bizitzaren zimendu bezela diranak. Ze inportanziazkoak diran nobizioai profesoakin bildurik gabero egiten ziezten itzaldiak, berak egiten dute bizitza espiritualeko liburu oso

bat; aetatik batzuek jarriko ditugu emen bear bezela estimatu ditzaten.

Maixu bikaiñ onen lenbiziko kontua zan sortueraztea bere ikasleai munduaren gorrotoa eta beren bokazioaren amorioa; eta ondorean agertzen ziezten konbentuko bizitzaren zimenduak, eskolatuaz batez ere guzia Jainkotitzen duen fedezko espirituan, zeñak erakusten digun Jaungoikoa ez dana, ez dala deus, eta eternidaderako ez dana, dala gezurra. Itz egiten zien oraziozko espirituaren gañean, nola dan au betiko bizitzarako janaria, eta gai oni zegokala maiz esaten zien: «Orazio gabe eziñ aurreratu diteke birtutean, eta ez iraun luzaroan nork bere bizimoduko egiñkizunen kunplimentuan. Fraide Txikienetakoak izan bear du guziaz gañ oraziozko gizona».

Oraindik geiago leiatzen zan Umilltasunaren gañean. «Umiltasunean ezagutzen dira Jaungoikoaren serbitzari egiazkoak: ala, bat izango da umilla, Jainkoak egiñ dion onaz arrotzen ez danean, bere burua ezertzat ez daukanean, itz batean, beste guzieren atzenean jartzen danean. Agertu ezazute umiltasuna. Ez ezazute nai Maixu

eta erakusleak deitu izatea, zergatik Maixuaren izena Jesu Kristori bakarrik dagoka. Obea da umiltasun asko jakinduria gitxirekiñ, ezen ez jakinduri asko umiltasun gitxirekiñ. Zorionekoa munduaren alabanzai beraren desprezioai anbat kaso egiten dion erlijiosoa, zeren gizonak ez duen balio Jaungoikoaren aurrean dana baño geiago. Zorionekoa onra eta kargu altuetara, berak eskatu gabe igotzen dan erlijiosoa, eta utzitzea baizik nai ez duena! Baña zorigaistokoa kargu billa dabillena eta beti euki nai lukiena!».

Umiltasuna da birtute bat barrengoa, eta modestia berriz au arpegian eta gorputzeko mugidetan adierazten duena, eta nola besteren konzienziarik ezin ikusi degun, umiltasunaren doaia da askotan, itz eder ondo apaiñduakiñ baño obeto jendeen biotzak irabaztea. Eta egia au obeto biotzean josi erazotzeko nobizio bati esan zion egun batean: «Guazen predikatzer».

Joan ziran Asisa, eta karrika guzietan itzik esan gabe ibilita, itzuli ziran konbentura. «Eta sermoia?» nobizioak galdetu zion. «Predikatua dago» erantzun zion santuak, zeñarekiñ adierazi

nai izan zion, ibillera modutsu eta umillak sermoirik onenak baño geiago balio duela.

Baña aren birtute maiteena, birtute guzien erregiña deitzen ziona, aren Ordenako zimendu eta pensamentuetako dama zan Ebanjelioko pobrez, nobizioen biotzetan jositzea nai zukean birtute bikañena. Amorstua dagoenak bezela, pasa nai zuen ikasleetara berak sentitzen zuen berotasuna. Aditu ditzagun pobrezarenganako amorioak esanerazten diozkan itzak:

«Nere anai eta seme txit maiteak: etzaitzte lotsatu limosna eskatzeaz, bada ala egiten badezute jarraitzen dituzute mundu onetan gugatik pobre egiñ zan Jaungoikoaren Semearen pausok. Onelako pobrezagatik irabazten dira zeruko erreinurako eskubideak. Zoazte, bada, limosna eskatzera Jainkoaren bedeinkazioarekin, zoazte bategatik eun eskeñita baño poz eta konfianza geiagorekin, zergatik Jaungoikoaren amorioa eskeintzen dezute aren izenean eskatzen dezutenean, eta zeru-lurrak ezer ez dira aren amorioaren parean. Oroitu zaitzte atez ate biltzen dan ogia dala Aingeruen ogia, zergatik Aingeru onak dira jendeak mugierazitzen dituztenak zuei Jain-

koaren amorez ematera, eta ala, pobreengan betetzen dira Dabid erregearen itzak: *Gizonak Aingeruen ogia jan du*. Jaungoikoak mundura ditu Erlijioso Txikienak, zerurako autuak izan dezaten karidadezko obra oek egiteko bidea, bada obra oekgatik izango dira gloriaztuak, Aita Zerukoak esaten dienean: *Nere senide txikienari egin diozutena, ori neri egin didazute*».

Beste mugaldi batean, aren itzak izan ziran irazekiagoak, eta ura itzaldia baño obeto zan kantua: «Jesus Jauna, deadar egiten zuen, erakutsi zaizkidazu zure Pobreza maitearen bideak! Erruki zaitez nizaz eta nere dama Pobrezaz, bada berazaz nago itxutua, eta ez tet sosegurik iñun arkitzen berarekiñ ezpanago, eta ongi daki zu, zerorrek jarri didazula amorio ori nere biotzean. Bide bazterrian eserita negarrez dago, eta bere adiskideak igarotzen zaizka aldamenetik despreziatuaz: o zeñ beeratzepenean erori dan erregiña au, Jesus Jauna, zu jetxi ziñan zerutik lurrera berarekiñ esposatzeko eta beragandik, beragan eta beragatik seme osoro onak izateko. An zegoan zure Amaren sabeleko umiltasunean, zegoan askan, eta zegoan armatua eskutari leia-

laren gisan gure Erredenzioko jazarre aundiak iraun zuen bitartean. An zegoan zure Pasioan, eta bera bakarra izan zan utzi ez zinduena. Maria zure ama zegoan Gurutzearen oñean, baña Pobreza igo zan zurekiñ, eta egon zitzatzun besarkatua alik eta atzeneko asnasea eman zenden arteraño. Berak prestatu zituen zure oñ txit santuak zulatu zituen iltzeak, eta egarritu ziñanean, berak, emazte leialak bezela ekarrierazi zizun esponja beazunetan bustia. Bere laztan beroetan eman zenduen atzeneko asnasea, eta ill ziñanean, etziñuen utzi, o Jesus Jauna, eta berak egiñ zuen, besteren obian zure gorputza jartzeko modua. Berak piztu ziñduan obian eta atera erazi gloriuz betea. Orregatik koroatu dezu zeruan, eta eman diozu zerurako autuak markatzeko sillua. Oh! nork ez du amatuko Pobreza gauza guzien gañean? O Jesus txit pobrea! eskatzen dizudan grazia da, izan dezadala pobreza aundienaren ondasuna. Egizu gure Ordenaren eta nere bizitzaren marka eta siñale ezagungarria izan dedilla zure gloria geiagorako, ardit bat ere gererik ez idukitzea, eta beste ongarrri edo seniparterik eskean biltzea baizik ez izatea».

Franziskok alabatzen zuen pobrezia oso auzan bera aundi egiten zuena, baña aunditasun ura zuen, gerezko ekarraiak gerra egiteko prest dauden griñen kontrakoa. Gerrak biziak anbat dirau, garaipena nekeza da, eta desalaiari beldur izan bear zaio; orregatik zion Santuak: «Bizi zaitzete ernai aragiaren desalai, batetango eraso eta saldukerien kontra, bada ori da gure etsai eriotzkoa. Kejaten da lenagoko gaitzak gogoratzean, eta ikaratzen da etorkizunen pensamentuarekin. Egin zaiegun, bada, gerra gure aragiaren gurariai, baña deskansu gabeko gerra, bada atsegiñ labur bat gozatzeagatik ostutzen digute betiko zoriona, amildu eraziaz infernuko ondarrera». Eziñ adierazi zezakean egokiago gure Santuak bi egia zimenduzko oek: kristau bizitza gerra dala, eta santutasuna ez dala arrazoiaren eta graziaren garaipena baizik aragi galduaren kontra.

Txit begiratu zana Jaungoikoagandik artzen zituen mesedak agertzeko, baña karidadeak edo animen onak eskatzen bazuen, etzuen erreparurik bere senideai kontatzeko. Tomas Zelanok dakarren pasarte bat da diogunaren prueba. Gau

batean gure santua, orduan bisitatu zuen Jaungoikoaren espirituz beterik, irten zan bere zeldatik eta ikasleak esnaaturik, esan zien: «Ah nere anaiak! Ze onra aundia zeruetako errege serbitzera deituak izana! Da gizonak soma dezakean aundiena! Baña, nola jakingo degu seguru geran edo ez, Jaungoikoaren adiskide eta serbitzari leialak? Bada nik aitortuko dizutet, eskatu diodala negarrez nere Salbatzalle miserikordiosoari, argitu nazala gai onetan, itz ematen diodala beti betiko berea izateko. Jaungoikoak eskaria aditu dit, eta bera agerturik, lanotasun guziarekiñ egiñ dit galdeera au: «Franzisko, zer emango ziniñdake deseoz dezuna jakiteagatik?». «Jauna, nere begiak eta bizia, zeña dan daukadan gauzarik onena. Gañerako guzia, denbora da eman nizula, dakizun bezela». «Ongi da, aditua izango zera. Pensa ezazu santuro, itz egizu santuro, obra ezazu santuro, eta zaude seguru, nere adiskide eta serbitzaria izango zerala». Ene Anaiak, zeruko esan onen berri eman nai nizuten, aprobetxatu dezazuten zuen aurrerapen espiritualerako, eta erreparu gabe erreprenditu nazazuten, iru gauza oetakoren batean uts egiten badet».

Konbentua zan familiabat bezela, eta Franzisko zegoen bere fraideen artean aita bat bere umeen artean egoten dan moduan, amorio berdiña, konfianza berbera. Deskansuko denbora guzientzat berdiña, jolas alegereak, senzilloak, tartean tartean itz onakiñ nastuak, baña murmurazioa eta gaizki esatea zegoen osotoro debekatu. Gure santuari gustatzen zizaion bakoitzaren merezimentuak agertzea, eta ala egiten zuen egoki zetorrenean iñor lausengatu eta iñor sumiñdu gabe. Ala frai Anjel señalatuaz esaten zien nobizioai: «Erlijioso txikiena on ona izateko, elkarganatu bear dira frai Bernardo Kintabalkoaren fede irazekia, frai Leonen garbitasun aingerukoia eta frai Anjelen kortesi berezia. Kortesia da gauza ona eta alabagarria, zion gañera, zergatik trataerari ematen dion ongi dagokan aire bat, eta birtutearen apaiñgarriztat serbitzen duenean dauka ekarrai txit arrigarria, mundutarrak lilluratu eta konbertitzera mugitzen dituen». Onetan zegoela etorri zan frai Jil, eta ixildu eraziaz galdetu zion: «Aita, bada munduan gauza aiñ gogaikarririk, *Aita gurea* esan bitartean sufritu eziñ ditekeanik?». «Bai, Santuak

erantzun zion, bada mostru aiñ ikaragarria, non Jaungoikoaren grazia berezi gabe, eziñ iñork begiratu lezaiokean minutu batean. Mostru au da deabrua».

Deabruen artean tristurari zion Franziskok beldur geiena, garamazkialako emeki emeki tristuratik desalaiera, eta desalaitik etsimenera. Orregatik ikasleai gomendatzen ziezten gaitz gabeko alegriak, eta animak deskansatzen dituen jostaketak, gaztigatuaz biguñki tristurara griñatuak ikusten zituenak. «Kontu, esan oi zien, espiritu gaiztoa askotan kontentatzen da gure anima nastu eta pakea kentzearekin. Ori da beraren engaño biurrenetako bat, bada asko du beiñ sartzea gaitzik aundienak erakartzeko, baña eziñ ofenditu dezake ezertan, alako tretaen kontra ernai dagoen erlijiosoa. Iduki ezazute beti arpegian eta biotzean Jaungoikoaren alegri santua. Ezagutzen da, deabruak eta bere jarraileak sufritzen dituztela tristuraren naigabeak, guk ordea beti egon bear degu alegere Jaungoikoagan». Egia au aiñ ondo sartua zeukan gogoan, non triste eta ixiltxorik zegoen nobizio bati esan zion: «Ene anaia, zergatik zaude orren eroria?»

Pekaturen bat egiñ al dezu? Au bakarria da gu atsekabetu bear gaituen gaitza. Zoaz otoitz egi-tera, Sagrarioaren aurrean bakarrik negar egiñ diteke pekatuen barkazioa iristeko, edo barren-go poza, beñ galdu ezker, oster geretzeko. Iduki ezazu arpegia beti alegere santuki nere aurrean eta zure senideenean, zergatik ez da konbeni kopeta beltz illuna idukitzea Jaungoikoaren serbitzuan gaudenean».

Eziñ ukatu diteke fundatzalle santuaren kon-selluak zeudela Jakiñduriaren silluarekiñ markatuak, eta aditzera ematen zutela, gizonaren biotzaren ezaguera aundia zeukala.

Alakoak ziran Ama Birjiña Aingerueneko konbentuan idukitzen ziran itzaldiak. Erraz ezagutzen da, alako ikasbideak aditu eta obratzeko gai ziranak prest egongo zirala edozeiñ sakrifizio egiteko.

Etzuten guziok iraun. Franziskok, biotzak eza-gutu eta alde aurrez etorkizuna somatzeko doaia aiñ oparo Jaungoikoagandik arturik, ikusten zituen aen animetan gertatzen ziran jazarrak, eta aprobeztatzen zan ezaguera onezaz argalak

sendotzeko, bildurtiak alaitzeko eta on irudiai tapakia kendu eta ziran bezelakoak azaltzeko.

Egun batean nola nobizioak agertu baizioten zeukaten pena, beren usteetan onena zanak alde egiñ zuelako, Santuak esan zien: «Ez zaitezte arritu aren joaneraz. Errukarri ura galdu da, umiltasunean zimendatua etzegoelako, eta sinistu nazazute, birtute au zimendutzat ez daukan etxea, da arrakatzera dijoan etxea».

Utsegite agirikoak erreprenditzen zituen bes-teen aurrean. Fraide biri asmatu zien izango zuten patu tristea. Ixiltasuna ez austeko apukoa-rekiñ, kiñuka baizik konfesatu nai etzuen bati esan zion Ordenatik irtengo zala; eta abitu santua utzi eta ostera artu nai zuen beste bati berriz, urkatua izango zala itzultzen bazan lena-goko utsegiteetara. Alde aurrez esandako somaketa biak, kunplitu ziran, eta Franziskok samiñki negar egiñ zuen galerazi eziñ izan zituen desgrazi aekgatik.

Bokazio egiazkoak palsoetatik bereizten saiatzen zan bezela, pruebako urtea pasa ezkerro, kontu aundia zeukan partitzeko konbentuko karguak artarakoenetan Jaungoikoaren gloria geia-

gorako. Zentzu aundi eta segurukoak zirala eza-  
gutzen zituenak, bialtzen zituen konbentuak jar-  
tzera, Obispo Jaunak eskatzen zuten eran, itz  
egiteko grazia zutenai seinalatzen zien predika-  
tzeko kargua, eta gañerakoai uzten zien entre-  
gatu zitezela errezo-meditazioetara, edo eriai  
kontu egitera. Berak guziaz ejemploa emanaz,  
bazirudien beregan biltzen zituela guzien boka-  
zioak.

Jaungoikoak betetzen zuen bedeinkazioz  
Ama Birjiña Aingeruenekoen konbentua, nora  
zijoazen ikasle berriak toki guzietatik, eramanik  
gure Santuaren birtuteak banatzen zuten usai  
gozoak.

Ikusi degu zein ondo atera zitzaizkan nobizia-  
dua jartzeko egiñ zituen alegiñak; ondorengo  
berezieran ikusiko degu bere errian egindako  
apostolutzaren asiera, bilduko ditugu berarekiñ  
bere lanen lenbiziko frutuak, eta jarraituko diegu  
bere misioaren aurrerapenai. Gurutzearen itza-  
lean eskolatu du lenbiziko soldadu—taldea dea-  
bruari, munduari eta aragiari gerra egiteko, eta  
iritxi ere ditu garaipen seinalatuak. Erriak mugi-  
tzen dira, pekatariak konbertitzen, eta giza-

noble asko pobreza borondatezkoaz amorioztu-  
rik gure Santua bezela, eiaka zijoazen aren ban-  
derapean sartzera. Alaz guziaz ere, ura etzan  
bere mixio protxugarriaren asiera baizik. Probi-  
denziak zeukan señalatua gizonak ezezik, ema-  
kumeak eta denbora aldi ura guzia salbatzeko.  
Argatik emango dio beraren diñako laguntzalle  
bat, Santa Klara, Asisko Birjiña argia, donzella  
pobreen Ama izango dana, San Franzisko, Erlijio-  
so Txikienen Aita dan bezela. Bada bigarren  
Orden au sortzeko Jaungoikoak autu zuen tokia  
izan zan oro bat Porziunkula. An azalduko da Kla-  
raren bokazioa, argiro ikusi dediñ Maria dala bi  
Orden Serafiñdarren Ama, eta Ama Birjiña Ainge-  
ruenekoan Eleizatxotik atera bear zuela amairu-  
garren eunkiaren berritzea.

# Vilgarren Bereziara

*Santa Klara eta Dama pobreak.*

(1212)

Santa Klara jaio zan Asisen. Faborino eta Ortolana beraren gurasoak ezkontzarekiñ bate-ratu zituzten uri artako etxadi anziñako eta txit argi Szefi eta Fuimitarrak, zeĩntzuen aide artean kontatzen ziran Errufino eta Silbestre doatsuak. Kondeak zeukan Subaso mendiaren egutera egalean Sasso-Rosso zeritzan gaztelu bat, zeñaren siñaleak oraindik ikusten diran. Kondesa joan zan deboziozko erromesean Jerusalem, Gargano mendira eta Erromako San Pedrora, eta etxera-tzean Jaungoikoak begiratu zion miserikordiare-kiñ, eta Ortolanak barau eta orazioen bidez iritxi zuen beraren diñako alaba bat, Samuelen amak bezela.

Egun batean Jesus gurutziltzatuaren aurrean belaunikaturik, erraietan zeraman frutua bedeinkatu zezala Jaunari eskatzen zegoela, aditu zuen aingeruen gisako itz ots gozo bat, esaten ziona: «Etzaitez ikaratu, Ortolana, emango dezu argita-

ra aur bat, mundu guzia argituko duena». Itz oetan adierazitako aurra jaio zan andik egun batzuetara, parra gozoa ezpañetan zuela; bataiatu zuten, amabi urtez aurretik San Franzisko bataiatua izan zan ponte artan bertan, eta amak nai izan zuen Klara izen ederra jartzea, geroenean emango zuen argitasun aundiaren irudia bezela. Egun artan, zeña zan 1194ko uztaillaren 16garrena, zeru-lurrak atsegiñez bete ziran.

Klara zan inozentzia eta piedadearen ispillu bizia. Aurtasunetik asi zan bere burua nekatzen eta ilduratzen, eta orretarako zeraman zilizio edo zurdazko soka bat bere soñeko ederren barrendik. Zan gorputz aundikoa, arpegi egoki eta ederrekoa, kolore presko eta gorrikoa, eta buruko illea berriz txit aundi eta urre gisakoa. Gurasoak ikusirik argan ainbeste grazia, munduan eroso izateko bidea ematea beste asmorik etzuten; Klarak ordea etzuen orrela pensatzen, eta emezortzi urtetara iritxi zanean, erabaki zuen eskeintzea erregeen erregeri bere birjiñtasuneko lorea. Jaungoikoak lagundu zion Klarari

bialtzen ziola Franzisko, lurrean bere giari eta zeruan betiko adiskide izan bear zuena.

1212ko garizuman Santuak predikatzen zuen Asisen San Jorjeko Eleizan, eta garizuma artan, predikatzen aurrenekoa bazuen ere, Franziskok zeuzkan irabaziak aditzalleen biotzak bere itzera guziz egokiarekiñ.

Klarak ezagutu nairik jendeak anbesteraño alabatzen zuten gizon miragarri ura, iritxi zuen bere ama eta aizpa Agedagandik eraman zezatela gau batean ari aditzera, eta ez al zion aditu, alabatu zuen, eta erabaki bere animako giaritzat artzera, eta asmo au agerturik Bona Gelfucci bere aide eta konfianza guziko personari, joan zan onekiñ ixiltxorik Ama Birjiña Aingeruenekora. Anziñako kondairatzalleak utzi digute itzkribatua itzaldi bizi eta senzill batean lenbiziko ikuskera au. Franziskok, ezaguturik zeruko argiarekiñ zeukala bere aurrean ondasun bat, munduak merezi etzuen, agertu zion Klarari birjintasunaren balioa, Zeruko Esposoaren edertasun paregabea, eta denborak desegiñ eziñ dezakean batasunaren ditxa esan eziñ añakoa. Gero, probatzeko bezela esan zion: «Ene alaba, zure

bokazioa sinistu dezadala nai badezu, utzi itzatzu orrako soñeko eta apaiñduria oriek, saku bat jantzi, eta zabilitza eskean atez ate». Klarak, obeditu zion batera enura gabe.

Garizumaren bukaeran joan zan ostera Fundatzalle santua ikustera. Lenbaitlen nai zizaion osoro eman Jaungoikoari, eta bere Jesusekiñ bat egiteko palta zitzaizkan egunak iruditzen zitzaizkan urteak; gañera berriz, Franzisko bildur zan lore aiñ minbera ez ote zizaion belaskatuko munduaren asnase puzoitsuarekiñ, eta uste zuen ordua zala aldatzeko Erliziozko bizitzaren lorete-gira. Erabaki zuten egiteko añ aundi au egitea 1212ko martxoaren 19an zan Erramu Igandean.

Birjiña gaztea bere gala guziakiñ apaindua, joan zan Asisko Katedralera, baña oitura zan bezela, erramu bedeinkatuak artzera aurreratu bearrean, geratu zan bere lekuan begiak lurrera begira zituela, eta Obispo Jaunak ikusirik, bera-gana joanda eman zion palma-adar bat, munduagandik iristera zijoan garaipenak adierazten zituena. Urrengo arratsean, jende guzia lotan zegoen denboran Klara irten zan bere gurasoen etxetik, emaztegaia bere ezkontzako egunean

bezela jantzia, Bona bere adiskide leiala lagun zuela, eta joan zan Ama Birjiña Aingeruenekora, nun fraideak itxedoten zioten zirio irazekiakiñ. Franziskok ebaki zion illea munduko banidadeak uzten zituen siñalean, para zion soñeko basto, auts kolorekoa, lotu zion gerria soka batekiñ eta estali burua zapi lodi batekiñ. Gero belaunikaturik Ama Birjiñaren imajiña aurrean, Klarak egiñ zituen bere botoak, eta partitu pobreen artean bere jantzi balioso eta apaiñduriak. Sakrifizioa osoro egiña zegoen. Franziskok eraman zuen orduan Klara S. Pauloko konbentura, nun bigarren Ordenak, lenbizikoak bezela, bere bizilekua artu zuen San Benitokorenetik.

Eziñ pensatu diteke S. Franziskok au guzia egiñ zuela Jaungoikoaren goiargi eta Asisko Obispo Jaunaren eskubide gabe.

Etzitzaiozkan paltatu sufritu bearrak gure Santari: Gurasoak joan ziran S. Pauloko konbentura, eta erreguakiñ ezer eziñ zutenean, tratatu zuten gogorki andik ateraerazitzeagatik, baña Klarak, agertu zien burua ille-moztua, eta aldareko pillareai itsatsirik, atera zan garai eraso artatik. Beste alako batetik libratzeagatik, eraman

erazi zuen Pausoko Aingeru Santua deitzen zan Benitoen beste konbentu batera.

Klara izan zan Donzella Pobreen birjiñ jardiñeko lenbiziko lorea, eta aren aizpa Ageda, bigarrena. Au zan 14 urteko donzellatxoa, lirioa beziñ garbi, eta ardia beziñ mansoa. Klarak eskatzen zion Jaungoikoari, aren aizparen errukimentua izan, eta birjiñen maiean leku egiñ zeiola. Jaungoikoak aditu zion eskaria, eta andik egun gitxira joan zizaion Ageda esanaz: «Ene aizpa, nik ere Jaungoikoa serbitu nai det zurekiñ batean». «Ene aizpa maitea, erantzun zion Klarak laztanduaz: bedeinkatzen det Jaungoikoa, bete dalako nere animaren deseo biziena».

Klara eta Ageda! ona bi aizpa, bi triunfo San Franziskorenak, bi arkume garbi zijoazenak sakrifikatzer a Jaungoiko biziaren aldarean, mundutarrak atsegiñ galgarrietara dijoazen baño bizitasun geiagorekiñ.

Ikuskarri biguñ onekiñ Aingeru Santuaren konbentua poztutzen zan bitartean, beste gauzarik pasatzen zan Sta. Klararen etxean. An aditzen ziran pena, arrabi eta desesperazioko garraxiak. Faborino Kondea burutik egiña bezela

zegoen. Laister bere adiskideak bildu, eta agertu ziezten bere sentimentuak. Oetako amabik artu zituzten armak, eta juramentu egiñ zuten ekarriko ziotela ostera bere alaba, illa edo bizirik. Leku sagraduari batere begiratu gabe, sartu ziran konbentuan, eta batek Agedari buruko illetik elduta, atera zuen arrastaka mendiaren egaleraño, baña bereala Agedaren gorputza aiñ pixua egiñ zan, non eramantzalleak ezaguturik etzute-la bear adiña indar, utzi zuten erreka zistor baten ertzean. Agedaren osaba Monaldok, altxa zuen esku sakrilegoa, zeukan ezpatarekiñ eritze-ko ustean, baña besoa legortu zizaion geratuaz mugitu eziñ zala. Bitartean allegatu zan Klara, eta erregutu zien bere aideai, arren utzi zezaiotela Agedaren gorputz odoldua, eta onekiñ zaldunak, ikaraz eta kezka betetik alde egiñ zuten andik, bi aizpak laztandurik, Jesu Kristogatik sufritzea merezi izan zutelako poztu eta peligro artatik libratu ziralako Jaungoikoa bedeinkatzen zuten bitartean. Esan dezagun bereala, familiarren borondate gaizto ura txit laister itzuli zala naitasun txit arrigarrian. Monaldo sendatu zan millagro, eta ezaguturik sendaera ura zor ziola

illoben orazioai, biurtu zan esker onez aen defentzalle, Faborino jarri zan Jaungoikoaren borondatera, eta andik denbora gitxira ill zan justuen eriotzarekiñ.

Fundatzalle santuak jantzirik Agedari penitenziako abittua, para zituen aizpa biak San Damiango Eleiz, aurrena konpondu zuenaren aldameneko etxean. Ala egiztatu zan bost urtez aurretik San Franziskok esan zuena, au da, Dama pobreen konbentu bat San Damianen izango zala.

An sartu zan Klara borondatezko kartzelan bezela, nondikan etzan irten zeruko zorientasunera joateko baizik. San Damian izan zan Dama pobreentzat, San Franzisko eta bere lagunentzat Porziunkula bezela, lur bedeinkatu bat munduarentzat itxia, eta bakarrik zerurako irikia. Nork esan dezake zenbat lore azi ziran bertan, nolako usai gozoak banatu ziran zelda txar aetatik, eta zenbat aingeru aragizko igo ziran andik gloriara? Askoko degu esatea, aurrenetik bokazio asko izan zirala, eta Abadesa Santak ikusi zituala bere inguruan moja asko eta asko, eta oen artean bere ama Ortolana, alargundu zanean, Beatriz

bere aizpa bestea, eta lenago aitatu degun Bona Guelfuccio.

Jarria geratu zan, bada, bigarren Ordena Penitenziakoa, geroenean Klarisen ordena deitu zizaiona. Franziskok izkribatu zuen berarentzat Erregla bat Erlijioso txikientzakoenaren antzekoa, beste egiñbide berezi batzuekiñ, eman zien Dama pobreen izena, jarrierazo zuen Klara San Damiano Abadesa izatera, eta nai izan zuen familian bizi zedilla, aurrena jarritakoa bezela, pobreza osoko arroka gogorrean. Maiz zuzentzen ziozkan konselluetatik, ez da guganatu eskutitz labur eta bizi bat baizik, zeña eskeiñtzen diegun gure irakurleai San Franziskoren itzkera-gordairuko prenda baliosoeneko bat bezela. «Ni zure Serbitzari ezerez onek jarraitu nai ditut Jesu-Kristo eta bere Ama txit santaren bizitz pobrezak, eta iraun onetan eriotzaraño. Zuei bada, nere damai bezela, erregutzen dizuet alegiñ guzian, gorde dezazutela beti onelako bizitza eta pobreza, gai onetan entzun gabe iñoren esan eta konsellu kaltarkitsuak».

Santa Klararen diñakoa zan onelako itzkera, eta eskutitza irakorritakoan, esan zien lagunai:

«Atozte, atozte uso mansoen gisan pobrezako kabian gordetzera». Santa Klarak etzuen zelo gitxiago agertu S. Franziskok baño pobrezako botoaren kunplimentuan, eta ala egiñ zuen ondasunen errenunzia betikoa beretzat eta bere ordenarentzat. Eta gauza jakiña da nola gogor egiñ zien Aita Santuen erreguai, boto ura ez aus-teagatik. Gregorio IXgarrenak eskeñi ziozkan egun batean lur batzuek bere Ordenarentzako, denbora tristeetan bizi ziralako, eta ikusirik artzako uzkur zegoela, esan zion: «Zure botoak eragozten badizute artzea, nik oetatik askatzen zaitut». «Aita Santua, Klarak erantzun zion, zorionekoa nitzake nere pekatu guzien barkazioa iritxiko banuke; baño ez det nai askaera bat Ebanjelioko konselluak jarraitzetik libratzen nauena». Azkenik, milla erreguren bidez iritxi zuen Inozenzio IVgandik pobrezako boto betikoa egiteko eskubidea, Erromako Tribunalean eskatu dan bakarra; eta Aita Santuak izkribatu zion Santa Klarari eskutitz bat, guk emen jartzen deguna, Eleizako kondairetan beste agiri bat ala-korik ez dalako:

«Inozenzio Obispo, Jaungoikoaren serbitzarien serbitzaria, Jesu Kristogan bere alaba maite Klarari, eta Asisko San Damiango Konbentuko beste mojai, osasuna eta bedeinkazioa».

«Nola eskeñi nai bai zeraten osotoro Jaungoikoari, eta utzi munduko gauza guziak, zuen ondasunak saldu eta oen prezioa pobreaki partituaz, bidea, egia eta bizitza dan Jaungoiko Pobreaki pobreza oso osoan jarraitzeko; ez dizute ezerk ere galeraziko asmo aiñ santua betetzea; alabaña, kanpoko egaztiai jaten ematen dien Jaunak, eta belar eta lorez lurra estaltzen duenak, mantendu eta jantziko zaituzte, betiko zuen jakia Berbera izango dan eguneraño. Nola eskatu baidiguzun pobreza osoaren gallaldia edo pribilejioa, eskutitz onen bidez agintzen degu, iñork ere, dana dala, etzaitzala beartu munduko ondasunik artu, euki edo gordetzera. Goza dezatela Jaungoikoaren pake santua Jesu Kristogan zuk, zure erlijiosak eta San Damiango konbentua maitatzen dituztenak, eta Juizioko egunean ardezatela saritzat betiko zorientasuna».

Denborak konsagratu du pribilejio au millagro bereziakiñ. Seireun urte badira Santa Klara-

ren aizpak Jaungoikoaren Probidenzian bakarrik daukatela konfianza, eta beste ainbeste denbora bada Probidenziak, ama ernai batek bezela daukala Santa Klararen mojen kontua. Jateko ogirik ez dutenean jotzen dute konbentuko ezkillak, limosna eske daudelazko siñalean, eta iñork sokorritzen ez baditu bedeinkatzen dute Jaungoikoa, eta bazkariaren ordezkantatzen dute alegere esker-onesko kanturen bat.

Klarisen Ordena zabaldu da munduan Erliioso txikienen moduan, eta izan ditu ark bezelako gora berak. Santa Koletak bihurturik aurreneko gogortasunera XVgarren eunkian, eskeintzen die gorde leku eta munduko gaiztakerien kontra erremedio bat neke eta sakrifizioak eramanzale diran animai, eta bi alde oetatik begiraturik merezi du jendeen errespeto eta kristauen eskerona. Baña esan bear degu, eta diogu pena aundiarekiñ, munduak ez dio beti justizia egiñ anima garbi oen sakrifizioai. Munduaren Era edo Edade erdian Santa Klararen alabak artzen zituzten non nai poz zoragarriarekiñ, eta etzituzten arkitzen bear anbat alabanza Jainkoaren amoriozko biktima borondatezko oentzat. Zergatik? Zergatik

denbora aetan fedea eta kristau sensuabezego-  
en; oraingo denbora oetan ordea, ez die ekarri  
berai alako ongina eta errespetorik. Emezortzi-  
garren eunkiak, au da Voltairenak, edo deserritu  
zituen, edo eraman zituen urkamendira erlijiosak  
ziralako bakarrik, eta oraingoak utzitzen badie,  
ori da, persegitzeko asmoa daukalako. Gaur dan  
egunean bada jende parte bat, jakintsuna eta  
besteen giaria esan genezakeana, begi gaiztoz  
Klarisai, beste Ordena Erlijiosoai bezela begira-  
tzen diena, esanaz ausardi aundiarekiñ: «zer egi-  
ten duten errezaz barrendik daudenak, zergatik  
lurpetzen dira bizirik, lau pareta tartean obi  
batean bezela?».

Erantzueria da txit erraza. Oek egiten dute  
Santa Maria Magdalenak Jesusen oñetan egiten  
zuen lana. Ez dio Ebanjelioak autu dutela parte-  
rik onena, eta Mariaren egoera Martarena baño  
ederragoa dala? Pensatu nai duen edozeiñ kris-  
tauk arkituko du Jaungoiko beragan Orazia  
emanak dauden Orden Erlijiosoen izaeraren  
arrazoia. Gauza guzien Jabe soberanoak eztauka  
eskubidea aukeratzeko animen batzuek desegiñ  
ditezen bere aurrean aldareko lanpara argia

bezela? Eta galdetu nai badiezute zer egiten duten, galdetu orobat, zer egiten duten orrako zeru boillan zinzilik dauden izar, gizonak egundaño kontatu eziñ dituenak. Zergatik lorerik ederrrenak para ditu eremuan, baldiñ an beren usai gozoa gizonagandik urruti banatzen badute? Zergatik serafiñak inguratzen dute bere Jargoia, aingeru mandatariak kriaturetara bialtzen dituen bitartean? Jaunaren birjiñak alabatzen dute Jaungoikoa gau ta egun izar, lore eta serafiñak bezela. Au ez da asko? Zeiñ zerate zuek, gizonen umeak, zuen interes eta gloria Jaungoikoaren interes eta gloriaren parean jartzeko? Baña ez pensa moja Klarisak ez dutela deus balio mundurako, bada bizitza penitente eta santuzko ejemploakiñ serbituaz gañera, serbitzen dute beren orazioakiñ: Ah! Sar al bagindezke Jaungoikoaren gauz ezkutuetan, arriturik geratuko giñake ikustean munduko gauzetan ere oen lanbideak daukaten indarra. Nai ditugu diogun egiaren pruebak? Irakurri bedi Santa Klara Asiskoaren bizitza, eta orri bakoitzean ikusiko da diogunaren arrazoia. Beste askoren artean kontatuko ditugu gertaera bi.

1239garren urtean ogei milla sarrazeno edo turko Federiko Igarrenak soldatan zeuzkanak inguratu zuten Espoletoko ballera, Aita Santuari zion leialtasuna kastigatu, eta Erromako murrue-tan Enperadoreak berak sufritu zuen auzi-abarza bengatzeko. Eziñ kontatu litezke gizon basati aek egiñ zituzten gaiztakeriak, suturik uria sakeatzeko esperanzarekin, eta kristau izenari zioten gorrotoarekiñ. Igarotzen ziran suzko pillare bat bezela, utziaz beren ondoren negarra, miseria eta eriotza. Onelako etsaien artean iruditu diteke nolako ikararekiñ egongo ziran erriak. Jarri zituzten beren etzauntzak San Damiango konbentuaren aurrean eta ikusirik etxe ura defenza gabe zegoela, erabaki zuten artzea, eta ala gau batean eskallerak parata igo ziran murrugañera uju eta iskamilla aundiak emanaz. Moja errukarriak aurreneko ujuak aditu zituztenean, joan ziran ikaraz abadesaren anparura, txitoak mirua ikustean kolkaren egopera dijoazen bezela. Santa Klara zegoen oatua aspaldian aultasunezko gaitzarekiñ, baña estuasun artan bere gaitzaz aztu, eta bere lagunuen peligroa baizik gogoratu gabetanik, altxa zan oetik, eta arturik

Sakramentu Santua gordetzen zan kopoi edo ontzia, para zuen sarrazenoak pasa bear zuten ataburuan, eta belaunikaturik, egiñ zion Jesus Sakramentatuari erregu au: «O Jesus, utziko diezu fedegabeen mendean erortzen zure amoriozko esnearekiñ mantendu dituzun zure serbitzari umill oei, eta emango dieztezu pizti gogor oei zure izen santua aitortzen duten birjiñak? Nik eziñ gorde ditudan ezkeru zure anparupean ipintzen ditut». Oraindik Klara erregutzen zegoen, aditu zuenean aurraren gisako itz ots bat, ziona: «Bai, beti gordeko zaituztet». «Jauna, esan zion berriz Klarak, gorde ezazu oro bat, zure amorez gu mantentzen gaituen uri ongillea». Eta zeruko bozak erantzun zion: «Uriak eraman bear asko izango du, baña ez da ondatuko». Promes onekiñ sosegaturik, Klarak esan zien mojai: «Nere alaba maiteak, ez negar egiñ. Ziertozat daukat, etzaguila batere gaitzik gertatu bear. Para konfianza guzia gure Jaungoikoagan». Au esatean agertu zien kopoia fedegabeai, zeñak ikaraturik, edo zeruko argiarekiñ itxuturik, berealaxe ies egiñ zuten.

Andik zazpi urtera 1246ko urtean Asis arkitu zan beste perill guzizko batean. Alemaniako enperadore Federiko bigarrenak beti zeukan gerra agiri edo estalia Aita Santuaren kontra, eta bera beziñ gaisto eta gogorrak agintari ordezkokak beti zeramazkiten Italiako erri batzuetara gerraren ondamen triste eta negargarriak. Vital de Aversa, aetako agintari batek para zion inguru Asisko uriari urte onetan, erreerazi zituen laboreak, atera arbolak, eta egiñ juramentu, etzuela andik alde egiñgo uria menderatu gabe. Biztanleak, nola baiziran gitxi denbora luzean gogor egiteko, egun batetik bestera uste zuten labanaz pasatuak, edo erriaren ondamenean lurpetuak izatea. Estuasun aundi onetan Klarak bildu zituen bere mojak, eta esan zien zein penatua zegoen, bada Santuak beren biotzeko sentimentuetan ez dute berezitzen Jaungoikoaren amorioa eta beren erriarenganakoa. «Aizpa maitteak, esan zien abadesa beneragarriak, erri onek ematen digu guri eguneroko ogia, beragatik bidegabekeria aundia egingo genduke sokorrituko ez bagenduke gure indarren neurrian». Bereala buruak autsez estali zituzten, eta Sagra-

rioaren aurrean belaunikaturik, eskatu zioten Jaungoikoari negarrez, arren, uria libra zezala.

Birjiñ aen erregua aditua izan zan, eta biaramon goizean (San Juan, illaren 22an) setiatzalleak, barrengo jendearen itxumustuko irtenaldiarekin nasturik, uste izan zuten salduak izan zirala, eta batetango ikaraz beterik, utzi zituzten beren dendak eta ies egiñ zuten eragabero. Uri Serafiñdarra salbatu zan. Eta beraren onrarako esango degu etzala engañatu millagroaren motiboaren gañean, bada etzion egokitu agintarien azkartasunari eta soldaduen baloreari, ezpada Faborinoren alabaren merezimentuen bitartekotasunari. Guziok batetan alabatzen zituzten Judit berri onen birtuteak, zeñazaz baliatu zan Jaungoikoa beste Holofernes ura bentzutzeko, eta uriko karrikaetan aditzen ziran pozkariozko kanta eta soñu ederrak, Betuliakoetan aditu ziran bezela, ango sitiatzalle gogorraren eriotz ondorean.

Añ aundia da orazioaren indarra erlijiosoen ezpañetan. Eta bitartekotasunezko egiñkizun au obeto betetzeko mojak erretiro osoan eta garbitasunik tatxagabeenean bizi badira, ez dira

bedeinkatu bear? Eta ez da bildur izatekoa baldin mundu galdu eta gaizto onetan bizi balira kutsatuko lirakeala eta aen barau-bijiliak alperrikakoak izango lirakeala? Beragatik moja Klarisak konbentuko bakartasunean sartzen diranean, munduak orretatik artzen du mesedea. Jende txek, askotan beren buruak jakiñtsun egiten dituztenak baño geiago dakienak, au ezagutu du berezko zenzuarekiñ. Zorigaitz aundiak inguratzten gaituztenean deitzen du mojen konbentuetako ateetan, eta eskatzen die beren besoak zeruronz altxa, eta beren errezoakiñ desarmatu dezatela Jaungoikoaren justizia. Jainkoari nai dakiola oraingo Gobernuak giatzea konfianza eta justiziazko sentimentu oetatik, ezagutu dezaten nun dauden adiskide egiazkoak eta galtzer dagoen munduaren salbatzalleak. Zenbat geiago ikasten duten kristau erriaren kondaira, anbat argiroago ezagutuko dute urrezko letraz izkribatzea nai gendukean egia au: *Konbentuek dira santu geiago egiten diran tokiak, eta santuak dira munduari eusten diotenak.*

Penitenziako bigarren Ordenaren sortze, aurrerapen eta protxuari begirada au emanik,

biur gaitezen osteria Santa Klaragana, esanaz zerbait beraren merezimentu eta birtuteen gañean, zeñak diran egiaz Aita San Franziskoren obra. Ez ote du merezi begirada bat berari egitea? San Franziskoren alaba espiritual, aren diñako lagun oitura galduak zuzentzeko lanbide aundian, eta beraren jarraitzalle santutasunean zan onek dauka leku berezia XIIIgarren eunkiko kondairan, izanik bera denboraldi ura edertzen duen gloria garbienteko bat.

San Franziskogandik ikasi zuen Jesus Sakramentatuarenganako jaiera biguña, eta ordu osoak aldare aurrean pasatzeko oitura piadosoa. Eri bazegoen, askotan gertatu oi zizaion bezela, oean eserita iruten zuen liño piñ piña, zeñarekiñ egiten zituen korporalak Eleiza pobreetarako, agertuaz orrela Aldareko Sakramentu Santuarenganako bere debozioa. Aiñ umilla zan, non guzien buru edo abedesa izanik, egiten zituen konbentuko lanik bilutsenak; aiñ karidadegillea, non egiten zan Jaungoikoaren serbitzarien serbitzari; aiñ modutsua, non bere bizitzan beiñ baka-rik altxa zituen betazalak, Aita Santuari bedeinkazioa eskatzeko, eta orduan ikusi zan begiak

zeru-koloreko urdiñak zituela; aiñ mortifikazio aundikoa, non egunik geienetan barautzen zuen txit gogorki; itz batean, zeuzkatzian bere Aita doatsu San Franziskogan ikusiko ditugun doai edo perfezio barrengo guziak.

Berriz ere arkituko gera Santa Klararekiñ beste mugaldi bietan, baña bitartean bagoaz kontatzera emen *Loreetxoetako* liburuan ikusten degun pasarte bat, *Santuen bazkaria* izendatu litekeana. Da San Benito eta Santa Eskolastikaren *Agurraren* berritze bat.

Franziskok maiz bisitatzen zuen San Damian-go konbentua, bada bere atsegiña zan muñtegi ura bere itzarekin eskolatu eta giatzea. Abadesak, esker biotzekoenak anbesteko ernaitasunagatik emanik, erregutu zion askotan utzi zezaiola Porziunkulara bisita bat egiten, zeña zan deseo txit bidezkoa Santa Klaragan. An igaro nai zuen egun osoa arekiñ batean, bertan elkarrekiñ bazkari-mokadua egiñaz, baña San Franziskok etzuen nai izandu. Ama Birjiña Aingerueneko praideak jakindu zutenean Santa Klararen eskaera, ondo iritzirik, beraren alde itz egin zioten San Franziskori modu onetan: «Uste dezu

usatzen dezun gogortasuna ongi datorrela Ebanjelioko aginteakin? Santa Klara da Jaunaren Birjiña maitea, eta eskatzen duena berriz, ez neke eta inportanzi aundikoa, eta enpeñatu dan ezke-ro, zergatik zuk kontra egiñ bear diozu? Etzatzu gogoratzen zure esanera utzi zituela munduko arrokeriak, eta lirio guzizko ori zuk aldatu zenuela zeruko esposoaren jardiñean? Egiaz da zure alaba espirituala, eta eun bider geiago balio duen gauzaren bat eskatuko balizuke, etziñioke ukatu bear». «Uste duzute, esan zien, aren deseoa kunplitu bear dedala?». «Bai, guziok batetan erantzun zuten, merezi du». «Ongi da, egiñgo det zuen iritzia, eta Klararen poza oso betea izan dedin, nai det etorri dedilla Ama Birjiña Aingeruenekora kolazio egitera. Aspaldi da San Damianen itxitua dagoela, eta poz aundia sentituko du ikustean berriro Jesu Kristoren esposaren beloa artu zuen konbentua. Emen, bada, guziok jango degu elkarrekin Jaunaren ize-nean».

Franziskok señalatu zuen egunean egiñ zuen Klarak erromeri ura bere mojaetako batekiñ, eta beraren billa San Damiana joan ziran fraide

batzuekiñ batean. Santua atera zizaion bidera, eta aurrena eramán zuen profesioako urriñ gozoa oraindik sentitzen zan Porziunkulako kapillara, eta gero konbentu barrena. Maia zegoen prestatua, eta zan mantel pobre bat lurrean zabaldua, San Franziskoren oiturara, eta onen gañean ogi batzuek jarriak. Franziskok bedeinkatu zituen, fraideak jarri ziran inguruan, eta aren parean Klara bere lagunarekiñ. Etzegoen an ezer arinkeria edo mundutar gauzarik. Ez al ziran asi jaten, noiz eta Franzisko jarri zan jolasean Jaungoikoaren gañean, eta aiñ itz egoki eta biziakiñ egiñ zuen, non bazkaldarrak zeruko atsegiñez berengandik irtenik aztu ziran gorputzeko jakiaz. Denbora berean Asisko jendeak, Betona eta ingurumarietakoak ikusi zuten Porziunkula erretzen zegoela; iduritu zitzaien Eleiza, konbentua eta aldameneko basoa gar bete betean zeudela; bereala joan ziran sua itzaltzera, eta paretetik igota sartu ziran konbentuan. O zeñ arriturik geratu ziran, barrengoak zeramaten bizitzaren pasarteá ikusi zutenean! «Guk ikusi degun sua, pensatu zuten berengan, su millagrozkoa zan, eta aen animak urtzen dituen Jainkozko amorio-

aren señaleara». Eta itz bat esatera benturatu gabe, beren lurrekoak an esango ziran jolas zerukoakiñ nastutzeko bildurrez, alde egiñ zuten andik isilik eta arriturik, eta etxetara ziranean kontatu zuten oiuka ikusi zuten millagroa.

Abadesa itzuli zan arratsean bere konbentura iritxi zituen ondasun ispiritualetatik bere alabai parte ematera. Egun ura guzia igaro zuten mojak pena eta naigabe aundienean, zeren bildur ziran andik bialduko ote zuen beste konbenturen bat gobernatzera, Ageda aren aizpa bialdu zuen bezela. Argatik aen poza aundia izan zan beren Ama ostera ikusi zutenean; eta ez txikia-goia berriz, aditu ziotenean kontaktzen Ama Birjiña Aingerueneko pasarte millagrozkoa, eta San Franziskoren jolas biguñ zoragarriak. Oek izandu ziran Ama Birjiña Aingerueneko murrak ikusi zituzten mirariak 1221garren urtean.

Santa Klarak 41 urtean gobernatu zuen Dama pobreen Ordena. Eztakit Santuen Kondairan ote dan onen bizitza baño penitenteagorik, baño segurki, ez da eriotza gloriosoagokorik. Ezagaturik iltzera zijoala, egiñ zuen testamentua, zeñean bere mojai senipartetzat uzten zien

pobreza serafiñdarra. Nola frai Rejinaldok erregutzen baizion gaitza pazientian eramatera, Santa Klarak erantzun zion: «Ene anaia, gure Aita San Franziskoren aotik gure Jaungoikoak bere graziaren balioa ezaguerazi ziran ezkerro, ez da anbeste kosta zadan gauzarik. Ez da mortifikaziorik aiñ gogorrik, eta eritasun aiñ nekosorik iruditu zadanik». Ondorean erregutu zien frai Leoni eta frai Angel Rietiri irakurri zezaiotela Jesusen Pasioa San Juanen erara, gero Eleizakok artutakoan, jarri zizaion argi errañua bekokian eta esan zuen: «Ea, nere anima, jakizu lagun on bat daukazula biderako, eta giari on bat bidea erakusteko. Ez ezer bildur izan, zaude soseguz, bada zure Egilleak santutu zaitu, eta beti kontu egiñ dizu gurasoaren bere umeakiko amorio biguñarekiñ. Eta zu, Jauna, bedeinkatua izan zaitezela kriatu nazulako. Ikusten dezu, esan zion bere aide Sor Amadagana zuzendurik, ikusten dezu, nola begira nagokion Gloriako Erregeri?». Denbora berean Jaunak eman zion ikusketa misterioa moja aetako bati, eta onek ikusi zuen nola zeruko Erregiñak, zuriz jantzitako birjiña talde aundi batek zerraikiola, konbidatzen

zuen Klara Jainkozko Bildotsaren eztaietara, eta artzen zuen aren anima, lore bat artzen dan bezela.

Ala ill zan Klara Birjiña, ura baldiñ eriotza bazan, 1253ko abustuaren 10garren eguneko arratsean, San Franzisko ill zanetik 27garrenean. Eta kardenal Ugolinoren illoba Aita Santu Alejandro IVgarrenak para zuen Santuen lumeroan 1235garren urtean, emanaz *Umillen Dukesa eta Pobrean Prinzesaren* titulu gloriosua (Kanonizazioko Bulda). San Buenabenturak egiñ zuen beraren alabanza, gizonak anbat biziko diran itz oetan: «Birjiña Jainkoaren maiteak, eman zuen udaberriko lore batek bezelako usai gozoa, eta argi egin zuen egun sentiko izarrak bezela».

# VIIIgarren Bereziera

*San Franziskoren Apostolutza.*

*Erromara joatea.*

*Letrango Batzarrea.*

(1212-1215)

Bazekien Franziskok obrarik izatez Jainkozkona dala animen salbaziokoa, baña nola jaiera geiago baizion oraziozko bizitzari lanezkoari baño, duda aundiak zeuzkan bere dei edo bokazioaren gañean. San Damiano konbentuan egiñ bear ziran ejerzizio espiritualak señaletu zituenean, geitu zizaizkan zalantzak alatan, non, zer erabaki eziñ somaturik, bildu zituen fraide guziak, eta esan zien: «Ene anaiak, duda baten gañean konsellu eske natorkizute. Zer konbeniko litzaket geiago niri, eman osoro oraziora, edo artu predikazioko lan bidea? Galdetzen dizutet, zergatik ezagutzen detan naizala gizon senzill, eta ondo itz egiteko arterik ez dakidana, eta artu det orazioaren doaia, ondo itz egitearena baño obeto. Orazioak garbitzen ditu gure sentimenduak, bat egiten gaitu Ondasun soberanoarekiñ

eta indartzen gaitu birtutean, bera dala bide itz egiten degu Jaungoikoarekiñ eta Aingeruakiñ, zeruko bizitza egingo bagendu bezela. Eta kontrara, predikazioa da gizon espiritualaren oñak mantxatzen dituen loia bezelako bat, zabartzen eta lasatzen du bizitza kontuzkoa. Ala, modu batekoa da grazien iturria, eta bestekoa jendeai partitzen zaien bidea. Baña bada gauza bat Apostolu bizimodura naramana, eta da, gure Salbatzalleak orazioa predikazioarekin elkartzearekiñ eman zidan ejenploa. Eta nola ori baidan, eta ez besterik guk ispillutzat artu deguna, uste det Jaungoikoaren asmoakiñ obeto datorrela nere gusto eta sosegua utzi, eta atera nadilla lan egi-tera».

Duda ura erabakitzeko argitasun geiagorako bialdu zituen praide bi Santa Klara eta Subaso mendian orduan arkitzen zan frai Silbestregana, erregutzera konsultatu zezatela Jaunarekiñ. Felipe eta Maseo praide biak itzuli ziranean, San Franziskok egiñ zien zerutik bialdutakoai bezelako arrera, oñak garbitu ziezten, muñ egiñ, eta berak bazkaria serbitu zien. Gero eraman zituen aldameneko baso batera, buru utsik jarri eta

besoak bularretan gurutzatu eta belaunikaturik, itz egiñ zien onela: «Ene anaiak, esan zadazute Jesu Kristo nere Jaunak zer egiñ bear dedan agintzen didana». «Ene Aita maitea, esan zion Maseok; ona emen Silbestrek eta Klarak Jesu Kristo gure Jaunagandik aditu dituzten errespuestak: Biak bat dira. Nai du zuazela predikatzerara, zergatik etzaitu deitu zure salbaziorako bakarrik, ezpada zure senide guzienerako; eta ala, bere itzak jarriko ditu zure aoan». Au adituri, Franzisko altxa zan Jainkoaren espirituz beterik; eta esan zuen: «Goazen, bada, Jaungoikoaren izenean». Eta alaitasun santuz irazekirik, joan zan bertatik Maseo Mariñan eta Anjel Rietirekiñ predikatzerara kriatura guziaz Jaungoikoaren izenean.

Mirari biguñ beziñ oi ez bezelako batekiñ señalatua izan zan aren predikazioko aurreneko ekiñ aldia. Santuak, Bebaña uri txikira alderatzean ikusi zuen nola txori sall bat zebillen adarrik adar bide bazterreko arboletan, eta arriturik esan zien lagunai: «Zaute emen, bada predikatu bear diet nere senide egaztzai». Aren itz otsera guziak bildu ziran, eta itz egiñ zien era onetan:

«Nere senidetxo txit maite egaztiak: Jaungoikoa ak bete zaituzte onegiñez, eta beragatik bedeinkatu bear dezute denbora eta toki guzietan. Berak jantzi zaituzte luma txit eder oriekin, eta eman dizkitzute egoak eta libertadea nora nai joateko. Berak gorde zuen zuen arraza Noeren ontzian, eta eman zizuten bizilekutzat zeru goi ori. Bazkatzen zaituzte erein eta biltzeko lan gabe, eman dizute iturri-ibaietako ura zuen egarria itzaltzeko, mendi eta ballerak gordelekutzat, arbolak, bertan zuen kabiak egiteko, eta berak dauka zuen umeen kontua. Zuen Egilleak aiñ maite zaituzten ezkerro, etzaitezela izan esker-gaiztokoak, kontrara, egizute, igo ditezela zerura zuen esker on eta alabanzazko siñaleak». Franziskok itz egiten zien bitartean egaztiak luzatzen zituzten lepoak, mugitu egoak eta makurtu burua lurra jotzeraño, ari aditzen artzen zuten atsegiñaren siñalean. Franzisko pasa zan llanoro aen tartetik, arritzen zalarik ikustean anbeste eta aiñ banaa edo diferenteak, eta palakatuaz bere tunikaren ertzarekiñ. Bedeinkazioa eman zien, eta beraren siñale batera, danok eman zioten egatzeari, beteaz aireak soñu guz-

tiz ederrakiñ. Franzisko, bere lagunetara zanean, akusatu zizaien, anima senzilloai dagokaten umiltasunarekiñ, bere senide egaztiai lenago ez predikatu izana, Jainkoaren itza alako arretarekiñ aditzen zuten ezkeru.

Aitatu degun mirari au etzan San Franzisko-ren Apostolutza Jaungoikoak markatu nai zuen beste millagroen asiera baizik.

Bebañan predikatu zuen Santuak sermoi bat Jainkoaren amorioaren gañean, eta itzuli zion ikustea neskatz itxu bati, txistuarekiñ iru bider betazalak igortziaz, eta Trinitade txit Santuari deituaz. Pekatari asko konbertitu ziran, eta bai bildu ere beragana aditzalle batzuek penitenzia eta pakezko apostolu izateko. Orduan gogoratu zizaion Sortaldeko fedegabeetara joatea erama-tera fede santuaren argia, eta bertan martirioa irabazteko esperanzarekiñ, eta orretarako bear zuen baimena iristeko, joan zan Erromara. Predikatzen zuen bideko erri guzietan, eta igarotzen zan zeruko Maisuaren gisan, ona ereiten eta millagroak egiten.

Erroman zegoela, iritxi zuen Aita Santuaren audienzia, edo bera ikusteko baimena. Txit atse-

giñ aundiarekiñ aditu ziozkan Inozenzio Illgarrenak bere Ordenak egiten zituen aurrerapenen berriak, praideen birtute eta lanbideenak bezela, eta poz aundiarekiñ eman zion maometarrai predikatzeraz joateko baimena.

Bi bider predikatu zuen gure Santuak Erroman, eta bietan azia erori zan lur ondo maneatuan. Bildu zizaiozkan ikasle berri asko, eta aen artean Fr. Gillermo, Juan Kapella errukarriaren ordezkoa, esana daukagun bezela. Emen egiñ zuen ezaguera Giakomina (Jakobita) Settesoli zeritzan dama txit noble eta aberatsarekiñ. Alargun piadosa au eta Klara bakarrak dira Santuak bere bizi guztian adiskide izan zituen emakumeak, eta aen animak giatu zituena, artarako bear ziran neurri egokiak arturik. Eta aitortu bear degu bata eta besteak merezi izan zutela Santuaren begiramentua, eta Santuarenganako aen jaiera, elurra beziñ zuri garbia, zala Martak eta Magdalenak Jesu Kristori zioten aundi eta misteriozkoaren antzekoa. Santuaren etsaiak etzuten ikusi amorio onetan zer maixiatu eta tatxatu, eta kristau egiazkoai dagokanez, zorionekotzat idukiko dira baldin galtzen gaituen amorio gaiztoa-

ren artean arkitzen badituzte, gizonak inozentzia galtzean galdu zuen amorio garbiaren tanto batzuek, zeña ostera egunen batean zeruan billatu bear degun, eta zeñaren urriñ gozoa aldearez zerurako autuen bizitza irakortzean usandu genezakean.

Giakominak ematen zien ostaturia Jesu Kristoren pobreaki, Ebanjelioko emakumeak bezela, Erromara zijoazen guzian, estaliaz aen premia guziak. Aren bitartez Tiber ibaiaz beste aldetik zeuden San Kosmeko praide Benitoak eman zien Erlijosotxikienai 1229garren urtean San Blasko Ospitala, gero S. Franzisko Ripako konbentu egin zana eta Piamonteko tropak sartu ezkerot, soldadu-kuartel biurtua dagoena. Oraindik an ikusten da Santuaren zelda, burukotzat serbitzen zion arria, eta berak aldatutako arbol naranjo bat, anbeste denbora joanda ere, urteoro ostutzen eta loretzen dana eta frutuak ematen dituen; zeña dan S. Franziskok jarritako Ordenaren imajina egoki seireun urtez geroztik zeruko gauzen betiko gaztetasun lorezkoarekiñ oraindik bizi dana.

Egoera labur bat Erroman egiñda Franzisko itzuli zan Porziunkulara. Agertu zien lagunari Sortaldera joateko bere asmoa, eta Pedro Katanio burutzat utzirik kanpoan zan bitartean, sartu zan Palestinara zijoan ontzi batean. Etzan ordea oraindik bete Probidenziaren ordua. Kontrako aizeak Esklaboniako kostara eramane, utzi bear izan zion orduan bere asmoa kunplitzeari. Itzule-ra siñallatu zan millagro batekiñ. Sartu ziran bera eta laguna Ankonara zijoan ontzi batean, mariñelen iritziaren kontra. Nola bidea luzea baizan eta nekoso, eta aitu zitzaizten jan gauza guziak, ugaritu zituen milagroa aingeru bik zerutik ekarri zieztenak, non kapitan eta mariñelak arriturik, belauniko jarrita eman ziezten esker biotzekoak, berak ezer egiñ gabe bizia salbatu zielako.

Ez al zuen lurra jo Italian, bereala asi zan Apostolu au batetik bestera joaten, eta nun nai Jaunaren itza predikatzen, gorputz eta animak sendatzen, eta jendetza aundiak bereganatzen.

Aren bizitzeko moduak eta predikatzekoak adierazten digu jendearen arenganako jaiera aundia. Etzeukan batere apaiñgarririk: oial bas-

tozko tunika zan aren jantzia, zebillen oñ utsik, buruko illea oso moztua, eta arpegia barabakiñ zimurtua. Zan guziak agertzen zuen argan munduaren desprezioa eta penitenziaren amorioa.

Aren predikazioa zan jendearekiko egokiena. Utzirik alde batera itzkuntzaren gala eta munduko jakinduriaren esaera egoki eta apaiñduerak, zeukan onratzat ez ezagutzea Jesus baizik, eta ori gurutziltzatua. Ala ere serbitzen zan Jaungoikoak eman zion berezko talentuaz, egoki zetorkionean. Boza zeukan argi eta bizia, biguñ eta gustagarria, eta aren itz garbi eta beroak irabazten zituen aditzen ziotenen biotzak. Batzuetan sentitzen zan bat batetan argitua, eta beste batzuetan aiñ biotz mugitua, non ateraerazitzen zituen arrigarrizko uiuak, nola damutasunezko negar malkoak; itz batean aren itzkera zan egiazkoa, biotzetik sortu eta jendeak mugitu, sinistarazi eta bereganatzen dituena, eta eskolako arte utsarekin iritxi eziñ ditekeana, gure izatez gaindik dauden santutasun eta millagroetatik datorrelako. Apostoluak doai oek dituenean daukan itzala da eziñ esan alakoa, ona zergatik millaka diran Franziskok bide galduetatik aterata

bere bizimodura eta laguntzara erakarri zituen animak. Asko degu esatea ejenplotzat, Askolin bildu zizaizkala 30 jarraile egun batean. Uzta aĩn ugariaren erdian or emen galburu bat edo beste artu baizik eziñ egiñ genezake, danak urrezkoak badira ere. Oen artekoa da Gillermo Dabini, denbora artako bersolari sonatu eta saristatua, enperadore Federiko bigarrenak Bersoen Errege deitzen ziona. Bizitzen zan Marka de Vermo bere errian, eta jakiñik Santua zijoala predikatzer a San Severinora Ankonako probinzian, artu zuen aditzera joateko asmoa, eta sartu zan toki guzietatik zijoan jendearen tartean. Franzisko Gurutzearen alabanzak egiten ari zan bitartean, bersolariak ikusi zituen suzko ezpata bi Santuaren bulargañean, eta denbora berean sentitu zan argitua, eta graziak mudatua. Sermoia bukatu zuenean, joan zan auspeztutzera Santuaren oñetara, eta artu zuen bere jarraileen artean, eta nola ikusi baizuen aĩn batetan igarotzen zala munduko bizimodu irabiatutik konbentuko pake-tsura, deitu zion Frai Pazifiko. Lenago bersolarizana, egiñ zan misiolari zelotsu bat, eta geroenean San Franziskok eman zion Franzian Erlijio-

so Txikienen Ordena jartzeko enkargua eta Kastillako Blanka erregiñak San Luis bere semearen azierari bukaera ematekoa.

Fr. Pazifiko onek berak izan zituen beste ikuskerak miragarri bi, bere lagunai, aen onerako kontatu bear ziezela iruditu zizaiozkanak, eta San Franziskorenganako errespeto eta amorioa geitzeko serbitu zituztenak. Lenbizikoa zan ikustea Santuaren bekokian izkribatua letra *Tau*, zeña dan Gurutzearen siñale edo ezagungarria. Bigarrenen berriz, Jaungoikoak siñalatuaz zeruan urre eta arri baliosozko jargoi bat, esan zion: «Anbeste miretsitzen zaituen jargoi au, eta aingeru batek nere kontra altxaturik galdu zuena da Asisko Franzisko umillarentzat».

Biaramonean, Fr. Pazifikok esan zion llanorogure Santuari bazkaltegian: «Aita, zer deritzatzu zere buruaz?». «Pekatarri guzien errukarriena naizela». «Nola benturatzen zera ori esatera, aiñ gitxi pensatzera?» erantzun zion frai Pazifikok. «Sinismen osoan nagoelako, Jaungoikoagandirik artu ditudan graziak beste edozeñek artu izan balitu obeto aprobetxatuko zituela». Eta frai Pazifikok alde egiñ zuen pensatzen Ebanjelioak

dion onetan: «Altxatzen dana, umildua izango da; eta umiltzen dana, altxatua izango da».

1212 urte bereko urriaren azken aldera, gure Misiolari santua, Apenino mendiak Fioritoko portutik igarorik, jetxi zan Espletoko ballerara. Jaierterrian lenaztandik zabaldu zan bere obra miragarrien aomena, egiñaz bertan aldaera edo erreboluzio egiazkoa. Sei urte aezaz aurretik erruki gabe burla egiñ zion uri ura bera, ateratzen zaio orain zeruko aingeru bati bezela, eta prestatu zion triunfozko sarrera, Mesiasi Jerusalemene egiñ ziotenaren antzekoa. Atera zizaiozkan apaizak eta erriko jendeak eskuetan palma adarrak zituztela, uriko ezkillak beren soñu ederrakiñ airea betetzen zuten bitartean. Batzuek muñ egiten zioten Franziskori tunikaren ertzean, besteak eskuetan, beste batzuek oñetan, danak adierazten zuten beren poz-kontentua aren itzulerarekin. Beiñ baño geiagoetan agertu zion Franziskori jendeak, berari zion kariño eta benerazioa berak eragozpenik jarri gabe, eta nola laguna eskandalizatu baizan, ezin eramane, egun batean arpegira eman zion: «Ene anaia, erantzun zion, etzaitez eskandalizatu nere portatze-

ko moduan. Menekio eta onra oek guziak zuzentzen diozkat Jaungoikoari, neretzat ezertxo ere gorde gabe, imajiña edo tallu bati egiten zaion onra, ark adierazten duenari biurtzen zaion moduan. Gañera jendeak ere orretan irabazten du, Jaungoikoa bere kriadura ezerezenetan onratzen duelako». Añ mugida gitxi egiten zioten Franziskori onrak! Eta orain kontatzera guazen pasarteak adierazten du noraño zeraman Santuak bere buruaren desprezioa eta umiltasunaren amorioa.

Zeuzkatzian 31 urte, eta ala egon bear zuen bere bizitzaren indar eta sasoirik ederrenean, baña penitencia eta apostolutzako nekeak erasanik, gaizkitu zan, aultasun aundi batean para zuten elgaitz edo su-karriarekiñ. Guziok bildur ziran illko zizaiela, anbesteraño, non Don Gido Obispoak eraman erazi zuen bere jauregira, gogoaren kontra bederik, an bear bezela kontu egiteko. Etzan ordea luzaro egon, bada indarrak zerbait egiñ zizaizkanean, saminki kejatu zan, *munduko atsegiñetara itzulera* ark deitzen zionaz: «Ez da bidezko gauza jendeak iduki nazala penitenzilaritzat, prinziipe baten gisan tratatua

bizi naizen bitartean». Eta au esanik, jaiki eta joan zan katedralera, erlijioso eta beste askok segitzen ziotela. Bere konbentuko bikarioari agindu zion lepotik soka lotu, eta eraman zezala gerriz goitik larrugorrian kastiguetako lekura. Ara ziranean, otzak eta gaitzak gorputz guzia dardaraz zeukala itz egiñ zion erriari, modu onetan: «Ene anaiak, nik aseguratzen dizutet, ez dedala alabatua izan bear gizon espirituzkoa bezela. Naiz gizon aragikor, guraritsu eta jaletzarrara, desprezioak baizik merezi ez dituana».

O erokeri arrigarria, zeñarekiñ gorde nai zituen zeruko doaiak, beraren galera bide biurtu zitzaiozkan bildur zalako. Jendeak somatu zituen aren deseoa, eta isilik eraman zuten Ama Birjiña Aingeruenekora; baña berengan, «Santua da!» zioten. San Franziskok aditurik, esan zien: «Zaute isilik, bada biziak ez dira alabatu bear, ez eta kanonizatu ere iñor ill baño len». Txit maiz ematen zituen onelako erantzuerara senzuzkoak.

Berriro Porziunkulan arkitu zanean, itz egiñ zien fraideai onela: «Nere seme maiteak, ez gaitezen arrotu gizonen alabanzaen inzentsuarekiñ; zergatik, ez dezute ikusten erokeria dala merezi

ez ditugun alabanzak aditzea, badagoelako arroka bat gure indarra desegiten dana? Pekatari errukarri geranok, naiz erregutu eta negar egiñ, eta gorputza illduratu dezagula, eziñ beñere egongo gera seguru Jaungoikoari leial iraungo diogula; eta ala, aienatu dezagun gugandik gereburua alabatzeko pensamentua, ezpada Jesusen gurutzean eta beraren serbitzuan». Onelako egiñaldi bikañ eta erakuste aundietan igaro zan 1212ko urtea.

Urrengo urteko ilbeltzean sentitu zan berriz ere gaizki sukarrarekiñ. Ez da erraz kontatzen nolako barrengo sosegu eta pozarekiñ artu zuen prueba berria, eta bedeinkatu zuen *anaiatxo sufrimentua* berak deitzen zion bezela, esanaz, sukarraren berotasuna obea zala milla bider aragiaren tentazioen sua baño. Sentitzen zuen pena bakarra zan animen salbazioan lanik eziñ egiña; baño Santuaren karidatea zan mundua beziñ aundia eta azkarra edo jakiñtsua Salbatzallearena bezela, eta beragatik guzira eratzen zana. Predikatu eziñ zuen ezkerro, sentitu zan izkribatzeko goiargiarekin, eta bere oetik bialdu zien Elizaren ume guziaz bi izkribu, serafiñ perla

egiazkoak, kondaira onetan gogo onez paratzen ditugunak. Aurrenekoak zion onela: «Kristau guziaz, apaiz, erlijioso, lego, gizon eta emakume, mundu guzian zabalduak daudenai. Zorionekoak eta bedeinkatuak Jaungoikoa maite dutenak, kunplituaz Ebanjelioak dakarren aginte au: Amaturko dezu zure Jaungoikoa zere biotz guziaz, eta zere anima guziaz, eta zure lagun urkoa zere burua bezela» (Math. XXII, 37 eta 39). «Maitatu dezagun Jaungoikoa animako eta biotzeko garbitasunarekin, bada ez digu besterik eskatzen esaten digunean: *Egiazko adoratzalleak adoratu dute Aita espiritu eta egian, eta ala, adoratu dute*» (Joan. IV, 23 eta 24). Agur egiten dizutet Jesu Kristo gure Jaunagan».

Bigarren eskutitzean, Jaungoikoaren Gizatasunezko, Komunio eta Gurutzeko misterioak gogora erazi ondorean egiten du munduan zorionekoak izandu ziran gaiztoen eriotzaren irudia. «Zorigaistokoa penitenziarik egiten ez duena, eta gurari gaistoari jarraika dabillena, onek bere kondenazioa ezagueraz billatzen duelako! Idiki begiak; o pekatariak, o itxu borondatezkoak,

Ebanjelioko argiari itxiak dauzkatzutelako. Jakiñ, Jainkoaren eta gizonen betiko etsai Satanasen jostallu zeratela. Iruditzen zatzute luzaroan gordeko dituzutela lurreko ondasun galkorrak, eta badator ordua guziak kenduko zaizkitzutena, ordu tristea, zuek ez ezagutu, eta artan pentsatzen ere ez dezutena. Begira iltzen dagoen aberats orri. Oe inguruan dauzka emaztea eta aurrak, eta ematen die bere ondasun guzia azkeneko enkarguakiñ batean. Deitzen diote apaizari, eta onek beartzen du bide gaistoz bildutako ondasun ura itzultzera. «*Errestituzioa!* ezin datekean gauza, ori litzake nere familiaren ondame-na» dio iltzen dagoenak. Gaitza aurrera dijoa, eria mutututzen da; eta illtzen da Jaunaren aserrear. Deabruak artzen dute aren anima atormentatzeko, gorputza arrak jaten, eta aideak azienda gozatu eta aren oroimena madarikatzen duten bitartean. Ala, munduaren begiramentu zirzil eta deus balio ez dutenakgatik, galtzen ditu gorputz-animak eternidade guzirako».

«Ni frai Franzisko, zuen serbitzari umill, eta oñetan muñ egiteko prest nagoenak, erregutzen eta agintzen dizutet Jaungoikoa bera dan karida-

deagatik humillki artu eta kunpli ditzatzutela Jesu Kristo gure Jaunaren itz oek, eta bere aotik ateratako gañerako guziak. Oek artu eta beren sensua ezagutzen dutenak bialdu ditzaiela beste batzuei aen protxurako. Oezaz ondo usatzen irauten badute atzeneraño, izan ditezela bedein-katuak Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak, Amen».

Karta oek, ugari partitu eta arretaz irakorriak, zabaldu ziran Alpez aronztik, eta iritxi ziran toki urrutietara jendeen artean fedea eta debozioa piskortuerazitzera.

Franzisko zan gorputz beraakoa ikusi degun bezela; mortifikazioak, nekeak eta gaitzak kendu ziozkaten bere indarrak, alatan non ill zan arte-raño eraman zuen bizitza argal eta eria. Kontra-ra anima zeukan beti kementsua, eta zelo santuz beti irazekia. Udaberrian zerbait obeto sentiturik, artu zuen Marruekotara joateko asmoa, eta Ordenaren kargua Pedro Kataniori utzirik, eman zizaion bideari Bernardo Kintabal eta beste fraide batzuekiñ. Bidaje onetan ikusi ziran millagro asko, apostolutzako frutu ederrak, eta egiñ ziran zenbat konbentu, gertatuaz beste gertakari

asko, zeñtzuetatik bat edo beste kontatuko ditugun.

Terniko urian Obispoak, Santuaren sermoia aditu ondorean, pulpitora igota itz egin zuen onela: «Ene anaiak, Jaungoikoak bere Eleiza argitu izan du maiz santu eta jakiñtsuakiñ, eta gaur bialtzen dio Franzisko Asiskoa, gizon ezjakiña, pobre eta itxura txarrekoa, ondu zaitzaten bere itz eta ejenploakiñ. Zenbat aundiagoa dan beraren ezjakiña, anbat eta geiago agertzen da Jaungoikoaren indarra, bada aututzen du munduarentzat eroa dana, munduko jakinduria lotsagorrian utzitzeko». Itz oek gustokoak iñori irudituko ez bazitzaien ere, Franziskorentzat izan ziran txit atsegiñgarriak; belaunikatu zan Obispoaren aurrean, eskuetan muñ egiñ, eta esan zion: «Eskerrak, Jauna, jakiñdu duelako berezitzen gauza baliosoa bilutsetik, ona txarretik, santua pekatariagandik, gloria guzia emanaz Jaungoikoari, dagokan bezela, eta ez gizon txar ezerez bat naizen oni». Eta Obispoak, are eta arrituagorik bere sermoiaz baño Santuaren umiltasunaz, eman zion laztan biotzeko bat.

Terniko uri onetan bertan egiñ zituen Franziskok millagroen batzuek. Ona aundienetako bat. Eraman zioten gazte bat illa, murru batek azpian artu eta lertu zuena. Franzisko jarri zan orazioan, eta gorputz illaren gañean etzanik Eliseo profeta Sunamitaren semearen gañean bezela, itzuli zion bizia, eta eman ere bai bere amari, arriturik zegoen jendetza aundiaren aurrean. Gertakari onen ondoren Franziskoren santutasunak anbesteraño distiatzen zuen, non ikusten degun señaletua denbora aetako oroitkarrietan. Ala, Toskanako Poggi-Bonziko agintariak egin zuten Franziskoren alde doarizko izkribu bat asten zana itzuekiñ: «Franzisko deritzan, eta jendeak santutzat onratzen duten gizon bati ematen diogu etxe bat bertan beraren Ordenako konbentu bat jartzeko».

Imolan berriz osoro kontrara gertatu zizaion. Eskatu zion Obispoari predikatzeke baimena. «Nik predikatzen det, eta aski da» erantzun zion Obispoak zakarki. Franziskok umill umill burua makurtu, eta alde egiñ zuen itzik esan gabe; baña andik ordu betera, ostera joan zizaion; eta Obispoak arriturik galdetu zion, ea zerk itzuliera-

zitzen zion: «Jauna, erantzun zion, aitak bere semea ate batetik botatzen duenean, semeak sartu bear du beste batetik». Obispoak anbeste umiltasun eta konfianzaz mendeaturik, laztandu zuen, esanaz: «Gaurdandik, zuk eta zure erlijio-soak predikatu dezazuteke nere Obispaduan».

Gure mixiogille zelotsuak Probidenziaren eskuetan osotoro jarriak pazeuden, Probidenziak ere agertzen zien aen kontu txit berezia zeukala.

Leku arrotzean milla arrisku gertatzen zaiozka bidelariari, eta Franziskok izandu zuen batetik ezagutuko du irakorleak, zer moduz Probidenziak anparatzen zuen. Franzisko eta frai Leon zijoazen Lombardian, eta nun illundu zizaien uste baño len leku periltsu batean aintzira aundi eta Po ibai ertz malkortsuen tartean: «Ene Aita, esan zion frai Leonek oso ikaraturik, eska zaiozu Jaungoikoari libra gaitzala perill onetatik!». Eta Franziskok, fede eta konfianzak ematen duten soseguarekiñ erantzun zion: «Ene Seme, Jaungoikoak nai badu, eman dizaguke illuntasuna kentzeko argia». Itz oek esan zitueneko, arkitu ziran argi eder batek inguratuak, bide artan guzian giatu eta lagundu zienak joan bear zuten

ostaturaño. Millagro onen esker onerako Franziskok para zuen toki artan konbentu bat *Su Santuaren Konbentua* izendatu zuena.

Ez daukagu bear anbat argibide kontatzeko gure misiogille santuak egun oro egiñ zuena bere ibillera luzean; dakiguna da predikatu zuela Kairon, Kortemiglian, Astin, Monkalierin, Turiñen eta Susan Piamontean, eta Alpeak, dirudienez Zenis-menditik igarorik, eta Franziaiko Gap, Abiñon eta Lunel uriak oro bat pasaturik, sartu zan Españian Naparroatik eta joan zan Kastillako Blanka erregiñaren Aita, Alfonso IXgarrenaren Gortera. Alfonso IXgarrena izan zan errege bular-detsu Tolosako Nabasen 1212ko uztaren 16an eman zan batalla otpatsuan lareun milla maomatarren erasotik Europa libratu zuena. Ondo ezaguturik praideen balioa oitura gogorrak gozatu eta ontzeko, eta España bere buruko izatea guziok erlijio batekoak izatearekiñ bat egiñik zegoela, egiñ zion gure santuari arrera guziz biotzekoa, eta eman zion Españian bere Ordena jartzeko eskubidea. Burgos, Logroño eta Bitoriako konbentuak eta beste batzuek jarritakoan, artu zuen Afrikara pasatzeko asmoa, baña gaitz luze

eta penagarri batek eragotzi zion joatea. Onetan ezagutu zuen Jaungoikoaren borondatea, eta umilki menderatu zizaion, eta sendatzen ari zanean prestatu zuen itzultzeko, baña abiatu baño len, joan zuen Konpostelara, Santiago Apostoloaren sepulkroa bisitatzen. Gero sartu zuen Portugalko Gimaraesen, nun piztu zuen bere ostalariaren alaba, eta Abila, Madrid, Toledo eta Barzelona pasaturik, artu zuen Pirineotako bidea. Emen esan bear degu Españak oraindik gordetzen dituela oroitkarri batzuek adierazteko nola San Franzisko pasa zuen Erreinu katoliko onetatik, nun iñon baño obeto gordetzen dan Santuaren birtute eta Apostoluzaren oroipena.

Gelditu zuen zerbait denbora Perpiñanen, gero Montpelleren; etzan ordea sartu Langedoken, Albijense herejeak desegiteko Santo Domingo Apostoloaren kanpoa zalako. Azkenik, ezin konta al neke eta garaipen gloriatsuen ondoren gure Santua iritxi zuen Porziunkulara 1214ko urtearen azken aldera edo 1215garrenaren aurrenean.

Aundia izan zuen Ama Birjiña Aingerueneko atsegiña, bada danak poztutzen ziran beren aita doatsuaren itzuleraz, eta Santua oro bat senti-

tzen zan pozez betea ikusiaz bere umeak beste anbeste ugaritu zirala, eta guziok birtutea onratzen zutela. Lañotxo bat izandu zan ala ere aen atsegiñezko zerua goibeldu zuena: Franziskok ikusi zuenean konbentuaren ondoan etxe eder galant bat, bera kanpoan zan bitartean Pedro Kataniok egiñ erazi zuena, txit pena aundia sentitu zuen pobreza santuaren botoa orrela autsi zutelako. Alperrik aseguratzen zioten etxe ark toki guzietatik zijoazen erromesen atarbetzat bakarrik serbitzen zuela: «Ene anaia, esan zion Pedro Kataniori kopeta beltzarekin, konbentu aunda Ordenako guzien Erregla eta moldeera, eta nik nai dedana da, ala arrotzak nola fraideak sufri dezatela gauzen gabetasuna edo pobrezaren nekeak, esan al izan dediñ nun nai zeñ pobrekin bizitzen dan Ama Birjiña Aingeruenekoan». Au esanda, agindu zion etxe ura purrukatzeko, aiñ sinismen osoan zegoen pobreza dala bizitz erlijiosoaren arri prezioso, zeñaren balioa munduak ez duen ezagutzen, baña argi errañuak Jaungoikoaren begietan illuntzen duten munduko ondasunena. Franziskok etzuen ostera agindu etxea ez botatzeko alik eta erriko agintariak

ikusitako erazio zioteneraño etxe ura botatzea zala erriari eskubideak kentzea eta karidadeak eskatzen dituen egiñbideai ez erantzutea.

Anbeste lan eta arazoan artean ere Franziskok beti begiratzen zion bere famili erlijiosoaren ondore onari. Lanbide santu guzia asi berrian bezela, oni ere eragozpen aundiak sortu zitzaizkan, bada zenbat eta geiago zabaltzen zan eta jendeak geiago bedeinkatzen zuen, anbat eta ikusi ezin geiago sortu erazitzen zuen, batez ere Alemanian, nun altxa zan persekuzioa beraren kontra. Gañera falta zuen oraindik azkeneko donekida edo konsagrazioa, Aita Santuaren ontzat emate ospatsu eta azkenekoa. Arrazoi oekgatik Franziskok erabaki zuen Erromara joatea.

Denbora aetako gertaerak eman zioten aren egitekoai, bestela izango zuten baño inportanzi aundiagoa.

Orduan izan zuen asiera Inozentzio IIIgarrenak deitu eta bildu zan Letrango Konzilio edo Batzarre IVgarrenak, aren Aita Santutza aiñ gloria aundiarekiñ bukatu, erejiak desegiteko, oiturak

ontzeko eta Jerusalemgo Lur Santua osterak kris-tauen mendean jartzeko asko serbitu zuenak.

1215ko azaroaren amaian S. Juan Letrango Eleizan bildu zuen lurrean zuten Batzarrekin benegarriena: bada an arkitzen ziran irurogeita hamar primadu eta arzobispo, lareun eta amabi obispo, zortzireun abade ta priore baño geiago, eta enperadore eta errege kristauen ordeko edo enbajadoreak. Guziaz eraiten ziren Inozentio III-garren benegarriak. Aita Santu aundi au txit atsekabetua zegoen Waldo eta Albitar herejeak beren gaiztakeria aundiakiñ egiñ zituzten kalteakgatik, eta are geiago beren dotriña gaistoan irauteko zeukaten setagatik, eta nola etzuen nai Jesu Kristoren ikasleak beraren etsai on irudizko-akiñ bat egitea, kondenatu zituen otsaundiarekin seta biak beren egilleekin, oen kontra para zituen Jaungoikoaren Probidenziak eman ziozkan Ordena biak, eta Batzarreko guraso guzien aurrean aitortu zuen, 1209garren urtean itzez ontzat eman zuela Erlijioso Txikienen Ordena. Orobat esan zuen Predikadoreen Ordenagatik, baña kondizio onekiñ: Santo Domingok aukeratu

bear zuela anziñako Erregla bat bere Ordenari egokitzeko.

Batzarre aundi ark etzuen iraun ogei egun baizik, baña ala Aita Santuak nola Batzarreko gurasoak egiñ zuten asko aseguratuz geroko jendearen onerako biurrera; San Franziskok, zeruko bendizioarekin eta Aita Santuaren ontzat ematearekin indarturik, bialdu zituen Erromatik bi izkribu-ordena, deitzen zituela fraide guziak lenbiziko Batzarre guzienkikora, señalatuaz bilerako eguna urrengo urteko Pazkoa Espiritu Santuko pesta, eta gero itzuli zan Unbriara, bidez predikatzen zuela Askolin, Kamerinon, Mazertan, Monte Kasalen, Ankonan eta Fabrianon.

Itzuli zanean, fraide Benitoak eman zioten doan beste konbentu bat, ordutandik *Carceri*-ren (Karzelak) izenarekiñ ezagutua. Oraziorako etxe egoki ura, Subarioko mendiaren egalean Asistik bi milla pausora, arte arbolazko baso batek inguratua eta arkaitzez eta arzuloz betea zegoena, gure Santuaren biotza geiegi betetzen zuena zan, artu gabe utzitzeko. Maiz joan oi zan gero bera ikustera. Misio-lanak bukatzen zituenean ara erretiratzen zan, orazioan obeto bertan ego-

ten zalako. Erle ernaiaren gisan, orazioan zegoe-  
nean txupatzen zuen zeruko loreetan Jaungoiko-  
az amorustuak zeuden animai bere predikazioe-  
tan partitzen zien eztia.

Arzulo ikaragarri aek gordetzen dute oraindik  
aren persona eta orazioen usai gozoa, eta orain  
seireun urte asita ez da egunik igarotzen joan  
gabe ara zenbat erromes onratzera beraren  
kapilla, zelda, oezurtzat serbitzen zion arria,  
Santuak orazio egiñda sortutako urputzua, eta  
predikatzen zuen bitartean egaztiak egoten  
ziran arte arbola zarra; eta azkenik ujola eta  
arkaitz bizia nun gertatu ziran millagro eta  
aurrez esan edo profezia bat kontatzea merezi  
dutenak.

Mendi tontorretik jeisten zan ujolak, aiñ ots  
aundia egiten zuen amiltzean, non eragozten  
ziren fraideai errezoak soseguz egitea, urak  
artzen zituen inguruetako lurrak, eta askotan bai  
galdu ere laboreak. Santuak, gurutzearen siña-  
lea egiñaz agiñdu zion sosega zedilla, eta aginte  
oni ujolak obeditu zion. Ordutandik urak joan  
ziran isilik eta erriberara zabaldu gabe. Arkaitz  
bizia dago ermitaren oñean, eta ona Santuak

dizipuluai an egiñ zien profezia: «Mendi tontorreko ujola arkaitz bizi onetatik ostera pasatzen danean, presta zaitezte, bada izango da siñalea gaitz aundiak etorriko dirala Italiara».

# **Bederatzigarren Bereziera**

*Ordenaren lenbiziko billera guzienkikoa.*

*San Franzisko eta Santo Domingo.*

*Ugolino Kardenala.*

*Bigarren billera guzienkikoa.*

*(1216-1219)*

Pazkoa Espiritu Santuko pesta zan 1216ko maiatzaren 30ean Erlijioso Txikien guziak arkitu ziran Ama Birjiña Aingeruenekoan, eta egiñ zan Ordenaren lenbiziko Billera guzienaren sarrera solemnea. Billera ura, bigarrengoaren argitasun aundiak zerbait illundu bazuen ere, etzan au baño frutu gitxiagokoa izan Erlijioso Txikien ondore onerako. Fundatzalle santuak artu zituen bertan neurri bi inportanziazkoak: partitu zituen munduaren lurbirak bere semeen artean; eta egiñ zituen probinzia bereziak Lonbardia, Ankonako Marka, Toskana, Kalabria, Tierra de Labor eta Pobilekoa, emanaz ministro probinzialai nobizioak eta profesioa artzeko eskubidea, arte-raño beretzat gordea zeukana. Ondorean aritu zan aukeratzen Italiaz kanpora predikatzera joan

bear zuten fraideak, eta señalatu zuen España-  
rako Bernardo Kintabal, Probenzarako Juan  
Bonelli, Alemaniarako Juan Penna, eta gañera  
oetako bakoitzari lagundu bear ziezten fraideak;  
eta gorde zituen beretzat Paris, Franzia-  
ko ipar aldea, eta Beljika eta Olanda, orretarako bere  
lagunai agertu ziezten arrazoiakgatik: «Ene  
anaiak, esan zien, Parisek beraganatzen nau  
gogoaren kontra, ez bakarrik aiñ maite dedan  
Franziaren erriburua dalako, ezpada batez ere  
munduko beste lekutan baño emen Aldareko  
Sakramentu Santuak onra geiago artzen duela-  
ko». Ai Parisko katolikoak mereziko baluteke beti  
aiñ alabanza ederra!

Iritxi zan azkenik alde egiteko ordua, eta bil-  
durik berriz misiogille aek guziak, Santuak eman  
ziezten azkeneko irakasdeak, agertuaz argiro  
misiogilleak eraman bear duen bizitza. «Ene  
semeak, esan zien, zoazte Jaungoikoaren ize-  
nean, gorde isiltasun osoa maitineetatik terzia  
bitartean, erregutuaz Jaungoikoari zuen biotze-  
tan. Ez dedilla aditu zuen artean itz arro edo  
alperrik, eta bidajean zuaztenean ere porta zai-  
tezte ermita edo zelda batean egongo ziñate-

kean beziñ garbi eta umill, zeren nora nai goazela, gerekiñ daramagun gere zelda. Gure anai gorputza da zelda, eta gure anima ango eremutarra, Jaungoikoagan pensatu eta berari erregutzeko obligazioarekiñ. Erlijioso bat ezpada bizitzen pakean bere barrengo zeldan, ez diote deus serbituko kanpokoak. Porta zaitetze, zuek ikusten zaituzten edo zuei aditzen dizuten guziak deboziora mugierazitzeko moduan, eta alabatu dezaten gloria guzia dagokion Aita zerukoa. Izan zaitetze pake eramalleak, eukiaz mingañetan baño obeto biotzetan. Etzaiozute eman iñori aserartzeko edo gaitzerako biderik, kontrara, zuen gozotasunarekiñ erakarri itzatzute guziok ontasunera, pake eta elkartasunera. Erituak sendatzea, tristeak konsolatzea, eta bide galduetan dabiltzan errukarriak billatzea, orra gure bokazioa. Arkitzen badezute iñor deabruaren alderdikoa deritzatzutena, pensatu iritxi ditekeala Jesu Kristoren jarraile izatera».

Itzaldi onen ondoren bedeinkatu zituen bere seme espiritualak, eman zien pake eta despeidako laztana, eta misiogilleak irten ziran Ama Birjiña Aingeruenekotik munduko lau bazterretan

Ebanjelioko azia ereitera, Apostoloak Espiritu Santua artutako biaramonean Zenakulotik irten ziran bezela. Alde egiñ bearreko pena gozatzen zien, obedienciak agintzen zien tokira zijoazela zeukaten segurantziak, eta Jesu Kristoren eza-guerara animak erakartzeko esperanzak. Franzisko irten zan Franzisko misiora, Maseo lagun zuela, baña bere lanbidea gomendatu nai izan zien aurrena S. Pedro eta S. Paulo Apostoloai, eta orazio egiñ aen supulturan. Erromarako bide erdian arkitu ziran nekeak eta goseak erasanik, eta ala geratu ziran uri baten sarreran zerbait alimentu artzeko. Eseri ziran iturri bati bere adar ostatsuakiñ itzal egiten zion arbolpe batean, eta para zituzten arri gañean urian limosnan bildu zituzten ogiazalak. Orduan Franziskok bere barrengo poza eziñ gorderik, deadar egiñ zuen: «O anai Maseo, eman ziozkagun eskerrak Jaunari eman digun ondasunagatik». Maiz esan zituen itz oek, eta bakoitzean itz indartsu eta alegerea-goakiñ: «Baña zer ondasun dioza, guzia falta bazaigu?» esan zion Maseok arriturik. «Ondasun aundi au da, erantzun zion, arkitzen giñan miserian etorri zagula Probidenza gu sokorritzera

emanaz ogia, ura, itzala, eta maitzat serbitzen digun arria». Orduan pozez beterik jan zuten «Aingeruen ogia», San Franziskok zion bezela, eta eskuetan arturik eran zuten iturriko ur garbia.

Ostera bideari emanik, sartu ziran aurrena ikusi zuten eleizan, nun San Franziskok erregutu zion Jaungoikoari eman zeiola berari eta bere erlijioso guziaz pobrezaren santuaren amorioa, izanik bere errezoaren berotasuna anbesterañokoa, non zirudian arpegia garretan zeukala. Egoera artan zegoela joan zizaion Maseori besoak zabalik eta ujuka, baña lagunak alderatu zizaionean sentitu zuen nola Franziskoren asnaseak aidean altxa zuen biotzeko aiñ konsuelo aundiarekiñ, non gero aseguratu zuen, egundaño alakorik sentitu etzuela.

Kordebagetze aren ondoren Jaungoikoaren serbitzariak itz egiñ zuen pobrezaren alabazan, eta esan zituen gauza miragarriak, azalduaz liburu santuetako itz oek: *Axariak badituzte beren zuloak eta zeruko egaztiak ere bai kabiak, baña Gizonaren semeak ez dauka bere burua nun ipinirik* (Math. VIII).

Erromara ziranean, lenbiziko lana izan zuten San Pedroko Eleizara joan eta orazio egitea. Eta negar malkoakin eskatzen zegoela San Pedro eta San Paulo Apostoloai, eskolatu zezatela apostolu bizitza eta pobreza egiazkoaren gañean, agertu zizaiozkan bi apostoloak, eta laz-tandurik esan zioten: «Anai Franzisko, Jesu Kristo gure Jaunak bialtzen gaitu esatera, aditu dituela zure erregu eta negarrak pobreza santuaren alde, berak eta bere Ama gloriatsuak laz-tandu, eta aren ejenplora guk ere eraman genduen pobreza orren alde. Zuri eta zure seme guziaz ematen dizute ondasun ori, eta ondo gordetzen dutenak, iritxiko dute zeruetako erreino». Franzisko altxa zan osoro pozturik, kontatu zion ikuskera Maseori, eta joan ziran biok San Pedroren sepultura aurrera, belaunikaturik, eskerrak ematera.

Gauza oek gertatzen ziran bitartean, Inozentzio Irugarrena, Jesu Kristok bere Eleizari eman dion Aita Santu aundienetakoa, ill zan Perusan 1216ko uztailaren 16ean Aita Santutzan 18 urte terdi igaro ondorean. Andik bi egunera Censio Savelli kardenala igo zan S. Pedroren Jargoira,

eta artu zuen Honorio IIIgarrenaren izena. Erlijio-  
so txikiak arkitu zuten onengan, aurrekoagan  
bezelako laguntz eta anparoa.

Iritxi zan XIIIgarren eunkiko bi apostoloak  
elkar billatzeko Jaungoikoak seinalatu zuen  
ordua. Arritu gaitezen emen oartuaz Jaungoikoa  
baliatu zan bidez gizon oek elkarganatzeko.  
Biek para zituzten bakoitzak bere Ordena denbo-  
ra batetsuan, batak Apenino mendien oñean, eta  
besteak Pirineokoan; bai serbitu zien lenbiziko  
estalpetzat Mariari konsagratutako anziñako  
Eleiza bat, Ama Birjiña Aingeruena eta Ama Bir-  
jiña Prullakoa, biak izendatzen ziran Ama Birjiña-  
ren zaldunak, eta gordetzen zituzten beren  
anparatzalle soberanoarentzat jazarre izatez  
gandikako aetan irabazten zituzten onrak, eta  
bularretatik irteten zitzaien berez Eleizak kanta-  
tzen duen uju au: *Gaude, Maria, Virgo: cunctas  
haereses sola interemisti in universo mundo.*  
«Zuri, Gloria, Birjiña Maria, erejia guziak mun-  
duan desegit ditzuzulako». Santu bi oek bazuten  
elkarren antza beste gauza geiagoetan ere. Biak  
beren apostolutzako lanbideari eman zioten  
asiera Erromarako erromeriarekiñ, eta biok joan

ziran berriro uri artara beren Ordenen ontzat ematea iristera. Biak desetxatu zituen Inozentio IIIgarrenak, eta gisa bereko ikuskera miraritsu baten bidez bedeinkatu zituen oro bat bien lanbideak. Biok predikatu zuten pobrezaren estimazioa eta jarraitu zuten, eta biok zabaldurik bere zeloa denbora eta jende eta bizimodu eta edade guzietara, bildu zituzten banderape batean iru martizti edo ejerzitu banaak. Ugolino Kardenala izan zan bi Ordenen aparatzallea, Aita Santu Onorio IIIgarrena lenagoko ontzat emateak bulda solemneakin indartu zituena, eta Gregorio IXgarrena biak Santuen lumeroan para zituena. Azkenik, Eleizaren irakasle señalatuenak agertu zuten beren jakiñduria oen eriotzan, Santo Tomasek Santo Domingorenean, eta San Buenabenturak San Franziskorenean.

Alaz guziaz ere, bokazioetan elkarren aiñ antz aundikoak ziranak, arritzeko gauza!, Santo Domingo eta San Franzisko etziran ezagutzen. Biok egon ziran Erroman Letrango Batzarre laugarrenak zirauen denboran, bata bestearen ize-nik egundaño aditu gabe. Itz batekiñ adierazia dago gauz estali au: Jesu Kristo gure Jaunak

estutu nai izan zuen oen zeruko adiskidetasunaren lazoa.

Santo Domingok, San Pedroko Eleizan orazioan zegoen gau batean ikusi zuen gizonen Salbatzallea aserratua munduaren kontra, eta iru gezi irazeki eskuan zerabizkiala aienatzeko arroak, gutiziosoak eta desonestoak, eta Maria bere Ama txit Santa pekatariakgatik erregutzen, eta desarmatzen zuela bere besoa, jarririk bere aurrean pobre bi, eta esanaz: «Ona emen zure serbitzari leial bi, fedea eta birtuteak nun nai zabalduko dituztenak». Domingok ezagutu zuen bera zala pobre aetako bat, etzuen bestea ezagutu; baña aren irudi edo imajiña geratu zizaion oroimenean osoro josia. Biaramon goizean, Eleizatik irtetzean, ez al zituen begiak altxa lurretik, nun ikusten duen eskale bat jantzi pobre batekin, amets misteriosoan ikusi zuena bera zirudiena; bereala joan zizaion, eta Santu biak lenago elkar iñoiz ikusi gabe, laztandu ziran, eta egon ziran ala luzaroan itzik esan gabe. Azkenik, Domingok itza ausirik, kontatu zion aurreko gabean izan zuen ikuskera, eta esan zion: «Franzisko, zu zera nere laguna: lana egin dezagun

asmo berberarekin, iraun dezagun elkartasunean, eta iñork ez gaitu garaituko».

Santu fundatzalle aek an elkarri eman zioten laztana pasa da gizaaldiz gizaaldi ondorengoen ezpañetara, eta orduan artutako adiskidetasun estuak badirau oraindik aen umeen biotzetan. Erljioso txikienak eta Dominikoak para dituzte beren dendak erri mota guzietan, elkarrekiñ orazio egiñ dute, eta elkarrekiñ lan egiñ ere Jaungoikoaren maastian: beiñ baño geiagoetan aen martirien odola nastu izan da fedeagatik sakrifizio berean, eta azkenik lurra bete dute konbentuz eta zerua santuz, enbidiaren lerre puzoitsuak loitu gabe aen seireun urteko adiskidetasuna.

Adiskidetasun au dala bide urteoro Santo Domingo egunean fraide Predikadoreen Eleiz ofizio solemnea kantatzen du Aita Franziskoar batek. Meza ondorean, bi Ordenatako fraideak jaten dute elkarrekiñ Probidenziak bialtzen dien ogia. Otordu ondorean Jainkoari eskerrak ematean kantatzen dute aldizka berso au: *Seraphicus Pater Franciscus et evangelicus Pater Dominicus ipsi nos docuerunt legem tuam, Domine.*

«Aita San Franziskok eta Aita Santo Domingok erakutsi digute, o Jauna, zure legea». San Franziskoren pesta eguna dan urriaren lauean berri-tzen da zeremoni au berau Erlijioso txiki- en konbentuan. Au gertatzen da bi Ordenetako kon- bentuak elkarren alde xamarrean dauden erri- guzietan, fraideak eman dezaioten batzuek bes- teai beren txandan elkartasun eta onginaiezko siñaleak, gogoraerazitzen digutela Eleizaren denbora onenetako oitura, eta ematen diela oraingo fedegabeai ikuskarririk arrigarriena millaka gizonak arkiturik bat eginik biotz eta anima bat baizik ez balute bezela.

Bi Santu oen elkar billatu zuteneko pasartea beziñ biguñik, gitxi badira, eztegu ezagutzen bat ere aek Erromako mendi muñoetan egiñ zuten despedida bezelakorik. Abentino mendiaren gañean zutik, San Pedro eta San Paulo artzaz jabetu ziranetik amabi eunkira, bi erlijioso pobre aek begiraturik orain zerura, oraiñ lurrera, soma al baño ausardi aundiagoarekin partitu zuten bien artean mundua, zeruko Erregearentzat ira- bazteko. Lurbira guziak berendu nai zituzten apostoloak bezela, aurrerapenak edo frutuak

izan bear zuten gizonak uste zitzaketean baño aundiagoak. Eta egiaz, erakarriko dituzte jendeak Ebanjelioaren uztarripera, enpleatuaz orretarako munduko biderik indartsuenak, amorioa eta jakinduria. Domingo eta bere semeak, zeruko goiendean kerubiñak daukaten tokia Elizan daukatela dirudianak, zabalduko dute Jainkozko jakiundeak, eta eskudatu egia; Franziskok eta bere semeak serafiñen garretan irazekirik ixuriko dituzte munduan argi eta amorezko urjoairak.

Bata eta bestea Franziantzat arrotzak baziran ere, biak agertu zioten naitasun biotzekoa. Orain beren ekarraiez, edo kondairako ezagueraz, bazekien Franziak Eleizaren alaba aurrenekoa zan aldetik zeukala munduan eginkizun berezi bat, bera zala Orden Erlijiosoen sorteria, eta bera gabe inportanziazko gauzarik eziñ egin ditekeala. Argatik aren pensamentua itzultzen zan beti erri doakabe onetaronz, bada Domingok etzuen oraindik aienatu bertatik osotoro herejia, eta negar malko ugariak ixurtzen zituen aditzean erejeak erakarri zituzten kalte eta ondamen aundiak. Aen elkar ikuste eta despedako pasarteak irakorri nituenean anziñako kondairetan, pensa-

tu nuen biok elkar artu zutela anbeste kalte erre-  
mediatzeko, eta Domingok erregutu ziola Fran-  
ziskori lagundu zeiola Langedok-ko erriak kon-  
bertitzeko lanbide añ nekosoan. Pensamentu  
oek etziran nere irudipen batzuek baizik, baña  
suerte batez, ona non Mirepoixko Dukeak gogo  
onez eman didan XVIIgarren eunkiko eskuskribu  
batek, atera nauen dudatik gitxien uste nue-  
nean, nere sospitxak egian biurtuaz, bada dio,  
zeiñ parte aundia artu zuen Santuak Albijenseen  
kontrako gurutzadean. Nola agiri au dan ukatu  
eziñ ditekeana, parako ditugu emen Txikienen  
Ordenari dagozkan pasarte batzuek.

Gui de Levis, Mirepoixko markesa, Santo  
Domingok Fedeko Mariskalaren izengaña eman  
ziona, zan Simon Monforteren kapitan bularde-  
tsuenetako bat. Asirik tratatzen San Franziskore-  
kiñ (eta eztago dudarik izango zala Santo Domin-  
goren bitartez), erabaki zuen eramatea Franzia-  
ra persona aiñ santua, era onetan herejien  
aurrerapenai kontra egiteko; ekarri zuen bere iri-  
tzira Gillermo Kadailhak, Kahorsko Obispoa, eta  
joan zan Erromara apropos Aita Santu Honorio  
Irugarrenari baimena eskatzera eramateko bere-

kin Asisko Penitenzilaria. Aita Santuak baimena eman zion gogo onez, eta Franziskok berriz amorio guziarekin, bada ori zan bere biotz guziarekin deseaten zuena, baña eginkizun aundi oni etzion asiera eman nai izan konsultatu gabe Ugolino Kardenalarekin, eta nola arkitzen baizan orduan Florenzian Aita Santuak bialdua, joan zan ara gure Santua Mirepoixko Markesarekiñ.

Alde egiñ zuen Erromatik 1216ko udaazkenean, eramanaz anima oroipen gozo eta konso-lagarriz betea, eta Tiberko ubazterretik ezarri zuen esperanzazko begirada Franziaiko erreinu ederrerrunz, zeñaren izena aditzeak biotza pill pill egiten zion, eta noronz sentitzen zan gozoro erama-na. Nork esan al ditzake ark buruan erabilli zituen asmoak, apostolu baten biotzean, eta anima irazekietan berez sortzen oi diranak?

Etzekien etzala bera izango kunplituko zitue-na, eta ez al zan iritxi Florenziara, eta ontzat eman bere asmoa Ugolino Kardenalak, artu zuen gaitz aundi batek. Kardenala izan zan aurrena onetan ezagutu zuena, Jaungoikoak etzuela nai bidaje aiñ luzea egiñ zezala, eta Jaungoikoaren serbitzari umilla, buruba makurturik jarri zan

Kardenalaren agindura, eta bere ordeztuak, eta anbesteko ditxaren enbidiarekiñ, bialdu zituen frai Pazifiko, frai Angel eta frai Alberto Pisakoa Franzisko ifar aldera, eta frai Kristobal Romañakoa eguardi aldera. Kristobalek, Santuak eman ziozkan irakasdeai leialki erantzunik, lagunduzion Gui de Lebisi Langedokeraño, egiñ zituen Mirepoix, Kanon eta Martelgo konbentuak, arpegi eman zien gogorki setarien egiñalari, eta ill zan santutasunean 1272ko urriaren iruan larogeita emerezi urterekiñ, berrogeita amasei erlijioan igarotakoan.

Oek izan ziran Ordena onen asierak Franzisko aitaturako agiriak dionez. Kondairak, egiazkoa bada, aitatu bearko ditu emendik aurrera Kristobal Romañako doatsuak eta bere lagunak egiñ zituzten lanak Langedoken Santo Domingo eta bere lagunakiñ batean, eta bai ezagutu ere Erlijioso txikiak izan zirala ara deituak erejari gerra berezia egitera.

San Franzisko, gaiean jarri zan beziñ laister, itzuli zan bere apostoluzako lanetara, eta predikatu zuen batez ere Rieti balladako errietan, eta lanbide oetan arkituko degu Erromara oster

joan zanetik 1219ko urtearen erdiraño. Noizean beñ utzitzen zituen lan oek, joateko Ama Birjiña Aingeruenekora anima orazioan indartzera, eta erlijioso eta nobizioai kontu egitera, edo bisitatzeko egiten zituzten konbentu berriak.

Gure Santuaren bizitzaren denbora onetako gertaldi inportanzi aundienekoa, eta beraren deseño guziak zeramatzekoa zan bigarren billera guzienkikoa, 1219ko Pazkoa Espiritu Santuetarako señalatu zana. Urte aren aurren aurrenean joan zan Perusara Billerak artu bear zituen neurrien gañean Ugolino Kardenalarekiñ konsultatzera. Santo Domingo ere arkitu zan itz aldi artan. «Ondo deritzatzute zuen erlijiosoak altxaak izan ditezela Eleizako goiendeetara?» galdetu zien kardenalak beste gauza batzuen artean; Santu biak errespuesta berbera eman zioten. Santo Domingok zion: «Nik ez det ezagutzen Jaungoikoaren itzaren eramantzalle eta fedearen ezkutarma izatea beziñ onra aundirik; beude, bada, erlijioso predikariak beren bokazioan». «Jauna, esan zion ondorean San Franziskok, nere semeak deitzen dira erlijioso txikiak, Eleizan azkeneko lekua daukatelako. Au da oen ono-

rezko tokia; ez itzatzu kendu bertatik, goorago altxatzeko apukoarekiñ». Kardenala etzan iritzi orretakoa, baña ala ere arritu zan eta ikasbidezat serbitu zion ikustean aen sakrifiziozko espiritu ainbesterañokoa.

Santuak berekiñ lagun zeraman frai Leonek aitaturik, tratatu zuten ere konbeni izango ote zan Ordena biak bateratzea, baña Santuak etzuen nai izan. «Jaungoikoaren borondatea da, esan zuen, biak daudela bereziak, erlijioan sartzeko deiarekin sentitzen dana dijoan geiago konbeni zaionera». Orduan Santo Domingok erregutu zion berak eta beren familiak aiñ kari-dade aundian elkaturik zeuden siñaletzat eman zeiola gerria lotzeko zeukan soka, esanaz: «Beti nerekiñ eramango det nere arropa zuriaren azpitik». Franziskok denbora luzean etzion eman nai izan, baña anbesteraño leiatu zizaion, non azke-nean eman zion. Au izandu zan txit laister Eleiza guzian zabaldu zan debozio baten asiera eta Sisto Vgarrenak, Erlijioso txikienen Ordenakoak, andik irureun urtera anaitasun aundira altxa zuena *San Franziskoren Kordoiko Artxikofradia-*ren izenarekin.

Ordenako egiñkizunak Kardenal anparatza-  
llearekiñ batean zuzendurik, alde egiñ zuen bere  
lagunetatik, eta itzuli zan Ama Birjiña Aingerue-  
nekora. Bidean zijoazela iduki zuen itzaldi bat  
bere lagunarekiñ umiltasunaren gañean. «Jaun-  
goikoaren ardi maitea, esan zion, alderatzen  
zaigu billera guzienkiko eguna, eta iruditzen zat  
ez nitzakeala izango Erlijosos txikien egiazkoa,  
baldiñ aitorturik gure anaiak ez dutela iduki nai  
burutzat ni bezelako ezjakiñ eta pekatarririk, adi-  
tuko ezpanituzke bidegabekeria oek barrengo  
sosegu osoarekiñ, eta alegratuaz ikustean nere  
burua lenago neukan aginte gabe. Jakizu, anaia  
Leon, toki goiak askotan erortzeko arrisku geia-  
gokoak dirala, eta an daudenen erantzuera asko-  
zaz bildurgarriagoa dala, eta kontrara umiltasu-  
nean eta mendetasunean irabazi aundiak daude-  
la». Itz ederrak, zeintzuetan Franziskoren anima  
antzeztutzen dan ispillu batean bezela! Ai beti  
gogoan idukiko balituzte gizon gutziotsuak!  
Zenbat desengaño, gaiztakeri eta kezkatatik  
gordeko lirakean zartzarorako!

Iritxi zan, azkenik, bigarren Billera guzienki-  
korako eguna, 1219ko maiatzaren 26garrena,

egun gogoangarria, San Franziskoren Ordenako kondairetan siñale guziz argiak utzi dituen. Egun artan guzia zan fraideentzat poz kontentua. Eleizak zebratzen zuen Paskua Espiritu Santuko pesta, eta apaiñtzen zan jaieko jantzia-kiñ. Izaira zegoen ornitua udaberriko galakiñ, aizea zan freskua eta garbia, eta eguzkiak ixurtzen zituen argi-ujolak Apenino mendi gañetatik Espoletoko ballerara. Bidelariren bat goiz artan Asisen arkitu izan balitz, ikusiko zuen ikuskarri bat, benturaz alakorik munduan ikusiko ez dana, txabolak eunka ordeka zelaian, eta millaka fraideak bildurik Porziunkulako Eleizatxoaren inguruan. Ikustean nola zeuden isilik aingeruen gisan eta buru makurturik, usteko zuen gauza aundiren bat an gertatzen zala, eta etzan engañatuko. Zer ikuskarria! Ugolino Kardenala txutik kapillako aldarean zegoen Obispo-meza ematen, eta Sakrifizio Santua entzuten zeuden Franzisko bere Ordenako bost milla fraiderekin, eta Domingo zazpi millakiñ.

Aingeruak igotzen ziran zerura eskeintzeko Aita Betikoari Arkume mantxagabearen odola gizonen orazioakiñ batean, eta jeisten ziran

ostera lurrera graziaz eta bedeinkazioz beteak. Zeru guziak aditzen zituen arretaz erlijioso beartsuen erreguak. Deadar egiñ dezagun berriro: Zer ikuskarria! eta nola konsolatzen duen, beste zenbatek anima naigabetzen duen bitartean.

Meza ondorean Kardenal anparatzalleak billerari asiera eman eta giatu zuen. Arratsean gerrariburu on batek bezela ikusi bat eman nai izan zien ordeka zelaian arbol-adarrakiñ edo espartzuz egiñdako etzauntzetan arkitzen ziran Jesu Kristoren soldadu tropa aei. Eta zeuden irurogei ta eunkako salletan, kontatzen elkarri beren apostolutzako poz eta sufrimentuak, beren Aita doatsuaren lanbideak, edo beraren izenean egiñ zituzten mirariak, berrituaz Jesu Kristoren ikasleak aurreneko misiotik itzuli ziran-nean esan zituzten itzak: *Beraren izenean deabruak berak obeditzen digute* (Luc. X).

Au ikusirik, aiton beneragarri ark deadar egiñ zuen beste mugaldi batean Jakob Patriarkak bezela: *Fraide txikienak, egiaz au da Jaunaren kanp-etxea*. Ura zan, menetan Errege aundiaren soldaduzka aukeratua, paketsu eta irabazlaria, armagabe eta indartsua, miragarriri eskolatua,

zeñari egokatu lezaiokakean Eskritura Santuko itz oek: *Zeñ ederrak diran zure etzauntzak, o Jakob! zeñ politikak zure dendak, o Israel.* Franziskok begiak zeruronz altxa eta Jaungoikoari eskerrek biotz onez emanik bere semeak ugaritu zituelako itxasoko ondar aleak bezela, atera zituen bere biotz eta ezpañetatik itz batzuek pizkortu erazi zituenak bere ikasleetan Jaungoikoaren amorioa, beren bokazioak, animen salbazioaren zeloa eta Eleizaren serbitzurako beren mendetasuna; eta bukatu zuen bere itzaldia era onetan: «Ene anaiak, gauza txit aundiak agindu ditugu eta are aundiagoak agindu zaizkigu. Kuntplitu ditzagun batzuek, deseatu ditzagun besteak, atsegiña laburra da, pena betikoa; nekeak ariñak eta gloria bukaera gabea. Asko dira deituak, gitxi autuak. Bakoitzari emango zaio irabaziko duen saria».

Biotz dollorren batek galdetu zezakean: *Nun billatu orrenbeste jende mantentzeko janari?* Baña ez Santuari eta ez bere fraideai etzitzaien alako dudarik burura etorri. An etzeukaten ezertxo ere, baña konfianza osoarekin itxedoten zuten Jaungoikoagandik eguneroko jana, kanpo-

ko egaztiak bezela, eta Probidenzia etzitzaien faltatu. Ikusi ziran nola zijoazen Asistik, Perusa, Foliño eta Espoletotik ere bizimodu guzietako jendeak, apaizak, zaldunak eta erriko jende txeak, eta ez kontentu eramanarekiñ erlijioso beartsuai bear zituzten janariak, leiatzen zirala beren eskuakiñ serbitzeraño. Sokorru aek izan zituzten Billerak iraun zuen denbora guzian.

Ikuskarri miragarri ura ikuste utsagatik joan ziran ara jendetza aundiak. Jaungoikoa baliatu zan egokiera artzaz aen biotzak ukitzeko. Aetako asko arritzen ziran Erlijioso txikienak ikustearekin, eta ziozaten: «Ona emen ongi erakusten diguna zeruko bidea estua dala, eta zeñ gaitza dan aberatsentzat Jaungoikoaren erreinuan sartzea! Iruditzen zagu gure zoriona egiten degula munduko era on eta atsegiñik utzi gabe, Erlijioso oek, zuten guzia utzita ere bildurrak bizi diran bitartean. Guk ill nai genduke oek bezela, ez ordea bizi oen moduan, izanik gauza jakiña, nolako bizitza, alako eriotza». Beste batzuek erreparatzen zuten aen arpegi aingeruzkoetara, zer parra irri gozoa, zer ernaitasuna bata bestea- ren serbitzuan, eta nola azaltzen zuten beren

begiradetan zeruko pakea: «Aingeruak dira, pensatzen zuten, ez dute lurrik ukitzen oñetako beatz puntarekiñ baizik, eta beren pensamentu eta amorioa daukate jarria gure jaieterri egiazkoa dan zeruan. Zerk galerazten digu oen zorionean part-artzea?». Eta aetatik bosteun pasatuak auspezturik San Franziskoren oñetan, eskatu zioten penitenziako abitua. Alako eran zabal-tzen zan Espoletoko balleran fraideen birtuteen urriñ gozoa, eta ematen zituzten bizitzako fruituak!

Emen oarterazi bear degu ezen, Santuari gustatzen zizaiola senzilltasuna anbat, zenbat gorrotatzen zuen irudipentzea eta gauzak aundizkatzea. Jakiñik ikasleen batzuek penitenzi gogorregiak egiten zituztela, agindu zuen eramateko Kardenalaren aurrera gorputz illduratzeko zeuzkaten gauzak. Burnizko goronz eta gerrikoak baziran bosteun baño geiago. Franziskok eragotzi zien osoro illdura mota aek, animako jarduera eta obra onen kaltegarri ziralako. Zorionekoak alako utsegiteakgatik errietan eman zitekean denborak!

Erlijiozko espirituaren berritzea, piedadea geitzea eta ikasle berriak erakartzea bakarrik etzan izandu Esteratako Billeratik ateratako fruitua. Egiñ ziran iru erreglamentu inportanzi aundikoak, Ordenaren ondore gloriosoa sendotu zutenak. Ona emen.

Lenbizikoa. Larunbat guzietan esango da Ordenako konbentu bakoitzean, meza solemne bat Ama Birjiñaren onran. San Franziskoren aitamenez jarritako aginte onen bidez Erlijioso Txikienen Ordenak Maria sortzez mantxa gabea artu zuen bere Santu Goartari eta Bitartekotzat (eta au da beraren gloria bikañena, eta izaeraren arrazoia), aitortzen zuela sei eunkiz aurretik beraren sortze txit garbiaren fedeko egia. Au da gertatua; nork ordea adierazi lezake kausa? Eskritura Sagraduan aiñ gitxi trebatua eta Gurutzeko jakinduria besterik etzekiela gloriatzat zeukan Asisko apaizurren umillak argitu dezala batetan denbora luzeenean estalpean egon diran gure Erlijioko egietatik bat, erakutsi dizaie-la jendeai, pasatuaz gero aoz ao famili erlijioso bateko belaun guzietara, eman dezala misterio onen arrazoia zentzu aundiko itz oetan: «Ez bil-

dur izan emateko Mariari, Jainkoaren Amaren goiendearekiñ gaizki ez datorren guzia». Au da mirari bat munduko arrazoiakiñ adierazo ditekiana? Eztegu ontzat artu bearko Senako fraide Dominiko batek diona, ezen, San Franziskoren Teologia... altxatzen zala arranoaren egaaren eran, eta Franziskok Espiritu Santuarekin zeukan trataera biotzekotik zetorrela? Era onetan Irakasleen Irakasleak eskolaturik, eta jakiñik Mariak daukan tokia Jaungoikoaren asmoetan, egiñ zezakean Franziskok gauza obeagorik uztea baño bere umeai ezaguera ura ondasunik aundiena bezela? Santuaren esperanza etzan izan engañatua, bada bere ikasleak gorde eta zabaldu zuten Ama Birjiñaren sortze mantxa gabearen dotriña alako irmotasunarekiñ eta aiñ bere-na bezela, non deitu zioten franziskoarren dotriña.

Bazirudian zeruetako Erregiñak bere aldetik sortzen zituela Ordenan bere obraren ondo irtezea aseguratzeke gai ziran jakintsu eta predikariak, eta ikusi zan Ama maitati onek alaiturik, nola leian sartu eta deitu ziran Mariaren zaldun, Antonio Paduakoa, Buenabentura, Duns Skoto,

Bernardino Senakoa, Leonardo Porto Mauriziokoa eta Tomas Charmes. Seireun urteko guda onetako gora berak alde batera utzirik, badaude bertan gertaera bi inola ere kontatu gabe eziñ utziko ditugunak, San Franziskok jarritako egia-  
ren ondore berezkoak diranak: Duns Skotoren garaipen sonatua XVgarren eunkian, eta fedeko egia onen aitormena XIXgarrenean.

Jakiñak dira denbora aetan fraide Franzisko eta dominikoak elkarren artean zerabilten despita Ama Birjiñaren sortze mantxa gabearen gañean. Despit oek beiñ betiko erabakitzeko Aita Santu Benedikto Xlgarrenak agindu zuen 1304an iduki zedilla ezpaita agirikoi bat Parisko Unibersidadean. Aita Gonzalbo Erlijoso txikieneen Buruzaiak Ordenaren izenean para zuen Duns Skoto, buruzko guda berri artan gorde eta defenditu zezan franziskoetan aurrekoetatik ikasirik zeukaten sinistamentu piadosoa; eta orretarako joan zan Oxfortik Parixa. Despita onetarako orazio, barau eta erretiroarekiñ prestatu zanean, joan zan Unibersidadera, baña bidean ikusirik Ama Birjiñaren imajiña talluzko bat agur egiñ zion Eleiz errezoetako itz oekiñ: «Egizu, o Birjiña

Santa, alaba zaitzadala, eta indartu nazazu azpiratu ditzadan zure etsaiak». Imajiñak makurtu zuen burua, farra egiteko zorian, geratuaz geroztik egoera onetan.

Sorbonara zanean, Skoto arkitu zan batzarre errespetagarri eta berarekiñ jazartzeko modukoan ziran kontrarioen aurrean. Fraide Dominikoak para zituzten berreun arrazoi ikusierazotzeko Gizakiaren kontra emandako sentenzian sartua zegoela Ama Birjiña ere. Franziskoak fraide gazteak aditzen zituen ixilik eta arreta aundiarekiñ. Kontrarioak itz egiñ zutenean, altxa zan, eta esan zituen berriz aek bezela (sinisten erraz ez dan gauza Ama Birjiñaren laguntza miraritsua gabe) beren dotriña indartzeko jarri zituzten berreun arrazoiak, eta desegiñdu zituen bat banaka kontrarik eziñ egiñ zezaekean probabi-deakiñ.

Unibersidadeko irakasleak eta Aita Santuaren bialduak onratu zuten txalo guzizkoakiñ, eman zioten Irakasle argiaren izengaña, erabakiaz andik aurrera Batzarre sonatu ark, zelebratzeko urteoro Ama Birjiñaren Sortze mantxa gabea. Eunki bat geroago oro bat erabaki zuen

ez ematea inori Doktor edo Irakasle gradua, baldin graduatu bear zuenak itz ematen ezpazuen defendituko zuela Ama Birjiñaren doai berezi ura. Etzan oraindik iritxi Eleizarentzat Misterio onen gañean bere azken sententzia emateko ordua; gure denbora oetan izandu du disputa onek bere bukaera gloriotsua.

1854ko abenduaren 8an San Franziskoren irugarren Ordenakoa zan Aita Santu Pio IXgarrenak ezarri zion Mariaren koroari perlarik ederrena, mundu guziaren aurrean aitortuaz: «jatorrizko pekatutik gordea eta pekatu gabe sortua izan zala bere Semearen merezimentu alde aurrez aplikatutakoen birtutez». Nola utzi emen kontatu gabe Ordena onen gloria dan gertaera bat? Bulda au solemnidade guziarekiñ publikatzen zan unean Aita Santuak eman zien baimena Erlijioso txikienen Buruzai biri, erregalo egiteko batek urrezko arrosa eta besteak zillarezko lirio bat; au zan saririk onena onratzeko erlijioso oen zela adierazten eta zabaltzen Mariaren aunditasun eta pribilejioak.

2. Erreglamentuetako bigarren ordena izan zan San Pedro eta San Paulo Apostoloen aitamen

berezi bat egiñ bear zala *Protege nos, Domine* eta *Exaudi nos, Domine* orazioetan. Eleiz-orazio onekiñ Franziskok estutu zuen oraiñdik geiago Eleiza guzien ama eta buru dan Erromako Eleiza-rekin Ordena berriak zeukan batasunaren lazoa, eta asi zuen bere ikasleen artean Aita Santua-renganako amorio eta jaiera ura, iru Ordenak beren siñale ezagungarritzat bezela daukatena.

3. Ez da artuko Eleiz eta ez konbenturik, agin-dua daukagun pobreza santuari ez dagokanik. Erabaki zentzu aundikoa, franziskoarren konbentuai lujo eta aberastasunai bidea isten ziona, zeña izan oi dan lasaikeria ekarlea eta erlijiozko bizimoduaren ondamena.

Oek izan ziran Esteratako Billerako erreglamentu sonatuak, Ordenaren barrengo bizitzara zuzentzen diranak eta bere itxura ematen diotenak. Franziskok etzeukan orregatik aztua bere lanbidearen kanpoko aldea deitu genezakeana, au da, animen salbazioa. Beti gogoan idukirik Jaungoikoak eman zion eginkizun berezia zala deabruaren mendetik kristau erriak eta fedega-beak ateratzea, egiteratu zuen bere lanaren plana, munduko erri guzietara zabaldu eta bere

umeak kunplitzen segitu bear dutena azkeneko denboretaraño. Artu zituen Ejito eta Siria bereztat eta beste fraide batzuentzat, eta señalatu zien besteai zeñ tokietara joan bear zuten. Anbeste langille Ebanjeliokoen artetik mixio batzuetako buru egiten zutenen izenak baizik ezin eman ditzakegu.

Frai Bernardo, Marruekoetara joan zana, eta Santuak berriz ezin ikusiko zuena zerura joan arteraño; Frai Pazifiko, ostera Franziera itzuli zana; Kristobal Romañakoa, berriz Guyenara predikatzerara joan zana; Anjel Pisakoa, Bretainara joatea tokatu zizaiona. Aen obedienci edo agiriak zioten onela: «Ni Franzisko Asisko ministro jeneralak agintzen dizut zu frai Angel Pisakoari, Ingalaterrara joan eta izan dezazula an ministro probinzialaren kargua. Agur». Gitxi esaten zuen, baña bai bear anbat, Jaungoikoa bera zalako bialtzen zuena. Lanbide au neke aundikoa zan, baña Jesu Kristoren Eleizak animak beraganatze-ko daukan espirituarekiñ ongi datorrena. Honorio Illgarrenak Viterbon zegoela ontzat eman eta indartu zuen bialduaz fraideai ondorengo esku- titz au: «Honorio, Obispo, Jaungoikoaren serbi-

tzarien serbitzariak, Arzobispo, Obispo, Abade, Arzipreste, Arzediano eta beste agintari eleiza-koai: Nola gure Seme maite Franziskok eta aren beste lagunak utzi dituzten munduko utskeriak Erromako Eleizak ontzat eman duen bizimodu bat egiteko, eta dijoaz Apostoloen gisan, adierazten Jainkoaren itza toki guzietan, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean erregutzen, eta eskutitz onen bidez agintzen dizutet ar ditzatzutela kataliko eta fededunekotzat Ordena orretako erlijioso, karta onen eramalleak eta zuenganatu ditezkeanak; lagundu eta ongi tratatu ditzatzutela Jaungoikoaren onrarako eta gure begirunez. Garagar illaren amaikan eta gure Aita Santutzako irugarren urtean egiña».

Gañera misio-buru egiten zutenak zeramazkiten Santuaren beste bi eskutitz, zabaltzeko enkarguarekiñ. Lenbizikoak, apaizai zuzenduak, zekarkian ikasbide balio aundikoak Aldareko Sakramentu Santua bear bezela onratzeko eta konsellu gogoangarri au Eskritura Sagraduko itzen gañean: «Jaungoikoaren izena edo Eskritura Sagraduko itzen batzuek billatzen badituzute ondo ez dirudian tokiren batean, erregutzen

dizuet errespetoarekiñ bildu, eta toki obeagoan para ditzatzutela».

Bigarren kartak zion onela: «Karta au artzen duten lurreko Gobernadore, konsul, juez eta majistradu guziai, Franzisko, gure Jaunaren serbitzari umillak bialtzen die osasuna eta pakea. Pensa ezazute arretaz, eriotzako eguna alderatzen dala. Erregutzen dizutet, bada, errespeto guziarekiñ munduko limurkariakgatik etzaitzete-la aztu Jaungoikoaz, eta ez ausi ere beraren aginteak, bada artzaz eta aren legeaz aztutzen diranak madarikatuko ditu, eta aezaz aztuko da. Utzi bearko dituzte beren ondasunak eriotzako orduan, eta zenbat eta eskual aundiagoa izan duten lurrean, anbat eta neke oñaze aundiagoak eraman bearko dituzte Infernuan. Ona zergatik erregutzen dizutedetan nere jabe batzuei bezela begiratzen zaituztedetanai, zuen pekatuen penitencia egiazkoa egiñ dezazutela, umiltasun eta amorioarekiñ ar dezazuten Jesu Kristoren gorputz eta odol prezioso, bere Pasioaren oroipe-nean, zuzendu dezaiozuten Jaungoikoari errieta-ko gobernu ematean egiñ dizuten onra, eta gauero iduki dezazuten kontua adierazteko

señalaren batekiñ nola adonatu bear duten Jaungoiko guziz Altsua eta eman bear diozkaten eskerrak. Egiñbide oek utsegiten badituzute, jakin, Juizioko egunean kontu eman bearko dezutela, baña izkribu au gorde eta bertan agintzen dana kontuz egiten dutenak izango dira Jaungoikoak bedeinkatuak».

Eta Billera bukatutako biaramonean mixiolariak eman zizaiozkan bideari, alaiturik iru bedeinkazioakiñ, Jaungoikoaren, Aita Santuaren eta fundatzalle doatsuarenarekiñ.

# **Amargarren Bereziara**

*Sort-aldeko mixioa.*

*Marruekoetako martiriak.*

*San Antonio Paduakoa.*

(1219-1221)

Utsegite aundi bat litzake iruditzea Santuak ez dutela ikuskizunik izaten beren denborako gertakariakiñ. Jarraitzen diezte arretaz, baña begiratuaz beste gizonak ez bezela. Munduko despiteetan ikusten dute kausa bat, beste guzien gañekoa, Eleizaren kausa. Ala iristen da Kristoren zaldun miragarri onek nolako arretarekin begiratzen zien Clermonteko Batzarreak sospertu zuen Sortaldeko leia aundiaren aurrerapen eta goraberai, eta zeñarekiñ aiñ bat egiñik zeuden Eleizaren bizitza eta errien libertadea.

Godofredo Bouillonek Jerusalem artu zuenetik, Europa zan kanpamentu egiazko bat, eta kristaudadearen gerra-kondaira etzan besterik ezpada Kristoren eta Mahomaren soldaduen arteko despita bukatze etzanaren kondaira, zenbat bider geratu eta beste anbestetan berritua.

Gure Santuak begiratzen zien gertakariak, ez azaletik, ezpada barren barrendik. Europako gizon bulardetsuak egiten zituzten zaldungudaetan Franziskok ikusi zuen Jaungoiko egiazkoaren eta Maoma profeta gezurrezkoaren arteko guda, kristau oitura onen eta maomatar biotz-gogorren arteko gerra, eta ala bere fede eta erri-tarren amorioak errezaerazotzen ziozkan orazio irazekiak egiñkizun aiñ aundi ura ongi atera zediñ, zeña bakarra asko dan Aita Santuak eta Denbora aldi ura onratzeko, erakarri zituen ondoreakgatik baizik juzgatzen ezpada ere. Eta egiaz, etzan asko izandu Europa salbatu, eta maomatarrak eta beren dotriña aberekiak Eremuko ondardietaraño aienatzeko? Lau bider altxa zan armetan Europa Jesu Kristoren obi edo sepulkroa libratzera joateko, baña Godofredo Bouillonon ondorengoak balorezko alegiñ guziak egiten bazituzten ere, tarte batzuetan baizik etzan arkitu libre Uri Santua, eta orain kontatzen ditugun gauzak gertatu ziran denboran, erori zan ostera etsaien mendean: Europa guzia ikaratu zan berri txar ura artu zuenean, begiratzen zio-lako guziaz ukitzen zien lazeriari bezela; laster

ordea sospertu zan, eta Honorio IIIgarrenaren deiera lareun milla gizon armadun igaroak bildu ziran Jerusalengo errege izendatzen zan Juan Briennakoaren banderapean. Mugaldi artan Gurutzetuak ondatu nai izan zuten maomatarren podere edo almena biotza zaurituaz, Palestinara joan baño len, eta ala Ejipton sartu eta inguratu zuten Damietako uria. Onekiñ etzuten egiñ, Honorio IIIgarrenaren gerrako neurri-plana kunplitzea baizik, egikera au zan ausarditsua eta neke aundikoa. Erri guziak sortaldera ezarria zeukaten beren begirada, eta antsiatz itxedoten zuten gerra aiñ urrutikoaren bukaera.

San Franziskori gogoratu zizaion ura zala denbora egokia Gurutzeta ipintzeko fedegabeen lurbira aetan, edo bere odolarekiñ indartzeko, eta ala Ordenaren gobernua frai Eliasi utzirik, joan zan Amiensea Gurutzeta beste arma gabe, eta an sartu zan sortaldera zijoan onzian, aur batek millagroz seinalatu zituen bere beste amai-ka lagunakiñ. Oen artean zeuden Pedro Katanio, Barbaro, Sabatino, Leonardo Asiskoa eta Iluminario Rietikoa. Enbarkatu ziran 1219ko garagar illean, ontziak jo zuen aurrena Salamina, Chipre

ugarteko portua, eta gero San Juan de Akre, Siriako uri inportantziazkoa, nun utzi zituen Franziskok bere amar lagun, irozotzeko katolikoan espiritu eta fedea, bada ziran maomatarren aldetik gogorki tratatuak. Gure Santuak segitu zuen ontzian frai Iluminarioekiñ Ejitoraño, nun leorreratu ziran Damietaren parean.

Naspilla eta elkar eziñ ikusia gallenduak zeuden Gurutzatuen kanpamentuan. Zaldizko tropak eta oñezkoak, urte bete artan murru aurrean zeudenak, elkarri arpegira ematen zioten bildurti, salkindari batzuek zirala, berotzen ziran iskanbilla batean bezela, eta alderdi biak, beren indar eta trebetasuna agertu naiean, ujuka eskatzen zuten jazarrea. Juan Brienakoak, kristauen odola alperrik ez ixurtzeagatik jarri zan aen deseoz zenu gabera, señalatuaz erasotzeko biaramona, zeña zan 1219ko abustuaren 29garren eguna.

Une aetan azaldu zan gure Santua Gurutzatuen kanpoan. Agerturik Jaungoikoak beren orgullkeri eta eziñ ikusiaren kastiguz Gurutzatuak ondamen izugarri bat sufritzera zijoazela, somatzen ari zan zorigaitz artatik aek libratzeko

modua. «Ene anaia, esan zion lagunari, Jaungoikoak adierazi dit erasoari ekiten badiote, kristauak abarrakituak izango dirala. Onela esaten badiet, erotzat idukiko naute, eta ixilik banago, ixiltasun onek kezka aundia emango dit. Esan zadazu zure iritzia gauz oen gañean». «Ene aita, frai Iluminariok erantzun zion, etzaitzate la uzkur-tu gizonen juzkuak; ez da izango gaur lenbiziko eguna erotzat idukiko zaituztena. Deskarga ezazu konzienzia, eta etzaiezu izan gizonai Jaungoikoari baño bildur geiago». Konsellu onekiñ indarturik, Kristoren bialdua sartu zan Generalaren dendan, eta erregutu zien agintari guziai gogor egiñ zezaiotela enbidiaren deseo biurriari, jakiñaren gañean egonik zeñ kalte izugarriak etorriko zitzaizten baldiñ leiatzen baziran jazar-rerako zirikatzen, baño ez on esanaz, ez keñadak izan ziran gai atzera erazitzeke, aiñ ziertoa da griñak illuntzen eta itsutzen duela entendi-mentua; eta ala Santuaren esanak artu zituzten amestzat; batalla eman zuten eguzkiak kiskal-tzen zuen denboran. Jakiña da zer gertatu zan. «Ekiñaldi artan bakarrean, dio San Buenabentu-rak, kristauak galdu zituzten sei milla gizon, ill

eta erituen artean. Ondamen arekiñ ezagutu zuten Franziskoren gaztiguak despreziatzean egiñ zuten erakeria, bada piztuaren begiak iñoiz edo berriz obeto ikusten du egia, mendi tontorrean jartzen diran zazpi soldadu kontu artzallak baño».

Gure santuak erabaki zuen bere lanbideari jarraitzea, doakabetasun artzaz desalaitu gabe. Alperrik esan zioten bizia arrisku aundian jartzen zuela, zeren *Soldanak* eskeiña zeukan urrezko besante bat (50 pesetaren balioko dirua) eramaten zioten kristau-buru bakoitzagatik; etzuen ezerk ere atzeratu. Osoro sinisturik egonik Apostoloarekiñ eriotza dala saria, eta martirioa berriz, munduan geien gutiziatu ditekean koroa, sartu zan sarrazenoen kanpoan kantatuaz Dabid erregearen berso au: «Jaungoikoa da nere giaria, eta eriotzako itzaletan banebill ere, eztet ezeren bildurrik izango, zu, O nere Jaungoikoa! nerekiñ zaudelako». Aurrera zijoala, ikusi zituen ardi bi, zeñak ikustean esan zion lagunari poz aundiarekiñ: «Ene anaia, iduki dezagun konfianza Jaungoikoagan, zeren ikusten degun Ebanjelioko itz onen kunplimentua: *Ona nola bialtzen zaituzte-*

*detan ardiak otso tartera bezela*». Eta ala, ez al zituzten eman pauso batzuek, maomatar sall batek inguratu, eta injuriaz eta kolpez bete ondoan katez kargatu zituzten. «Kristaua naiz, esan zien Franziskok boz indartsuarekiñ; eraman nazazute zuen nagusiarengana». Obeditu zioten, eta erdi arrastaka, eraman zituzten Soldanaren aurrera, eta onek ikusi zituen beziñ laister galde-tu zion Franziskori: «Nork bialtzen zaitu? Zer egi-tera etorri zera onara?». Eta Santuak batere ika-ratu gabe erantzun zion: «Ez da gizona bialtzen nauena, ezpada Zeruko Jauna, zuri eta zure erriari adieraztera Ebanjelioaren berri ona eta salbazioko egiak». Eta au esanda bereala asi zizaion adierazten erlijio katolikoaren misterio-ak: Jaungoiko bakar bat eta iru Persona, Jesu Kristo Jaungoiko egiazko eta munduaren Salba-tzallea. Eta alako alai eta indarrarekiñ itz egiten zion, nun berriz ere bete zan argan Maixu Jainko-aren agiñdua: «Nik ipiñiko ditut zuen aoan itzak eta jakiñduria alakoa, non zuen etsaiak eziñ ukatu eta kontra egingo dien».

Soldana zegoen arriturik Franziskori begira, eta gertatzen zitzaionaren konturik bere buruari

eman eziñik. Aren ausardi bulardetsua, aren mendetasun zerukoi orduan lendabizi ikusten zuena, asko izan ziran aren anima menderatu eta biguñtzeko. Aditu zion arretaz egun batzuetan, jakiñdu zuten guziak arritzen zirala, eta gonbidatu zuen berarekiñ bizitzera. «Zu eta zure jendea, esan zion Franziskok, biurtzen bazerate Kristoren federa, gogo onez geratuko naitzatzu. Eta Ebanjelioaren eta Maomaren legearen artean zalantzan bazaude, piztuerazo ezazu su aundi bat, ni sartuko naiz an zure apaizakiñ, eta ondoreetatik ezagutuko dezu noren aldetik dagoen arrazoia eta egia». «Ez det uste, eranzun zion Soldanak, gure apaizetako batek ere naiko duela arriskatu bere bizia suzko tormentuetara bere sinistamentuak defenditzeagatik». Ala esan zuen, an arkitzen zan zarren eta sonatueneko batek Franziskoren esana aditu orduko andik alde egiñ eta bere burua gordetzen ikusi zuelako.

Oraindik geiago aurreratu zan Santua, eta Soldanari esan zion: «Zure izenean eta zure erriarenean itz ematen badidazu, erlijio kristaua artuko dezula, ni bakarrik sartuko naiz sutan.

Erretzen banaiz, ezarri zaiozu kulpa nere pekatu-  
tuai, baña irteten banaiz erre gabe, ezagutu  
ezazu Jesu Kristo dala Jaungoiko egiazkoa, eta  
munduaren Salbatzallea». Soldanak, bildur eta  
ikaraz bere oñetan umildurik zeudenen aurrean  
eta kezkatu-rik bere jendea kontra altxako zizaio-  
lako, etzan benturatu prueba ura egitera, baña  
ordañez eman nai izan ziozkan balio aundiko  
erregaliak alperrik bedere, bada gure Santuak,  
nola animen salbazioa beste gauzarik nai  
etzuen, eta etzuen ikusten argan egia billatzen  
saiatzeko zale aundirik, itzuli ziozkan kiñu porti-  
tzarekiñ eskeintzen ziozkan urre eta tela balioso-  
ak. Ala ere etzan aserratu Soldana, ezpada esti-  
maturik aren nobleza, sentitu zuen bere bio-  
tzean azitzen zijoakiola Franziskorenganako  
aurrena ikusi zuenetik ekarri zion begirune eta  
errespetua; eta ala esan ondoren ixilik: «Erregu-  
tu ezazu nigatik, Jaungoikoak ezaguerazo diza-  
dan erlijio egiazkoa» eraman erazi zuen onra  
aundiarekiñ kristauen kanpamentura.

Ikusirik Franziskok bere usteak utseratuak,  
eta etzekiela aurrera zer egiñ, joan zan oraziora,  
oi zuen bezela, eta San Buenabenturak, berri

oek ematean, dio, etzala izan alperrikakoa. Eta egiaz, izan zuen zeruko agerkeria bat, argia, pakea eta konsueloa ekarri ziona. Jaungoikoaren semeak agiñdu zion itzuli zedilla Italiara, aseguratuz ez Ejiton eta ez ezpataz arkituko zuela billa zebillen martirioko palma. Eta ala esan zion lagunari: «Irten gaitezen emendik, ene anai, goazen, goazen, gurekiñ biguñegi portatzen diran jende oetatik urruti, zeintzuek eziñ jarri ditugun ez gure Jaungoikoa adoratzera, eta ez gu beraren serbitzariak geranok persegitzera. O nere Jaungoikoa! Nola mereziko degu martirioa, jende fedegabeenetan ere onrak baizik arkitzen ez baditugu? Jaungoikoak ezpagauzka martirioaren, edo bere injuria gloriosoen diñakoak, goazen emendik gure bizitza penitenziako martirioan bukatzera, billa dezagun bazterren bat, bertan sufri ditzakegun biotz biotzetik Gurutzeko neke-desprezioak».

Zenbat denboran egon zan San Franzisko Gurutzatuen kanpamentuan? Zenbaterañoakoa izan zan aren itzala jartzeko aen artean pakea eta mendetasunezko espiritua? Egon zan Palestinan Ejitotik itzuli zanean? Galdera oei ezin

erantzun genezaieke gauza ziertorik. Ona zer dion gai onetan denbora artako kondairatzalle jakintsu eta zuzen, Santiago Vitri, San Juan de Acreko Obispo eta kristau martiztietako Aita Santuaren Bialkiña izan zanak: «Ikusi degu, iskribatzen zien adiskideai, Damietaren jabe egindako biaramonean, Erlijioso Txikienen fundatzailea, gizon guziz maitagarria, eta danok, fedega-beetarañoakoak, errespetatzen dutena. Gure adiskide asko, eta oen artean Dom Reimer San Migelko Priora eta Mateu, nere ordañez gure Obispadua gobernatzeko dagoena, erabakiak daude alde guzietara zabaltzen dan Ordena onetan sartzerako, zergatik bertan jarraitzen dan osoro Apostoloen eta aurreneko kristauen biziera». Marianok dionez, Mendi-Beltzean zegoen Benitoen konbentuko monje guziak artu zuten San Franziskoren Erregla.

Orden onetako kondairatzalleak aurrekoai adituta diotenez, Franziskok andik itzuli zanean bisitatu zituen Leku Santuak, eta bai predikatu ere Ptolemaidan, Antiokian eta Siriako beste uri askotan. Aren itzulera Europara izan zan uda azkenean edo 1219ko neguan, nora deitzen zio-

ten bere Ordenako egiñbideak. Enbarkatu zan Benezitarren ontzi batean, bada aek ziran orduan Lurtarteko itxasoaren nagusiak, eta Gurutzatuai bastimentuak eramateko geratu gabe bertan zebiltzanak.

Ala bukatu zan gure santuaren sortaldeko Gurutzade paketsua; eta kondairak esan dezake protxugarria izan zala. Geroztik seireun urte joan dira eta, nork ukatu dezake beraren ango joanera izan zala Leku Santuaz jabetzea bezela? Ez dirudi Jaungoikoak eraman zuela ara, beste denbora batean Abrahami esan zion bezela esateko: «Jira ezazu orain leku au guzia, bada egunen batean emango dizut?». Eta egiaz, Franziskok para zuen orduan erreinu bat Godofredo Bouillonena baño iraupen geiagokoa. Ordutandik arkitzen ditugu Erlijioso txikienak sendoro Palestinan jarriak, egiñkizun miragarri beziñ nekosoak betetzen. Jauna piztutakoan, aingeru batek gorde zuen obi edo sepulkroaren sarrera; XIIIgarren eunkitik onera San Franziskoren umeak gordezen dute gau eta egun oroikarri gloriosu ura iñork desonratu ez dezan; eta Aita Santuak indartu die gallaldi balioso au 1242ko azaroaren

21an emadako Bulda baten bidez; eta an daude geroztik kontu artzen eta erregutzen mundu katolikoaren izenean. Bi bider izan ziran lepo-moztuak erlijioso guziak, beiñ 1244an eta beste beiñ 1368an, baña bereala jarri zituzten aen ordañak, maomatarren ganibetari eta Fozio eta Luteroren setakoaren ezpatai bildurrik etzienak, eta zentinelak bulardetsuak bezela beti prest daude beren odola ixuritzeko, Franziskoren Jesus Gurutziltzatuarenganako amorio paregabekoaren bidez merezitu duten onorezko tokia utzi baño len. Dauzkate ogei bat etxe, ostatu, edo eskola edo konbentu diranak. Erlijioso guzien buru dago Aita txit gurgarria, Aita Santuak izengañ gloriatsuenak eman diztenak. Da Siria, Chipre eta Ejitoko misioen nagusia, Siongo mendiko eta Sepulkro Santuko guardiana, eta Uri Santuko gordetzallea. Iduki zuen ere Bikario Apostolikoaren izen eta kargua, alik eta denbora oetan oroi-pen onragarriko Aita Santu Pio IXgarrenak berriro jarri zuen arteraño Jerusalengo Obispadutza, eta Balerga Jaunarekiñ bateratzen da Santiago eta San Simeon Obispoen katea, seireun urtean urratuta egon ondoren. Ara nola Franziskoarrak

segitzen duten Asia txikian orain seireun urte beren Aita doatsuak asi zuen misioa.

Aita doatsua sort-aldeko errietan martirioa iritxi eziñik Ebanjelioa zabaltzen ari zan bitartean, aren bost seme bera baño zorionekogoak, sufritu zuten gogorki fedeagatik España eta Afrikako maomatarren artean, emanaz munduari irmotasun arrigarritzko ejemploa tormentuetan. Berardo, Oton, Pedro, Adjuto eta Akursio izendatzen ziran franziskoarren lenbiziko odola ixurtzeko Jaungoikoak len-aukeratu zituenak. Frai Bitál, misiolari aen buru San Franziskok egin zuena gaizkitu zan Aragoian, eta utzi bear izan zion bere anaiai lagun egiteari.

Bost fraideak egun batzuek igarorik prestatzen erretiroan San Franziskok berak Alenkeren fundatutako konbentuan, joan ziran Portugalko Gortea zegoen uri Koinbrara. Andre Urraka, Alfonso Ilgarrenaren emazteak eta Santxa erregeren arrebak Jainkoaren bialduai bezelako arrera egiñ zien, eta lagundu ere bai fedegabeen lurrean sartzen. Zenbat injuria eta tratu gaisto eraman ondorean Mairuen mendean orduan zegoen Sebillan, pasa ziran Marruekoetako erri-

burura nun arkitzen zan on Pedro, Portugalko infantea, bere anaiarekiñ despitaren bat izanda iges egiñik, onek artu zituen errespeto guziarekin, eta ostatu eman zien bere jauregian. Baña erregutu zien moderatu zezatela zerbait zeloa, berriro persegituak izateko arriskuan jarri etzitezten. Baña nola geraerazi al diteke oreña mendiko iturri garbian egarria itzaltzera korrika dijoana? Amorioa eriotza baño gogorragoa da. Biaramonean egun sentian irten ziran gure misiolariak Portugalko Infantearen jauregitik, eta ibili ziran plaza eta karriketari Jesu Kristoren Jainkotasuna predikatzen.

Egun batean frai Berardo, lagunak baño obeto zekielako arabe-itzkuntza, gurdi gañera igota predikatzen eta Maomaren kontra itz egiten ari zala, pasa zan andik Errege Mairua, sortaldekoak oi duten bezela, aurrekoen sepulkroak ikustera zijoala, eta erlijiosoari aditurik, artu zuen erotzat, eta eraman erazi zuen bere lagunakiñ batean kristau errira. Baña misiolariak soldadu eramalleai iges egiñik, itzuli ziran oster fedegabeen urira, eta erregek jakindu zuenean sarrerazo zituen kartzela txit illunean, nun iduki

zituen ogei egunean batere jaten eman gabe. Alperrik Jaungoikoak ugaritu zituen mirariak bere serbitzarien alde, alperrik ikusi zituen presondegitik irteten lenago baño gizen eta mardulagoak, san Juan Ebanjelaria olio irakiñezko pazitik bezela; alperrik Berardok, Moisesen gisan ziorraren kolpe batekin sortu erazi zuen mirarizko iturria eremuan egarriak itotzen zijoazen soldadu batzuek ill etzitezen, erregeren biotza anbat geiago gogortzen zan, zenbat eta mesede geiago artzen zituen. Etzan ezer ere gai izan ari begiak idiki erazitzeko. 1220ko illbeltzaren aurreneko egunetako batean berriz ere preso jarriak izan ziran bost apostoloak eta zenbat sufritu bearko zuten irizteko, asko da jakitea aen karzelazaia kristau ernegatu bat zala. Juezak ikusirik fedean irmo zeudela, agindu zuen berezi eta 30 borreroai emateko. Eraman zituzten arrastaka esku-oñak loturik eta soka lepotik zutela ar-kaskar eta bidrio puskaz betea zegoen tokira, zeñagatik eta ematen ziozkaten azoteakin gorputzak geratu zitzaizten zauri bat egiñik, eta arratsean zauriak igortzi ziezten ozpiñarekiñ. Tormentu izugarri onetan alabatzen zuten Jaun-

goikoa, kantatuaz Babiloniako labean iru gazteak kantatzen zutena. Arratsean Jauna agertu zizaien eta alaitu zituen; kontu artzalleak asaldatu ziran argitasuna ikustean, eta joan ziran bere-tara iges egingo zieten bildurrez, eta arriturik geratu ziran arkitu zituztenean txit soseguz orazioan zeudela.

Biaramonean Erregek eramanez zituen bere aurrera. Bidean fedegabe batek frai Otoni masalleko izugarri bat eman zion. Franziskanoak beste masalla luzaturik, esan zion: «Jaungoikoak barka dizazula, zeren ez dakizun zer egiten dezun». Jauregira ziranean, Erregek txit zorrotz itz egiñ zien, esanaz: «Zuek zerate orrako erlijio eta zentzugabekoak, fede egiazkoa despreziatzen eta Alaren profetagatik blasfematzen deuzutela salatuak zeratenak?». «Jauna, erantzun zioten, ez daukagu guk fede egiazkoa despreziatzeko pensamenturik, kontrara, prest gaude beragatik sufritzera eta bizia galtzera, baña zure legeak eta bera sortu zuen gaiztoak izutzen gaituzte». Orduan gizon odolgiro ark saiatu nai izan zuen gizonik geienak errenditu oi duen tentazioa, zeña dan onra eta atsegiñetakoa, eta eder-

ki apaiñdutako emakume batzuek erakutsirik, esan zien: «Maomaren fedea artzen badezute, emango dizkitzutet emakume oriek emaztetzat, eta izango zerate eskual aundikoak nere erreinuan, baña bestela, ezpataz illak izango zerate». «Jauna, ez degu nai ez zure emakumerik eta ez zure onrarik; ori guzia utzitzen dizugu egon gaitezen Jesu Kristorekin. Somatu ditzaketzu nai dituzun tormentuak eta bizia kendu dizaguzuke, pena guziak ariñak iruditzen zaizkigu, zeruko glorian pensatzen degunean». Itz oek esan bitartean aen arpegiak distiatu zuten esperanzaren argiarekiñ, eta animak suspiratu zuten betiko atsegiñakgatik. Errege fedegabea altxa zan sumindurik, eta zimitarra pixua bi eskuakiñ arturirik, berak ebaki ziezten buruak misiolariai. Au gertatu zan 1220ko illbeltzaren 16ean.

Ordu artan Santxa prinzesa zegoen orazioan, eta ikusi zituen zerura igotzen, eskuetan martirien palma zeramatemala. Gorputzak, txikitu eta arrastaka berriro maomatarrak erabili zituzten, eta debozioarekiñ kristauak bilduak izan ziran. On Pedrok gorde zituen zillarrezko bi kajetan, eta etorri zan Europara merkanzi txit balioso

onekiñ. Alfonso Ilgarrena atera zan berak artze-  
ra solemnidade aundiarekin, eta utzi zituzten lur-  
petuak Koinbrako Gurutze Santuko Kanonigo  
erregularren Eleizan. Urraka erregiña itzulera  
garaipentsu ura ikusi eta laister ill zan, martiriak  
berak lenaz esan zioten bezela, eta Vital, Zara-  
gozan geratu zanak, aen garaipenaren berri  
jakindu zuenean, urratu zituen bizitzaren lazoak  
amoriozko indar aldi aundi batekiñ, eta joan zan  
bere lagunakiñ zeruan biltzera. Ez da erraz kon-  
tatzen nolako poz kontentua artu zuen Aita doa-  
tsuak bere semeen neke eramane eta eriotza-  
ren berria etorri zizaionean. Ikusirik bere Ordena  
odolezko bataio arekiñ betiko Jaungoikoari eske-  
ña bezela, deadar egin zuen pozez beterik:  
«Orain bai esan dezaket segurantzi osoarekiñ  
bost Erljioso Txikienetakoak dauzkadala». Gero,  
España alderonz begiraturik, bedeinkatu zuen  
misiolari aek martiriorako atera ziran Alenkerko  
konbentua: «Etxe santua, lur sagradua, zuk  
sortu dituzu eta eman diozkatzu zeruko erregeri  
bost lore gorri eder usai txit gozozkoak. O etxe  
santua, izan zaite beti santuz bizitua!». Oek dira  
San Franziskoren Ordenak Eleizari eman diozkan

anbeste martirien artean aurrenekoak, eta beraren onra Jaungoikoaren eta gizonen begietan egiten dutenak. Baña zer izan zan sakrifizio onen frutua? Nun dira bera dala bide fede egiazkora etorri diran jendeak? Egin dezagun begirada bat Afrika kosta alde aetara, eta ikusiko degu, San Franziskoren misiolarien odolez bustitako lurbira ura, oraindik eriotzako odei beltzez inguratua dagoela. O Jaungoikoaren juizio ezkutatua fede gabeko errien gañean! Gauza guzien Egilleak, eta intz tanto bat ere galtzen utzitzen ez duenak, ez du naiko erori dedilla alperrik bizitzako lurrean kristau odol tanto bakar bat, eta kondairak esaten digu martirien odola izan dala beti kristau eta apostoloen azi indartsu ugaria. Eleizaren aurreneko denboretan Gurasoak eta Irakasleak martirien odoletik jaio ziran. Ala Franziskoar familiaren denborarik onenetan ikusten degu frai Berardo eta lagunuen obi odolduaren gañean azitzen lirio zuri usai gozozko eta beñere iltzen ez dana, kristau erria alegeratzen duena; au da San Antonio Paduakoa, San Franziskorekiñ batean XIIIgarren eunkiko mirarigille aundia dana, zeñaren bizitza eta nekeak laburki esango

ditugun, bada daude gure Aita doatsuaren kondairarekiñ txit kateatuak.

Koinbrako Gurutze Santuko konbentuan bizi zan erlijioso gazte bat, Fernando Bouillon zeritzana, 1147an Lisboa Gurutzatuak arturik, uriko Gobernari geratu zan Bizente Bouillonon illoba. Zeukan ostalaritzako kargua, eta ala bera izan zan Afrikara zijoazen misiolariak artu zituenan, sartuaz berakiñ adiskidetasun estuenean. Ikusirik aen gorputzak ekartzen millagroen argi errañuz inguraturik eta jendeen benerazio aundiarekiñ, gogoak eman zion sartzea martirien eskolabati bezela begiratzen zion Ordena artan. San Franziskoren agerkera miraritsu batek erabaki erazi zion osoro San Franziskoren erlijioan sartzera. Konbentuko kapillan arkitzen zan gau batean bakarrik, errezoan, eta suspiratzen sagraioaren aurrean, agertu zizaion Franzisko, eta keñu zorrotzarekiñ agiñdu zion jantzi zezala Penitenziako Abittua. Fernandok obeditu zion, eta biaramonean Prior edo buruzaiak eman zion agiriarekin joan zan San Antonio Olibaresko franziskoan konbentura, nun artu zuen San Franziskoren habitua, eta Antonio izena, zeñarekin jen-

deak andik aurrera ezagutuko duten eta deituko dioten. Orduan zituen ogeita bost urte (1220ko garagar illean). Illabete batzuetako prueba ondorean eskatu, eta eman zioten agintariak mairuai Ebanjelioa predikatzerako joateko baimena, baña Probidenziak zeukan señalatua beste gauzatarako, beste lan mota batzuetarako. Asmo zuen bidajera iritxi zanerako, gaizkitu zuen sentituz oñaze txit aundiak, eta igarririk etzala ura Jaungoikoaren borondatea, enbarkatu zuen osteran 1221ko udaberrian Portugalerako asmoan, bere erriko aizeakiñ bereala sendatuko zalako ustetan. Baña orduan ere ekaitz izugarri batek desgindu zituen aren asmoak eta bota zuen Siziliako kostara.

Ordena etzan orregatik geratu martiri gabe. Afrikako kostatik Antoniok penaz alde egiten zuen bitartean, Buruzai ordezkoko frai Eliasen baimenarekin Toskanatik irten ziran zazpi erlijioso franziskoar lurreratzen ziran Zeutan, toki onroso artan ari ordaiñtzeko. Oek ziran Daniel, Kalabriako Probinziala, Samuel, Domulo, Leon, Ugonilo, Nikolas eta Anjel. Zeutako urian zabaldu ziran deadarka: «Jesu Kristo da Jaungoiko egiaz-

ko bakarria, eta beragan bakarrik arkitzen da salbazioa». Mairuen Buruzaiak eraman erazi zituen bere aurrera, eta jarri zien aipabi au: «Kristo ukatu edo ill». «Fedea ukatu? Egundano ez!» danok erantzun zioten. Esan beziñ laister izan ziran kondenatuak lepo moztuak izatera, zeña zan berak eziñ geiago deseozutena. Ill zituzten aurreko egunean belaunikatu ziran guziok frai Danielen aurrean bedeinkazioa eman zizaien, eta bedeinkatu zituen itz oekiñ: «Poztu gaitezen Jaungoikoagan! Ona emen guretzat pest-eguna; aingeruak inguratzen gaituzte, zerua idikitzen zagu, biar artuko degu guziok martirien koroa». Biaramon goizean goiz, eman zioten elkarri despedidako agurra, eta ondorean joan ziran erioztako tokira pauso irmoarekin, ikustean, esan zitekean zirala amorotsu batzuek ezteietara zijoazenak. Aen buruak erori ziran mairuen ganibeten kolpera 1221ko urriaren amarrean.

Denbora onetan Antonio joan zan Felipe Kastillako probinziako fraide legoarekiñ Ama Birjiña Aingerueneko Batzarre guzienkikora (1221) eta andik Boloniarra bialdua izanik, bizitu zan urtebetean mundutik erretiraturik Monte-Paoloko kon-

bentuko ar-zulo batean, gorputzeko ildura eta Liburu Santuen meditaziora osoro emanik, alabaña bakardadeko ixiltasunean moldatu oi ditu Jaunak bizitzako, egia eta amoriozko ugaldeak munduan zabaldu bear dituzten apostoloak. Gertera oi ez bezelako bat izan zan fraide gaztearen talentuak agertu zituena. Forliko Obispoak enkargaturik egin zitzaiera itzaldi piadoso bat ordentzeko zeudenai, Antoniok azaldu zituen Eskritura Sagraduko itz oek: «Kristo egiñ zan obedille eriotzaraño, eta gurutzeko eriotzaraño». Aurrenean bildurrak eta zalantzan itz egiten zuen, baña gero aren itza zan bizia, alaia, atsegiñgarria eta indartsua, koloreak argitu zitzaizkan, eta arpegia alatan alaitu zizaion, non bertan ikusten ziran animaren mugidak. Aditzalleak gelditu ziran arriturik eta berengandik irtenik bezela, iduritzen zizaien Profetaren bati aditzen zuedela, eta ixurtzen zituzten pozezko negar malkoak.

San Franzisko osotoro poztu zan berri on au aditu zuenean, alabaña ezagutu zuen Probidenziak bialtzen ziola talentu aundiko gizon bat, apostolu egiazko bat, eta ala berealaxe eman

zion baimena profesatu berriari predikatzeko ezezik erakusteko ere jakinde goienenekoa, nola dan Teolojia (1222); ona beraren eskutitza: «Franzisko anaiak bere anai Antoniori, osasuna Jesu Kristogan. Ongi deritzat erakutsi dizaiezula gure anaiai Teolojia Santua, baña zugar eta besteengan oraziozko espiritua itzaliko ez dan moduan gordetzen degun Erreglaren erara. Agur».

Aginte onen bidez Antoniok erakutsi zuen Teolojia aurrena Montpeller-en, eta gero Bolo-nian, Paduan, Tolosan eta Franziaiko beste uri batzuetan. Baña besteakgandik ura berezitzen zuena zan, ez aren jakiñduria ezpada arrigarrizko sermoiak. Eziñ markatu diteke ark zeukan itzal indartsua denbora aetako jende aiñ naspi-llatu, baña aiñ katoliko egiazkoakiñ. Predikatzen zuenean uzten zioten lanari jaieguna balitz beze-la, juezak, letraduak, merkatariak, nobleak eta erriko jendeak zijoazen toki guzietatik berari adi-tzeagatik. Bideak zeuden zaldun eta damaz beteak, bada zijoazen gabaz, pulpitoaren ondo-an tokia atxitzeagatik. Eta Antonio ara igotzen zanean, bazirudian danok ikaratzen zirala; etzan

itz bat aditzen, ozta asnasarik sentitzen zan. Jendeak artzen eta edaten zuen aren dotriñaren intz gozoa antsi aundiarekiñ. Aren itzak egiten zuen animetan txinpart batek lasto metan egiten duena. Mugitzen, piztu eta irazekitzen zituen. Denbora asko baño len atera erazitzen ziezten aditzalleai negar malko biotzekoak, oen zispiru eta damuzko oiuk itotzen zuten Santuaren boza, eta pulpilotik jeisten zanean, jendea ezartzen zizaion gañera abituaren ertzari muñ egiteko. Beiñ baño geiagoetan armadunen erdian joan bear izan zuen aditzalleen amorezko estutasunetatik libratzeko. «Ez geiago gorrotorik, ez geiago gerrarik», deadar egiten zuten jendeak sermoi ondorean. «Pakea da bakoitzari egiten zaion justizia, pakea da onerako libertadea». Eta ikusten zan an etsaiak elkarrekiñ laztantzen, lapurrak ostutakoa biurtzen eta erejeak beren dotriña gaiztoak utzitzen eta ezeztatzen. Denbora artan Italia dardaraz jartzen zan Ezelino irugarren, Federiko bigarrenaren ordezkoko eta suiaren izena aditu utsarekiñ. Bizenza, Brescia eta Bero-na indarrez arturik, zeuden sufritzen lege gabe-ko soldaduak egiten ziezten bidegabekeriak;

Paduari, patu bera itxedoten zion. Antonio, au jakindu zuenean, bere erritarrak irrisku aĩn aunditik libratzeagatik, joan zan Beronara. Sartu zan Akab berri onen etxean Elias beziñ bildur gitxirekiñ, eta jarririk Ezelinoren aurrean, itz egiñ zion onela: «Nagusi odolgiroa, monSTRU aseteziña, noiz arte segitu bear dezu kristau odola ixurtzen? Juizioko ordua aldian daukazu, eta kastigua izango da ikaragarria». Ezelino odolgiroaren morroiak onen kiñu baten begira zeuden fraide ausarditsuaren gañean ezartzeko, baña arri eta zur egiñik geratu ziran ikusi zutenean nola bere gogortasuna utzi eta arkume bat beziñ manso bihurturik, para zuen zinzilik lepotik gerrikoa, eta fraidearen aurrean belaunikatuta, agindu zion Jaungoikoaren Justiziari satisfazio emango ziola. «Ikusi det, esan zien gero bere jendeai bere portaeraren arrazoia emateko, ikusi ditut fraide orren begietatik irteten tximista batzuek infernura amildu bear nindutela iruditu zaizkidanak». Antoniok garaitu zuen, Padua salbatu zan. Alaxe zortzireun urtez lenago San Leon Aita Santuak geratu erazi zuen millagroz Minzioko ibai ertzean Atila odolgiroa, Jaungoikoaren azotea deitzen

zana. San Antonio bizitu zan bitartean etzan portatu len beziñ gogor, eta ez egiñ ere len anbat bidegabekeria. Ezelinok gañera egiñ zion justizia. «Da Jaungoikoaren gizon bat, santua da» esaten zien bere jendeai. «Bere eginbidea betetzen du gure bizioak erreprenditzen dizkigunean, utzi dezaiozun predikatu dezala pakean».

Nork gogoratu dezake arritu gabe San Antonioren balorea agintari gogor aren aurrean, batez ere enperadorearen serbitzarien menekio eta losentxen parean? Eta nork ez du ikusten egikera onetan fraide Franziskoak egin bear zituzten serbitzu aundien aztarna eta asiera Italiako Errepublikatan, argalak anparatuaz, eta mendesleai gogor egiñaz, oen premiarik etzeukatelako, eta berai bildurrik etzietelako?.

Guztiak badakite Arriminiko millagro sonatua, ez ordea San Franziskok Amalfiko ondardian Salernoko itxasoan egiñ zuen onen modukoa. Ura nola gertatu zan dakigulako emen kontatuko degu, eta irakurleak askoko dute izenak, tokiak eta denbora aldatzea, jakiteratzeko bigarrenaren kondaira guzia.

San Antoniok Arriminiko herejeak konbertitzeko alperrikako alegiñ aundiak egin zituen egun batean, esan zien pulpitorik: «O zuek Aldareko Sakramentuan Jesu Kristo egiaz dagoela sinistu nai ez dezutenak, atozte nerekiñ Marekia ibaiaren sarrerara, eta an ikusiko dituzute mirariak, are aundiagoak sinistra lagunduko dizutenak». Itxas bazterrera iritxi ziranean, deadar egin zuen esanaz: «Ibai eta itxasoko arraiak, entzun, zuei noakizute zuzentzera Jaungoikoaren itza, erejeak entzun nai ez didatelako». Dei onetara arrai sallak aditu balute bezela jarri ziran illaran sermoigillearen aurrean txikienak aurretik, eta aundienak atzean. «Nere anaiatxo arraiak, esan zien, zuek zor diozute gure Egilleari kabu gabe ezaguera. Bizilekutzat eman dizkitzute neurrigabeko urak, eta ekaitzetan gordetzeko itxasoaren ondoak. Zuek gorde zaituzte, ugaldeak Noeren ontzian etzeuden guziak ito zituen bitartean. Zuek autu zaituzte Jonas profeta salbatzeko, Jesu Kristo gure Jaunaren eta San Pedroren petxa pagatzeko, Erregeen Erregeri janaritzat serbitzeko. Alabatu eta bedeinkatu ezazute bada, kreatura guzien artean aiñ mese-

de bereziak egiñ dizkitzutena». Arraiak, erregu au arretaz aditurik, adierazten zuten orain beren egoera errespetozkoarekin, nola egiten zituzten mugidakiñ, eman nai ziotela Jaungoikoari beren mendetasunezko siñale mutua: «Alabatu dezagun Jaungoikoa, esan zuen orduan Santuak jendearen alderonz itzulirik, alabatu dezagun Jaungoikoa, bada kriatura zentzu gabeak entzuten dute beraren itza, beraren antz irudira egiñak baño leialtasun geiagorekiñ». Millagro au ikusirik, erejeak, idiki zituzten begiak Jainkoaren graziara, eta arratsalde artan bertan sartu ziran Eleiza egiazkoan.

Aren itzaren frutuak etziran txikiagoak izandu Probenzan eta Langedoken, nora bialdu baizuen San Franziskok Santo Domingoren lanai jarraitu, eta ereje manikeoen aurrerapenak geraerazitzera. Mugaldi artan merezitu izan zuen Aita Santuak izendatzea Testamentuko kutxa eta erejeen mallu gogorra.

Jaungoikoak berak agertu nai izan zuen bere bi serbitzari Franzisko eta Antoniori zien amorio berezia. Probenzako Arlesen 1224ko urtean izan zan billera probinziakoan ari zan Antonio predi-

katzen berotasun santuarekiñ gurutzean paratako *Jesus Nazaretko, Juduen Erregearen* gañean; sermoiaren erdi aldean agertu zan San Franzisko, bere ikasleak adierazten zuen dotriñari indar geiago emateko zorian, eta predikaria eta fraideak bedeinkatu zituen biotz guziarekiñ. Une artan danok sentitu ziran pozez beteak, eta berrituak bezela beren bokazioko espirituan, zeña guzia dagoen Jesus gurutziltzatuarenganako amorioan. Franziskok aitortu zien bere adiskideai agerkeria ura zala egiazkoa, eta siñalea, Santuak berak zionez, bere anaiakiñ zeukan batasun txit estuarena.

San Antonio Paduakoa da, San Franzisko Asiskoaren urrena, XIIIgarren eunkiko itxurarik aundienetako bat. Santu bezela, betetzen du bigarren malla Eleizako kondairetan, baña predikari eta apostolu danez, aurrenekoa. Da Krisostomo, Agustin, Efren eta orrako gizon altsu, mundua salbatzeko ikaratzen dutenen sallekoa. Alaz guziaz ere, irakorten ditugunean utzi zizkigun sermoi zatiak, arkitzen ditugu otxak. Eztegu sentitzen Jainkozko argirik, ez jendeak dardaraz jartzen zituen itz indartsuaren soñurik, eta oroi-

tzen geranean irabazi nekosoena dala animen irabazia, galdetzen da, zer da Antonioren garai-penen kausa ezkutukoa. San Antonioren predikazioan, San Franziskorenean bezela, kausa au arkitzen da azaldua Ebanjelioko itz oetan: «Eta ikasleak joan ziran, eta predikatu zuten alde guzietan Jaungoikoak lagunduz eta aen dotriña, zerraizkion millagroakiñ indartuaz» (Marcos XVI, 20). Jaungoikoa apostolu guziakiñ dago, berak sortzen ditu, berak bialtzen ditu. Berak ematen die, sinistuerazitzeko, agiriaren gisan, millagroak egiteko eta biotzak mugitzeko doaia.

Mirarigille sonatu au deitua izan zan betiko eztaietara edaderik onenean. 1231ko garagar illaren 13an ostiralean ill zan Paduan 36 urte zituenean, Ama Birjiñaren imno bat azkeneko orduan ortz tartean esaten ari zala. Bereala ill berria zabaldu zuten aur batzuek karriketari ujuka ziotela: «Santua ill da! Santua ill da!». Gregorio IXgarrenak (Ugolino Kardenala) para zuen Santuen lumeroan Pazkoa Espiritu Santuko egunean 1232ko maiatzaren 30ean. Andik urte batzuetara San Buenabenturak, Ordenako Buru nagusi zala, idiki zuen San Antonioren obia; gor-

putz guzia auts biurtua zegoen, baña mingaña osoa, freskoa eta gorrixka, persona biziarena bezela. Eskuetan artuta errespetoz muñ egiñik, esan zuen: «O mingañ bedeinkatua, Jaungoikoa alabatzeari beñere utzi ez, eta besteai ere bera alabatzen erakutsi diezuna! Orain ikusten da argiro zein prezioso zian bere begietan». Eta itz oek esanik, eman zien uriko agintariak, eta oek artu zuten urrezko ontzi batean.

Padua, Asis bezela, da pensamentu batek betetzen dituen uri aetako bat, aurrekoetatik datorkien dotriña batetik, obi batetik bizi dana. Antenor bere egillea eta Tito Libio bere semea aztuak daude; bertako Ikas-ol edo Unibersidade sonatuak 1222ko urtean pariak galdu du bere anziñako izen aundia, baña beñere zaartzen ez dana eta uriaren onra egiten duena da San Franziskoren ikasle maite San Antonioren oroipena. Uriak berak dauka arrotzai adierazteko kontua, bere murruetan otallatua dagoen izkira onekiñ: *Gaude, felix Padua, quae thesaurum possides*. Poztu zaitez, Padua zorionekoa, alako ondasuna gordetzeaz.

Paduako errepublikak egiñ erazo zuen 1532ean San Antonioren obia gordetzen duen Eleiza guziz aundia. Dauzka zazpi boillerdi eta eskill-dorre bat saiets bakoitzean. Santuaren kapilla dago ornitua Karrarako marmol-arrian ateratako molduratxoakin, Eleiz-ganbaran eta aldare nausian ikusten dira bronzesko tallu-obra bikañak, ogeita amasei lanpara zillarrezko, errege eta prinzipeak erregalatuak, daude beti argi egiten Santuaren aldare aurrean.

Ala San Franziskoren jarraileen bigarren giza-aldia da aurrenekoa baño ezagungarriagoa. Berardo, Daniel, Antonio Paduakoa, ze gizonak, eta ze gloria izen oetan! Oek etorri ziran Ordena apaintzera martirio eta apostolutzako bi koro berri oekiñ. Oen bizitz-eriotzak moldeatzean (Jaungoikoak daki nolako atsegiñarekiñ), eztegu pensatu gere salletik alde egiñ degunik, bada oek zuten eskubide eta lankintza Franzisko doatsuak eman zien, eta berari zor diozkate benturaz beren garaipenak, eta orrezaz gañera Erlizjiozko familietan, mundukoetan bezela, umeen gloria azaltzen da gurasoen bekokian ederrago eta argiagoa.

# **Amaikagarren Bereziera**

*San Franziskoren itzulera Italiara.*

*Gubbioko otsoa.*

*Irugarren Batzarre guzienkikoa.*

*Frai Elias. Frai Juan Strachia.*

(1220-1221)

San Franzisko Sirian eta Palestinan zebillen bitartean, joan zizaion Italiatik Frai Esteban esatera frai Eliasen asmoa zala Ordena ondatzea ez bazan, beintzat jartzen zituen gauza berriakiñ, mudatzea. Santua laister ontzian sartu zan Europara etortzeko, baña gaitza aundia bazan ere, ezer erabaki baño len itxedon nai izan zuen alik eta bildu zedin bitartean Batzarre guzienkikoa Porziunkulan San Migel Goi aingeruaren egunean. Bitartean pensatu zuen bisitatzea Bolonia-ko konbentua, bere lenbiziko jarraile Bernardo Kintabalek zortzi urte lenago jarria. Ara zijoala predikatu zuen Lonbardiako erri batzuetan, auda, Paduan, Bergamon, Breschian, Mantuan, Kremonan eta beste batzuetan, nun, oi bezela,

jarri zuen berriro pakea, eta utzi bere Ordenako etxe berriak.

Kremonan billatu zuen Santo Domingo, billatze au izan zan bi fundatzalleentzat Jaungoikoak lurrean eman zien konsuelo gozonenetakoa. Itzegin zuten Jaungoikoaren ontasunaren gañean, zeñ oñ onean arkitzen ziran beren Ordena bakoitza, eta Kalbarioko Jaungoikoaganonz jendeengan ikusten zan mugida. Millagro batekiñ bukatu zan elkar ikuste atsegiñgarri ura. Aek zeuden konbentuko fraideak (fraide txikienetakoa zan) erregutu zien bi fundatzalleai bedeinkatu zezatela ur loi eta osasunerako txarra zeukan putzu bat. Bi adiskideak begiratu zioten elkarri, erantzuteko batak besteari konbidatzeko zorian bezela, eta azkenean Santo Domingok esan zien fraideai: «Ura aterata ekarri zaguzute». Juan ziran ontziarekin, eta ekarri zutenean, Santo Domingok esan zion San Franziskori: «Aita, ur au bedeinka ezazu Jainkoaren izenean». «Ez, erantzun zion San Franziskok, bedeinka ezazu zerorrek, bada zera ni baño aundiagoa». Une batzuek igaro zituen leia santu onetan, eta azkenik Domingok, Franziskoren umilltasunak ben-

tzaturik, bedeinkatu zuen ontziko ura, aginduz bota zezatela putzura, eta geroztik eta betiko ango ura geratu zan osasungarria.

Kremonatik joan zan Franzisko Boloniarara. Birtute aundikotzat zeuzkan Boloniatarrak Bernardok itzkribatu zion eskero (1212): «Dana ongi prestatua dago Bolonian, baña bialdu zadazu beste erlijioso bat nere ordeiz, zeren ez det uste emen on aundirik egiterik, kontrara, beldur naiz nere anima galduko ote dedan, anbesteraño onratzen naute». Ala ere, etzitzaion iruditu alako arrera bitorea egingo ziotenik. Uriko biztanle guziak atera zitzaizkan bidera, bazijoakielazko berria artu zuten beziñ laister. Estudianteak eta irakasleak, aberatsak eta pobreak, danok nai zuten Santua ikusi, beraren itza aditu eta bedeinkazioa artu. Eman zioten lagun talde amarezkoa izan zan egundaño ez enperadore eta erregeak izan ez duen modukoa, nekez bederik iritxi zan Jauregiko plazara, an predikatu zuen alako eran, non zirudian gizonari baño obeto aditzen zitzaiola serafiñ bati. Gañerakoan, ona emen ikusitako batek dionez, Santuaren presentziak eta itzak jendeetan egiñ zuen mugida: «Nik,

Tomas, Spalatroko biztanle eta ango Eleiz Kate-  
draleko arzedianoak diot, ezen, Bolonian estu-  
diatzen nengoela 1220ko urtean, Ama Birjiña  
zerura altxatua izan zaneko egunian aditu niola  
San Franziskori predikatzen uriko plazan, nora  
bildu ziran bertako biztanle geienak. Itzaldia par-  
titu zuen era onetan: Aingeruak, gizonak, dea-  
bruak eta kreatura zentzudun oen gañean itz  
egitiñ zuen aiñ egokiro, non aditzen zioten jakin-  
tsuak arritzen ziran ikustean gizon senzillo batek  
usatu zezala itzkuntz aiñ ederra. Etzuen predika-  
tu beste predikariak oi duten eran, ez bada guzia  
biurtu zuen puntu onetara, aserreak eta bende-  
ku naiak desegitera, eta pakea eta ongundea  
jartzera erritarretan. Aren jantzia zan txarra eta  
bastoa, gorputza zuen txikia eta arpegia ubel  
morea; baña Jaungoikoak alako birtutea ematen  
zien aren itzai, non asko zaldun elkar eziñ ikusi-  
rik eta gorrotoan zeudenak eta beren itsume-  
nean odolik asko ixuri zutenak, adiskidatu ziran  
jendeen aurrean. Santuari jendeak zioten kariño  
eta jaiera anbesterañokoak ziran non presaka  
zijoazen San Franzisko ikustera, eta kontatzen

ziran zorionekotzat abituaren kordioari ukitzen ziotenak».

Spalatroko arzedianoak kontatzen ditu ondo-rean gure Santuak egindako mirariak. Boloniatarrak biurtu ziran kristau fedeko jardueratara, askok artu zuten penitenziako abitua (ezagungarria), besteren artean Nikolas Pepoli, uri onetako konbentua erregalatu zuenak, Boniziok eta bi estudiante gazteak, Pelegrinok eta Rojer Modenakoak. Franziskok egin zituen millagro asko, aur bati itzuli zion ikustea, aren gañean gurutzearen siñalea egiñaz, sendatu zuen beste bat biotzeko miña egiten zizaiona, bular gañean jarriaz larru-orri bat, zeñean izkribatu zuen orazio bat. Sendatutako oek biak, denborarekiñ sartu ziran fraile Ordena onetan.

Begizko testigu batek egiñdako kondairatik artu ditugun errenkara oek agertzen eta markatzen dute argiro denbora aetako gaitz aundia, eta sendatzeko Probidenziak bialtzen zien erre-medioa. Denbora ura zan Federiko bigarrenaren eta Ezelino odolgiroarena, Ugolinoren kastigua eta *Bisperas Sizilianas* ikusi bear zuten eunkia. Elkar eziñ ikusiak, familiak familiakiñ eta erriak

erriakiñ zerabiltzkiten iskamilla eta odol ixurtze-  
rañoko despitak ziran Europa eta batezere Italia  
galdua zeukaten miñbizia, eta gizonen jakinduria  
eta alegiñak sendatu eziñ zutena. Orduan sartu  
zan bitarteko Jainko Erredimitzallearen Probiden-  
zia miragarria, eta auturik gizon bat bere asmo  
miserikordiazkoen gaitzat, altxa zuen beste gizo-  
naz gañ, armatu zuen bere almen kabugabeare-  
kiñ, eta ixilduerazi zituen jendeak aren aurrean.  
Ona emen itz bietan adierazirik Franziskok egiñ  
zuen lana eta bere apostolutzaren muga. Etzuen  
agertu besterik egiten, eta aren arpegi peniten-  
ziak ziurtatua ikustea asko zan, biotzik gogorre-  
nak samurtzeko. Predikatzen zuen pakea, au  
guziai adierazten zien, eta bere inguruan nun nai  
zabaltzen zuen, eguzkiak argia eta loreak usai  
gozoa bezela. Jaungoikoak itz egiten zien biotze-  
tara, serbitzariak belarrietara itz egiten zien  
bitartean, eta, gauza arrigarria! griñak ixiltzen  
ziran, gorrotoak itzaltzen ziran; Jaungoikoaren  
eta gizonenganako amorioa, beti elkarrekin dau-  
denak, piztutzen ziran gizonen biotzetan; eta  
pakea, errietako ondasunik aundien au arkitzen

zan indartsu jendeen artean, gorputz biziaren zañetan odola bezela.

Franzisko, Boloniako jendea despediturik, joan zan bere agur-menekioak, Aita Santuaren Ordezko edo Bialdu orduan Lonbardian zegoen Ugolino Kardenalari egitera, eta au egiñ ondo-rean itzuli zan bere Ordenako fraideak zeukaten Santa Cruzko konbentura. O zenbat arritu zan ikusi zuenean konbentu aiñ eder eta galanta! Are eta pena geiago sentitu zuen jakindu zuenean Juan Strakkia Boloniako probinzialak para zituela bertan aren berri gabe Teolojiako eta Itzikira Sagraduko eskolak. Aserraturik Ordenako Erregla orrela ausi zalako, gogorki errietan eman zion: «Zer! esan zion, au da Ebanjelioko beartsuen bizilekua? Erlijioso txikienak jauregietan bizi bear al dute? Konbentu au ez det ezagutzen nere Ordenako etxetzat, ez eta ere nere anaia-tzat bertan bizi diranak, eta ala, obediencia santuaren izenean agintzen dizuet, berealaxe emendik irten zaitezte!».

Obeditu zioten erlijiosoak itzik trukatu gabe, baita gaizki zeudenak ere, zeintzuen artean arkitzen zan frai Leon pasarte au kontatzen duena, eta eraman zituz-

ten beste toki batera. Baña onetan zeudela joan zan Ugolino Kardenala, Santuari itz egiñ zion eta palakatu zuen. Eta gero esan zion: «Ar dezakezu etxe ori batere eskrupulo gabe. Gaxoak aire ta toki geiago bear dute; jabedasunari dagokanez, beti izango da emallearena eta Erromako Eleiza Santuarena». Konsellu au zan zentzu aundikoa, eta Franziskok artu zuen bere eskrupuloak itoaz, eta legausle damutuai barkatuaz, zeñai eman zien konbentura itzultzeko baimena. Berak ordea etzuen nai izan gaba pasa an, eta zerbait deskantsu artzera joan zan Dominikoenera, emandako ikasbidea protxuzkoa izan zediñ. «Legea austeko serbitzen duen barkamena ez litzake izango biguñtasuna, ezpada gaiztorako laguntza, zion, eta ni emen egonarekiñ ez det ontzat eman nai pobrezaren kontra egin dan utsegitea». Teolojiako eskola itxi zuen, debekatuaz Probinzialari, aren baimen bage berriz irikitzea.

Biaramonean, munduan geiago ikusiko etzuen bere adiskide Santo Domingori agur egiñik, abiatu zan Asisa, an egin bear zan Batzarre guzienkikoan buru egitera. Emen bukatzen da

egiaz, Santu fundatzallearen Apostolu bizitza, ez da geiago irtengo konbentutik bere gaitzakgatik, eta munduko deserri onetan oraindik geratzen zaizkan urte gitxiak igaroko ditu orazioan, Ordenako gauzai kontu egiten eta sufrimentuan. Eta orain gogoratzen zaigu beraren predikuen kondaira bukatzeko modurik onena degula kontatzea Gubbioko otsoarena, nun ikusten diran denbora artako oiturak berez ziran bezela, eta Santu mirarigillearen ontasun errukitsua.

Gubbio, Unbriako uri txikia dago Asisko ipar aldean Apeninoko aldapan, Kalbo mendiaren arkaitz tarteko sarrera estuan. Gure Santua Gubbiotik igaro zan denboran, bertako jendeak osoro ikaratuak zeuzkan otsotzar, kalte izugarriak egiten ziozkaten batek. Etzien aberiai bakarrik erasotzen, aurrak eta persona larriak ere irentsitzen zituen, eta ala biztanle guziak zeuden izutuak, eta etziran benturatzen murriz kanpora arma gabe irtetera. Santuak, jende aezaz kupiturik, erabaki zuen otsoaren billa joatea. Igo zan mendira batere bildur gabe Jaungoikoagan konfianza jarrita, eta jendeak urrutitik bildurrez zerraikiola, joan zan otsoaren etzategiraño. Otsoak ikusi

zuenean bere burua zeukan deskantsuan nastu-  
tzen zutela, eraso zion batetan San Franziskori  
bere ao aundia zabal zabal eginda. Santua ere  
joan zan arengana, egiñ zion gurutzearen siña-  
lea, deitu eta esan zion itz eztitsuakiñ: «Atozkit,  
otso anaia. Baña Kristoren izenean agiñtzen  
dizut ez zadazula gaitzik egiñ, ez niri eta ez  
beste iñori». Berealaxe otsoa geratu zan, aoa  
itxi, eta arkumearen gisan joan zan Santuaren  
oñetan etzatera. «Otso anaia, esan zion berriz  
San Franziskok, zuk egiñ dituzu gaiztakeri aun-  
diak, bada zure antzeko aberiak ezezik ill dituzu  
Jaungoikoaren antz irudira egiñdako gizonak ere.  
Iltzea merezi dezu! danok zugatik gaizki esaka  
daude, eta egin zera ikaragarria inguru oetako  
jendeentzat. Badakit gaiztakeria oek guziak,  
goseak erakarri dizkitzula; baña agiñtzen badi-  
dazu gaurdandik gaitz gabeko bizitza egingo  
dezula, inguru oetako jendeak barkatuko dizki-  
tzute oraindañoko txarkeriak, eta bai eman ere,  
aurrera bizitzeko bear dezuna. Artzen dituzu  
kondizio oek?». Eta otsoak, burua makurturik,  
adierazi zuen, ontzat artzen zituela.

Orduan Franzisko, otsoa lagun zuela itzuli zan uri aldera, bada segitzen zion txakurrak nagusiari bezela; eta nola jende guzia bildu bai-zan plazara lanze aiñ arrigarria ikustera, San Franziskok, arri baten gañera igota itz egiñ zien era onetan: «Ene anaiak, Jaungoikoak gure peka-tuen kastigurako meatxatu gaitu peligro aundi onekin, eta pensa ezazute, ezen, gorputza baka-rrik ill dezakean otsoaren au idikia ikustea asko izan badezute osotoro ikaratzeko, are eta geiago ikaratu bear zaituztela infernua deitzen dan ox-i-ñak, bere mendeko guziak betiko irentsitzen dituenak. Ah! Biurtu zaitezte onera, egiñ peni-tenzia, eta orduan libratuko zaituzte Jaungoikoak otsoen arrabitik ezezik, beste munduko betiko garretatik ere». Itzaldi onen ondoren Santuak galdetu zien erriko buruai eta biztanleai, ea ontzat ematen zuten otsoari jarri zion kondizioa; au da, bera mantentzeko obligazioa, gauzai eta personai gaitzik ez egitearen ordañez. Danok batetan baiezkoa eman zuten, eta otsoak bere agindua indartzeko, jarri zuen bere atzaparra San Franziskoren eskuan; au ikusirik, jendea pozaren pozez erotua zirudian, itxasoaren marru

gisako uju eta txaloak ateratzen ziran guzien aotatik, alik eta jendetza ura guzia asi zan alde egiten geldika geldika, bedeinkatuaz Jaungoikoa, bialdu zielako San Franzisko, otso odolzale aren gogortasunetik libratzera. Otsoa bizitu zan geroz beste bi urtean, ibiliaz atez ate etxekoa bezela, eta sartuaz toki guzietan iñori gaitzik ez berak, eta ez berari egiñ gabe. Denok ematen zioten pozik mantentzeko bear zuena, eta beñere etzioten zaunkarik egiñ Gubbioko zakurrak uriko karriketan zebillela ikusten zutenean. Azkenik, andik bi urtera otso anaia ill zan zarrez, eta Gubbiotarrak sentitu zuten txit, zergatik ikusten zutenean arkume mansoaren gisan uriko karrikak pasatzen, gogoratzen zituzten zorionez Unbriako mirarigille ospatsuaren santutasun eta millagroak.

Ala agertzen zagu erlijioso txikienen fundatzalle aundia jendeak beragana erakartzen, pistien gogortasuna eta gizonen sumiña ezitzen, eta guziak odol ixurtzeari izua eta pakeari amorioa izateko zaleerazotzen. Ez naiz arritzen bere itzarekiñ Gubbioko otsoaren gurari makurrak menderatzeaz, ikusten degunean berarekin

beste indar gabe desarmatu zuela Italiako jendearen bendeku-naia, beñere barkatzen eztuena. Urte bete baño geixego kanpoan igarota itzuli zan Aingerueneko Ama Birjinaren bere konbentu maitera San Migel Aingeruaren pesta aurrean (1220). Bazegoen bera an egotearen premia, eta biziro nai zuten bere aurreneko amabi jarraileak.

Frai Elias aprobetxatu zan bere aginte Buru nagusi ordekotzaz lege berriak jartzeko. Teologo merezimentu aundikoa, gizon argi eta irmotasunezkoa, zan denbora berean pake ausle eta aundinaiekoa, bere abitupean kabugabeko arrokeria gordea zeukana, agindu zuen egunoroko abstinenzia edo arrai eta koipe gauza ez nastutzea, eta sartu jazkeran lujoa. Fundatzalle santuari bere sarrera solemnea Porziunkulan egiñ zue-nean Frai Elias irten zizaion bidera bere praideen aurrean.

Ikusi utsarekiñ edozeñek ezagutuko zuen. Zeukan oialezko abitua besteak baño piñagoa, kaputxoa aundiagoa, mauka zabalagoak eta ibillera airosoago eta arroagoa; baña Franziskok arturik argibidetzat Ebanjelioko konsellu au, ez

austeko kanabel okertua, eta ez itzaltzeko oraindik kea zabaltzen duen illatia, egiñ zuen modua ikusi zezan berberak bere antustearen farragarrikeria. «Anai Elias, esan zion gau batean fraide guzien aurrean, indazu zure abitu ori, gero biurtzeko». Nola etzeukan ukatzeko biotzik, erantzi eta eman zion San Franziskori. Onek bere abitu urratuaren gañean jantzi zuen, lotu zuen graziaz, burua altxa, bularra aurreratu eta eskuak gerrian parata egin zuen jira bat jantegian esanaz laguntzallearen eran: «Jaungoikoak gorde zaitzatela, jende onak». Gero aserre bizian erantzita bota zuen beragandik urruti frai Eliasen jantzi eroso, zuzenduaz berari itz oek: «Orra, nola dabiltzan gure Ordenako anaia bortak». Ondorean artu zuen bere betiko aire modesto eta senzilloa, eman zituen pauso batzuek an zeudenen aurrean, eta esan zien: «Orra nola dabiltzan Erlijioso txikien egiazkoak». Frai Elias lotsatua geratu zan, ez ordea osoro konbertitua.

Astinenziako legea, edo aragia jateko debekua, andik denbora gitxira kendu zuen San Franziskok berak, Bernardo Bessek kontaktzen duen zeruko ikusketa bat zala bide. Santua orazioan

arroboturik Porziunkularen aldameneko basoan zegoen bitartean, joan zan konbentura arrotz gazte eder bat, eta atea jorik, galdetu zuen frai Eliasengatik, eta onek etzuen jetxi nai izan. Mas-seo, orduan atezai zegoenak etzekien nola eman arrotzari erantzuer aiañ samiaña, baña onek parra irria egiñaz, esan zion: «Guzia badakit, eta erregutzen dizut zoazela San Franziskoren billa, agiñdu dezaion datorrela neri itz egitera». Mas-seo joan zan bereala basora eta an billatu zuen doatsua osoro kordebagetua eta besoak zeruronz altxaturik. «Esaiozu frai Eliasi, esan zion Santuak, zeukan postura aldatu gabe, nik agintzen diodala eta gazte orri itz egiñ dezaiola». Frai Eliasek obeditu bear izan zion, baña egiñ zuen gogoaren kontra eta marmarretan. «Natorkizu galdetzera, esan zion biguñki gazte arrotzak, ea Ebanjelioko konselluak gordetzea legetzat daukatenak, gorde bear duten edo ez onako au: *Jan ezazute ematen zatzutenetik*». «Zoaz zere bidean, erantzun zion frai Eliasek, bada zure esanari ez daukat zer erantzunik». Eta muxindurik, itxi zion atea purrustaka; baña bereala damuturik, itzuli zan bere burua garbitzeko, etzuen

ordea iñor ikusi. Franziskok jakiñik Jesu Kristo gure Jaunagandik, galai eder ura zala aingerua, aurpegira eman zion bere portaera txarra, esanaz: «Ene seme, orrela artzen dezu aingeruen bisita? Bildur naiz, zure antuste ori dala bide ez dezazula merezi gure Ordena umillean egotea». Eta au esanda, alde egin zuen.

Urrengo urtean berriztatu zion meatxa edo amenazo ori bera, baña orduan profezi edo somaketa garbi eta egiazkoaren moduan. Ona nola kontatzen duen San Antoninok gertaera au. Franzisko zebillen igesi bezela frai Elias topatu, ikusi edo ez itz egiteagatik. Eliasek au barruntatu zuen, eta sospitxaturik misterioaren bat, joan zan Santua billatzera, eta nola onek alde egiñ nai baizion, aurreratu zizaion, eta abituaren ertzetik eldurik, esan zion itz naigabetuakiñ: «Ene Aita, zergatik ies egiten dezu orrela nigandik? Arren, itz egiñ zadazu». «Ez dizut ezer ere gordeko, ene seme, Santuak esan zion. Aditu Jaungoikoak zer agertu didan. Pixuan jarria izan zera, eta ariñegia arkitu zera. Autisiko dituzu botoak, eta zure gaiztakerien kastiguz, Ordenatik kanpora ill, eta kondenatuko zera». «Jaungoiko Santua! deadar

egin zuen frai Eliasek, au etorkizun tristea! ez nazazula orregatik aldendu zure aurretik, kontra-  
ra, zoaz korrika ardi galduaren billa, eta ekarri  
ezazu bizkarrean gure Salbatzalleak bezela.  
Erregutu ezazu nigatik Jaungoikoak madarikatu  
ez nazan, zergatik izkribatua dago Jaungoikoak  
aldatzen dituela bere erabakdeak pekatariak  
zuzentzen dituenen bere utsegiteak». Frai Elias  
zegoen belauniko, egoera umillean, eta itz egi-  
ten zuen negarrez eta suspirioz.

Franziskok maite zuen, eta agindu zion erre-  
gutuko zuela beragatik. Alde egiñ zuen bakarta-  
sun aundienera Jaungoikoarekin bakarrik itz egi-  
teko, eta iru egun orazio eta penitencia latzene-  
tan igaro ondorean itzulita esan zion frai Eliasi:  
«Jaungoikoak desegin du zure kontra emanik  
zeukan kondenazioko sententzia. Ala zure anima  
libratuko da infernuko neke-oñazeetatik; zure  
antustearen kastiguz ordea, illko zera Ordenatik  
kanpora». Gero ikusi zan, aurrez-esan au alaxe  
gertatu zala.

Lenbiziko aldian Gregorio IXgarrenak kargua  
kendurik 1230.an San Antonio Paduako eta Adan  
Marisko bezelako gizonen erreguz, buruzai nagu-

si 1236an berriz egiñik, eta ostera Aita Santu berak 1239an kargugabeturik bere gogortasun eta bidegabekeria jakiñakgatik (batez ere Zesareo Spirakoaren kontra), frai Elias joan zan Kortonara bere lotsa ezkutatzera, sortu zituen an milla naspilla, joan zan orduan Aita Santuarekiñ gerran zegoen Federiko Ilgarren alderdira, utzi zuen Ordenako abitua 1244.an eta eskumikatu zuen Inozenzio IVgarrenak. Gaitz batek gera erazi zion gaiztakeriako bidean; eskatu zuen barkazioa Ordenako bi erlijiosoen aurrean; eta bere Aita doatsuaren erregu eta merezimentuen bidez, izandu zuen denbora ill baño len gañean zeukan eskumikua kentzeko, eta artzeko San Franziskoren seme leial bategandik bere pekatuen barkazioa (1253). Zeiñ zorionekoa izango zan fundatzalle santuaren konsellu eta gaztiguak ondo aditu izan bazituen!

Elias izan zan griña txit bizizko gizon aetako bat, eta ala ez da erraz beraren juzgu zuzena egiten. Anziñako kondairatzalle Franziskoarrak azaldu zituzten garbiro bere utsegiteak, eta zeuzkatzian doai onak alde batera utzirik, kondenatu dute aren oroipena; oraingo denboretako

batzuek ordea, San Antoninoren pasarte alabantzazko batzuetatik bidea arturik, berriz oñ onean para nai dute. Ematera guaz, bada, gu ere, gure iritzia, eta emango degu alde batera bestera baño geiago makurtu gabe.

Ala bere aldekoak nola kontrakoak aitor dute zala entendimentu txit argikoa, jakintsuna eta itztun ederra, biotz indartsu eta berearekiñ irten naiekoa, eta eginkizunen gobernu eta zuzenbiderako egokia eta artarakoa. Emendik kontu ateratzen degu Jaungoikoagandik artu zuela egiñbide aundi bat, au da, San Franziskoren obra jarraituaz, zuzentzekoa. Nola berez artarako aproposa zan, kunplitu izan bazuen distiatuko zuen Franziskoarren artean San Franziskok eta San Buenabenturak bezela. Santu izatea faltatu zizaion. Erantzunik gaizki Jainkoaren deiari, autsirik juramentu sagraduenak, izan zan Jaungoikoak botia, bere anaiak gaizki ikusia eta Aita Santuak gaizki artua.

Alaz guziaz ere, laister ikusiko degu nola Jaungoikoak berak señalatzen duen frai Elias gure Santuak esleitu dezan. Eta ez bedi orrezaz iñor arritu. Jainkoaren asmo ezkutatuak azaldu

nai gabe, iruditzen zaigu gertaera onekin probatu nai ziela denbora guziaz, ezen, San Franziskoren Ordenan, gizonen obra guzietan bezela, zeruko gauzak lurrekoakiñ nastutzen dirala, Jaungoikoak iñoren bearrik ez duela, eta bere obrari eusteko bera asko dala agintari batzuen eta mundu gaiztoaren damuz bederik.

Ala bear zorionez, frai Elias bide onetik alde egiten asi zan ordu eta unean jaio zan Toskanan aur bat, ari bere lanbide Jainkozkoan ordaiñdu bear ziona; eta abitua utzi zuen orduan (1244) Buenabenturak (au zan aur bedeinkatuaren izena) bukatzen zuen bere bedoitera edo nobiziadua San Franziskoren ordenan. Ala betetzen ziran Jaungoikoaren asmoak. Beraren miserikordiak darraika gizonai, eta oek beren utsegiteakin ez dute beraren Probidenziaren bitartekotasuna obeto azaltzea baizik egiten. Frai Elias, aunditasun eta txarkeriaren, arrokeria eta jakinduriaren nasketa, da gure iritzian, denbora aetako gizon sonatuenetako bat. Geienez ikusten degu bere erlijiosoen buruzai, Santa Klararen alabak dakarkiote estimazio berezi bat, eta, gauza are arrigarrioa! Franziskok berak ematen dio eriotzako

orduan bere bedeinkazioa, azkeneko ordurako Jaunak gordetzen zionaren prenda izango zana.

Apropos kontatu ditugu gertaerak zerbait lenxeago. Nai genduen probatu gure iritzia frai Eliasen jenio, griña eta utsegiteen gañean, azalduaz denbora berean Jaungoikoaren Probidentzia mundua indarrez eta gozoro gobernatzean, eta nola gure Aita doatsua zegoen ornitua gauzak alde aurrez somatzeko edo profeziaren doaiarekiñ. Eta orain gure irakurleai puntu oek adierazi dieztegun ezker, darraiogun kondairaren albañuari.

San Migel Goi aingeruaren pesta baño egun batzuek lenago, izan zuen ikusketa bat mugida aundia egiñ ziona. Ikusi zuen zentoi guziz aundi bat, urrezko burua, besoak zillarrezkoak, zankokak bronzekoak eta oñak lurrezkoak zeuzkana; eta ezagutu zuen ark adierazten zituela San Franziskoren familiaren denbora aldi banaak; eta geroenean izango zituen lasaitasunak. Oraindik mugida au biotzean zeukala eta Ordena aurreneko edertasunean gordetzeko deseoarekin, bildu zuen irugarren Batzarre guzienkikoa 1220ko agorrillaren 29an. Artu zituen neurri bi, azaletik

gogorregiak ziruditenak, baña egiaz zuzenak ziranak. Aurrenekoa izan zan Frai Eliasi kargua kentzea, eta bigarrena, beti bijilia egiteko ark jarritako legea altxatzea. Aurrerago pasa zan Juan Strakkiarekin, zeñak izan zuen Bolonian berriro Teolojiako eskola idikitzeo ausardia, santuak garbiro debekatu bazion ere. Etzan kontentatu Probinzial kargua kentzearekiñ, bada zeruko argiz ezaguturik zeñen gogortua zeukan biotza, madarikatu zuen jendeen aurrean. Madarikazioa aditu zioten erlijiosoak ikaraturik alperrik erregutu zioten erretiratu zezala eskumikua. «Ezin det, erantzun zien, zeren ezin bedeinkatu dezakean Jaungoikoak madarikatu duena». Gauza negargarria! Strakkia doakabea gogortu zan bere seta gaiztoan, eta andik laister ill zan deadarka ziola: «Kondenatua nago, madarikatua, beti betiko!».

Franzisko, berez aiñ manso eta maitagarria zana, azaldu zan gogor mugaldi triste oetan guzietan. Etzeukan eskubidea oitura txarrak kentzeko, eta Ordenako arbol misteriosoan azaltzen ziran adar txar eta kaltegarriak ebakitzeko? Bere buruzaitzako egiñ bearrak bete zituenean,

bere biotz kupitutik atera ziran itz biguñak bere erlijiosoentzat, eta zentzu aundiko konselluak jakintza eta predikazioaren gañean: «Ene semeak, esan zien, eztago Jaungoikoaren itzaren egiñkizuna bezelakorik; predikariai zor diegu gure errespeto eta esker ona; alabaña berak dira lurreko gatza, munduko argia eta deabruaren kontrarioak. Gloria bada zeruko egiak gustatzen, eta besteai ar erazitzen dienai, guzien Juezagandik artuko dutelako beren nekearen saria! Zorigaiztokoak ordea, beren irabazia bakarrik billatzen dutenak, edo beren irabaziakin arrotzen diranak edo birtute-iristen enpleatu bear lutekean denbora alperrikako jakiñ naiean enpleatzen dutenak! Azken juizioko egun aundi artan ez dute eramango beren eskuetan lotsa eta oñazeko gabillak baizik, eta aek baño lenagokoa izango da santutasunean bizitu dan lego senzillo bat, eta Jaungoikoak emango dio gloria, besteak beragandik botatzen dituen bitartean Testamentu Zarrean esana dagoen bezela: *Legorra zana arkitu da aur askoren ama, eta ondorengo asko zituena laguntza gabe* (I Reg. II). Andre legorra da, erakusteko egiñkizunik egundaño izan

etzuen fraide umillaren irudia, eta ala ere arkitu-ko da bere orazioakiñ salbatu zituen anima askoren guraso egiñik. Ondorengo asko zituenak adierazten digute predikari iztun ederrekoak, zerurako anima asko sortu zituztela uste eta azkeneko egunean, berenak ez dirala ezagutuko dutenak. Beragatik, ez dezazutela aztu: naiago ditut nik deboziazko gizonak, jakintsuak baño. Ez ezazute utzi orazioa estudioagatik motibo gabe, eta ez ari estudioan ere jakiñ nai utsagatik; kontrara, ikasi ezazute obeto bizitzeagatik, eta zuen jarraikiaiakiñ birtutearen bidea besteai erakustegatik. Itz batean, izan zaitezte Ebanjelioaren jarraile egiazkoak, ikasi orazioan agirian erakutsi bear dezutena, atereaz bertatik alaitu bear zaituzten sugarra; saia zaitezte batez ere umiltasun eta obediencian; etzaitezte fiatu zuen estadua-aren goiendean, eta zaute ernai deabruaren tre-taen kontra. Nork kontatu al ditzake zenbat diran berak galdu dituenak? Bera izan zan desobe-dienziako bandera lenbizi altxa zuena, arrasta-tuaz bere erorketan zeruko aingeruen irugarren parte. Berak bota zituen Paraisotik gure aurre-neko gurasoak ondorengo guziakiñ. Berak artze-

tu zituen Apostoloak, garia galbaian bezela, eta badakizute zer iritxi zuen. Aetako batek bere Maixua saldu zuen, besteak ukatu, eta danok iges egiñ zioten. Zaute bada ernai eta orazio egizute, zuen bokazioko santutasunetik erortzea nai ez badezute.

Batzarrearen azkeneko egonaldian San Franziskok itz egin zien onela bere anaiai: «Gaurdanik illa nago zuentzat. Ona emen zuen buruzai, Pedro Katanio. Berari obedituko diogu zuek eta nik, guziok». Eta Pedro Katanioren aurrean belaunikaturik agindu zion errespetatu eta obedituko ziola gauza guzietan, Ordenako Buruzai nagusiar bezela. Ondoren, oraindik belauniko zegoela, eskuak bildurik, begiak zeruronz begira eta malkoak zeriozkala, egiñ zuen otoitz au itzik biguñenakiñ: «Nere Jesu Kristo Jauna, gomendatzen dizut zure familiau, gaurdaño nere kontura utzi didazuna. Badakizu nere gaitzak ez didatela utzitzen aurrera gobernatzan, argatik uzten det Ministro Generalen eskuetan. Gertatuko balitz oen zabarkeriaz, edo bizitza gaiztoz edo gogortasun geiegiz erlijiosoren bat galtzea, Jauna, eman bearko dizute kontua juizioko egunean».

Fundatzalle santuak asmo au artu zuen, ez baka-  
rrik erretiroan bizitzeko zeukan zale aundiagatik,  
ezpada egunetik egunera azitzen zijoazkion gai-  
tzakgatik, alabaña boza anbesteraño auldu  
zizaion, non ozta aditu zitekean. Ala ere erlijioso-  
ak aren utziera artu zuten kondizio batzuekiñ,  
ala, bere guardianaren mendean egon bear  
bazuen ere, beti gordeko zituela Ministro Gene-  
ralaren titulu eta eskubideak, eta bera bizi zan  
bitartean, ondorengoak etzutela artuko Ordezko  
generalaren izena baizik. Laister aurkitu zan  
Franzisko Ordenako eginkizunetan sartu bea-  
rrean, zeren Pedro Kataniok, nola baizan jenio  
biguñegikoa, arkitu zuen larriegia bere indarren-  
tzat Ordenaren gobernuia, eta ala utzi zuen  
urrengo urteko (1221) Pazkoa Espiritu Santukoet-  
ako Batzarrean, eta Franzisko, Jaungoikoaren  
aginte menetakoaren bidez, beartu zan jartzera  
ostera frai Elias sonatua Ordezko Generalaren  
karguan.

Zesareo Spira, jakinduria aundiko gizona,  
Eliassen gauza berri zaleen griñai bildur zizaiona,  
Aita doatsuarenganaturik, itz egiñ zion luzaro  
bere animaren estaduaren eta Erreglako puntu

batzuen gañean. «Ene aita, esan zion alde egiñ baño len, artu det asmo sendo sendoa Jaungoikoaren graziarekin gordetzeko nere atzeneko asnaserano Ebanjelio Santua eta gure Erregla, baño mesede bat eskatu bear dizut, eta esango det garbi zer dan. Gertatuko balitz Erlijiosen batzuek Erregla utsegitea, iritxi zadazu bertatik zure bendizioa, oetatik alde egiñik, bildu nadiñ erlijioso leialen taldearekin». Itz oek aditzean Franzisko txit poztu zan, laztandu eta bedeinkatu zuen, eta buruan eskuak ipinita itz egiñ zion onela: «Jakizu, ene seme, zure eskaria aditua izan dala, Melkisedeken Ordenaren eran zera apaiz betikotasun guzirako».

Zesareo Spirako au izan zan San Antonio Paduakoarekiñ batean frai Eliasen kontrariorik pizkorrena.

# Amabigarren Bereziera

*Irugarren Ordenaren  
izaera eta etorkizuna.  
(1221)*

Ozta ziran amabi urte Ordena Serafiñdarra jarria izan zala, noiz eta Erlijioso txikienak zeuzkaten konbentuak Italian, Españian, Franzian, Alemanian, eta bai Palestinan ere. Zeruko bedeinkazioak eman zien grazia toki guzietan geitu eta zabaltzeko. Santa Klararen Ordena, fraideena baño iru urtez gerogoakoa, zegoen bere senidea beziñ eder eta mardula. San Franziskoren ejemplo, sermoi eta millagroak irabiatua zeukan Europa guzia, sortu erazi zuen jaiera aundi bat bizimodu erretirokora, eta estadu guzietatik ateratzen ziran anima nobleak aren banderapera edo Santa Klaranera zijoazenak. Apaizak eta beste fededunak beren obligazioetatik mundua utzi eziñ zutenak, penatzen ziran ezin joan zitezkealako aek ere besteak bezela erlijiosoen bizitza egitera. Persona asko, denbora aetako naspilla eta gaiztakeriaz atsekabetu-

rik, zijoazen Santuarengana, eta eskatzen zioten beren bizitza zuzentzeko argibide bat, joan zitezkeen seguruago kristau-perfezioko bidean. San Franziskok agindu zien antolatuko zuela argibide bat, aen kezka itzaliko zituena, munduko irriskuetatik gordetzen lagundu, eta mundua utzi gabe, konbentuko pake eta ditxa sentieraziko ziena. Itza kunplitu zuen jarriaz Irugarren Ordena, zeñaren asiera, aurrerapen eta gloriak laburki kontatuko ditugun.

Obra au, San Franziskoren beste guziak, edo obeto esateko, Jaungoikoaren guziak bezela, jaio zan ixiltasun eta bakardadean. Florenziatik Senara bidean dagoen Toskanako Poggi-Bonzi deritzan errira zijoala, santuak billatu zuen Lukesio merkataria, bere gazte denborako laguna. Lukesio, lenago aiñ zurra eta biotz gogorrekoa, baziran illabete batzuek osoro mudatua zegoela, alabaña bere limosna ugariakiñ onbidea ematen zien, lenago bere zurkeriarekin gaitzerakoa ematen zienai. Ikusten zan beartsuak sokorritzen, ospitalean gaixuai kontu egiten, arrotzai ostatu ematen eta Aita Santuaren eskubideak eskudatzen. Bere biotzeko sentimentu on oek arrerazi

nai ziozkan bere emazte Bona-Donnari, baña andre ura piadosoa izan arren, zan munduko konselluai geiegi begiratzen ziona, zan une bate-tik bestera beren oñpeko lurrak uts egingo diela bildurtzen diran etxeakoandre aetakoa, argatik murmuratzen zuen samiñki bere senarraren limosna geiegiakgatik. Millagro batek konbertitu zuen. Egun batean, etxean zan ogi guzia pobreaki partitu ondorean erregutu zion Lukesiok emateko oraindik zerbait geroago etorri ziranai, eta Bona-Donnak erantzun zion aserre bizian: «Baña gizon burugabea, ez diezu begiratu bear geiago zure etxeako gauzai?». Lukesio pazientzitsu beziñ ongilleak eraman zuen injuria ura keجاتu gabe, eta berriz erregutu zion idiki zezala ogi-kutxa. Denbora onetan biotzetik erregutzen zion bost ogi eta bi eskalukiñ bost milla persona baño geiago eremuan mantendu zituenari. Bona-Donnak obeditu bear izan zion azkenik, eta, o nola arri eta zur egiñik geratu zan arkitzean kutxa ogiz betea! Geroztandik etzuen iñork esan bearririk izan miserikordiazko obrak egiteko eta anima aek elkarren leial zebiltzan karidadezko obren jardueran.

Etxe onek serbitu bear zuen Penitenziako Iru-  
garren Ordenaren asiera edo zieskatzat. Santuak  
an sartzean esan zien: «Enkargatu didazute  
siñalatu dezadala zuen bizieraren moduko argi-  
bide bat, eta zuen deseoai erantzuteko pensatu  
det jartzea Iruugarren Ordena bat, zeñean ezkon-  
duak txit ondo serbitu dezaketen Jaungoikoa, eta  
gauzarik onena deritzat zuek asiera eman  
dezaiozutela». Senar-emazteak poztu ziran adi-  
tzean, eta erregutu zioten Santuari sar zitzala  
Ordena berrian. Jantzi zien tunika urdiñ-arrea,  
eta lotu, denbora guzietan bere fundazioaren  
siñalea izan bear zuen kordoia. Poggi-Bonzi eta  
Florenziako beste persona asko sartu zituen bizi-  
modu berbereko argibidean, eta ala jarri zan  
(1221) San Franziskoren Iruugarren Ordena, Iru-  
garren Ordena guzietan zarrena. Ura zan mosta-  
za alea laister arbol aundia egiteraño azirik zeru-  
ko egaztiak abrigatuko zituena. Andik illabete  
batzuetara antolatu zien Erregla bat, zeñetako  
aginte eta legeak txit ondo eratzen diran denbo-  
ra eta toki guzietako persona mota guzietako  
bizimoduarekiñ; eta zuzentzen da nai ta nai ez  
mundu galduan bizi bear duten animai laguntze-

ra, suspertu edo bizierazitzeko beretan espiritu kristaua, eta parte arrerazitzeko erlijiozko bizi-tzako birtute eta obra onetan.

Katolikoak diran eta Aita Santuarenganako amorio egiazkoa sentitzen duten guziak sartu ditezke Irugarren Ordenan. Lau kondizio eskatzen dira: 1. Biurtzea bide gaiztoz bildua. 2. Etsaiarekin menetan adiskidatzea. 3. Jaungoikoa-aren legeko mandamentuak eta Eleizarenak gordetzea, eta gañera erreglan agintzen dana. 4. Emakume ezkonduak sartu nai badute, senarren baimena bear izatea. Erreglak ez du obligatzen batere penapean, ezta pekatu benialenean ere, eta ez dauka beste erakai eta mugarik amorioa eta borondate ona baizik.

Franzisko asi zan Ordena jartzen arrazoiarekin biotza deitzen dan barrengo erreinu txiki onetan; zergatik, nola zuzendu bestela jendetaldeen elkartasuna asiera kontrako eta gaiztoa-kiñ? Gero jartzen ditu familietako egiñbideak, eta ondorean Irugarren Ordenaren izaera egiten duten otoitz eta penitenziak. Ala anai nola arre-bak egiñ bear dute testamentua Ordenan osoro sartu diranetik aurreneko iru illabeteen barrun-

bean, errezatu egunoro Ama Birjiñaren Eleiz errezoa, edo ordañez berrogeita amalau Aita gure eta Gloria, barautu ostiral guzietan, Abendu eta Garizuma guzian; jantzi senzilloro bakoitzaren estaduari dagokan eran, eta alde egiñ teatro eta jostaketatik. Lege oekin galtzen zituen fundatzalle santuak jendetaldearen ondo izatearen ar ondatzalleak, da esatea, lujua eta atsegiñen zalea. Beste bereziñde batean debekatzen ditu juramentuak, isekak eta auziak, eta jende tartean pakea edozeiñ preziotan aseguratu nairik, jartzen du beste lege protxugarri au: «Senideak ez dute eramango arma kaltegarrik, ezpada Erromako Eleizaren, fede katolikoaren edo bere erriaren defensan». Itz batekin desegiten ditu bidegabeko gerrak, itotzen du bengantzaren deseoa, kondenatzen ditu desafio eta ezpaitak, eta zuzenduaz animak beti diraun ondasuneronz, erakusten die Irugarrengoai amorio bat berarekiñ begiratzera Eleizari eta sorterriari, zeru erriari eta lurrekoari: eta ala salkiñdarien izena merezi dute Irugarrengoak, baldin segitzen badute bandera bat bertan ez dauzkatena itz-kribatuak itz santu oek: Jaungoikoa eta sorterria.

Irugarren Ordenaren Erregearen gañeko itzal-di labor au ez da asko adierazteko beraren indar eragillea, eta geienaz esan al izango da: «Izan zan jenio berezi bat denbora errukarri aetarako». Baña, zenbat orrelako jenio ez dira izan soillak eta aztuak! Lan-bide bati bizitza eta iraupena, indarra eta ugaritasuna ematen diona da Eleizak ondo artzea, eta Eleizak Irugarren Ordena bere anparupean artu eta eman zion gizonak beren buruz jarritako legeak egundaño iristen ez duten iraupen eta indarra. Aita Santu Honorio Irugarrenak ontzat eman zuen itzez Irugarren Ordenako Erregla 1221an, Inozenzio Irugarrenak Erlijioso Txikiena ontzat eman zuen moduan. Gregorio IXgarrenak 1230ko garagar illaren biekko agirian artu zuen Irugarrengoen defenza, eta berritu zituen bere aurrekoak eman ziezten grazia eta eskubideak, eta azkenik Nikolas IVgarrenak indartu zuen Erregla otsaundiro 1289ko urtean emandako Bulda batean. Bosteun urtez geroago Benedikto XIIIgarrenak egiñ zuen ondorengo itz oetan Aita Santuak Irugarren Ordenari egiñdako mesede estimagarrien bilduera labor eta ontzat ematea.

«Arreta guziarekiñ pensatu ondorean Orden onen gordetzalle leialak egin dutena, eta Jaungoikoaren laguntzarekiñ, nai badute gero ere egiñ dezaketena, erlijio katolikoaren onerako eta oiturak zuzentzeko mendetasun eta umilltasunezko ejemploakin, Guk beraren iraupen eta zabaltze geiagorako bear dan guzia ornitu eta senideak sosegatu nairik, gere borondatez eta ez anai edo arreba eta ez beste personaren batek artarazi gabe, gauzaren ezaguerarekiñ, eta pobrezari diogun estimazioagatik agiri onen bidez ontzat ematen, indartzen eta jartzen degu betiko Irugarren Ordenaren Erregla au, ontzat eman eta indartua gure aurreko Aita Santu oropen onragarrikoak, nola diran: Nikolas IVgarrena, konbentuan bizi ez diran Orden onetako giza seme eta emakumeentzat 1289ko abustuaren 17an; Klemente Vgarrena 1308ko abustuaren 30ean; Gregorio IXgarrena 1373ko otsaillaren 6ean, eta Leon Xgarrena Erlijioso Irugarrengentzat 1521ko otsaillaren 20ean».

Denbora artan bertan Santo Domingok jarri zuen Lonbardian onen antzeko elkartasun bat *Kristoren soldaduzka* izendatua. Geroago elkar-

tasun onek artu zuen Santo Domingoren Penitenziako Irugarren Ordena, eta izan zan Eujenio IVgarrenak ontzat emana solemnidadearekiñ 1439an.

Guk orain tratatzen degun Irugarren Ordena konbentuz kanporakoa ez da elkartasun, edo billera edo konpadri soll bat, ezpada elkartasun espiritual iraunkor, San Franziskoren beste bi Ordenakiñ bateratua, erlijiozko estaduak berez eskatzen dituen pobreza, obediencia eta garbitasunezko iru botoak bertan ezpadaude ere. Aita Santuak ala erabaki dute: «Bizimodu au ontzat eman, indartu eta txit alabatu duten gure aurrekoen pausoak jarraiturik, dio Benedikto XIIIgarrenak, jartzen eta aitortzen degu Irugarren Ordena izan dala beti eta oraiñ ere dala santua, merezimentuzkoa eta kristau perfezioari dagokiona, eta gañera dala egiaz munduan zabaldurik dauden gizon eta emakumeaz antolatzen dan Ordena bat, alabaña dauka Erregla berekia Aita Santuak ontzat emana, bedoitera edo nobiziadua, profesioa eta abitua bere gai eta egitura jakiñakiñ.

Au da San Franziskok jarritako Irugarren Ordena, edo obeto esateko, Ordena bat bakararren irugarren adarra, beregan gizon eta emakume ala konbentuetako nola konbentuaz kanpora bizi diranak artzen dituen. San Franziskok txikienen Ordena jartzearekin atera zituen eremutik monje taldeak, eta armatu Jainkoaren itzaren ezpatarekiñ; Dama pobreenarekiñ berriitu erazi zituen Martaren, Ageda, Zezilia eta beste zenbait birjiñen birtuteak, zeñai, fedegabeak arriturik, agur egin zien lurreko aingeru batzuek bezela; eta azkenik Irugarren Ordena jartzearekin erlijio-soen bizimodua eraman nai izan zuen familien erdira eta ezkonduen biotzera. Pensamentu au sortu berria zan baña denbora aetako premia txit ondo erantzuten ziona, artuaz esan ezin bezelako gogo eta amorioarekiñ. Mundua bete zan donzellaz, andre alargun eta ezkondu agirian penitenziako jantzia eraman, eta etxean erlijio-soen lanak egiten zituztenaz. Espiritu kristau egiazkoa dan elkartasunezko espirituak laguntzen zion mugimentu oni, eta odoletik etxe batekoak egiten ditugun serbitzuakgatik jendetalde batekoak jaiotzaz sorterrikoak eta bataioaz

Eleizakoak geran bezela, ala orduko jendeak beren borondatez ziran penitenziako apostolutzako lanetan Jesu Kristo serbitzen zuten bi soldaduzka gloriatsu aen artean batekoak: «Jazten zuten San Franziskoren edo Santo Domingoren abitua, eta txertatzen ziran zepa bi oetakoen batean aren izerdiarekiñ bizitzeko, bakoitzak bere izaera galdu gabe, bisitatzen zituzten maiz aen Eleizak, parte artzen zuten aen otoitzetan, laguntzen zizaien beren adiskidetasunarekin, eta jarraitzen ziran alegiñean aen birtuteen ejenplak. Eta ala etzuten uste prezisoa zala mundutik alde egitea santuai jarraitzeko, edozeiñ bizilekuk serbitzen zuen zeldatzat, edozeiñ etxek konbentutzat».

Irugarren Ordenak etzuen jaiotzea besterik egiñ, eta jendeak Aita Santuakiñ batean deadar egiten zuten zala Jaungoikoaren obra, eta gure Santuaren zeloaren frutu gozoa. Beraren kondaira da denbora aetako parterik ederrenetako bat. Ordena berri au zabaldu zan beste biak beziñ laister, eta mendi eta itxasoak igarorik, iritxi zan Txinako mugataraño, eta oiturak onduaz, asko lagunduzuen XIIIgarren eunkia izan dediñ izatez

eunki kristaua; Kristobal Koloni lagundu zioten frantziskoarrakiñ joan zan Amerikara; azkenik sortua izan zanetik oraindaño eman ditu nun nai eta edozein persona motetan santutasunezko ejemplo arrigarriak eta aiñ ugariak non ez eremuak eta ez konbentuak eman dituzten ederra-goak. Bertan izandu diran persona santu guziak kontatu ezin ditugun ezkerro, aitatuko ditugu bikañenak.

Lenbiziko Irugarrengoa izan zan Lukesio, lenago aitatua daukaguna. Penitenziako soldaduzka espiritual onetan sartu zan egunetik, saiatu zan jarraitzen leialkiago bere Aita doatsuaren pausoak, eta bere gañerako bizitza enpleatu utsegiteakgatik negar egiten, obra onetan eta pobre eta gaxoai kontu egiten. Jaungoikoak ordañez eman zion mirariak egiteko eta orazioan kordegabetanik egoteko doaia. Kontatzera guazten pasarteak agerteraziko digu itzaldi luzeak baño obeto beraren izaera eta birtuteak. Beiñ batean pobre gaxo bat bizkarrean zeramala, gazte lasai batek berarekiñ topo egiñik isekaz esan zion: «Zer deabru daramazu bizkarrean?». «Ez da deabrua nik daramadana, erantzun zion

Lukesiok, ezpada Jesus, zeñak zuen *nere senide txikitxoenetakoren batekiñ egiten dezuten guzia, nerekiñ egiñgo dezute*»; erantzuera miragarria, zeruak millagroarekin indartu zuena. Blasfemari zentzugabea bere pekatuaren kastiguz, an bertan mututurik geratu zan, baña egiaz damuturik, burlatu zuenarenganatu zan, eta onek nola etzeukan gorrotorik, erregutu zuen arengatik eta ostera sendaera iritxirik, despeitu zuen itz eder oekiñ: «Pakean zuaz, ene seme, baña kontu emendik aurrera ez itzez eta obraz ez dezazula Jaungoikoa isekatu».

Bona-Donnak ezaguturik Lukesiori atzeneko ordua iritxi zizaiola, erregutu zion eskatu zezala zeruko atsegiñetan elkarrekiñ egotea, munduko neke eta eramán bearretan elkarrekiñ egon ziran bezela. Grazi au Lukesiok iritxi zion, eta ondorean eriotz santu bat egiñ zuen; ortz tartean erregu au esaten ari zala: «Ematen diozkat eskerrak Trinitade guziz santu, Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari; Jesu Kristoren Pasio Santuko merezimentuakgatik deabruaren engañoetatik libratu nauelako». Au gertatu zan 1232ko apirillaren 28an.

Lukesio izan bazan Irugarrengoetan aurrenekoa, Franzisko errege Luis IXgarrena izan zan sonatuena, kapitana eta prinzipia aundi bat ezezik XIIIgarren eunkiko santu aundienetako bat izan zalako; alabaña Mansurako illkintzaren ondorean bere bentzule biotz gogorak ere erakarri zioten errespetoa; ill zan leialki gordeaz bere bandera noblea, «Jaungoikoa, Franzia eta Margarita», eta merezitu zuen San Franziskoren Irugarren Ordenako Senideen Santu goartaria izatea.

Goazen oraindik señaletzen: Aita Santuen artean ziran Irugarren Ordenakoak Gregorio IXgarrena, Julio Igarrena, Leon Xgarrena, Inozentzio XIIgarrena, Pio IXgarrena eta oraingo Leon XIIIgarrena. Erregeen artean Migel Paleologo, Rodolfo Habsburgokoa, Luis VIIIgarrena, San Luisen aita; Karlos Vgarrena, Felipe Igarrena eta IIgarrena Españaiko erregeak; Bela IVgarrena, Ungriaiko erregea, Jagelon Poloniako erregea, Juan Aragoiko erregea, Karlos IVgarrena Bohemiako erregea, Karlos Igarrena eta Roberto, Sizilia eta Jerusalemgo erregeak, eta Amadeo, Saboiako dukea. Eleiz-gizonetan ala praide nola apaizetan San Ibo, San Roke Monpellerkoa, San

Franzisko Paula, San Ignazio Loiolakoa, San Vicente Paul, Olier jauna, Berulle kardenala, eta gure denboran Asisko anima zaia.

Oek guziak gloriatzat zeukaten San Franziskoren abitu señailea eramatea, Treio Kardenalak aita Wadingo argiari 1623ko urtean izkribatu zion eskutitzean ain ongi adierazten duen bezela: «Alabatzen nazu, esaten dio, kardenal jantziaren gañetik dakardalako zuen fundatzalle santuaren abitu illun eta lokarri lodia, eta egiaz ez detala orregatik alabantzarik merezi. Erropa onek ezereza badirudi, beraren bearra badet, bada arkiturik altxatua Eleizan aiñ onra aundira, umilldu bear det, antustea menderatu ez nazan. Baña San Franziskoren abittua ez da egiazko suteo txit egokia are eta geiago altxatzeko prinzipa eta kardenalen diñatasuna? Bai, egiaz da Jesu Kristoren odolean eta bere serbitzariaren llagetakoan bustitako suteoa, eta ala daramaten guziaz ematen die erregetasuna. Zer egiñ det abittu aiñ santua jantziarekiñ? Bat egiñ suteoa suteoarekiñ, erregetzakoa kardenaltzakoarekiñ, eta ala, umildu bearrean, bildur naiz,

ez ote diodan erakarri nere buruari onra geiegi, eta alabatu bear baño geiago».

Jakintsunak eta bersolariak makurtu zituzten orobat beren kopeta erregeenak beziñ nobleak gure Santuaren umiltasunaren aurrean. Aitatuko ditugu Erramon Lulio 1315an martirioa sufritu zuena; Migel Anjel eta Errafael, pintalari eta otallari lenenak, Kristobal Kolon, mundu berri billatzallea; Dante bersoetan zizelatu zuena Artzai miragarri aren erretratua, zeñaren bizitza obean dan kantatzeko zeruko glorian; Lope de Vega, Españako komedigille aundia. Gizon aundi oek guztiak nai izan zuten meztituak izatea Irugarren Ordenako abituarekin, sinismen osoan zeudelako Jaungoikoaren juizioa biguñagoa izango zutela aurkestutzen baziran umiltasunezko jantziarekin, eta bersolari eta artisten erramu-koroak errespetatzen ez dituen tximistak, errespetatuko duela pobrearen jantzia.

Baña emakumeengan anbat zale eta amorio bizi etzuen besteengan pizkortu Irugarren Ordenak. Gaztetasunetik jarririk geienean berak eskatzen etzuten uztarripean, zijoazen San Franziskogana, arkitu naiean penitenziako abitupean

munduari alperrik eskatzen zioten sosegua. Konbentua zijoakien beretara, berak konbentura joan eziñ ziran ezkeru. Egiñik guraso edo senarraren etxeko bazterren batean aldare misterioso bat berak maite zuten zeruko esposoz bete, an ixurtzen zituzten libreki amoriozko ujolak, zeintzuen gordeleku beñere agortzen ez dana dan emakume kristauaren biotza. Irugarren Ordenak betetzen zituen aen deseo gogozkoenak, bizi ziran mendetasun gogorra arintzen zien bitartean, eta aek ordañez aberastutzen zuten beren birtute, amorio eta santutasunarekiñ. Irakorleak ontzat emango digu baldiñ ezaguerazitzen badiozkagu usai txit gozoko lore oetakoen batzuek, zeruko lorategi onetan aurrena aldatuak, eta bera geiena edertzen dutenak.

Guziai eraiten die Santa Isabel Hungriakoak, San Franziskoren biotzean eta erri kristauaren amorioan toki berezia izan zuenak. Turingako Jaun Luis piadosoarekin ezkondurik, Isabelek bere inozentzia eta edertasuneko egunik onenetan ematen zuen bere jargoitik San Franziskok geien estimatzen zituen birtuteen ejenploa. 1221an bere etorkizuna Ordenarekin bat egiñ

zuen denboran amalau urte baizik etzituen, eta aren biotz gauza noble guzietarako irikia zegoenak agertzen zuen kanpo oparo bat erne eta azitzeko Santu fundatzalleak kristau errietan zuen bizitzako azi indartsua.

Urte berean Erlijioso txikienak Alemanian bigarren aldian agertu ziranean, emakume santu argan billatu zuten alaitasun eta anparoa. Egiñ zien konbentu bat erreinuko erri-buru zan Eisenachen erdian, eta autu zuen konfesoretzat frai Rodingo, San Franziskoren Erregla artu zuten alemanetan aurrenekoetakoa. Irugarren Ordenaren ezaguerara ostalari berri oen bitartez etorri-rik, pensatu zuen billera onek asko balioko ziola kristau deboto bati, eta ala bertan sartu zan, era onetan bere borondatez artu zituen mortifikazio eta obra piadosoak nolerebait konsagratzen zituelako. Santa Isabel izan zan Alemanian lenbizi-ko aizpa Irugarrengoa, eta uste izan diteke aiñ izen aundi eta piedade aiñ señalatuko prinzesaren ejemploak asko serbitu zuela lurbira artan Ordena au zabaltzeko.

San Franziskok jakiteraturik bere misiogilleak egiñ zuten irabazi baliosoa, atsegiñ aundia artu

zuen, eta inor bizi zan bitartean santututzea zorrotzki debekatua zeukanak, etzizozkan ukatzen alabantzak Santa Isabeli. Prinzesa aren umilltasun arrigarria, piedadea eta zorigaitz guztiak sokorritzeko karidadea ziran Ugolino Kardenalarekin zeuzkan jolas-gaiak. Egun batean leiatu zizaion kardenala, eman zeiola amorio siñalaren bat aiñ bidezki bere alaba deitu zezaiokeanari, eta jantzita zeraman kapotetxo arabatua kendurik, agindu zion berealaxe bialdu zezaiola. «Zure espirituz betea dagoen ezkerro, esan zion, nai det utzi dezaiozula Eliasek Eliseori utzi zion seni-partea». San Franziskok obeditu zion, eta bialdu zion Dukesari bere abituaren prenda ura eskutitz batekiñ, zeñean esaten zion atsegiñ aundia artzen zuela Jaungoikoak anbeste doaiez ornitu, eta aezaz aiñ ongi usatzen zuelako.

Isabelek artu zuen fede eta esker onarekiñ Elias berri aren kapotetxoa, esker on au agertuaz denbora guzian erregali ari izan zion estimazioarekiñ, eta jarraitzearekin berak oroituera-zitzen ziozkan birtuteak. Jaungoikoak bildu nai izan zituen Isabelengan erregetzako aunditasuna eta oñazezko aunditasuna, eta bisitatu zuen

pena eta atsekabeakiñ. Ogei urte zituenean alargundu zan, Wartburgoko gaztelutik botia, Eisenach-ko karriketari bere aurrakiñ nora joanik etzeukala, zituen gauzak kendu eta guziak utzia zegoela, errege alaba onek nekerik askorekiñ iritxi zuen ganadu-estalpe batean gauak pasatzeko lekua ematea, baña ainbeste zorigaitzen artean portatu zan San Franziskoren jarraile egiazkoa bezela, alabaña etzuen keja bat eman bere persegitzalleen kontra, ezpada bizitu zan osoro menderaturik Jaungoikoaren borondatera. Eztago letraz ezarria, zenbat parte geiago artzen dan bizitz onetan Jesu Kristoren neke-penatan, anbat parte aundiagoa artuko da zeruan beraren glorian? Prinzesa errukarriak aditurik Franziskoa-rren eskill-soñua gau erdian, joan zan ara Matutietara, eta erregutu zien kantatu zezatela *Te Deum* Jaungoikoari eskerrak emateko bialtzen ziozkan atsekabeakgatik.

Pasarte bat bakarra asko da erretratatzeko egoki San Franziskoren jarraile noble eta alaitsu ura. 1228an San Franzisko ill zanetik bi urterako egun batean Santa Isabel pasatzen zan erreka-txo loi batean, or emen zubi orde zezuden arri-

gañetatik, noiz eta erdira zanean topo egiñ zuen kontrako aldetik zetorren amona eskale, limosna ugariak denbora obeagoetan eman izan ziozkanarekiñ. Eskaleak, pasatzean utzi bearrean, bulztatu eta erori erazi zuen ur loi aetara, denbora berean esaten ziola lotsagabekeri aundiarekiñ: «Dukesa ziñanean etzenduen bizi nai izan dukesaren moduan, ikusi zaitez orain pobre eta loietan sartua. Etzaitut ez nik ortikan aterako». Isabel irten zan andik al zuen moduan batere pazienza eta gozotasuna galdu gabe, eta gero parra irriaz erantzun zion: «Ona emen lenago erabiltzen nituen alaja eta arri preziosoen ordezkioak». Eta joan zan bere arropa garbitzera an inguruko putzu batera eta anima berriz Bildots guziz garbiaren odolean.

Jaungoikoak poz piska bat eman nai izan zion zeraman samiñtasun aundian. Gregorio IXgarrenak (Ugolino Kardenala) San Franzisko kanonizatu edo santutzat aitortu zuenean bialdu ziozkan fundatzalle santuaren saiets irikitik irten ziran odol tanto batzuek, eta Isabelek gorde zuen erliki aiñ balioso ura Magdeburgon egiñ zuen ospitalean.

Arteraño Isabel asentatua baizik etzegoen Ordenan, eta bertan betiko geratzeko, artu zuen Irugarren Ordenako abittua frai Bukcharden eskuetatik 1229 edo 1230ko Ostiral Santu egunean. Gerozko bere denbora guzia enpleatu zuen gaxo eta legenartsuai kontu egiten; eta iltzeko zorian zegoenean eraman erazi zien San Franziskoren kapotetxea, eta eman zion bere laguntzalle bati, esanaz: «Ene alaba, au da nere predarik onena, eta aseguratzen dizut, ezen, orrezaz apaiñdu naizen guzian Jesus nere Jaungoiko maiteak atsegiñez bete nauela». Anima serafiñdarra, eta zerurako osoro eldua (etzituen ogeita lau urte baizik), Isabel joan zan zerura 1231ko azaroaren 19an, San Franzisko ill zanetik bostgarren urtera. Gregorio IXgarrenak para zuen Santuen lumeroan 1235ko maiatzaren 26an. Eta da Alemanian lenbiziko alaba izan zan Irugarren Ordenaren alabaen santu goartaria eta da ere ango onra txit aundia.

Para ditzagun Santa Isabelen inguruan berari zeruan gortea egiten dioten emakume santu batzuek. Pika, San Franziskoren ama piadosoa, Humiliana Zerchi doatsua, Florenziako aurrene-

ko Irugarrengoa, martirioaren eresi zan anima irazekia, Santa Errosa Viterbokoa, aingerua zirudian kriatura, Ama Birjiñaren aginduz amar urte zituenean Ordenako abittua jantzi, Profeten gisan penitentzia predikatu eta Federiko bigarrenak deserritua izateko onra aundia izan zuena, eta Enperadorea botea izango zala eta Eleizaren garaipena alde-aurrez esanik, emezortzi urte zituenean bere merizimentuen saria artzera zerura joan zana. Aitatu ere dezagun Gaztelako Blanka, San Luisen ama eta errege-familia guttia; Portugalko Santa Isabel, Pakearen Dama eta erriaren Ama mendekoak esaten ziotena; Poloniako Kunegunda, ezkontza-bizitzan garbitasuna gorde zuena; eta azkenik arako gazte lasai, XIIIgarren eunkiko pekataria deitu genezakeana, Irugarren Ordenako Magdalena, Margarita Kortonakoa, zeñaren on biurrera eta penitentzia dagoen gure kondairari San Franziskoren Ordenaren mesederik señaletuena bezela.

Toskanan jaioa (1249), edertasun zoragarrikoa, anima irazeki eta biotz aundikoa, arkitu zan txit gazterik bere amaren konsellu zentzuzkoak gabe, eta nola ikusten zan bere buruaren jabe,

pobre eta esperienziarik etzeukala, eman zan osotoro munduko atsegiñ limurietara, eta zaldun batekiñ gaizki biziturik, beragandik seme bat izan zuen. Ala Jaungoikoak errukiz begiratu zion, eta ara nola atera zuen nastua zegoen loietik. Bere amorio-laguna joan zan bidajea aste batzuetarako, beti berekiñ zebillen erbi-zakurra-reakiñ, baña andik egun batzuetara zakurra itzuli zan bakarrik eta sartu zan Margaritaren gelan. Zakur leialak egiten zituen marru kupigarriak, bere etxeoandreai miliskatzen ziozkan eskuak, eta tiratzen zion soñekotik, esaten bazion bezela segi zezaiola, eta ala egin zuen Margaritak, pensamentu tristeakiñ burua betea zeramala. Eraman zuen zakurrak uritik zerbait urruti zegoen baso bateraño, eta an geraturik, are eta inzi-ri aundiagoak egiten zituen arbol-adar pilla baten ondoan. Margaritak kendu zituen arbasta batzuek, eta ikusi zuen bere maitearen gorputza labanaz josia eta arren janari egiña. Ikuskarri ikaragarri ark erakarri zuen beregan pensatzera, eta Ebanjelioko pekatariari gaiztakerian jarraitu zion bezela, jarraitu zion damutasunean. Ixuririk Gurutziltzatuaren oñetan negar malkoak, au da,

animaren odola San Agustiñek dionez, merezitu zuen Magdalenak bezelako barkazioa. Aitak eta uezamak erritik bota, eta Jaungoikoak ez beste guziak utzirik, joan zan Kortonara bere semearekiñ, eta artu zuen an Irugarren goen abittua, txit laister izan zan penitenziako amoriozko ispillu bat, eta ikusi zan Magdalena bezela, zeruko Esposoaren mesedez betea. Semea sartu zizaion geroago Erlijioso txikiaren Ordenan eta señalatu zan santutasun eta apostolu zeloan. Margarita ill zan amoriozko korde-gabetze batean 1297ko otsaillaren 22an eta Benedikto XIIIgarrenak santutzat aitortua izan zan. Ala Irugarren Ordenaren bitartez, oitura onak sartzen ziran familietan, Ebanjelioak bere usai gozoa banatzen zuen munduan, eta Jaungoikoaren Espiritua eremuetan bizitu ondorean, agertzen zan bide zabaletan. XIIIgarren eunkia salbatu zan.

San Franziskoren Irugarren Ordenak iritxi zuen beste frutu bat, pasakorra eta Italiarako bakarrik bazan ere, jendeen alabanzak merezi dituen. Santo Domingorenarekiñ elkar arturik, gorde zituen Aita Santuaren eskubideak, eta desegiñ Alemaniako Enperadoreen asmo galga-

rriak. Pedro Biñas, Federiko bigarrenaren ministroak berak aitortzen du ondore au bere nagusiarri zuzendu zion eskutitz batean: «San Franziskoren erlijiosoak eta Santo Domingorenak kontra altxa zaizkigu. Gure bizitza eta lanbideak eman dituzte gaiztotzat agirian, eta gure eskubideak autsirik, biurtu gaituzte ezerezero; eta gure nagusitasuna desegiteko para dituzte bi Billera berri, gizon eta emakumeak bertan artzen dituztenak. Guziak dijoaz an sartzera, eta ozta arkituko da bat sartua eztagoena». Eleizaren etsai baten aitormen au da txit balio aundikoa, argitzen du kondairaren puntu illunenetako bat, eta adierazten digu Guelfoen garaipen osoa Erlijioaren eta jaiet-erriaren serbitzuan enpleatutako elkartasunezko espirituagatik. Elkartasunezko espiritu ark eratzen ziezten Irugarrengoai bide txit indartsuak gogor egiteko jende abereki aen erasoai, eta iristeko geldika geldika arrazoiak indarra menderatzea. Jarri ziran Aita Santuaren banderapean, eta aldarte guzietan agertu ziran beraren gerrari bulardetsuenak; alatan San Franziskok bete zituen iru Ordenak bere espirituz, zeña zan Jesu Kristoren Ordezkoarenganako

obediencia eta amorioa! Batere duda gabe aitortzen degu bada, San Franziskoren Irugarren Ordenak egiñ ziozkala Italiari bi mesede oek: gorde fede katolikoan, eta libratu besteren uzta-rripetik. Orregatik Aita Santuak bete zituen alabantzaz eta eman ziozkan eskubide eta grazia espirituzkoak.

Penitenziako Irugarren Ordena Bolonian eta Toskanako beste errietan jarritakoan, Franzisko, ikusten etzuen eskuak giaturik, jetxi zan Apenino mendietatik. Sentitzen zuen bere barrunbean aiñ maite zuen Porziunkulako eleizatxoa berriz ikusteko zale aundi bat, Jaungoikoak an prestatuko ziozkan mirarien batere kontu gabe. Orain guaz kontatzera, giari anziñako kondairatzalle Bernardo Besse degula, baña Eleiz Santu artan pausoa eman baño len, geratu gaitezen piskatxo batean pensatzen: Oñpean daukagun lurra santua da, erantzi ditzagun oñetakoak, Moisesek bezela, da esatea, garbi ditzagun biotzak eta altxa animak, merezi dezagun ikustea an agertuko dan ikuskarri aundi eta konsolagarria.

# **Amairugarren Bereziara**

*Porziunkulako Induljenzia.*

*San Franziskok darraika*

*sermoi egiteari. Alejandro Hales.*

(1221-1223)

1221ko urrian, Unbrian bakarrik ikusten diran udaazkeneko gau epel batean San Franzisko erretiratu zan Porziunkulatik berrogeita amar bat pausora sortaldetik zegoen arzulo batera; eskuan zeukan Jesus gurutziltzatu bat, eta lurrean oñetan buruezur edo kalabera. Franziskok, pekatarien konbersioagatik erregu irazekienean zegoela, aditu zuen Aingeruaren gisako boz bat, ziosana: «Kapillara, Franzisko, Kapillara». Bereala altxata joan zan Ama Birjiña Aingeruenekora, eta an bere begiai egiñ zioten mugiera bat egundaño alakorik aditu ez dan ikuskarri batek. Aldarean Sagrario gañean eta zeruko argitasunez inguraturik zegoen Jaungoiko Gizon egiña, Agintari guzien Agintaria, gloriuz betea eta esan eziñ bezelako ederra, bada aren arpegiak zeukan gaztetasunaren preskura betikoa

edade elduaren zentzuarekiñ; eta begirada Franziskogan ezarriak, paregabeko gozotasuna, eta ezpañak adierazten zuten neurrigabeko biguñtasuna. Eskuiko aldean zegoen Maria bere Ama gloriosa, eta inguruan eziñ konta al aingeru. Eleiza guzian argi egiten zuen ziargiak, etzuen begietan kalterik egiten eguzkiarenak bezela, ezpada bizia eta denbora berean biguña izanik, erakartzen zituen begiak bertan gozaerazitzen ziela.

Gure Santua, pozez beterik, belaunikatu zan, eta adoratu zuen aingeruakin batean. «Franzisko, esan zion Jaungoikoaren Semeak, badakit nolako zeloarekiñ zu eta zure senideak saiatzen zeraten animen salbazioan. Ordañez eska zazu berentzat eta nere Izenaren gloriarako nai dezun grazia, eta ordagotuko dizut, bada nik munduari eman zaitut jendeen argi eta nere Eleizaren eusgarri izan zaitezzen». Ontasun onezaz alaiturik, Franzisko benturatu zan erregu au egi-tera: «O Jaungoiko iru bider santua, auts piska bat eta pekataririk errukarriena baizik ezpanaiz ere, zure begietan grazia arkitu dedan ezkeru, al dedan errespeto guziarekiñ erregutzen dizut

eman dizaiezula zure fededunai grazia señaletu au: konfesatu eta damaturik Eleiz au bisitatzen duten guziak irabazi dezatela induljenzia osoa, eta iritxi beren pekatu guzien barkazioa». Eta Ama Birjiñarenganonz itzulirik, esan zion: «Erregutzen diot Maria zure Ama doatsu eta gizonen bitartekoari, anpara dezala zurekiñ nere kausa». O pasarte miragarria, ez iztunik ederrenak, eta ez pintatzallerik trebenak bear bezela idurikatu eziñ dezaketena! Mariak erregutu zuen, eta Jesussek, nola eziñ ezer ukatu dion bere Ama txit santari, biurtu zituen bere begi amoretsuak beraganonz, eta gero bere serbitzariarenganontz, itz egiten ziola era onetan: «Franzisko, aundia da zuk eskatzen dezun mesedea, baña are aundia-goak iritxiko dituzu. Ematen dizut eskatzen didazun induljenzi osoa, baña Aita Santuak sendotu eta indartzeko kondizioarekin; bada bera bakarra da lurrean lotzeko eta askatzeko eskubidea daukana». Itz oek esanda, ikuskera desegiñdu zan, eta Jesus bere Ama doatsu eta aingeruzko Gortearekin joan zan zerura.

Eguna argitzearekiñ batean Franzisko atera zan Perusara, nun zegoen denbora artan Honorio

Illgarrena. «Aita Santua, esan zion senzilltasun guziarekiñ, oraiñ urte batzuek nik konpondu nuen berorren mendeko Eleizatxo bat Ama Birjiñaren izenekoa, eta orain Berorren Santutasunari erregutzero natorkio, aberastu dezala limosnik eman gabe irabazi ditekean induljenzia balioso batekiñ». «Nai det, erantzun zion Aita Santuak, baña esan zadazu, zenbait urteko barkazioa da eskatzen dezuna?». «Jauna, Berorren Santutasunak eman bizaizkit animak, ez urteak». «Animak! Baña nola?». «Berorren Santutasunak ontzat ematen badit, nai det Ama Birjiña Aingerueneko Eleizan damutu eta absolbiturik sartzen diran guztiak iritxi dezatela beren pekatu guzien barkazioa mundu onetan eta bestean». «Franzisko, zuk eskatzen dezuna aundia da, eta egundañ eman izan ez dana». «Orregatik ez diot eskatzen nere izenean, ezpada bialdu nauen Jesu Kristorenean». Ori aditurik, Aita Santuak esan zuen iru bider: «Jesu Kristoren izenean egiñ nai dizugu eskatzen dezun grazia». Eta Kardenal batzuek esanik alako grazia izango zala Erroma eta Jerusalemgo erromerien kaltean, Aita Santuak erantzun zien onela: «Eziñ desegiñ geneza-

ke gogo onez eman deguna; egiñ ditekeana da bakarrik iraupena siñalatzea». Eta Franziskogana itzulirik, esan zion: «Nai degu grazi au betiko izan dedilla, eta irabazi ditekeala egun oso bakar batean, aurreneko besperetatik biaramoneko besperetaraño».

Franziskok eman ziozkan eskerrak Aita Santuari, eta makurturik alde egiñ zuen humiltasun aundiarekiñ, eta ikustean bazijoala, deitu eta esan zion Aita Santuak parra irriaz: «Nora zuaz gizon senzilloa, ezpadaramazu induljenzia onen sinitsgairik?». «Berorren itza asko det, Aita Santua, Jesu Kristo izan dedilla eskribaua, Ama Birjiña eskritura, eta aingeruak testiguak; eztet bear beste sinitsgairik, eta Jainkoaren kontura utzitzen det agertzea au bere obra dala». Eta eran-tzuera senzill au emanik, irten zan Perusatik Aita Santuaren bedeinkazioarekiñ, itzultzeko Ama Birjiña Aingeruenekora. Bidean geratu zan ostatz legendaritsuen ospital batean. Lotan izan zuen ikuskera bat, eta esnatzean bere bidajeko lagun frai Maseori esan zion: «Ene anaia, poztu gaitezen, bada ontzat artu dute zeruan, Aita Santuak eman didan induljenzia».

Oraindik seinalatu gabe zegoen induljenzia irabazteko eguna, eta Jaungoikoaren serbitzariak erregutzen zion Jaungoikoari konfianza osoarekin, eta ez alperrik. Lenbiziko agerkeratik bi urtera neguko gau jelatu batean (1223ko illbeltzean) Franzisko Ama Birjiña Aingerueneko kapillaren aldameneko zelda batean orazioan zegoe-la, eta azotatzen erruki gabe bere gorputz inozentea, deabrua, animak galtzeko beti ernai dagoena, agertu zizaion aingeru argi baten itxuran eta esan zion: «Zergatik auldu eta erkitzen dezu zure gaztetasuna barauakiñ, bijilia eta penitenziakiñ? Eztakizu loak gozatzen duela gorputz nekatua? Siñistu nazazu, kontu eiozu bizia-ri, denbora geiagoan Jaungoikoa serbitu dezake-zun». Franziskok igerri zion berealaxe ura zala deabruaren engañio bat, irten zan presaka zel-datik, kendu zuen abitua, eta garaipenaren señale eta amorioaren erdi parte onena dan padezitzeko deseoa eramanik, elurretan etzanda iraulka ibilita igortzi zuen gero gorputza lar-satsi batean, esanaz bere gorputz odolduari: «Obe dezu oñaze oek sufritu Jesu Kristogatik, ezen ez leku eman sugearen palagu galgarriai».

Ez al zuen bukatu egikera arrigarri ura, non sortiza guzia bestiruditu zan aren aldamenean. Ingu-ratu zuen argi txit gozo batek, lar odolduak bete ziran arrosa zuri eta gorritz, zeñak ziran beraren garbitasun eta karidadearen señaleara, aingeruak jantzitzen diote elurra baño zuriagoko soñeko bat, eta gizonen soñurik ederrenak aren parean ezer ere balio ez duten boz batek esaten dio: «Franzisko, zuaz laister Eleizara, bada an itxedoten dagokizute gizonen Salbatzalleak eta beraren Ama Maria txit santak». Franziskok artu zituen ogeita lau arrosa millagrozkak, amabi zuri eta amabi gorri, eta joan zan kapillara sedaz alfonbratua iruditu zizaion bidetxior batetik.

Jesus an zegoen argizko jargoiean, bere esku-bian zeruko Erregiña, eta millaka aingeru inguruan. Franziskok, buru makurtu aundi baten ondoren, eskeñi ziozkan Jesusi Ama Birjiñaren eskutik, eraman zituen arrosak. «Franzisko, esan zion Jainkoaren Semeak, zergatik eztiozu egiten nere Amari agindurik daukazun menekioa?». Santuak igerri zion, Porziunkulako induljenziarekiñ santutu bear zuten animen gañean itz egiten ziola, eta erantzun zion konfianza oso osoarekiñ:

«O Jaungoiko iru bider santua, zeru-lurretako Jaun eta gizonen Salbatzallea, zure errukimendu neurrigabearen eta zure Ama gloriatsuaren amarez, señaia ezazu eguna zeñean irabaziko dan Eleiza au aberatstu nai izan dezun induljenzia osoa». «Nai det egun ori asi dedilla nere apostoluen buru Pedroren kateak urratu nitueneko lenbiziko besperatatik, bukatuaz biaramoneko eguzkiaren sarreran». «Jauna, eta nola sinistatuko dituzte gizonak nere itzak?». «Etzaitez bildurtu, zuaz berriro lurrean nere Ordezkoa dana billatzera, adierazi dezan induljenzi au, gañerakoa nere graziak egingo du». Kriatzallearen eta kriaturaren arteko jolas onetan, pakea itzuli zan ostera lurrera, aingeruak kantatu zuten *Te Deum* esker onen señaian, eta ikuskera desagertu zan.

Biaramonean gure Santua, Jaunaren ordenai leialki erantzuteko, joan zan Erromara, gertaeraren testigu izan ziran iru erlijioso, Pedro Katanio, Bernardo Kintabal eta Anjel Rieti lagun zituela. Berekiñ zeramazkian sei arrosa miraritsuak, iru gorri eta iru zuri, Trinitade guziz santuaren onran. Letrango Jauregian Aita Santuarengana

zanean, kontatu zion llanoro ikuskera miragarria, eta para bere aurrean arros-erramilletea, zion guziaren siñale egiazkotzat. Ikustean Honoriok lore aek aiñ mardul, eder eta usai gozozkoak denbora artan (esana daukagu gertatu zala ill-beltzean) eta miresturik are geiago Franziskoren santutasuna, eman zion eskatzen ziona. Siñalatu zuen abustuaren bigarren eguna induljenzi aundi ura irabazteko, eta gaztigatu zien Asis, Perusa, Todi, Foliño, Nozera, Espoleto eta Gubbioko Obispoai adierazi zezatela San Pedroren Kateetako pesta besperan, solemnidade aundiarekin, eta konsagratzeko Ama Birjiña Aingeruenekoen Eleiza.

Egun señalaturan zazpi Obispoak eta gure Santua igo ziran kapilla aurrean altxa zuten solairu batera, eta an jendetza aundi baten aurrean, San Franziskok oroitu erazi zien iritxi zuen zeruko graziaren sortze eta balioa, eta gero, zabaldurik eskuan zeukan paper bat, irakorri zituen itz oek: «Guziok eraman nai zinduzteket Paraisora. Adierazten dizutet Jaungoikoagandik eta Aita Santuaren aotik iritxi dedan induljenzi osoa. Onera etorri zeraten guziok biotzeko

damutasunarekin, konfesatu eta apaiz bategan-  
dik absolbiturik, iritxi dezute zuen pekatuakgatik  
merezi zenduten penaren barkazio osoa, eta ala  
izango da urteoro betiko prestaera oekiñ onera  
etortzen diran guzientzat. Nik nai nuen onek zor-  
tzi egunean irautea baten ordeztan, baña eziñ iritxi  
izan det». «Betiko» itz au aditzean Obispoak  
asaldatu ziran, eta beren artean erabaki zuten  
induljenziak amar urtean iraun bear zuela. Don  
Gido asi zan aurrena itz egiten au adierazteko,  
baña indar misteriozko batek esan erazi zion  
«betiko». Oro bat gertatu zizaien beste Obispoai,  
eta onela ezagutu zuten Jaungoikoaren boronda-  
te errukitsua.

Au da induljenzia sonatu onen kondaira, eta  
jendeak *Asisko Jubileo aundia* deitzen dutena.  
Nola dudatu genezake onezaz San Franzisko  
bezelako santu batek dionean, frai Maseo  
Marignan bezelako testigu zintzoak, Bernardo  
Besse eta San Antonino, Florenziako Arzobispa  
bezelako kondairatzalle zentzuzkoak asegu-  
ratzen dutenean? Eta ez genezake esan Santu  
onekiñ, andik laister Santuari ezarritako ilagak  
dirala Jesu Kristo betiko Aita Santuaren Bula bat

bezela, zeñean ontzat ematen dan Asisko Induljenzia, Penitenziako Ordenaren moduan?

Sinitsgai oei erantsi bear diegu oraindik San Franziskoren denborako beste agure batena, zeñaren testigantza Juan Albernia beneragarririk kontatzen duen era onetan: «1309ko urtean eun urte baño geiagoko agure bat, Perusa ingurukoa eta Irugarren Ordenakoa zana, legua bat bide baño geiagoan ibili zan oñez Porziunkulara joateko abuztuaren biko Induljenzia irabaztera. Juan Albernia bere konfesoreak alabatu zuen aren zeloa adiñ aiñ aundian; eta agurriak aditurik, erantzun zion: «Jauna, oñez eziñ banezakean, artuko nuen mando bat, aren gañean bidajea egiteko, alperrik ez galtzearren egun aundi onetako mesedea». «Zergatik?». «Oroipen sagradu bat neretzat daukalako. San Franzisko Perusara zijoala, gure etxera ostatu eske, oi zuen bezela etorri zanean, an nengoen ni, eta aditu nion esaten nola zijoan Erromara Aita Santuak indartu zezaion zerutik iritxi zuen Induljenzia. Geroztik, urte bat ere uts egiñ ez det etorri gabe Porziunkulako Induljenzia irabaztera».

Oraindik aitatu bear ere degu J. Kristo gure Jaunak Santa Brijidari eman zion erantzuerara. Nola Santa onek dudatzen baizuen egiazkoa izango ote zan edo ez Porziunkulako Induljenzia, Salbatzallea agertu zizaion, eta esan zion: «Gezurra ez da arkitzen egia eta Jainkozko kari-dadearen sua dauden tokian. Alabaña, Franzisko nere serbitzari leialak, nola gordetzen baizuen egia, ziertoa da esan zuena. Ikustean Jaungoiko-arekiko otzatasuna, eta lurreko ondasunetarako amorio aseteziña, eskatu ziran amoriozko seña-le bat, beren animetan gutziako sua itzali eta kari-dadearena irazekitzeko; eta guzia Amorioa nai zan onek eman nion amoriozko siñalea izan zan, ezen, esku utsakiñ etxera zijoazenak, itzuli zite-zela nere bedeinkazioz beteak, eta beren peka-tuen barkazio osoarekiñ».

Gañera, katolikoak eziñ dudarik iduki dezate-ke gai onetan: Erromak itz egiñ du. San Pedroren ondorengoak indartu dute Induljenzi au solemni-dade guziarekiñ, zabaldu dute Iru Ordenatako Eleiza guzietara, eta mesede berezi baten bidez ematen dute eskubidea irabazteko Jubileoko urtean eta debeku-denboran ere. Ala jende

guziak dijoaz konfianza osoarekiñ Porziunkulako kapillara, zeña baidan *Loretoko Etxe Santuarekiñ* batean Italiako joia bat eta munduko eleiza beneragarrienetako bat. Unbriako bazter au da egiaz millagroetako lur mena, eta bertan gordezten da betiro San Franziskoren oroipena bi modu seinalatuakgatik, baratzako larrak urteoro ematen dituzten arantza gabeko arrosa zuri, mantxa gorridunakgatik, eta toki guzietatik millaka dijoazen erromesakgatik, bada abuztuaren aurreneko eta bigarren egunean joan oi dira erregutzeko San Franziskok erregutu zuen tokian, barkazioa billatzeko ark aentzat iritxi zuen tokian, eta berentzeko osterataioko garbitasun eta inozenziarekiñ opa ditekeen poz kontentu bakarra, zeña dan Jaungoikoaren amorioa. Kapillaren solairua gastatua dago erromesen belaunakiñ, eta paretak oraindik gordetzen dituzte sei gizaaldien muñegiñen siñaleak. Egiaz bat beartzen da aitortzera onelako leku bedein-katuak gloriaz beteak daudela, eta penitenziako jazarre leku orrek ezereztutzen duela gizonen gutziakoa. Nun arkitu orrenbeste mirari batean bilduak? Eleizako kondaira guzian bada pasarte

bat pekatari kupigarriak konsuelo geiago arkitzen dutenik? Eztakigu emen zer geiago miretsi, edo San Franziskoren zeloa animen salbazioagatik, edo utsetik mirariak egiten dituen Jainkoaren almena, neurri aul eta ondore aundien desberdintza ikusirik, jendeak deadarka esan dezaten: «Jaungoikoaren beatza dago emen!».

Baña ez da gitxiago arritzekoa, Jainkoaren Probidenziak kapilla umill onen arritarañokoak gordetzeko daukan kontua. 1832ean beiñ eta 1854an berriz, lur ikara batek arrakatu zuen errege mantuaren gisa kapilla au estaltzen duen Eleiza aundi ederra, XVIgarren eunkian egiña. Erreboluzioak eun bider lurbira au irabiatu du, Porziunkula ordea beti dago bere oñean, erori gabe, zabalduaz bere orma lodi-gorrietatik ateratzen dan pobrezazko urriñ gozoa. Jaungoikoak gorde dezala oraingo erlijio gabeko gizonetatik, oraiñdañoko denbora luzean gorde duen bezela! Jaungoikoari nai dakiola datozela oraiñ ere erromes talde aundiak denbora aetan bezelako fede eta amorio irazekiarekiñ! Eta San Franziskoren edozeiñ Eleiza Ama Birjiña Aingeruenekoen beste bat dan ezkerro, oraingo jendeak berritu

ditzatela arren erromeri erraz oek! Zergatik, ez dezatela aztu beñere, Ama Birjiñaren Eleizetan, eta bakarrik beraren bitartekotasun errukitsua-gatik arkituko dituzte jendeak elkarren artean bizitzeko bear diran bi gauzak: mundu onetako pakea, eta betikoeran bizitza obeagoko baten esperanza.

1222garren urtean, Porziunkulako bi gertakariak igaro bitartean, S. Franziskok, animen salbazioaren zeloak beti irazekirik, egin zuen irtenaldi luze bat Italiako egutera aldera, zeña zan lurbira aetako partea, oraindik misiorik eman gabe zeukana. Erroma, Gaeta eta Napolestik jetxirik, iritxi zan Italiako aruntzko ertzera, bidagiñez bisitatzeko Aingeru Santu edo Garganoko arzuloa, San Migel Goi Aingerua bertan agertu zalako aiñ sonatua, eta gero, Adriatiko itxaskosta segiturik, itzuli zan Unbriara. Eziñ kontatu ginitzake apostolutzako ibillera onen pauso guziak, baña guziak ezpada ere, esango ditugu gertaera bikaiñ batzuek.

Erroman egiñ zuen adiskide Mateo Rubeis prinzipia, Orsiniren etxadi leñargitarretakoa. Mateo zan denbora guzietan ikusi oi diran modu-

ko gizon aetako bat, munduko aunditasun eta atsegiñtasunez inguratuak bizi arren, biotza oetatik libre zeukana. Piedadezko obretan ariaz gañera zeukan beste oitura bat are ederragoa, miserikordiazko obrak egitekoa, alatan non aren etxeko atea beti zegoen idikia beartsuentzat. Lenbizi elkar ikusi ziranetik, asi zuten trataera bat beren gustoakiñ txit ongi zetorrena, eta denborarekiñ sendotu eta geitzen joan zana. Senzilloro kontatzera goazen pasarte onek agertzen du prinzipie onek nolako estimazio eta benerezioa zion Asisko penitenzilariari: Gonbidatu zuen Santua bere maiera esanaz zer ordutan izango zan bazkaria, baña ordua igarota etxeraturik, etzegoen an San Franzisko. Agindu zuen billatu zezatela, esanaz etzala maiean eseriko Santua etorri bitartean, eta arkitzen etzutelako kezkatzen asi zan, noiz eta ikusten duen serbitzarien artean. Mateo umiltasun artzaz mugiturik, joan zizaion esanaz: «Ene anaia, banatorkizu zurekiñ jatera, nere maiean zuk jan nai izan ez dezun ezkerro». Eta prinzipieak eta Santuak lurrean umilki eserita jan zuten elkarrekiñ pobreen artean.

Santuaren adiskidetasuna zan zoriontasunezko siñalea. Franziskogatik ixuri ziran zeruko bedeinkazioak ostalariaren etxera, eta Santuak sendotu zituen guziori mugida aundia egiñ zien asmegi edo profezi batekiñ. Prinzipeak zeukan seme bat oraindik bularrekoa, eta nola baizeukan konfianza aundia Santuarekiñ, erregutu zion bedeinkatu zezala. Franziskok bada, bedeinkatu zuen Juantxo (ala zeritzan aur zorionekoari), gero besoetan arturik, musu eman eta milla palagu egiñ ziozkan eta amoriozko begirada ezarriaz, esan zuen: «Au ez da izango gure Ordenako erlijiosoak, baña izango da bere anparatzallea; ez da kontatuko fededunen artean, ezpada izango da Aita Santu, eta beraren itzalean gure erlijiosoak txit kontentuz biziko dira». Andik berrogeita bat urtera aur ura, Juan Ursinoena, izan zan lonbratua Kardenal, Franziskoarren Anparatzalle, eta 1277garren urtean altxatua izan zan San Pedroren Kataberara Nikolas IIIgarrenaren izenarekiñ. Ala kunplitu zan gure Santuaren asmegia.

Prinzipeak San Franziskogandik alde egiñ baño len sartu nai izan zuen aren familia espiritualean, eta txit onratua arkitu zan artzean San-

tuaren eskuetatik penitenziako abittua. Irugarren Ordenan aren sarrera txit sonatua izan zan, eta beraren ejemploa beste zenbat giza noblek jarraitu zuten.

Gure Santua Erromatik igaro zan Subiakora, bisitatzeko monje-biziera Europan para zuen San Benitoren ar-zuloa. An ikusi zuen arantza satsi ura, zeñean San Benitok seireun urtez lenago aren moduko beste tentazio batean itzali zuen bere griña gaitz eragillearen berotasuna. Begiraturik sasi ari, soldadu bulardetsu ark bentzutu zuen garaipeneko etzan-lekuari bezela, muñ egiñ zion errespetoarekiñ, eta gurutzearen siñalea gañean egiñ beziñ laister, larrosa ederretan biurtu zan. Oraindik ikusten dira gaur dan egunean lar loreztuak, bi santu aundi oen birtutearen sinitsgai betikotzat.

Andik juan zan Franzisko anziñako portu ospatsua dan Gaetara, nun Jaungoikoak bi millagrokiñ ontzat eman zuen aren misio eta predikazioa. Egun batean plaza aundian, itxas aurrean predikatzen ari zala, nola jendea bata bestearen gañezka zijoakion abittuan muñ egitera, Franzisko, aetatik alde egitearren sartu zan bera baka-

rrik ontzi batean. Ontzia iñork arraundu gabe urrutiratzen zijoan ubazterretik begira zeuden guziak arritzen zirala, gero gelditu zan uraren erdian Santuak predikatzen segitu zezan, eta itzaldia bukatu zuenean, ontzia berez itzuli zan ubazterrera, jendeak arri eta zur egiñik geldi geldi alde egiten zuen bitartean. Nork idukiko zuen biotza aiñ gogorra eta gaiztakerian aiñ setatsua despreziazteko kriatura zentzu gabeta-rañokoak aiñ azkar eta ezaguera dunak bezela obeditzen zuten apostoluaren dotriña? Argatik Gaetarrak jarri ziran errazki Santu mirarigillearen irakasdeetara, erregutu zioten aen artean denbora geiagoan egon zedilla, eta uri artan jarri zezala bere Ordenako etxe bat. Franziskok baietzkoa eman zien jende aen poz aundiarekiñ, eta bereala asi ziran konbentua egiten. Obran ari zirala, aldamiotik zubaje bat erorita, azpian zegoen arotza lertu zuen. Aren gorputza guzia zan zauri bat, eta lagunak eramanean bear izan zuten bereala etxera, baña suertez topatu zuten bidean San Franzisko, zeña kupitu eta besteen penan part-arturik, Jaungoikoarenganatu zan; eta agindurik eramantzalleai andak lurrean jar-

tzeko, egiñ zuen gurutzearen siñalea illdakoaren gañean, eta eskutik artuta, esan zion bere izenarekiñ: «Altxa zaite». Eta illdakoa bereala altxa zan osasun eta indar betean, eta Jaungoikoari eta San Franziskori eskerrak emanda, joan zan alegere bere lanera.

Gaetako ateetan bertan egiñ zuen beste millagro bat, aitatutakoa baño are señalatuagoa, *sagarren millagroaren* izenez ezagutzen dana; eta gertatu zan Kapuarako erromar-bidean, eta kontatzen degu Marianok izkribatua utzi zuen bezela.

Gure Santua sarturik noble baten etxean piska batean atsedetera, txit arrera ona egiñ zioten eta bai bazkaltzera gonbidatu ere. Gonbitea ontzat artu zuen, baña aurrena nai izan zuen predikatu, eta orretarako joan zan erriko plaza-  
ra. Noblea bere familiarekin joan zan aditzera, eta etxean etzuten utzi neskame gazte bat baik, eta onen kontura aur txiki bat, nagusiaren seme bakarra. Neskamea emakumeen berezko ikusmirak eramane, aurra bakarrik utzi, eta joan zan jende artera. Zeiñ gitxi pensatzen zuen zetorkion zorigaitz ikaragarria! Ostera etxeratu

zanean arkitu zuen aurrailla, erdi egosia, ur-irakiten zegoen paziaren barrunbean. Izu ikaraz guzia ori-ubeldua, eta kezka ikaragarriak sentitzen zituela arturik aurraren gorputz itxura gabea, gorde zuen kutxa batean. Pensatu baizik eztago gurasoak sentituko zuten pena jakiteratu ziranean, baña San Franziskoren begirunez, aïñ beren buruen jabe egon ziran non ez itz bat, ez zispiru eta ez señaletik txikienik etzuten eman adierazteko izan zuten zorigaitz aundia. Otorduan, nola baizekizkian gure Santuak bere alde-rako Jaungoikoak zeuzkan asmoak, jolastu zitzaïen beti oi zuen bezelako gozotasun biguñarekiñ. Bazkaria bukatzean agertu zuen sagarrak jateko zalea, eta nola etxeakoak eskusatu zitzaizkan esanaz etzituztela: «Begira, esan zien, señaleturik beatzarekiñ aur illa zegoen kutxa, idiki ezazute ori, eta sagarrak arkituko dituzute». Nobleak, piska batean dudatu zuen, baña gero Santuaren errespetoz, idiki zuen kutxa, eskuak dardara egiten ziotela. An zer ikusi zuen? bere semea piztua, osasunez, aurpegi alegerearekin eta esku bakoitzean sagar banarekiñ. Aitak artu zuen besoetan bere semea pozez zoraturik, eta

San Franziskoren oñetan belaunikaturik, eman ziozkan eskerrak Jaungoikoari eta berari. Orra nola Naingo alargunaren semea piztu zuenak pagatzen duen bere pobre biotzekoai ematen zaien ostatua.

Beste mugaldi batean Jaunaren Probidenziak agertu nai izan zuen txit bereziro nolako ernaitasunarekiñ kontu egiten dien bere serbitzariari. Utzi dezaiogun emen ere Marianori itz egiten: «Gure Aita San Franzisko, Montellan egun guzia predikatzen igarota, joan zan gaba pasatzera erri gañean dagoen basora. Gauza arrigarria Italian! lurra elurrez ezarria zegoen, eta Santuak eta bere lagunak etzeukaten arte-arbola baten adarrak beste berogarririk. Baña Jaungoikoak ala naita, adar aek serbitu ziezten estalpetzat, eta biaramon goizean andik igaro ziran guziak ikusi zuten etzegoela elur matasa bat ez adarretan eta ez erlijiosoen inguruan; Montellako Jaunak au jakiñdu zuenean, Santuari deitu eta erregutu zion, utzi zitzala an bere ikasle batzuek bertako jendearen ikasbide eta protxurako. Franzisko txit pozik artara jarri zan, millagroa gertatutako tokian bertan egiñ zuten konbentua, eta erlijioso

txikienak beren egoerarekin santutu zuten arte-  
raño lapur eta gaitzgilleen gordelekua izan  
zana».

Orrenbeste millagro eztira egiten, jendeen  
artean orrenbeste berotasun ezta pizkortzen,  
eta ezta agertzen egiaren bandera-eramalle  
bezela, gaiztoen griñak esnaatu eta gorrotoa ira-  
zeki gabe. Gure Santuak beste iñork baño obeto  
kontatu bear zuen onelako probarekiñ, eta pre-  
sentatu zizaion gitxien uste zuen aldetik. Joan  
zanean Barira, nun zegoen orduan Federiko Ilga-  
rrena, Alemaniako Enperadore eta Sizilia bietako  
errege, predikatu zuen Jaungoikoaren itza. Itz  
egिñ zuen Apostoluaren libertadearekiñ, erre-  
prendituaz gorteko eragabekeriak eta erriaren  
lasaikeriak. Aren sermoien sona iritxi zan Federi-  
koren belarrietaraño, zeña zan prinzipe gutizioso  
eta desleial bat, alabaña Inozenzio Illgarrenaren  
mendekoa nola izan baizan Eleizak beragan kon-  
fianza aundia jarri bazuen ere, desonratu zuen  
bere erreinaaldiaren bigarren erdia aragi goza-  
men itxusienakiñ eta Aita Santuari egiñ zion  
gerra bidegabearekiñ. Itxuturik bere esku-aldun-  
diarekiñ, etzuen beste amesik, Enperadore fede-

gabeen gisa, munduko nagusi bakar izatea baikik, eta nola bere plano eta asmoak ikusten zituen desegiñduak Penitenziako Ordenak eta Guelfoen aldeerdiak egiten zituzten aurrerapenakgatik, erabaki zuen galtzea gure misiogille bulardetsua, eta orain neurri gogorrak artzera benturatzen etzalako edo naiago zuelako gera zedilla kreditoa galdua begiz ikusi eziñ zuen ura, orra nolako lazoa jarri zion galtzeko asmoarekiñ. Gonbidatu zuen berekiñ jatera, eta bazkal ondoan eraman zuen gazteluko dorre batera, nun alde aurrez sar-erazi zuen isilik andre galuts bat. Guzia zegoen deabruaren artez ongi prestatua, zimendu sendoa etzeukan birtutea erremedio gabe galduko zan; baña Franziskoren garbitasuna irten zan tentazio artatik garai eta ornitua ziargi berriarekin. Ez al zuen ikusi andre gortear doakabea, zabaldu zituen lurrean dorreko sukaldean sutan zeuden illatiak, eta etzan zan gañean; andreak ura ikustean, izuturik ies egiñ zuen. Prinzipea zegoen an aldian gauza aren azkena ikusteko, eta gelan sarturik, esan zion Franziskori: «Oraiñ ezagutzen det Jaungoikoaren gizon bat zerala» eta aditu zituen Santuak eman

ziozkan konsellu eta onesanak, zeñak laisterregi aztu zituen bere buruaren eta errien kaltean. Gertaera au igaro zan dorrea, geroztik deitzen da San Franziskoren dorrea».

Oek izan ziran itz gitxitan San Franziskori pasatako gertaera bikañenak 1222garren urtean. Sei edo zazpi illabetean Italia guzian egiñ zituen ibilleratan Franziskok jarri zituen ogei bat konbentu, eta zabaldu zuen orrela bere Ordena utzi gabe denbora berean animen salbaziorako lan egiteari.

Denbora onetan bertan Europa guzian saka-banatuak zeuzkan praide misiogilleak ontzen zuten beren neke izerdiakiñ siñalatu zitzairen lurra, bilduaz anima eta jarraileen labore ugarriak. Oek ziran Bernardo Kintabal Españian, Anjel eta Alberto Pisa Inghaterran, Zesario Espirakoa Alemanian, eta frai Pazifiko Franzian. Eztaukagu emen oen lanbideak ondo atera ziralazkoaren berri eman bearrik, baña eziñ utziko degu aitatu gabe aen irabazi espiritualetako bat, bertan gure Santuak izan zuen parteagatik, eta orain Ordenaren etorkizunean eta Teolojiako estudioen aurrerapenerako beraren balio aundiagatik. Itz

egiñ nai degu Alejandro Halesen bokazioaren gañean. Au zan Parisko Ikasol edo Unibersidadeko Irakasleen artean sonatuena, eta Parisko ikasle guziak zijoazen aren erakustegira. Oraingo erakusle sinistamentu gabekoen kontrara, señalatzen zan guzien artean Ama Birjiñarenganako jaieragatik anbat nola bere jakiñduria arri-garriagatik, bada erabaki zuen ematea, al zezakeaneraño, Ama Birjiñaren izenean eskatzen zizaion guzia. Itxuraz aiñ ezereza zirudian gauz au izan zan aren bokazioa erabaki zuena. Egun batean San Franziskoren erlijioso batek berarekiñ topo egiñik, esan zion: «Irakaslea, denbora asko da mundua serbitzen zaudela, eta famarik asko artu dezu. Gure Ordenak oraindik ez dauka irakasle eta jakintsurik, erregutzen dizut, bada, Ama Birjiñaren izenean jantzi dezazula abitu basto au. Izango zera Ordenaren onra, eta anima santutuko dezu». Alejandrok, bere aginduz oroiturik, erantzun zion biotz biotzetik: «Ene anaia, zoaz pakean, laister jarraituko dizut eta egiño det zuk nai dezuna». Eta egiaz, andik egun batzuetara, munduko aunditasunetik igaro zan konbentuko umiltasunera, eta jantzi zuen

Erljioso txikieneen abittua (1222), erakutsiaz onela bere kidakoai, munduko lilluramendu eta atsegiñak desagertzen dirala beste bizitzako aunditasunaren aurrean, zeña dan Jaungoikoa amatzea, eta Beragatik sakrifikatzea. Zer sakrifizioa! Nork iritxi ditzake, lenago sentitu ezpaditu, animak sufritzen dituen samiñtasun eta bere barrengo burrukak, borondate osoarekiñ urratzen dituenean munduari itsatsirik zeukaten lazoak? Askotan odola egon oi da ixurtzen zauritik denbora luzean, eta isteko bear izaten da Jaungoikoaren eskua eta graziaren ukendua. Alejandrok ezagutu zituen pena-naigabe oek, eta aiñ gogor eta samiñak iruditu zitzaizkan aurreneko egunak, non pensatu zuen konbentutik irteeta. Pensamentu onek sosegurik ematen etzion gau batean, ikusi zuen ametsetan San Franzisko bizkarrean gurutzetzar bat zuela mendi gañ batera neke aundiarekiñ igotzen. Alejandro joan zizaion laguntzera, baña Santuak kopeta beltzarekiñ kendu zuen, esanaz: «Alde egizu, doakabea, oialezko gurutze ariña eziñ dezu, eta au eraman alko dezu!». Nobizioa ikuskera onekiñ argitu eta eskolaturik, geratu zan libre tentazio

artatik, eta iraun zuen eriotzaraño bere artutako bokazioan. San Franziskok, merezimentua estimatzen zekienak bezela, piedadearekin batean ikusten zuenean, eman zion eskubidea len bezela agirian erakusten segitzeko, zeña zan mesede bat, bere ikasle guzietan oni eta San Antonio Paduakori baizik egiñ etziena. Eta ala, Alejandro agertu zan ostera Unibersidadeko bere erakustegian, eta aiñ patu onarekiñ, non merezitu zituen Aita Santuaren alabantzak, eta kidakoak deitu zezaiotela «Irakasle bentzuteziña». Gauza jakiña da nola *Suma Teolojika* izendatzen dan bere liburuarekin para zuen Santo Tomas Irakasle ainguruzkoak bukatu bear zuen obra arrigarriaren lenbiziko arria, baña jendeen benereziorako daukan motiborik ederrena da bere ikasleak izana denbora-aldi artako gizonik eztitsuena, San Buenabentura, eta Teologorik aundiena, Santo Tomas Akinokoa.

Ordona oraindik asieran baizik etzegoen, eta kontatzen zituen izenik gloriosoenak. Berardok eman zion martirioaren koroe-argia, Antonio Paduakoak Apostolutza, eta Alejandro Haleskoak Teolojiako jakinduriazkoa.

# **Amalugarren Bereziera**

*San Franziskoren*

*Erreglaren sortze,*

*berri labor eta Espiritua.*

(1223)

San Franziskok aspaldian zerabilen buruan aurreneko Erregla moldeberritzeko asmoa, arako Inozentio IIIgarrenak itzez ontzat eman zuena; Jesu Kristo gure Jaunaren agerkera bat izan zan artara erazi ziona. Anziñako kondairak esaten ezpadigute ere ez nun eta ez noiz gertatu zan agerkera au, gertaerak bata besteakiñ daukaten itxaspenak eta Santuaren jaiarak sinistrazten digute gertatu zala Asisko Induljenzia aundia adierazi zanetikan laister (1223) eta bere eliza estimatu Ama Birjiña Aingeruenekoan.

Orazioan zegoen gau batean, sentitu zan zeruko argiz inguratua. Iruditu zizaion lurra ogi apurrez estalia zegoela, eta berak errespetoz biltzen zituela emateko goseak zeuden bere Erlijio-soai, eta ogi apurrak aiñ txikiak zirala non bildur zan, ez ote zitzaizkan eroriko beatz tarteetatik.

Onetan bere konsuelorako zeruko boz batek esan zion: «Franzisko, apur oekiñ guziakin ostia bat egiñ eta emaezu jan nai duten guziai». Ala egiñ zuen, eta osti artatik desprezioz edo debozio gabe jaten zuten guziak iruditu zitzaizkan legendarrez beteak zeudela. Goizean kontatu zien fraideai izan zuen amets edo ikuskera, espantuz aekiñ batean igerri eziñ ziolako zer adierazi nai zuen; baña biaramonean zeruko itz ots bera sentitu zuen bere animan esaten ziola: «Franzisko, aurreko arratsean ikusi ziñituen ogi apurrak adierazten dute Ebanjelioko itzak, ostiak Erregla, eta legenak gaiztakeria». Santuak ezagutu zuen aren asmoai zeruak ematen zien erantzuerara, eta frai Leon eta Bonizio berekin arturik joan zan Monte-Kolonboko koba-zulo batera, obeto prestatzeagatik barau eta orazioarekiñ bere Erregla berriro izkribatzeko. Ala egiñ zuen Espiritu Santuak goiargiturik, eta berrogei egunera erakutsi zion orduan guzien Buru ordezeko egiten zuen frai Eliasi, berak ikasi eta kunplierazo zezan; baña aiñ gogorra iruditu zitzaion, non Santuari itzuli bearrean, gorde zuen, Santuari esanaz, usteka-

bean galdu egiñ zizaiola, pensatuaz beregan orrela etzala egundaño gordeko.

San Franzisko, ezerere erantzun gabe, joan zan ostera koba zulora, eta izkribatu zuen Erregla bigarren aldian. Onetan ari zala Jesu Kristok berak adierazi zion nola frai Elias eta onen aldeko probinzialak, aren kontra elkar arturik, zijoazkiozkan koba zulo aldera eskatzera bear bearrekoak iruditzen zizaizten Erregla-gozamen batzuek. San Franziskok bidera irtenik, esan zien boz kupigarri batekiñ: «Zertara zatozte onera, zu, Elias eta zure lagun probinzialak?». «Jakiñdu dute, erantzun zion Eliasek begiak lurreratuz, zuk eman nai diezula Erregla bat gizonen indarrez gaindikakoa, eta enkargatu naute erregutzeko zuri zerbait biguñdu dezazula, alabaña ez dute ontzat artu nai, gogorregia baldiñ bada». Itz oek aditzean Santua bere barrunbean ikaratu zan, eta begiak zeruronz altxatuta, esan zuen: «Jauna, ez nizun nik esan etzidatela sinistuko? Nik, eta benetan pobreza maite degun guziok gordeko degu leialki Erregla au; gañerakoak gogo dutena egiñgo dute, bada ez det nik iñor orretarabeartu nai». Au esatean, Jaungoikoaren

Semea agertu zan bertan odeiargi batean, eta esan zituen itz zorrotz oek: «Gizontxo, zergatik nastutzen zera, au zure obra balitz bezela? Ni naiz Erregla onen egillea, eta zuri dagokizuna da zure erlijiosoai ezaguerazotzea. Badakit gizonaren argaltasunak zenbateraño dezakean, eta zer neurritan eustea nai detan. Nai det bada Erregla au gorde dedilla itzetik itzera, itzetik itzera, itzetik itzera, azalduera gabe, azalduera gabe, azalduera gabe. Gorde nai ez dutenak atera ditezela Ordenatik; nik ekarriko ditut oen ordañak, eta ala bear bada, sortueraziko ditut arri berpere oetatik».

Ikuskera desagertu zan. Elias eta bere lagunak ikaratuak zeuden; eta Franziskok belauniko zegoen tokitik zuzendu ziezten itz oek: «Ezagutzen dezute zuen zentzu aragikoiarekiñ Jaungoikoaren borondateari gogor egitea baizik ez dezutela egiten? Aditu dezute odeitik irten dan itz otsa?». Eta lotsaz beterik alde egiñ zuten itz bat erantzun gabe.

Menditik jeistean gure doatsuak zeukan arpegia argierrañutua beste Moisesek bezela, eta sarturik Ama Birjiña Aingerukoenean, para zien

fraideai Erregla berria: «Eztet ipini emen ezer nere burutik, esan zien, nik eztet egiñ, Espiritu Santuak gogoraerazi didana izkribatu baizik». Guziok batetan artu zuten, eta Honorio IIIgarrenak Santuaren eskutik arturik ontzat eman zuen solemnidade guziarekin 1223ko azaroaren 29an Erroman emandako Buldan. Jesu Kristo gure Jau-nak aitortu zion Santa Brijidari Erregla aren jato-rriz zerukoa: «Ez da izandu gizonaren azkartasu-nak antolatua, esan zion, Jaungoikoak berak bai-zik, eta Franziskok eraman die bere anaiai letra bat ere erantsi gabe». «Berekiñ darama, dio Nikolas IIIgarrenak, Trinitate guziz Santu eta adoragarriaren sinitsgai ukateziña. Aita zerukoa-gandik jetxi eta erakutsia izan da apostoloai bere Semearen ejemplo eta dotriñaren bidez, eta Espi-ritu Santuak gogaerazi dio Franzisko doatsuari».

Sinitsgai aiñ itzaltsuetatik agertzen da San Franziskoren Erregla dala azkartasunezko seña-le bat baño geiago, dala zeruko goiargiaren frutua. Santuak berritu zuen aitormen au bere testa-mentuan, eta bizi izan zan azkeneko iru urteetan baliatu zan beiñ baño geiagoetan pensamentu onezaz alaituerazitzeko bere ikasleak eramatera

amorioz beren gogoz artu zituzten kateak. «Ene seme maiteak, esan oi zien, Jaungoiko gure Jaunak mesede berezi bat egiñ digu Erregla au ematean: Bera da bizitzako liburua, Salbaziorako esperanza, gloriako prenda, Ebanjelioaren mamia, Kalbarioko bidea, santutasunezko bizitza, Paraisoko giltza eta betiko elkartasuneko lazoa. Erabili ezazute beti gogoan, pensatu maiz beragan, guzian zintzo gordetzeko, eta ez utzi beñere, ez eta eriotzako orduan ere».

Alakoa da San Franziskoren Erreglaren bitorantza eta sortzea.

Egi dirudi urte onetan bertan eta ogi apurren ikuskeratik laister iritxi zuela Aita Santuak seinalatu zeiola kardenal bat Ordenako ondasun espiritualen anparatzalletzat. Ikusi bedi nolako mugaldi eta darraikoietan.

Juan de San Pablo Kardenal argirotarra illzanean, kristau erdizkakoak, denbora aldi guzietan arkitu oi diran bezela, fundatzalle santuaren ausardiaz izutzen ziranak, engañoen bidez ekarri zituzten beren aldera zenbat persona, Aita Santuaren Gortean agintea zeukatenak. Santuak jakindu zituenean ixilikako treta, beraren jenio

Ilano eta leialaren aĩn kontrakoak, penatu zan txit, eta atsedean eziñik, joan zan bere Jaun Soberanoarengana bere espa amorezkoak agertzera, eta Jaun onek bereala konsolatu zuen, erakutsiaz ikuskera batean kaltearen kausa eta erremedioa. Ikusi zuen ametsetan ollo beltz bat usoaren anakak zituen, egiñalean ari zan egapean bere txito ugariak gordetzen miruaren erasoetatik, baña eziñ gorde zituen guziak, eta aetatik askok bere inguruan ibiliaz, are peligro aundiagoan jartzan ziran, baña ona non olloaren gañean jartzan dan beste egazti aundiago bat, eta onek bere ego zabalakin ollo-txitoak anparatu zituen. Esnatu zanean, erregutu zion Jaunari senzilloro adierazi zezaiola amets ark zer esan nai zuen, eta jakiñ zuen uso anakakiko olloa bera zala, txitoak erlijiosoak, eta ega zabalekiko egazia Aita Santuari eskatu bear zion Kardenal anparatzallea. Bereala fraideak deitu eta kontatu zien guzia, bukatuaz itz gogoangarri oekiñ: «Erromako Eleiza da Eleiza guzien Ama eta Ordena erlijioso guzien Buruzai; berari gomendatu bear diozkat nere erlijiosoak, bere aginte eta eskubidearekiñ gaitz egiñ nai diotenak kastigatu, eta aseguratu

ditzaien Jainkoaren umeai libertade oso osoa. Aren anparupean dan denean ez da iñor benturatu gaitzik egitera, eta gaiztakeriaren beargilleak eziñ desegiñduko dute kastigu gabe Jaunaren maastia. Erromako Eleizak agertuko du zelo aundia gure pobrezari kontu egiten, eta ez du utziko arrokeriaren lañoak illuntzen umiltasuneko birtutea. Jakingo du kastigatzen gogorki sesio eta erriertak jartzen dabiltzanak, eta egingo du ez ditezela urratu beñere gu bateratzen gaituen pake eta karidadezko lazoak. Berak begiratzen diola, Erregla gordeko da zuzen, eta gure erlijiozko jarduerak banatuko dute nora nai bizitzako usai gozoa. Eleiz onen umeak izan ditezela bada esker onekoak beren Amagandik artzen dituzten mesede estimagarriakgatik, muñegin dezaiotela oñetan debozio egiazkoarekin eta izan dezaiotela beti jaiera beñere autsiko ez diotena.

Andik denbora gitxira Franzisko joan zan Erromara. An arkitu zuen Ugolino Kardenala, Ostiako Obispoa, Florenziatik Aita Santuaren mandatua kunplituta etorria, oni agertu zion nola zeukan asmoa eskatzeko Aita Santuari autu zezala bera Erlijioso txikienen Ordenaren anpa-

ratzalle. Kardenalak ontzat artu zuen Franziskoren asmoa, eta erregutu zion predikatu zezala Aita Santuaren eta Kolejio Sagraduaren aurrean, aren borondatea irabazteko. Franzisko artara jarri zan, bere umiltasunaren damuz bederik. Antolatu zuen bada sermoi eder bat igaroaz ordu asko buruz ikasten, baña ez al zan jarri Aita Santuaren eta kardenalen aurrean, non guzia aztu zizaion eta itz bat bakarra ere eziñ esan izan zuen. Aitortu zuen garbiro zer gertatzen zizaion, eta gero Espiritu Santuaren laguntza eskatuta asi zan predikatzen oitua zegoen bezela, au da, berezko senzilltasunarekiñ; baña alako grazi eta indarrarekiñ, non aditzalle jakintsu aek iduki zituen osotoro arriturik. «Orduan ezagutu zuten itz egiten zuena etzala Franzisko, ezpada Franziskoren aotik Espiritu Santua».

Honorio IIlgarrenari gustatu zitzaion Santuaren eskaera, eta Ostiako Obispoa lonbratu zuen Erljioso txikienen Ordenaren Kardenal anparatzalle.

Gera gaitezen piska batean agure aren itxura errespetagarri ari begira. Ugolino Kardenala zan Erromako Gortean ziran giza nobletatik seña-

tuenetakoa. Segni kondeen etxadi noblearen jatorrikoa, Inozentio IIIgarrenaren iloba, entendentu argi eta biotz aundiagokoa, irakasle, letradu eta predikaria, zuzentasun eta egiaren defentsalle zorrotza zan bezela, zan ere errukitsua pobre eta desanparatuakin. Estimazio eta kariño aundia zien Erlijioso txikienai, joaten zitzairen konbentuetara bisitatzera, eta aen penitenziako bizitza egitera. «Zenbait bider ikusi zan Kardenal siñaleak utzi, fraideen abitua jantzi, oñutsik jarri, eta era onetan segitzen fraideen lan espiritualak, eta Jaungoikoaren gañean jolas-tutzen! Franziskok bere aldetik agertzen zion naitasunik biotzekoena eta Ordenaren munduko gauzen gobernuia uzten zuen bere eskuetan».

Agerturik Jaungoikoak Franziskori agure beneragarri ura iritxiko zala Aita Santu izatera, gero eta begirune eta errespeto geiago ekartzen zion. Bialtzen ziozkan eskutitz guzien asieran ipini oi zion: «Nere Aita eta Jaun Ugolino beneragarri mundu guziko Obispo eta kristau guzien Aita izango danari». Egun batian jakiñik Kardenala bisitatzera zijoakiola, ezkutatu zan basoaren ondoan, Obispoak ordea billatu zuen, eta

galdeturik biguñki zergatik iges egiñ zuen: «Nere Jaun eta Aita, erantzun zion Franzisko umillak, jakindu nuen ezkerro berorren Aunditasunak onratu nai ninduela nigana etorriaz, aiñ despreziagarria ikusten nuen nere burua, non iruditu zitzadan alako onrarik iñola ere merezi ez nuela».

Eziñ utzi genezake para gabe emen *Iru lagun-en Irakorgaian* ikusten degun beste pasarte bat, aurrekoak baño obeto adierazten digulako nolako naitasun biotzekoan bizitu ziran bi persona oek, eta agertzen ere duelako bataren senzilltasuna eta bestearen ontasuna. Ugolino Kardenalak konbidatu zuen beiñ batean bazkaltzera, baño aren etxera joan baño len ibili zan eskean atez ate, gordeaz ematen ziozkaten ogi beltz puska gogorak, gero Kardenalaren etxera joan zanean eta maiean eseritakoan, partitu ziezten konbidatuai, au da, Obispo, zaldun eta apaizai. Bazkal ondoan Kardenalak deitu zion beste gela batera Santuari, eta laztandurik, espa amoroso au esan zion: «Zergatik lotsa erazitzen nazu orrela eskean ibiliz, dakizularik nere etxean dagoen guzia zurea eta zure anaiena dala?».

«Etzaitut lotsaerazi, Jauna, erantzun zion Franziskok farra irri gozoarekiñ, kontrara, onra aundi bat egin dizut konbidatuaz zure maiera Jesu Kristo, pobreza gogozkoaren maitatzalle egiazkoa. Orregatik naiago det karidadearen doaiakiñ estalitako mai pobre batean eseri, ezen ez jaki asko eta ondo maneatutako mai aberatsetan». «Zuaz ene Seme, Kardenalak esan zion, eta egizu ondo deritzatzuna; bada ikusten det Jauna zurekiñ dagoela». Kardenal beneragarria erretratatzeko ekarri ditugun pasarte oek asko dira ezagutzeko zeñ diña zan eman zizaion karguarena.

Ordua degu onezkero ikasteko lenbiziko Ordenaren Erregla, Aita Santuak ainbesteraño alabatu dutena, eta Santa Klararena eta Irugarren Ordenakoa jartzeko moldetzat serbitu zuena. Ikusiko degu beraren egitekoa, obratzeko baliatzen dan bide edo neurriak, eta zer toki señalatzen dien Erlijioso txikienai Jaungoikoaren soldaduzkan.

Gauza berri eta atrebitua izan zan Ordena onen jartzea, egiaz berak bete zuen Ordena Erlijiosoetan ikusten zan utsunea. San Benitoren

semeen egiteko berezia zan lurrak landu eta estudioak ikastea; San Agustiñen eta San Norbertorenena elizkizunak ponpa aundiarekiñ egitea eta Jaungoikoaren alabantzak kantatzea; eta San Brunorenena berriz, beti meditazioan egotea. Arterañoako erlijiosoak etziran egundaño enpleatu predikazio bakarrean, eta utsune au izan zan San Franziskok bete zuena, eta bai Santo Domingok ere, alabaña aren Ordena guziaz gañ zan Predikarien Ordena, Ordena bat zeñean gure Salbatzalleari eta bere ikasleai jarraituaz biltzen ziran batean lanezko bizitza eta meditaziozkoa. Zan soldadu tropa berezi bat, Obispoak edo Aita Santuak señalatzen zion tokirik periltsuenetara joateko noiz nai prest zegoen. Jaungoikoak berak agertu zuen egiteko berezi au Santa Klararen eta Silbestre doatsuaren bitartez. Erregla, bada, etzuen izan bear eta egiaz ez da, egiteko au errazago iristeko laguntza bat baizik.

Erregla dago partitua amabi berezieratan, eta ona beraren mamia: «Erlijioso txikienen bizi-tzako Erregla dago Jesu Kristo gure Jaunaren Ebanjelioa gordetzean, obedienzian bizzlean

batere ondasunik gabe eta garbitasunean. Frai Franziskok agintzen dio obediencia eta mendetasuna gure Aita Santu Honorio Illgarrenari, eta legez eta bidez beraren ondorengo egiazko diranai eta Erromako Eleizari. Beste erlijiosoak beartuak daude obeditzera Frai Franziskori eta bere ondorengoai». Bigarren berezierak itz egiten du nobizioak artzeko moduaren gañean. Probinzialak bakarrik dauka eskubidea artzeko bere probinzian fede katolikoaren eta Eleizako Sakramentuen gañean kontuz examiñatu ondoren, sartu gabetanik munduko eginkizunen gañean Erljioan sartu nai dutenak, sarrera baño len saldu bear dituzte beren ondasunak, eta oen balioa, al badute, partitu beartsuen artean. Probaketako denbora da urte betekoa. Habitua da oial merke eta bastoarekin egiñdako tunika lasai bat, gure Salbatzallearena eta Apostoluena oroi-tuarazten diguna, gerrian soka batekin lotua eta oñetakotzat zola uts edo sandaliak.

Ordenak dauzka bi modutako erlijiosoak, apaizak eta legoak. San Franziskok txit egoki markatu zituen batzuen eta besteen eginbideak. Lenbizikoai gomendatu ziezten animako lanak

eta batezere predikazioa; eta bigarrengoai konbentuko esku-lanak. Apaizak errezatzen dute Eleiz-errezoa Erromako Eleiz Ordenan dagoen eran; eta legoak ordañez errezatzen dituzte *Aita gure* jakiñ batzuek. Batzuek eta besteak eraman bear dute bizimodu berpera, gorde barau berak, billatu enpeñu berarekiñ orazio eta deboziozko espiritua, zeñetara guzia zuzendu bear duten; eman onerako bidea beren anaiai eta munduko jendeai, beren modestia, mansotasun eta umiltasunarekiñ, eta azkenik alde egiñ emakumeakiko tratamendu suspitxazkoetatik. Santuak Ordenako apaizai enkargatzen die aen predikazioa zuzendu dedilla bakar bakarrik jendeen konbersioa iristera, birtute eta bizio, kastigu eta sariengañean senzilloro erakustera. Gañera Jaungoikoren dei bereziarekiñ sentitzen diranai, ematen die baimena moruai eta beste fede gabeai predikatzer joateko.

Ordenaren ezkiñ-arria, erlijiozko obra onen iltzarbea, da Ebanjelioko pobreza, ez bakarrik erlijioso bakoitzak beste Ordenatan bezela bere ondasunak utziko dituelako, baita ere Ordenak berak munduko gauza guzien errenunzia egingo

duelako. Au da Erreglaren puntu lenena, eta fundatzalle Santuak maiz aitatzen du, aren intenzioaren gañean iñork dudarik izan ez dezan. Baña nondik aterako da orrenbeste erlijioso mantentzeko bear dana? San Franziskok kontuan dauka au, eta Probidenziak egaztai jana eratzen badie ere, billatzetik libratzen ez dituen bezela, ala agintzen die bere semeai bildu dezatela limosnan, bizitzeko bear dutena: «Eragozten diet osoro nere erlijiosoai dirua berak edo bestezaz artzea. Ez dute berenik ezer ere iduki bear, ez etxerik, ez lurrik eta ez beste gauzarik, begiratu bear die beren buruai mundu onetan arrotz batzuek bezela, serbitu Jaungoikoa pobrezan eta umiltasunean, joan konfianzarekin limosna eske, orrezaz lotsatu gabe, Jaungoikoa gugatik pobre egin zalako. Au da nere anaia maiteak, pobrearen bikaiñtasuna, onek egiñ zaituzte zeruetako erreinuaren jabegai, eta lurreko gauzak utzierazi badizkitzute, altxa zaituzte birtutean. Izan bedi bera zuen seni-partea, zeruko bizilekura garamazkian ezkerro. Egon zaitzte beti berarekiñ itsatsirik, nere anaia maiteak, eta Jesu Kristoren izenean erregutzen dizutet etzaitzela izan

beñere ezereren jabe». Eta bereala esan zituen bere biotza agertzen duten beste itz gozo oek: «Erlijiosoak edozeiñ tokitan aurki ditezela, bata besteari lagundu dezaiotela, beren premiaz kezkatu gabe, alabaña ama batek gorputzaren aldetik bere semea maite eta mantentzen badu, amorio geiago agertuko du erlijioso batek espirituairen aldetik bere anaia mantentzeko. Iñor gaizkitzen danean, kontu egingo diote ari berai kontu egitea naiko lutekean eran».

Ordenak dauka kardenal bat anparatzalletzat, aren ondasun espiritualai begiratzeko kontua daukana.

Erlijioso txikienen familia guziz aundiaren gobernua dago antolatua Eleizakoa bere agintemalla banaatan dagoenaren moldera. Konbentu bakoitzaren burutzat dago Guardian bat Probinzialak bere konseilluarekin lonbratua, eta probinzia bakoitza gobernatzen du Probinzialak ia Obispoak anbateko eskubidearekiñ. Konbentu eta Probinziak daude Erroman bizitzen dan Buruzai aundi edo Jeneralaren mendean. Karguen señalementua egiten da iru urtetik iru urtera, edo lenago, Jeneralak ala agintzen badu. Eta Eleiza-

rekin osoro bat egiteko, Jenerala eta Ordena guzia daude Aita Santuaren obediencian; eta ala, erlijiozko gobernu onetako azkeneko erastuna itsasten da aginte guziaren sustrai eta asiera dan Jaungoiko berarekiñ. Zergatik Aita Santuaren mendetasun aldeeneko au eta ez Obispoena? Lege emalleak Erreglaren bukaeran ematen du onen arrazoi indartsua: «Beti Eleiza onen beraren agintera menderaturik, beraren aurrean belaunikatu eta fede katolikoan berak indarturik gorde dezagun pobrezia, umiltasuna eta Jesu Kristoren Ebanjelioa, gordeko degula juramentuarekin agindu degun bezela».

Oek dira San Franziskoren Erreglaren aginte bikañenak. Bere izaera latz eta penitenzilariagatik, ezagun da, dala naiz onean eta naiz gaiztoan jendeak añ errutsuak ziran munduaren Denboraldi erdia izendatzen dan denborakoa, bere aunditasun eta senziltasunagatik zerutik sortua, bada gizonaren entendimentua ez da gai alako gauzak somatzeko. Gure izaera illduratzeko agintzean, indartzen du graziaren egikera, eta laguntzen dio animari altxatzen Jaungoikoarekiñ bat egiteko mallarik goieneneraño. «Zintzo gor-

detzen duena, Santua da», dio San Bizente Ferrerrek. Izanik, dan bezela, Ebanjelioaren mamia, berritu bear zituen aurreneko kristauen oiturak konbentuen itzalpean; eta erakarri jendeak fedearen obretara erlijiosoen ejemplo onen bidez. Birtute aundiak alabaña daukate limurkari berezia, eta jendeen gloria dago berari gogor ez egitean.

Erregla au jakinduria aundikoa bada ere, badauka beste gauza bat are miragarriagoa, eta da bizierazten duen espiritua: «Ordena bakoitzak dauka bere espiritu berezia, dio oraingo izkribatzalle batek, bada ala ez izatera, legerik onenak idukita ere, ez litzake biziko, laister izango litzake gorputz edo tallu bat. Legeak bizierazten dituen, oiturai eusten diena, lanbideak eta Ordenak indartzen dituen espiritua da. Erlijiozko Ordenatan spiritu au aiñ indartsua da, non iraunerazten dien eunki askoretan, aulak diruditelatela eta iñungo indarrak barrengo naspillen eta kanpoko etsaien kontra eskudatzen ezpaditu ere, eta ainbesteraño itsasten da beretako bakoitzarekin, non beren arpegietaraño agertzen dan. Espiritu au ez da bat bera Ordena

guzietan, bada guziak gauza batera zuzentzen badira ere, nola dan animen obedasuna, bakoitza dijoa bere bidetik». Batak dauka otoitza, besteak obrak, onek gorputzeko illdura, ark karidadeko obretan aritzea. Beragatik San Franzisko-ren Ordenaren ezagungarri berezia, beraren izaera bidea, Jaungoikoaren martizti guziz aundian leku apartekoa seinalatzen dion gauza, dudarik gabe, da, pobrezako espiritua.

Esango degu orregatik San Franziskok des-kuidatu zituela Erlijiozko bizitzaren beste birtute bear bearrekoak, batez ere obediencia? Aren esan eta egiñ guziak erakusten digute kontrara. Etzeukan aztua obediencia dala Erlijiozko bizitzaren zimendua, au gabe guzia dala naspilla eta elkar eziñ aditua, argatik eskatzen zuen zorrotz izan zedilla azkarra edo berberealakoa, eta ara nolako irudiaz baliatzen zan erlijioso on bat erretratatzeko: «Gorputz ill bat artu eta para ezazu nun nai, alda ezazu beste toki batera edo utzi bertan, ez du kejarik txikiena emango. Para ezazute errege-aulkian, eta aren begirada izango da lenago beziñ umilla, jantzi zaiozute suteozko mantua, eta ez da moretuago geratuko. Ona

emen Erljioso obedillearen irudia; ez du galdezen zergatik aldatu duten toki batetik bestera, konbentu batetik bestera. Goiendera igotzen bada, gelditzen da len beziñ umill, eta zenbait onra geiago ematen zaizkan, anbat eta gitxiago merezi dituela ezagutzen du». Nai dezute beste irudi bat? ziozan: «Begira nola itxua daraman bide on eta txarretatik giaritzat artu duen txakur leialak. Obeditu itxu itxuan, marmarretan egon gabe, agintzen zatzuten gauza erraza edo nekeza dan begiratu gabe, ezpada agintzen duen Jaungoikoari, aren lekuan dagoen agintariari, eta obedienzi eta mendetasunean dagoen merezi-mentuari». Obedienziaren kontrako utsegiterik txikienak izutzen zuen, murmuraziorik eziñ eraman zuen, eta kastigatzen zituen gogorki agintearen kontrako altxatzeak. Ona nola kastigatu zuen beiñ fraide desobedille bat. Abitua kenduta, agindu zuen zuloan sartuta bizirik lurpetu zezatela. Gerriraño lurrez estali zutenean Santuak galdetu zion: «Anaia, illa zaude?». «Bai, Jauna, fraideak erantzun zion. Damutzen naiz nere utsegiteaz, eta ezagutzen det merezi dedala kastigu au». «Beraz munduarentzat eta zuretzat

menetan illa bazaude, erlijioso on batek egon bear duen bezela, altxa zaitez eta atoz, esan zion San Franziskok. Baña gaurdandik obeditu bear dezu kiñurik txikienera, eta zure nagusien borondateari ez diozu illdakoak baño kontra geiago egiñgo, bada nik jarrailetzat nai ditut illak, ez biziak». Beti eskatzen zuen etxe edo biziera espiritualaren zimendutzat norbere buruaren aztutzea, borondatearen menderatzea, gizon zarraren ezereztutzea.

Obedienziak erlijioso egiten badu ere, Franziskok nai izan zuen pobrezia izan zedilla erlijioso txikienen siñale berezia. Pobrezia zan bokazioak ezagutzeko serbitzen zana menastarria bezela. Onen prueban ona gertakari batzuek.

Ordenaren aurreneko denboretan (1212) joan zan galai Milantar bat txit ondo jantzi eta ornitua beste jaun batzuekiñ Porziunkulako konbentura eta eskatu zuen egin zezaiotela Asisko penitenzilarien artean artzeko mesedea. Fraide batek indartu zuen aren eskaera. Franziskok, mundu-arrokeriazko aiñ siñale aundiak ikustean galdetu zuen: «Zeiñ dira aundizki oriek, eta zer nai didate?». «Ene Aita, erlijiosoak erantzun

zion; onek dira datozenak laguntzera Ordenan sartu nai duen milantar galai txit aberats eta asko jakiñ bati». «Ez deritzat balio duela guretzat, Santuak erantzun zion, buruari eraiñaz; zergatik pobrezako bizitzara sartzea eskatzen duenak alako aundikeria dakarrenean, siñale da oraindik ez daukala biotza illa munduarentzat, eta ez dituela osoro utzi beraren banidadeak. Alaz guziaz ere orren gañean zer egiñ bear dan tratatuko det nere anaiakiñ». Bilduerazi zituen fraideak, eta guzien iritzia izan zan etzala konbeni ura artzea. Milantarrak au jakin zuenean negarrari eman zion penaz, orduan Santuak artzaz kupiturik esan zien lagunai: «Nai dezute koziñari ar dezagun, berak nai badu?». Fraideak eta sartu nai zuenak ontzat artu zuten galdeera. San Franziskok laztandu zuen aiñ umill ikustean, eta abitua emanik bialdu zuen Erromara San Blas-ko ospitalera, nun laister nagusitza eman zioten bere birtute aundiakgatik.

Andik zazpi urtera Ankonako probinziako gizon eldu batek agertu zion Erlijioso txikienen Ordenan Jaungoikoari osotoro emateko zeukan deseoa. «Ene seme, esan zion Santuak, Jesu

Kristoren pobreetakoa izan nai badezu, zure ondasunak saldu, eta balioa beartsuai emaeizu». Gizonak saldu zituen ondasunak, eta oen balioa limosnetan eman bearrean partitu zuen bere aideen artean, eta geroko egun batean joan zan ostera San Franziskorengana. Santuak aienatu zuen, arpegi zorrotzarekiñ esanaz: «Anai Eulia (ala deitu oi zien ezertarako gauza etziranai) jarrai zaiozu zere bideari. Etzera irten zere etxetik eta ez zere familiatik, zure gauzak aideai utzi dieztezu, ziskatuaz orrela premian daudenai. Beragatik ez dezu merezi sartzea Jesu Kristoren pobreen lagun taldean. Aragitik asi zera, eta nola zimendu ori baidan aiñ aula, obra guzia lurreratuko da». Santua etzan engañatu. Gizon ura itzuli zan bere familiara, bereganatu zituen berriz bere ondasunak, eta txit laister kendu zituen burutik santututzeko zeuzkan asmoak.

Fundatzalle santua aprobetxatzen zan mugaldi guziaz berritzeko bere erlijiosoetan ondasunen desprezioa, San Buenabenturan irakortzen degun pasarte onetatik ikusten dan bezela: 1222an Napolesko erreinuan misioan zebillela, Bariko uritik atera zan egun batean

ikusien zuek bide ertzean saku bat urre eta zillarrrezko monedaz betea zirudiena. Bideko lagun frai Leonek eskatu zion baimena sakua artuta an zegoen guzia pobreen artean partitzeko; santuak ordea etzion eman, eta bazijoan soseguz bere bidean. Alaz guziaz ere noizean beñ burua itzulita ziarka bederik begiratzen zion sakuari, eta berriz eta berriz erregutu zion eman zeiola sakua jasotzeko baimena. Azkenean eman zion, eta frai Leon bazijoan alegere sakuaganon, baña ez al zan makurtu jasotzeko non bertatik irten zan iran-suge izugarri bat, sakuarekin batean desagertu zana. Frai Leon geratu zan izu baño lotsa geiagorekiñ deabruaren jostallutzat serbitu zuelako, eta ala ikustean, Santuak gozoro esan zion: «Jaungoikoaren arditxo maitea, jakizu: erlijiosoentzat dirua da arrastakako piztia, deabrua».

San Franziskok nai zuen bere etxeetako apaiñdurarik ederrena izan zedilla pobreza. Eleizak eta zeldak, jana eta jantzia, guziak distiatu bear zuen birtute onekiñ, erlijioso bakoitza gure Salbatzallearen pobrezaren ispillu bizia izan zediñ. Zergatik bizitza espiritualeko maixu aditu

onek zionez, otoitz-pobrezak dira animak dauzkatzian egoak zero goienetara igotzeko. Pobrezak austen ditu lazoak eta desegiñ eragozpenak, otoitzak asi ta bukatzen du Jaungoikoarekiñ amoriozko batasuna.

Animarentzat gauzarik gogorrena eta geien geiena kostatzen zaiona da animaren ondasunak utzi bearra. Franziskok au ere agindu zuen. Egun batean lego gazte batek eskatu ziozkan Dabiden salmoak, eta Santuak itzik erantzun gabe, autsa artu ta burua arekiñ legoari igortzirik, despatxatu zuen, aditzera emanaz lezio arekiñ Erlijioso txiki egiazkoak utzi bear duela alde batera bere zentzua, berezko argi eta doaiak eta perfezioko bidean aurreratzea eragozten duen guzia.

Franziskok moduren batean, geiago estimatzen zuen pobreza piedadea baño. 1220ko urtean Pedro Katanio, orduan guzien buru ordezkoko zanak, ikustean Ama Birjiña Aingerueneen konbentua aiñ miseria aundian non etzeukaten zerekiñ ostatua eman kanpoko erlijiosoai, pensatu zuen aprotxatzea nobizioak Ordenan sartzean zeramazkiten diru eta erropak, baño etzan erabaki egitera Santuaren iritzia jakiñ gabe: «Ene

Seme, Santuak esan zion, Jaungoikoak ez dezala nai egiñ dezagun miseriak obra bat Erregla ausieraziko diguna!». «Orduan, ene Aita, nola emango diegu jaten gure ostalariai?». «Eziñbesteko premian arkituko bagiñake, naigoko zinduzket ikusi Mariaren aldarea bere aberastasun eta apaiñdurietatik soiltzen ezen ez ausi pobrezako botoa gauzarik txikienean. Eta zaude seguru Ama Birjiña bera onratuagotzat idukiko litzakeala ikustean Ebanjelioko konselluak gordetzen ditugula bere aldarea gala eta joiarik ederrenakiñ apaiñduko bagenduke baño».

Ez gaitezen bada arritu ikusten badegu zeñ jaiera aundia zion San Franziskok pobrezaren birtuteari. Onetan etzuen egiten eratu baizik Jaungoikoaren borondatearekiñ, zeña argiro agertu zizaion bere bizitzaren azken aldean izan zuen ikuskera batean, eta zeña kontatuko degun San Buenabenturan arkitzen dan bezela: Bere erlijioso batzuekiñ Sienara zijoan batean billatu zituen Konpegliako ibarrean iru emakume elkarren añ antz aundikoak, non edozeñek usteko zuen aizpak zirala. Edade igoala, gorputz igoala, aire igoala, arpegi igoala eta senzilloro igoal jan-

tziak. Aurreratu zitzaizkan, eta grazi aundiarekiñ agur egiñaz esan zioten: «Dama Pobreza ongi etorria izan dedilla». Eta au esanda, desagertu ziran. Franziskoren lagunak, agerkera onen testiguak (Jaungoikoak ala nai izan zuen duda gabe Ordena guziari konbeni zitzaiolako), etzuten dudarik gauza misteriozkoren bat adierazi naiko zuela. Eta egiaz, adierazten zuten erlijiozko bizitzaren izaera eta edertasuna egiten duten gauzak, pobreza, garbitasuna eta obediencia, distiatzen zutela fundatzalle santuan argi berdiñarekiñ, baña ala ere, pobreza zala beraren gallaldi berezia eta koroaren lorerik bikañena.

Pobrezako espiritua eta pobreza osokoa, eta beste birtute guzien artean oni emandako estimazioa da dudarik gabe San Franziskoren izaeraren marka señalatua, bere eginkizun guzien anima eta begitartea, eta aiñ ongi sarrerazo zuen bere Ordenan, non seireun urte joan badira ere, gaur dan egunean marka ori da Erlijioso txikienen ezangugarri berezia. Pobrezako espirtu orren frutu miragarrietako bat da barrengo pake eta alako poz-kontentu gozo bat San Franziskoren seme egiazkoren arpegian azaltzen dana,

eta nondik datorren kristauak dakiana. Penitentzilaria oek, Kalbarioko jarraile debozio irazekizko oek gogo onez daramate obedienci eta nekezko, sufrimentu eta umillaziozko gurutzea, zergatik oentzat, fundatzalle santuarentzat bezela, amorioak arindu die pixua.

Benturaz borondatezko pobrezaren balioa, eta birtute oni San Franziskok zion amorioa eza gutzen ez duen norbaitek arkituko du geizko itz egiñ degula puntu onen gañean. «Maite degu Txikienen Ordena, Apostolu-Ordena bezela, esango digute, ez ordea Ordena eskekoa bezela. Pobrezak gogaitzen gaitu, eta gañera ez da ondo konpontzen munduan egiñ diran aurrerapen arri-garriakin». Izkera au ez da berria. Gillermo Saint-Amourrekoak usatu zuen XIIIgarren egunkian, eta bai San Buenabenturak desegiñdu ere *Pobreen erantzukia* deitu zuen liburu batean, zeñari etzitzaion ezer ere erantzun. Eta egiaz, au da munduaren betiko kanta eta espa Elizaren kontra, gerekiko amorio geiegiarena sufrimentuaren kontra, eta oraindik arpegira, eta benturaz iñoiz baño zorrotzago ematen diguten ezke-

ro, beartuak gaude, itz bitan bederik erantzute-  
ra:

«Pobrezak gogaiten zaitu!». Baña ez dakizu Jaungoikoaren Semea berarekiñ laztandu zala, eta laztantzearekiñ onratu, santutu eta Jainkotu zuela? Desetxatzen dezu Ebanjelioa? San Bernardok deadar egiten duenean: «pobrezaren amorioak erregeen gisakoak egiten gaitu» eta San Franzisko Asiskoak: «beragatik geratzen gera errege eta zeruko jabegai siñalatuak» eta Santa Franziska Chantalkoak berriz: «Jaungoikoaren eta gizonen aurrean gloriatzko motiboa da mesedetuak izan gerala iruditzea pobrezaren onra artu degunean», ez dituzte berritu baizik egiten zeruko Maixuaren ikasbideak. Kristauen artean arrazoi au asko da despita guzia ebakitzeko. Beragatik pobrezaren amorioa da aiñ onragarri eta santugillea nola zirzill eta deabruazkoa dan urrearen gutizia.

Fedearen aldetik begiraturik, pobreza ez bakarrik da animako aunditasunaren azia, baita ere eskual eta indarra, eta, zer indarra! Jaungoikoaren Semeak autu zuen bere Eleizaren zimentutzat, eta ori adierazi nai zuen, esan zienean

apostoloai: «Ez ezazute izan urrerik eta ez zillarririk, ez oñetakorik, ez eskuan makillarik, zeren nere Probidenziak dauzka zenbat bide, gizonaren jakiñduriak somatzen ez dituenak, eta zuen etsaien gañeko garaipena emago dizutenak. Zuekiñ egongo naitzatzute munduaren bukaeraraño». Anbeste gogaitzen zaituzten pobrezia ori, bada, ez da erakeria edo argaltasuna, Salbatzailearen jakiñduri eta almena agertzen duena baik. Gure Erredenzioko planuan parte izan zuen, eta beragatik Erlijiozko bizierak gozatzen ditu Eleiz Katolikoaren bizitza, ugaritasun eta beste gallaldiak».

Orrezaz gañera Erlijiozko Ordenen izaera ontzat emateko, askoko da esatea: Ikusi bitez egiten dituzten obrak, eta laister konturatuko gera, prezisoak ezpada, beintzat dirala txit egoiak jendeari egiaren ogia partitzeko eta sufritzen erakusteko, eta alde bi oetatik begiratzen bazaie, oen jartzea da Jaungoikoak gizonai sortu erazi dien pensamentu noble eta aundienetakoa.

Eta egiaz: nork ez du ezagutzen zeñ gauza banaak diren gogozko pobrezia eta nekosoa, San Franziskok aiñ estimatua, eta alperkeriaz eskean

ibiltzeko bizioa? Fundatzalle santuak ikasleai esan oi zien: «Ajuste gisako bat egiña dago zuen eta erriaren artean. Emango diozute zuen denbora, zuen izerdiak, zuen amorioa, orra zuek berarekiñ beartu zeraten gauza. Ordañez erriak emango dizute zerekiñ mantendu, eta munduan ez dezute izango ona egiñ dezutela ezagutzea baño sari aundiagorik». Franziskok etzuen itxendon geiegi kristau errien zentzu onean; bada oek bereala ezagutu zuten trukaera artan irabazi guzia berentzat zala, besteren izerdiaz aprobeztatzaera zijoazela; aen adiskiderik onenak eta serbitzaririk leialenak zirala apostolu-gizon oriek, nekazariari aitzurraren pixua arintzen diotenak, eulearen bizileku illuna esperanzarekin argitzen dutenak eta meatzari errukarriai beren patu gogorra bedeinkatzaera erakusten dienak. Ala ezagutu zuten, eta seireun urtez onara ajuste au gordetzen dute, eta bai eman ere gorputzeko ogia animaren ogiaren truke.

Katolikoak ezezik, beste munduko ondasunetan sinisten duten guziak ere ezagutuko dute zeñ ziertoak diran Jainkoaren itzaren predikari oek egin dituzten serbitzuak. Zerurik ez dala

esan, eta zoriontasun guzia mundu onetako ondo izatean daukatenai, edozeiñ bizimodukoak dirala, esango diegu pensatu dezatela gure egunetako jakintsu biren itz oek:

«Asisko penitenteak, zion Ozananek, pobre bera egitean, eta bera bezelako pobreen Ordena berria jartzean, onratu zuen pobrezia, au da, munduko biziera been eta despreziagarriena». Orrela adierazten zuen bertan billatu zitekeala pakea, diñatasuna eta zoriona; sosegatzen zuen persona bearren kezka, adiskidetzen zituen aberatsakiñ erakutsiaz aen inbidiarik ez idukitzera. Bukatzen zuen dutenen eta ez dutenen arteko despita, eta estutzen zituen kristau-elkartasunezko lazoak ia lasaituak zeudenak, nondik esagutzen dan, etzala izan eroaren politika baño obeagorik, eta zer esaten zuen bazekiela esan zuenean, prinzipie aundi bat izatera iritxiko zala. Platonek berrogeita amar bat familia iñoiz billatu etzituen bitartean somatu zuen errepublika egiztatzeko, Jaungoikoaren serbitzari onek amaikagarren urterako bazeuzkan berrogeita amar milla gizon berari jarraika neke eta gerrazko bizi-tzan. Bazebillen erriz erri, eskean, jaten zuen

limosnako ogia Homerok, Dantek, Tassok eta Kamoensek bezela, beste arako pobre glorioso aek bezela, zeñai Jaungoikoak ez dien eman mundu onetan estalpe eta deskansurik, ezpada gorde nai izan zituen bere serbitzuan, ibiliaz batetik bestera, erriak bisitatu, alaitu eta geie-nean eskolatu zitzaten.

Ikusi bedi orain zer dion Montalenbert kon-deak: Etzuten fraideak serbitu eta ondu kristau erria gorputzeko limosna bakarrarekiñ, ezpada pobrezari egin zioten onrarekiñ. Au da Ordena Erlijiosoak munduari egiñ dioten mesede aundie-netakoa, eta zeñagatik batez ere dion gorrotoa mundutik Jaungoikoa aienatu nai duen espiritu gaisto orrek. Erlijio gabeak ez du sentitzen pobrearenganako amoriorik, oroitu arazten dio-lako justizia egitearen premia eta etorkizun batena, zeñean betiraunde guzian bakoitza egongo dan egiaz dagokion leku eta mallan. Ez du nai iñork pobreak amorioz tratatu ditzala erli-jiosoak egiten zuten bezela; ezagutzen du apai-zaren indarra bizitz onetako oñazeetan errotua dagoela, eta esango du biotzetik Barerekiñ: «Limosna da apaiz aundinaiaren somaketa». Ez

dio batere ajolarik atsekabetuen lege eta premiakgatik, baña guziok dakiten bezela, iristen du denbora gitxiko bederen biurtzea pobreza mendetasunean, limosna petxa batean eta eska-premia gaistakerian, eta lege onen anparuan aberats gaistoak, Ebanjeliokoak baño errukimentu gitxiagorekin ez dio utziko Lazaro pobreari bere jauregiko eskallera eseritzen.

Au da Ordena erlijiosoak nai eta egiten dutenaren osoro kontrara. Ez dira kontentatu pobreza sokorritzearekiñ, ezpada onratu, santutu eta esposatzat artu dute munduan arkitu zuten gauzarik ederren eta aundienekoa bezela. Berealatik eman ziezten beren bizilekuak, pobre, mendeko eta beartsurik aundienak jarriaz Ordenaren asieratik prinzipie eta nobleen mallan, eta batzuetan oen gañean... Ordenan sartzen etziran pobreai ere agertzen zien berak ejemplo eta konsuelo aundieneko ikuskarria, onelako Erlijioetan sartu ziran munduko aundizki asko eta askoren pobreza eta umiltasun borondatezkoarena. Egiaz, millaka kontatzen dira prinzipie, duke, baroi eta dama mallarik goienekoak, lurpetu zutenak konbentuan oraingo jendeen aundita-

sun zirzillak irudirik txikiena eman eziñ dezakean aunditasuna. Gogoratu diteke umiltasun eta mendetasunezko ikasbide eragilleagorik? Esan bearko degu gañera Ordena Erlijiosoak Jesu Kristoren eta bere Eleizaren sentimentuetan beterik iritxi dutela irugarren ondore bat, aurreko bietatik berez datorrena? Jarri zuten trataera arteraño elkar eziñ ikusi ziran nagusi eta mendekoen artean. Eleizako soldaduzka erlijiosoak sortu dira bata bestearen ondoan jendearentzat aiñ protxugarriak diran iru ondore oek iristeko, baña munduaren denbora aldi erdia ezkeroz, onetarako San Franziskok fundatu zuenak anbat ez du inork bestek serbitu.

Pensamentu oek zuzentzen dieztegu gauza guziak berritu nai dituzten oraingo jakintsu eta agintariai, ezagutu dezaten eskeko Ordenak anparatzea dala zentzu aundiko egikera, eta debekatzea berriz, jendeen zorigaitzerako lan egitea. Pobreak bizitza obeagoaren esperantza galtzen, eta borondatezko pobren itzal eta mugida protxugarria sentitzen ez duten egunean, ez da izango indarrik Europa guzia ia menderatu duen erreboluziozko espirituari gogor egingo

dionik; anbeste denboran biotzean azi diran gorrotoak lertuko dira, eta ura izango da ordua noiz aberatsak beren interesaz eta bizi az ikaratu-ko diran.

Jetxirik gañ oetatik, biurtu gaitezen San Franziskoren Ordenako kondairetara ikusteko bertan nola Salbatzalleak berak iñoiz edo berriz indartu zituen zalantzan zeuden bokazioak, bai eutsi ere bere serbitzari leialaren obrari orain obra miragarrikiñ nola ikusketa zerukoikiñ. Añ gogorran franziskoarren biziera, eta munduko gustoen eta aragiaren gurarien añ kontrakoa! Animen Salbatzalleak utzi zitzakean bere alde jazartzen ziranak eta gudan desalaitzen ikusten zituenak? Nor arrituko da, bada, baldiñ berak, bestezaz baliatu gabe, laguntzen badie? Guk sinisten degu beraren amorioaren biguñtasunean, eta argatik konfianza eta segurantzi osoarekiñ goaz egitera gauza miragarritz betea dagoen kondaira.

Plasenziatik Parmara bidean dagoen erri txiki Borgo-San-Doñino deritzanak oraindik gordetzen du 1215an Txikienen konbentuan gertatutako milagroaren oroipena. Etxe egiñ berri artan bildu ziran erlijiosoak San Franziskori ongi etorria

emateko Españatik itzulizanean. Nola erlijiosoak asko baiziran, jatekoak aitu zitzaizten; estura larri artan Franziskok konfianza osoarekiñ zerura begirada bat egiñ zuen, eta Jaungoikoak ordañez, kontuan arturik eskatzallearen fede eta merezimentuak bialdu zion ogi millagrozkoko bat, zeñarekin kendu zuen sentitzen asi ziran gosea.

Andik urte batzutara ikusten degu gis onetako beste millagro bat, Santo Domingo eta San Franziskoren obra, eta bien orazioen frutua. Aren bizitzaren pasarte onek alako grazia dauka eta aiñ ederki agertzen du aren fedea, non ezin egon ginitzakean emen jarri gabe. Ara nola kontatzen duen Santo Domingoren kidako españatar itzkribatzalle batek: Gure Aita doatsua joan zan bisitatzera San Franzisko, uri txiki bateko konbentuan fraideak zeukaten kapituluan buru egiten zegoela. Gauza jakiña da zeñ adiskide aundiak ziran Erroman elkar ezagutu ziran ezkeroztik, eta nolako atsegiñarekiñ egon oi ziran Jaungoikoaren gauzetan itz egiten. Bazkal-ordua etorri zanean konturatu zien Santu biai zer janik etzegoela, eta beragatik eziñ bazkalduko zutela. Santu biak jarri ziran otoitzean, eta sentiturik

ongi adituak izan zirala, deitu zituen fraideak jantegira. Esan zituzten betiko orazioak bestetan baño poz geiagorekiñ, eta bakoitza eseri zan bere tokian. Domingo eta Franzisko zeuden maipuruetan, beren begiradak zeruronz ezarriak, eta ozta minutu batzuek igaro ziran, noiz eta ikusi zituzten jantegian sartzen ogei mutill gazte, eta mai gañean utzirik kapapean ekarri zituzten ogiak, alde egiñ zuten biñaka, ziran beziñ eder bezelako modestiarekiñ. Jan ondorean Santo Domingok erregutu zien erlijiosoai egundaño ez galtzeko, ez eta estura larrienetan ere, konfianza Jaungoikoaren Probidentzian.

Munduan ondo oitua zegoen nobizio noble batek eziñ zuen konbentuko janariarekiñ, eta artu zuen ostera munduko bizimodura itzultzeko asmoa. Goiz batean txit goiz irten zan zeldatik, eta kapillara jetxirik egiñ zuen atzeneko orazioa belauniko Jesus gurutziltzatuaren aurrean. An agertu zizaion Jesu Kristo bere Ama txit gloriosoarekin batean: «Ene seme, esan zion, zergatik alde egiñ nai dezu Erlijiotik?». «Jauna, nobizioak erantzun zion, emen egiten dan bizimodua latzegia dalako». Orduan Jaunak artu zuen ogi beltz

bat, eta saietsetik zerion odolean bustita eman zion, esanaz: «Ogi au jan ezazu». Nobizioak jan zuen, eta txit gozoa arkitu zuen. Ikuskera desagertu zan, eta gaztea itzuli zan konbentura. Geroztik, deabruak tentatzen zuen guzian, pensamentuarekin joaten zan Jesusen saietseko zauri amoriozkora, eta berealaxe bere penak biurtzen zitzaizkan gozotasunean.

Beste nobizio bat arkitzen zan konbentutik irteteko zorian gis orretako motibo beragatik: gorrotoa zion oial bastozko tunikari eta franziskoarren abituko kaputxoari; baña konbentutik irteteko asmoa artu zuen arratsean joan zan, oi bezela, aldare aurrean belaunikatzera, eta geratu zan kordegabetua. Iruditu zizaion santu asko bere aurretik biñaka igarotzen zirala beren bozak bateratuaz aingeruen doñu ederrakiñ. Jantzita zeramazkiten soñekoak ziran elurra baño zuriagoak, eta arpegiak eguzkiak baño argiagok zeuzkaten. Azkenengo irurak beste guziai eraiten zien. Nobizioa zegoen osotoro arriturik, eta santu aetako batek esan zion: «Ene anaia, zu ainbesteraño arritu zaituzten iru santu oriek dira Erlijioso txikienak: bi argienak San Franzisko

Aiskoa eta San Antonio Paduakoa, eta irugarrena, oraño ill dan erlijioso bat. Jaungoikoak eman diezte jantzi aiñ apañak, munduan erabili zituzten abitu pobrearen ordeze». Au esanda zeruko ikusketa desagertu zan, eta nobizioa biurtu zan ostera zeldara biotza osoro konsolatu ta eta anima indarturik gogorki jazartzeko erioztzako orduraño Jaunaren etsaien kontra.

San Franziskoren Ordenako Kondairetan arkitzen dira beste milla orrelako. Ala Jaungoikoaren Semeak jartzen zuen enpeña bere obraren alde. Egiñaz mesedeak eta millagroak Erreglaren nekeak eskatzen zutenean, berrituerazten zituen Ebanjelioko konselluak, eta erremediazten zituen geldika geldika San Franziskoren eta bere Ordenaren bidez Eleizaren galerak.

Aitatutako ikuskeraz gañera, kontatu dezagun beste bat, frai Leon mansoak izan zuena, zeñarekiñ zeruko sillu batekiñ bezela markatuak geratuko diran San Franziskoren ikasbideak. Orduak estuak ziran. San Franzisko, llaga ezartze miragarriarekiñ onratua, arkitzen zan oatua gaitzarekiñ, eta prestatzen zan beste mundurako. Frai Leon zeukan kontu artzen oe ondoan,

eta errezatzen zuen jaiera aundiarekin. Onetan zegoela, zentzua joan zizaion, eta espirituan eramana izan zan ibai aundi eta ur txit bizizkoaren bazterrera, nondik abiatu ziran pasatzera ibaia batetik bestera bere Erlijioko fraide batzuek. Ikusi zituen urian sartzen, baña, o pena! batzuek bereala itotzen ziran, besteak neke aundiarekin iristen ziran erdi alderaño, baña zeramaten bagajearen kargarekiñ arazoturik, zijoazen ondora aurrenekoak bezela. Frai Leonek negar egiten zuen ikuskarri triste ari begira, luzatu nai zukean eskua itotzera zijoazenai, baña indar ezkutu batek eragozten zion, eskua lotua bezela euki eraziaz. Ubazterrean, bada, triste eta penaturik zegoela, ona non bat batetan jartzen zaion begien aurrean beste gauza bat lengoaren oso desberdiña. Ikusi zuen fraide asko zijoazkiola beragana beren Ordenako abittu pobre utsarekin beste karga eta pardel bage. Sartu ziran ibaian, eta uraren goia aisa menderaturik, txit laister igaro ziran beste aldera. Eta orduan aren ikusketa desegindu zan.

San Franziskok, Jaungoikoak agertuta baze-  
kien ikuskera ori eta zer esan nai zuen, eta bere

ikasle maiteari deitu eta esan zion kontatu zeio-  
la. Frai Leonek, nola ezer ere etzion gordetzen  
bere Aita doatsuari, obeditu zion betiko senzillta-  
sunarekin, eta kontatu ere bai ikusi zuen guzia  
berari zerraizkion gauzarik txikien guziakin,  
aitortzen ziolarik senzilloro, etzekiela zer aditze-  
ra ematen zuen. Eriak orduan oean jarrita esan  
zion: «Jaungoikoaren arditxo maitea, ara ikuske-  
ra orrek zer esan nai duen. Itotako erlijiosoak  
dira Jaungoikoari osoro emanda gero osteria itzu-  
li eta agindu sagraduak austen dituztenak, berriz  
ere munduko banidadeak gozatzeko; ibaia bate-  
tik bestera aisa igaro zutenak dira beren agin-  
duak leialki bete zituztenak; da esatea, jan eta  
jantzi bear bearrekoarekin kontentaturik, Kristo-  
ri jarraitu, eta Jaunaren lege biguñ-ariña pozik  
eraman zutenak. Nola ezeren arazorik etzeuka-  
ten, erraz igaro zuten munduko ibai irabiatua,  
eta iritxi ziran zeru erriko ertzera».

Azkenik, bada beste millagro bat, irakorri  
diranak baño gitxiago arritu bear ez gaituena;  
eta da ikustea egun oro zenbait galai gazte etxe-  
rik onenetakoak uzten dituzten beren era on eta  
munduko atsegiñak San Franziskoren abitu bas-

toagatik, Ordenak, pobreza aundienean bizi bada ere, anbeste eunkietan irauten duela irmo bere bokazioan, toki guzietan fruturik ederrenak emanaz, nun nai predikatzen duela penitenzia, eta nun nai pizkortzen duela beraren kontra gaiztoen gorrotoa, persona onen errespeto eta amorioa bezela. Ez da au beti dirauen millagro gisako bat? Munduko jakintsuak erretatzen edo desafiatzen ditugu adierazi dezatela au gure entendimentuak iritxi ditzakean arrazoiakin, sinistu nai ezpadute, guk diogun bezela, Jaungoikoaren Probidenziak San Franziskoren familiari amorio bereziarekin begiratzen eta kontu egiten diola.

# **Amabostgarren Bereziera**

*San Franziskoren erretratoa.*

*Aren birtuteak.*

*Jaungoikoarenganako amorioa.*

*Gizonakiko aren karidadea.*

Ozta zituen Franziskok berrogeita bi urte, iritxi zanean bere bizitzaren mugara, bizitza laburra egiaz gizonen begietan, baña merezimentuz betea Jaungoikoarenetan. Argikari oni begiratu diogu aldetik bere asieran eta edertasun bete betean zegoenean, eta osotoro arriturik geratu gera, orain goaz ikustera bere itzaltzea, zeñean agertuko zaizkigun mirari are arrigarriagoak. Baña lenago begira dizaiegun azkeneko aldiz bere arpegi beneragarriaren moldeari eta bere animaren birtuteai.

Ama Birjiña Aingeruenekoen Eleizan gordezten dira Santuaren erretrato eder bi, bata dago pintatua oetzat serbitzen zion olean, eta bestea Pisako Junta, bere kidako eta adiskideak egiñak, ornitzen du Sangristi aundiko atea. Bi kuadro orietan artuko degu fundatzalle santua ongi eza-

guerazotzeko bear deguna. Kuadro oetan ikusten dira gaztetasuneko antz, molde eta seña-leak, baña edadearekiñ, biziera latz eta birtutearen itzal indarrarekiñ zerbait mudatuak. Bizarra, batere kontu egiten etziona, dauka beltza eta urria, masallak moreak, betondoak sartuak barauakgatik, eta arpegia eroria. Begiak itzaliak bezela betiko negar egiñaren indarrez, ezpañetan ez da ikusten gaztetako farra irri gozo ura, arpegian itsatsiak bezela daramatzi bere neke eta sufrimentuen siñaleak; eta ordañez, grazia-aren indarrez bestiruditua dirudi, eta arpegi errukarrian argitua bezela agertzen da bere anima aingeruzkoaren edertasuna.

Kondaira onen aurreneko gertakarietatik ikusi degu Jaungoikoak aren anima aberastu zuela doai bikaiñ eta prestaera ederrenakiñ, eta ereiñ zituela beragan gaztetandikan birtute aundienen aziak. Gero ikusi degu nola landu zituen San Franziskok Fede, Esperanza eta Karidadea izendatzen diran zeruko lore oriek, eta nola Jaungoikoaren Semeak saristatu zituen aren debozioaren antsiak mesede berri eta aundiagoakiñ. Orain geratzen zagu ikusteko nola Kriatzalle eta

kriaturaren arteko trataera betiko ori zala bide, Franzisko izan zan besteak ez bezelako persona bat eta munduan izan diran anima aundienetako bat.

Birtuteen erregiña, beste guzien asiera, eragille eta euslea da Jaungoikoaren amorioa, edo kristau izkuntzan esateko, karidadea. Emendik datoz beste birtuteak, iturritik erreka eta azitik landarea bezela, eta aiñ mardul eta irazekia agertu zan San Franziskogan, non Eleizak eta jendeak deitu zioten «Asisko Serafiña».

Zegoen Jaungoikoaren espirituaz betea, eta ala esan al baditeke, guzia Jaungoikotua, sutara botatzen dan ikatzak sutu eta suaren gorritasun bizia artzen duen bezela. Karidade irazeki onek bultzatzen zuen umiltasunak billatzera, bere burua ezereztutzera eta martirioa sufritu nai izatera. Berak murgilltzen zuen kordebagetze aiñ aundi eta luzeetan, esan eraziaz gis onetako itz irazekiak: «Jauna, egizu zure amorio irazekiaren indarka biguñak berezi nazala zerupeko gauza guzietatik, naizan guzia beragan arturik, zure amorioaren amorez ill nadin, nere amorioaren amorez zuk ill nai izan zenduen ezkerro». Karida-

deak gogoraerazi ere zion egun oro esaten zuen erregu au: «Nere Jaungoikoa, eta nere guzia: Zer zera zu, o Jaun guziz gozoa! eta zer naiz ni kria-tura auskor eta ar bilutsa? Amatu nai zinduzket, o Jabe guziz santua! maitatu nai zinduzket, o amoriozko Jaungoikoa! Zuri eskeñi nizkitzun nere biotz-gorputzak, Zugatik geiago zer egiñ baneki, egiñgo nuke eta txit deseaten det».

Serafin gisako aldaeraen birtutez, aren bizi-tza izan zan, egiteko guzia amatzea izango dan zerukoaren asiera. «Zan guzia altxatzen zan beti Jaungoikoaganon, usai gozozko sakrifizio atse-giñgarri bat bezela, eta illduratzen zuen gorpu-tza penitenzi latzakin, eta anima berriz bera deseoen berotasunarekin». Ikasleai esan oi zien: «Izan zaitezte guzia amorioa, eta guzia egiñ amorioz». Jaungoikoaren karidadeak gañez egi-ten zion biotzetik, eta ortik ateratzen ziran bere bizitza apaintzen duten anbeste itz eder eta egi-kerak arrigarri. Beiñ batean arriturik zeuden ikus-tean nola zerman abitu txar eta pobrearekiñ sufritu zezakean neguaren gogortasuna, eta Santuak erantzun zien: «Geron barrunbetan Jaungoikoaren amorioaren sua sentituko bagen-

duke, kanpoko otza erraz sufrituko genduke». Arrobotatik zegoen batean aditu zuen Jesu Kristok esaten ziola: «Franzisko, zure amorioa geiegiraño, erakeriaraño dijoa. Nigandik ezin ditezkean gauzak uste dituzu, jakizu, iñork ez dizkidalak eskatu egundaño zuk bezelako mesedeak». «O Jauna, nere amorio gozoa! Zuk arpegira ematen didazu au geiegia dala, niganako amorioz ezereztu, aragi galkorrez jantzi eta gurutzeko erakeriaraño maitatu ginduzun orrek».

Etzan aspertzen beti bere Maiteari jarraitzeko bide-billa, zeñagandik gorputzaren ormak baka-rik berezitzen zuen, eta beiñ batean esan zien bere ikasleai nun nai arkitzen zuela. Igotzen zan gauza guzien iturriraño, eta pensaturik, zentzurik ez duteneraño guziak Jaungoikoagandik datozela, biguñtasunez beterik deitzen ziezten «bere anaia-arrebak». Erlijio gabeak ez dute Jaungoikoa iñun ikusten, Franziskok ordea nun nai ikusten zuen. Arentzat, lzaera guzia zan estalki goaitargi neurrigabe bat zeñaren atzean Jauna gordetzen zan; organo bat bere soñu guziz eztitsuarekiñ Jaungoikoaren perfezioak altxatzen dituen, obra paregabeko bat bere edertasunez-

ko ziargi batzuekiñ ornitu zuena. Guziak itz egi-  
ten zion Jaungoikoaren gañean, eta Franziskok  
bere aldetik konbidatzen zituen arekiñ batean  
guzien Egille eta Jabea alabatzera.

1224ko urtearen azken aldera, bere ondoe-  
zakgatik erretiratu zan San Damiano eleizaren  
aldameneko zelda txiki batera, eta an izan zuen  
kordegabetze bat, zeñean Jaungoikoaren Espiri-  
tuak segurutu zion bere betiko salbazioa; berea-  
la agindu zion bere erritar frai Leonardori luma  
bat artu eta izkribatu zezala ark esango ziona,  
eta an gure Santuak asi zuen *Eguzkiaren Kanta*  
bat batetango somaketa miragarria, frai Pazifiko,  
bersolarien erregeak itz neurtu zuzenagoan para  
zuena, eta anziñako kondairatzalleak *Sortitzaren*  
*Kanta*-ren izenarekin gugandaño pasa dutena.

## **Eguzkiaren Kanta**

*Jaun guziz goia, zureak dira alabanzak, gloria  
eta onra; Zuri bakarrik dagokizu grazi guzia, eta  
ez da gizonik zu izendatzeko diña danik.*

*Kriatura guziak, baña batez ere, o Jauna!  
Zure itxura dan Eguzkiak alabatua eta altxatua  
izan dedilla nere Jaungoikoa, bada ematen digu*

*argia eta eguna, eta bere argiera eta edertasu-  
nagatik da zure antz irudia.*

*Illargi zuri eta izar politik alabatua izan dedi-  
lla Jaungoikoa, bada zuk egiñ ziñituen zeruan  
ederrak eta argi emalleak.*

*Alabatu dezatela nere Jaungoikoa aireak eta  
aizeak, osgarbi eta goibelduak eta beste denbo-  
ra guziak, zeñakgatik bizi diran beste kriatura  
guziak.*

*Alabatua izan dedilla Jaungoikoa urak, ele-  
mentu umill, garbi eta goaitargi, eta gizonentzat  
aiñ gai oneko onek.*

*Alabatu dezala nere Jaungoikoa gaueko illun-  
tasunak kentzen dituen suak, bada da argiegi-  
llea, bizia, ederra eta indartsua.*

*Alabatu dezala nere Jaungoikoa gure ama  
lurrak, bada mantentzen gaitu zenbat berar, lore  
eta fruta mota emanaz.*

Andik egun batzuetara despita sortu zan  
Obispoaren eta Asisko agintarien artean. Don  
Gidok bota zien eskumikua, eta agintariak beren  
aldetik Obispoa legeaz kanpora utzi zuten. Fran-  
zisko ezpaita onekiñ atsekabetua zegoen, eta  
bere kantuari ezarri zion ondorengo berso au,

erlijiosoak danak batetan bi alderdien aurrean kantatu zutena, iritxiaz bereala elkarren artean pakeak egitea:

*Alabatu dezatela nere Jaungoikoa bere amorez barkatu, nekeak pazientzia eta gaitzak biotz alegereakin daramazkitenak. Zorionekoak pakean bizi diranak, zeren zeruan izango diran koroatuak!*

Azkenik, Jaungoikoak agertu zionean, urte bi sufritzen igarotakoan, gorputzeko karzelatik libratuta joango zala betiko deskansura, San Franziskok bukatu zuen amoriozko kanta ura esker onezko deadar onekiñ:

*Alabatu dezala Jaungoikoa iñor libratzen ez dan gorputzeko eriotzak. Errukarriak pekatu larrian iltzen diranak, eta zorionekoak eriotzako orduan zure borondate txit santuaren obediencia arkitzen diranak, zeren ez duten ikusiko betiko penazko bigarren eriotza.*

*Alabatu eta eskerrak eman nere Jaunari zuek kriatura guziak, gusto eman eta serbitu ezazute zor diozuten umiltasunarekiñ.*

Alaxe Jaungoikoak goiargiturik, Ananias, Mizaël eta Azarias israeltar gazteak Babiloniako

labe gorituan goizeko aire fresko atsegiñgarri  
artean paseatzen baziran bezela kantatu zuten  
esker onezko kanta ura.

*Jaungoikoaren obra guziak bedeinkatu ezazu-  
te Jauna, alabatu eta goratu denbora guzietan.*

*Zeruak, bedeinkatu Jaungoikoa.*

*Zeruko izarrak bedeinkatu Jaungoikoa.*

*Euri-intzak, bedeinkatu Jaungoikoa. Aize-  
ekaitzak, bedeinkatu Jaungoikoa.*

*Udako beroak, bedeinkatu Jaungoikoa. Negu-  
ko otzak, bedeinkatu Jaungoikoa.*

*Argi eta illunak, bedeinkatu Jaungoikoa.*

*Mendi eta muñoak, bedeinkatu Jaungoikoa.*

*Lurretik sortzen zeraten belar eta landareak,  
bedeinkatu Jaungoikoa.*

*Iturriak, bedeinkatu Jaungoikoa. Itxas-ibaita-  
ko urak, bedeinkatu Jaungoikoa.*

*Bale eta uretan mugitzen diran gañerako  
arraiak, bedeinkatu Jaungoikoa.*

*Zeruko egaztiak, bedeinkatu Jaungoikoa.*

*Abere eta gañerako eleak, bedeinkatu Jaun-  
goikoa.*

*Eguzkiaren Kanta, alabantzazko kantaz gañe-  
ra zan otoitza, eta San Franziskok nai zuen bere*

anaiak buruz ikastea, egun oro esan zezaten. Kanta au berez aiñ laburra bada ere, Santuaren anima guzia, bere irudimentuaren ugaritasuna, bere etorkiaren ausardi guzia sartuak daude bertan, nun sentitzen dan Unbria izendatzen dan paraiso artako aire gozoa, zeru aiñ eder eta lurra lorez estalia daukanarena.

Gure Santuarentzat begien aurrean daukagun munduan sartzen zan Probidenziaren aurreneko plano, pekatuak desegindua izan zanean. Loreak ziran arentzat Jaungoikoaren parra gozoa bezela, eta zeruko izarrak Guzieldunaren gloria aitortzen zuten testiguak. Konbidatzen zituen beren Egillea alabatzera ibai-itxasoak, mendi-ibarrak, larreak eta artaldeak, aingeru eta gizonak, eta kantari oen guzien erdian jartzen zan bera, armoni eztitsu guziak bere animan biltzen dituen soñulari goiargitua bezela. Kriatura guziak serbitzen zioten ez arazotzat, ezpada eskumallatzat igotzeko beti Jaungoikoaren jargoikoraño; eta edertasun galkorrek baizik besteak ikusten etzituzten gauzetan Franziskok ikusten zuen gorputzeko eta animako legeen artean, Sortitzaren eta Fedeko misterioen artean

dagoen elkartasuna. Ordu osoak igarotzen zituen askotan erleen ernaitasuna alabatzen, eta berak ezer ez bazeukan ere, egiten zuen modua ezta eta ardoa emateko otzak ill etzitezzen.

Txoriandraren ernaitasuna jarri oi zien jarraikaritzat bere ikasleai. Ikusirik beiñ batean txori oetako sall bat (urdiñarre auts kolorekoa bere abitua bezela) lurretik jaiki eta kantuan, ale batzuek lurrean bildu ondorean, esan zien: «Begira ezazute zer egiten duten kriatura mantso oek, nola erakusten diguten eskerrak ematen zeruko Aitari egunoroko ogia ematen digulako, ez dezagun jan beraren gloriagatik baizik, lurra despreziatzera eta gure jolasak egon bear duen zerura ega egitera». Txoriandrak ziran bere gustoko txoriak, eta alabatzen zituen lurreko gauzetarako itsaspenik etzeukatelako, txingurrien kontra arrenkuratzen zan bezela, negurako jana-riak gordetzen kontu geiegi zeukatelako.

Gau batean Albernia mendiko ermitara erretiratzen zala, aditu zuen erretxinola kantatzen. Pozez beterik, esan zion berekin zijoan lagunari, kanta zitzala Jaungoikoaren alabanzak, txoriarekiñ txanda egiñaz. Frai Leonek etzuen nai izan

boza txarra zuela apukoa emanaz, eta ala San Franzisko bera jarri zan txori kantariari erantzuten, eta segitu ere gau beranduraño; eta nekatu zanean deitu zion erritxinolari zetorrela bere eskura, milla pesta eta palagu egin ziozkan eta alabatu ere bai bera bentzutu zuelako, eta esan zion Frai Leoni: «Eman dezaiogun jaten gure anai erretxinolari, bada nik baño obeto merezidu». Txoriak jan zituen ogi apur batzuek Santuaren eskuan, eta bedeinkazioa arturik ega egin zuen basora.

Egaztien urrena, ardi eta arkumeai agertu zien Santuak naitasun bereziena, oroitarazten ziotelako gizonak erredimitzeko Kalbarioan sakrifikatu zan Arkume mantxagabea. Ikusten bazituen iñoiz abere oek arategira eramaten, penaz negar egiten zuen, eta etzuen andik alde egiten, eriotzatic libratzen zituen arteraño. Ikusi zuen egun batean ardi bat bakarra zebillela larrean aker sallaren tartean, eta zizpiru bat emanaz esan zien erlijiosoai: «Ala zegoen Jesus gure Salbatzalle gozoa judu-fariseoen artean!». Lagunak erosi nai izan zuten ardi ura, baño etzuten zerekin, bada etzeukaten abituak beste gau-

zarik; merkatari bat pasa zan suertez andik, eta Santuaren penaz kupiturik, ardia erosita erregalatu zion.

Beste ardi bat eramán zuten Ama Birjiña Aingerueneko konbentura, eta erregalatu zioten San Franziskori, onen atsegiñ aundiarekiñ. Enkargatu zion zein ernai egon bear zuen Jaungoikoa alabatzeko, eta erlijiosoai atsekaberik ez emateko, eta enkargu oek kunplitu zituen leialki ardiak. Aditzen zienean erlijiosoai koruan kantatzen, joaten zan berez eleizara, eta Ama Birjiñaren aldare aurrean jarririk, bere be, be adi gozokiñ agur egiten zion Arkume egiazkoaren Amari. Mezatan, apaizak ostia sagradua altxatzen zuenean, belaunikatu eta burua makurtzen zuen, fededunai deitzen bazien bezela Ostia Sagradua adoratzera, eta eman arpegira fedegabeai Sakramentu adoragarri onen kontrako beren erreberenziaren faltak.

Erroman egon zan denboran 1222ko urtean, erabiltzen zuen berekiñ arkumetxo bat, andik alde egiñ zuenean bere adiski argirotar eta piadosa Jakobina Settesoliri erregalatu ziona. Nola arkumetxo au zegoen oitua ejerzizio espirituale-

tara, egiñ zan dama noblearen lagun txit estima-  
garri, jarraitzen zion Eleizara, egoten zan an  
jabea zegoen bitartean, eta itzultzen zan arekiñ  
batean. Goizean ikusten bazuen lo, edo jaiki  
gabe, deitzen zion bere be bekoakiñ, eta artzen  
ziozkan erropak, aditzera emateko, Jaungoikoa  
serbitzera joateko ordua iritxi zala; ala Jakobinak  
txit maite zuen, eta agertzen zion kariño erres-  
petozkoa ardi miragarri ari, bada San Franzisko-  
ren ikasletik pasa zan arentzat piedadezko  
maixu izatera.

Ez dezagun aztu beste gauza bat, ustez txi-  
kia, baña ez berez, bada fedearen aldetik gauza  
txikirik ez dago. Aita doatsuak kentzen zituen  
bidetik eskuarekiñ, an topatzen zituen ar guziak,  
bidean zijoazenak oñpean lertu etzitzaten.  
Etzuen esan Dabidek Kristogatik: «Arra naiz, ez  
gizona?».

Franziskorentzat zentzugabeko kriaturak  
zeukaten izkuntza misteriozkoa. Amorio aundia  
zion senide urari, bataioan Jesu Kristoren odola  
daramalako, eta garbitzen zanean, ixuritzen  
zuen iñork oñpean erabiliko etzuen tokian. Arrie-  
tan erreberenziatzen zuen Ebanjelioko ar-kan-

toia danaren irudia; enkargatzen zien fraideai basora egurretara zijoazenean, etzitzatela ebaki adar lodiak Jaungoiko-Gizon egiña Gurutzeko arbolan ill nai izan zuelazko siñalean, eta nai zuen konbentuko lore-baratzan urte guzian kua-dro bat lantzea, Jeseren ziorretik jaio, eta bere usaiarekiñ ninadu guzia alegeratu zuen lore misteriozkoaren oroipenean.

Gai onetan ark pensatzen zuen guzia ezagutzen da txit maiz gogoratzen zitzaizkan esaera zorioneko aetako batean. Guziok oroituko dira nolako kontuarekiñ jasotzen zituen lurretik izkribatuak zeuden paper puskek, oñpean ez zanpazteagatik Jaungoikoaren edo Eskritura Sagraduaren gañeko itzen batzuek. Erlijioso batek galdetu zion mugaldi batean, ea zergatik ernaitasun berarekin biltzen zituen fedegabeen izkribuak. «Ene seme, erantzun zion Santuak, bertan daudelako Jaunaren izen santua antolatzeke letrak; bada izkribu oetan arkitzen dan ona ez da fedegabe eta ez gizonena, ezpada on guziaren egille eta iturri danaren Jaungoikoarena». Eta egiaz, jakinde sagradu eta munduko guziak zer dira Jaungoikoa bere izena gizonaren entendimen-

tuan izkribatzen dituen letrak baizik, zeruan izar-  
rakin izkribatzen duen bezela?.

Ala gure Santuak munduko armoni ezkutuai  
entzuera emanik, igoerazitzen zituen armoni eta  
edertasun guziaren sortze eta iturriraño. Au da  
bere jenioaren azgarri bereziena, alatan non  
bere kondairatzalle guziak ala ezaguturik, begi-  
ratu diote Franziskori Sortizaren maitatzalle aun-  
dienetakoari bezela. Eztago gauza ziertoagorik,  
baña oroitu gaitezen ala izan zala, Jaungoikoaren  
adoratzalle irazekienetako aurrena izan zalako.  
Noiz beteko dira munduko jakintsuak, Santuak  
bete ziran espiritu eta dotriña berperaz? Noiz  
sentituko dira bear bezelako indarrarekin urra-  
tzeko jakinduri arro, falso eta legor batek egia  
loturik daukan katea? Egun ori iristean, eta Jaun-  
goikoari nai dakiolalen bait len izatea, ezagutu-  
ko dute San Franziskok bezela mundua dala libu-  
ru aundi bat, beraren itz bakoitzak Jaungoikoa-  
ren izen adoragarria berriztatzen dutena.

Guzian Jaungoikoa ikusten zuen karidade oso  
onekiñ, guzia beragana zuzentzen zuen karidade  
portitz eta iraunkor onekin bateratzen zuen  
Franziskok debozio biguñ eta senzilloena. Nolako

biotzeko sentimentuarekiñ itz egiten zuen Jesu-  
sen gizatasun eta jaiotzako misterioen gañean!  
Eta nolako poza sentitzen zuen urteoro pest oek  
iristean! Erlijiosoak galdetu zioten beiñ batean  
ea ondo egiñgo al zuten, baldiñ Eguerri egunean  
aragia jaten bazuten, jai au ostiralean zanean.  
«Segurki, erantzun zien, eta nik nai nukeana da  
prinzipe eta aundiskiak bota dezatela aragia eta  
garia kanpo eta bideetan egun onetan, abere eta  
egaztiak ere pest aundi onetan partartu deza-  
ten». San Franzisko izan zan estrabi santuaren  
debozioa Italian, sortu ez bazuen ere, zabaldu  
zuen. 1223ko urtean Erroman zegoela, iritxi  
zuen Aita Santuagandik baimena Greziora joate-  
ko munduko Salbatzallearen jaiotza zelebratze-  
ra, eta bere erlijiosoak eta ingurutako jendeak  
bildurik, pestari arteraño ez bezelako alaitasuna  
ematera. San Franzisko iritxi zan Greziora onen-  
zaroz eta arkitu zuen bere adiskide Juan Belitak  
guzia prestatua zeukala, aldeurrez erakutsi  
zion bezela. Kanpo librean altxa zuten aldare bat  
eta ipini estrabia, eta asto eta idi bat eramane  
irudikatzen zuen egoki Belengo estalpea. Gauer-  
dian joan ziran erlijiosoak basora alderritar eta

baserritarrak beren zuzi irazekiakiñ zerraizkitela. Ikuskarri atsegiñgarria zan ikustea mugitzen anbeste argi arbola tartean, eta aditzea Unbria-ko billanziku ederrak an zeuden guziak kantatu eta mendiko oiarzunak erantzuten zituztenak. Franziskok pozaren pozez negar egiten zuen. Mezan artu zuen apaiz-urrenaren lankintza, eta Ebanjelioa kantatuta predikatzen zuen Belengo Aurra amoriotsu deitzen zion Mesiasen aunditasun eta miserikordien gañean. Jesusen izen gozoa esan bear zuen bakoitzean, geratzen zan; boza mudatzen zizaion ezti gozoa millikatzen dagoenaren gisan, edo zeruko soñuren bat bere barrunbean aditu eta oroipenean gorde nai bazuen bezela. Juan Belita zaldun, gizon prestu eta Jaungoikoa obeto serbitzeagatik soldaduzka utzi zuenak, itz ziñeztuakiñ aseguratu zuen ikusi zuela aur bat lo zegoela zirudiena, eta gure Santua arengana makurtzen zala musu emateko eta esnaerazitzeko. Agerkera onekiñ ukitzen egon zan lastoak, egiñ zituen gero zenbat sendaera millagrozkoak.

Eziñ esan diteke nolako pozarekiñ artu zuten fededunak pesta onen jartzea. Santa Klara izan

zan bere Ordenako konbentu guzietan oitura piadoso au, zeña dagoen iruditzean Eleizetan Belengo estalpea eta Salbatzallearen jaiotza Eguerri jaiak dirauten bitartean. San Franzisko-ren ejemploari zerraikiola, berak zuzentzen zituen onetarako prestamen guziak, eta esan ezin bezelako atsegiña sentitzen zuen Aur Jainkoa estrabian ipintzean, bere kanta aingeruenakian batean biltzean, eta Jainko-Gizon egiñaren amorio kabugabeen pensatzean. Bere piedadeak balio izan zion mesede bat, debozio asiberri au zabaltzeko asko serbitu zuena, eta Bernardo Bessek bere darraikoi guziakian, noiz gertatu zan señalatu gabe, kontaktzen diguna.

San Damiano konbentuan ari ziran prestatzen Eguerri jai ederra zelebratzeko, moja guziak jaikiak zeuden, bakarrik Klara, sukarki gaitz aldiak arturik, eta oñaze biziakin oean zegoelako, ezin joan zitekean, bere pena aundiarekin Matutiak mojakin kantatzera, eta Komunio Santua artzera. Aren sentimentua zenbaterañoakoa zan ezagutzeko prezisoa da amatzea Klarak bezela Birjiñen zeruko esposoa. Baña aren penak gañez egiñ zuen mojak korura joan ziranean; eta

deadar egiñ zuen: «O nere Jabe guziz gozoa! Ikusi ezazu nere pena! Nere lagunak billanziko ederrakiñ zelebratzen dute zure jaiotza; zure ziezka inguratuta zure alabantzak kantatzen dituzte, eta, nik bakarrik alako ditxa ezin gozatu nezake!». Kriatura bilutsenen garraxi txikienak aditzen dituen etzan entzungor egin bere serbitzariaren espa amoriotsuai, eta Klara sentitu zan bat batetan Konbentu Sagraduko Eleizara eramana; egiaz ote zan edo espirituan? Etzekien berak ere; baña nola nai izan zedilla, aditu zituen ederki mojen kankak; bere begiak ikusi zuten aldare gañean Belengo Aur adoragarria, eta bere aoran artu zuen Bizitzako Ogia, Sakramentuaren estalkian gordea.

Elizkizunak koroan bukatu ziranean monjak joan ziran eriaren zeldara, eta esan zioten: «O Ama, zer gau atsegiña! Ze alegri zerukoak bete dituzten gure animak! Ez egon bear zuk an zere alabaz inguraturik!». «Utzi itzatzute lantu oriek, ene aizpa maiteak, erantzun zien abadesa santuak, eta nerekiñ batean bedeinkatu ezazute bere serbitzari errukarri au utzi nai izan ez duen gure Jaungoiko ona». Eta kontatu zirenean zeru-

tik artu zuen mesede berezi ura, esan zien: «Poztu zaitezte nerekin batean, ene aizpak. Alabatu dezagun guziok Gizonen Erredimitzalea, eta gure Aita San Franzisko, mesede aiñ señalatua batak egiñ eta besteak iritxi didalako».

Estrabi Santuaren debozioa, San Franzisko-ren Semeak zabaldua, denbora asko da mundu guzian zelebratzen dala, baña iñun ere ez da egi-ten anbeste gusto eta senziltasunarekiñ nola Franziskoarren Ordenako konbentuetan, baña batez ere Ara Celikoan.

Gure Santua saiatzen zan ezagutzen al zuen guzia Eleizak zelebratzen dituen misterio guzien espiritua. Espiritu onekin igotzen zan Garizuman Kalbariora, eta bere biotzetik irtetzen zizaion San Pauloren deadar au: *Dilexit me, et tradidit semetipsum pro me*. Jesusek maitatu ninduen, eta ill zan nigatik.

Liburu Santuetako itz onek arritzen eta poz-tutzen zuen, berarekiñ biotza asetzeraño, eta ez dago dudarik asko serbitu ziola Santu, eta Santu aundi bat egiteko: anbesterañoko espiritu Jain-kozkoa dago itz bakoitzean; aiñ argi, ugari eta indartsua da! Badirudi dala Ostia konsagratu

bat, premia dutenai emateko beregan Jesu Kristo guzia daukana.

Franziskoren piedadea azitzen zan oi ez bezela aste santuan. Etzuen pensatzen Jesus Gurutziltzatuan baizik, eta San Buenabenturak esaten digu, pena eta amorezko negarretan urtzen zala Pasio Santua oroitze utsarekiñ. Esan zezaiekean bere erlijiosoai San Bernardok anbat egiarekiñ: «Nere konbersioko unetik egiñ nuen mirrazko lore pilla nere Salbatzallearen samiñtasun eta sufrimentuakiñ, ordaintzeko ez neuzkan merezimentuak. Nere bularrean para det, eta ez dit iñork andik kenduko. Beragan jartzen det nere ontzea, nere ondasunak, eta billatzen det nere konsuelo guzia. Orrek itzaltzen du nere Juezaren aserrea, eta jarraitu erazten nere Jaungoikoa. Badakizute maiz itz egiten dedala Jesu Kristoren Pasioaren gañean, eta Jaungoikoa testigu det beti nere animan josia daukadala. Nere jakiñduria da Jesus, eta Jesus gurutziltzatua». Batzuetan gizonen gogortasuna ikusita tristeturik, mendi eta ibarretan zebillen korrika, inguruetako oiarzunai deadar egiñaz: «Mendiak, negar egizute! Arrokkak, purruka zaitezte! Ibarrak, zizpi-

ru samiñak atera itzatzute! Eta zu Sion, erri berezia, Eleiza Katolika, urra itzatzu zure jantziak eta biotza, estali autsez burua, bada amorioa ez da amatua». Eta oiarriak erantzuten zuten triste-  
ro: *L'amore non é amato! L'amore non é amato!*  
«Amorioa ez da amatua! Amorioa ez da ama-  
tua!». Zaldun batek zizpiru oek aditu ziozkan,  
eta beraganaturik, esan zion: «Zergatik kejatzen  
zera orrela? Zer egiñ al dizazuket konsolatze  
arren?». «Nere Amorioa gurutziltzatua dago,  
erantzun zion, konsolatu nai banazu, negar egizu  
nerekiñ batean beraren Pasio Samiñagatik».

Beste batean bere azkeneko bi urteetan  
zeramazkian eziñ esan bezelako oñazeen artean  
galdetu zioten erlijiosoak señalatu zizaiela zeñ  
liburu nai zuen ekartzea, bera irakorriaz zerbait  
sosegu eta alibio emateko; eta eman zien erres-  
puesta eder au: «Ene anaiak, ez dago ni konso-  
latuko nauen liburu obeagorik, Jesu Kristo gure  
Jaunaren Pasioaren oroipena baizik; au da nere  
betiko meditazioetako gaia, eta munduaren  
bukaeraraño biziko banintzake ere, ez nuke izan-  
go beste irakurtzaren bearrik». Eta gero zion:  
«Jaungoikoari nai ez dakiola ni gloriatzea Jesu

Kristo gure Jaunaren gurutzeaz kanporako beste ezertan!». San Paulo apostoloaren deadarra maiz irteten zizaion biotzetik, eta orregatik Erlijioso txikienak aukeratu zuten beren ezkutarmen berezgarritzat.

Gure Santuak Jesus Gurutziltzatuari zion amorioa etzuen bereizten Jesus Sakramentatuari zion amoriotik. Meza entzuten zuen egun oro, eta maiz komulgatzen zan, eta erregutzen zien bere ume guziaz, baita Irugarren Ordenakoai ere, onetan jarraitu zezaiotela. Zer ikuskarri ederra zan ikustea joaten ura komulgatzera begiak lurrera begira, eskuak bilduak eta oñutsik misterio aiñ aundiaren begirunez! Begira zeudenen-tzat zan izan zitekean ederrena, eta etzuen iñork ikusten deboziora osotoro mugitu gabe. Eta bere bularrean Jaun aundia artzen zuenean, joaten zan bazter batera eta an geratzen zan beragandik irtenik zeruko ardoz beteta bezela.

Ezagutzen duenak Aldareko Sakramentua dala mundu onetan amorioaren atzeneko itza, beiñ bakarrik Komunioaren atsegiñak gustatu dituenak, sentitzen du bere animan sortzen dala deseio berri bat; Sagrarioak deitzen dio limurkari

biguñenakiñ: Sagrarioa da bere ondasuna, eta an dauka bere biotza. Au zan San Franziskoren jaiera. Etzan aspertzen Sakramentuari begira egoten. Aldare aurrean belaunikaturik, eta fedea erakusten digun argitasunezko itxaso artan, amoriozko labe artan murgildurik, igarotzen zuen egunaren parterik aundiena Jaungoikoarekin amorio estueneko jolasian. Orduak joaten zizaizkan nai baño lenago, askotan egun sentia etortzen zizaion jolas biguñ oetan zegoe-la, utziaz pena aundiarekiñ. Bein batean bere adiskide zan zaldun batek orrelako debozioaz arriturik, galdetu zion: «Aita, esan zadazu, nola errezatzen dezu, eta anbeste ordutan zer egiten dezu Aldare aurrean?». «Ene Seme, nik ere galdetzen dizut, zer egiten du pobreak aberatsaren atean, eriak sendagiñaren aurrean, eta egarri danak iturri garbi baten ondoan? Oek egiten dutena egiten det nik ere Sakramentuaren aurrean: erregutu, adoratu, amatu». «Erregutu, adoratu, amatu!» Ona emen esanik iru itzetan San Franziskoren bizitza guzia.

Eziñ eraman zuen Sakramentua zegoen eleizak bear bezela kontu egin gabe ikustea, eta

premiarik bazegoen, berperak garbitzen zituen. Misioetara joaten zanean, ostia gabe arkitu etzitezzen, edo zeudenak ongi egiñak ezpazeuden ere, eramaten zuen berekin Parrokia pobreetarako osti-molde arte aundiz egiñ bat. Aldareko Sakramentu Santua dala bide ekarri zien beti apaizai alako errespetoa, eta berari darraikala Ordena guziak ere ekartzen die.

Nola adieraziko degu Santuai zien debozioa, San Migel Aingeruen buruzaiari, San Pedro eta San Paulo, Apostoluen lenenai, eta guziaz gañ, bere Ordenaren bitarteko eta gordetzalle aukeratu zuen Jaungoikoaren Ama zorionekoari? Urteoro barau gogorrakiñ prestatzen zan oen pestak zelebratzeko.

Franziskoren anima betetzen zuen amorio garbi, agortezkiñ, eta Jesusen biotzetik zuzen zetorkion onek, etzekien alperrik egoten, eta barreiatzen zan ugaldearen gisan kriatura guzien gañean, baña batez ere munduan baztertuak daudenen gañean, zeñak beti izan diran asko, baita blasfemari eta erlijio gabekoetaneraño ere. Zenbat bider gure Santuaren mansotasun aldaezkorak sendatu zituen gorrotoak edo

erresumiñak zaurituak zeuzkaten biotzak! Zenbat bider adiskidetu zituen Jaungoikoarekiñ, jendearekiñ eta beren buruakiñ! Utzi dezaiogun *Iru lagun*en irakorgaiari kontaktzen garaipen oetakoren bat. Asistik Perusara zijoan batean billatu zuen bidean alderritar bat bere aserre bizian arpegi guzia sutua zeukana, eta nagusiaren kontra birauka zijoana, bere gauza piskak ostu ziozkalako. Santua alderatu zizaion, eta ikusirik, batere estutu gabe, segitzen zuela bere gorrototan eta bengatzeko asmoan, kupitu zan artzaz eta eztitasun aingeruzkoarekiñ esan zion: «Ene anaia, Jaungoikoaren amorez eskatzen dizut barkatu deiozula, zure anima salbatu dediñ». «Nik barkatu! deadar egiñ zuen gizonak. Ez diot barkatuko, kendu dirana ostera itzultzen diran arte-raño». «Tori nere kapotetxoa, esan zion Santuak, au da nik dedan guzia, eta ordañez, Jaungoikoaren amorez barka zaiozu zure nagusiari». Itz egiten zuen bitartean, kapotetxoa soñetik kendu eta eman zion maisterrari, zeñak ikustean Santuaren ernaitasuna, eta aren karidadea, ito zituen bere benganzako deseoa eta barkatu zion nagusiari.

Ainbesteraño kupitzen zan Santua lagun urkoen sufrimentuaz, non negar egiten zuen negarrez zeudenakiñ, eta bai egiñ ere askotan millagroak eskatzen ziotenen alde. San Jeminianon sendatu zuen bere ostalariaren emaztea, gaizkiñakiñ zegoena. Fabrianon, Bal-Petrosoko Ama Birjiñaren konbentura gurdiarekin joan bear izan zuelako, kanpoko lana gogoaren kontra utzi zuen nekazari batek, itzultzean ikusi zuen aingeruak landu zutela bere soroa. Trabe-Bonaton, egarriak itotzen zeuden beargille batzuek eskatu zioten ardoa, eta Santuak ur bizizko iturri bat bedeinkaturik, ardoa jarioka egon zan ordu bete baño geiagoan. Onelako gertakariak ugari ikusten dira gure Santuaren bizitzan.

Baña aren ontasuna etzan iñun ere arrigarriagoa, bere erlijiosoakin usatzen zuenean baño. Nolako karidadearekiñ saiatzen zan aek konsolatzeten, ala beren barrengo penetan, nola gorputzeko gaitz aldietan! Aekiko biguñtasuna bakar bakarrik neurtu zitekean bere buruari ekartzen zion gogortasunarekiñ.

Gau batean erlijioso gazte bat goseak eta gogaleak eziñ egonik, asi zan negarrez, eta

azkenik deadar egiñ zuen esanaz: «Goseak iltzen nago!». Au aditzean Aita doatsua jaikitzen da, maia prestatu eta eseritzen da erlijioso guziakin, gazte ura lotsatu etzediñ, bera bakarrik jaten jarririk. Jan ondorean itz egiñ zien onela: «Egiaz diotsutet, bakoitzak bere indarren kontua aterata artu bear duela bear duen janaria, gorputzak egiñ dezaiozkan animari serbitzu leial eta protxuzkoak. Kontu, ez gaitezen erori geiegian edo gitxiegian. Ez degu jan bear larriegi, bada ori gorputz-animentzat kaltarkitsu izango litzake, ez eta eragabe barautu ere, Jaungoikoak naiago dituelako miseriakordiazko obrak, ezen ez erlijioak agintzen dituen gorputz utsezkoak. Guri dagokigunez eta une onetan jan degu gure anaiari zor diogun karidadez, eta ez premiaz edo gurariz».

Gisa bereko urrikaltasuna usatu zuen frai Silbestre bere aurreneko amabi ikasleetako batekin aultasunezko gaitzarekiñ egondu zanean. Jakiñik frai Silbestre mats-zaletu zala, baña eskatzen lotsatzen zalako, eraman zuen urrean zegoen maasti batera, eseri zan berarekiñ batean zepa baten ondoan, mordo bat artuta bedeinka-

turik, partitu zuen eriarekiñ. Jaungoikoak bedein-  
katu zuen Santuaren karidade gozatsua, alabaña  
frai Silbestre sendatua arkitu zan bere partea jan  
zueneko.

Beste gertakari kupigarri batek ikusieraziko  
digu ongi San Franziskok bere erlijiosoai zien  
kariño aundia. Frai Rijer Boloniakoa, Doatsuaren  
izengaña merezitu izan zuena, egondu zan zer-  
bait denboran tentaziorik ikaragarriena dan etsi-  
menekoaren mendean. Uste zuen Jaungoikoak  
kondenatua zeukala, eta iruditzen zizaion orre-  
gatik San Franziskok ies egiten zuela beragan-  
dik. Osoro desalaitua zegoen egun batean esan  
zion bere buruari: «Joango naiz nere Aitaren  
billa. Arrera ona egiten badit, itxedon dezaket  
Juez Soberanoa alde izango dedala, eta bestela,  
ori izango da, Jaungoikoak bere miseriakordiatik  
bota nauen siñalea»; eta bereala joan zan Asisko  
Obispoaren jauregira, nun zegoen Franzisko  
gaitz aundiarekiñ Obispo Jaunaren kontura. San-  
tuak jakiñik zeruko argiz frai Rijerren animaren  
egoera eta aren joanera, agindu zien frai Leon  
eta frai Masseori ateratzeko bidera, esanaz:  
«Zoazte frai Rijerren bidera, bada datorkit ni bisi-

tatzera. Laztandu eta esaiozute bera dala nere erlijioso guzietan maiteen dedana». Leon eta Maseok obedienciako ume egiazkoak bezela bete zuten agindu zizaiena, eta frai Rije, bereala fedean sendoturik, sentitu zan konfianza eta poz aundiz betea. Eta ez al zan sartu San Franzisko zegoen gelan, au osoro argala bazegoen ere, jaiki zan, joan zizaion ongi etorria ematera, eta biotzez laztandurik, esan zion: «Nere seme maitea, amatzen zaitut bereziro munduan dauzkadan erlijioso guzien artean». Eta gero, bere ikaslearen kopetan gurutzearen señailea egiñ eta muñ egiñik, esan zion: «Jaungoikoak nai izan du tentazio ori zuk izatea, zure animaren on geiagorako, baña pixuegitzat daukazun ezkerro, gaurdanik ez dezu ez tentaziorik eta ez pruebarik geiago izango». Eta egiaz, une artatik bertatik frai Rije iritxi zuen osteraren barrena pake eta atsegiña, egundano geiago ez galtzeko.

Franziskoren ikasleen artean baziran batzuek jakiñdurian eta ondo itzegitean besteai eraiten zienak, nola ziran frai Elias, Alejandro Haleskoa eta San Antonio Paduakoa; Franziskok ezagutzen zuen, baña aen triunfuak eziñ eramanik

egon ordezk, gizon ttattar eta biotz txarrekoak bezela, txit atsegiñ aundia agertzen zien eta bai esan ere, biotz biotzetik laztantzen zituen bitartean: «Ene anaiak, zuek ekartzen dizkidatzuten berri onak sentierazitzen dizkidate zelaietako usai gozoa usantzen danean sentitzen dan atsegiña bezelakoa».

Jainkozko karidadearen ondore miragarriena da eskeintzea barkazioa kulpadunai, salbatu ditezen. Gure Santuak, Salbatzallearen miseri-kordia neurrigabea alegiñean jarraituaz, enkargatzen zien Ordenako Ministro edo Agintariai usatu zezatela urrikaltasun bera beren mende-koakiñ, alatan non orduan Buru nagusi-ordezko zan Pedro Kataniori izkribatu zion onako eskutitz au: «Jaungoikoa izan dedilla zure laguntza, eta bere amorio santuan gorde zaitzala. Erlijiosoen gobernuan enkargatzen dizut ager dezazula alako pazientzia, non, oetakoren batek eskua altxatzerañoko ausardia izango baluke ere, ar dezazula tratu gaisto au mesede bat bezela. Maita itzatzu era onetan tratatzen zaituztenak, eta ar ezazu amorioaren bidez berak obetzeko asmoa, ez dezazula uste izan ordea konbertituko

dituzula, Jaungoikoak orretarako grazia ematen ez badizu. Jaungoikoa amatzen dezula, eta neri beraren eta zure serbitzari naizen oni naitasunen bat didazulazkoaren siñalea izango da, baldin gure anaietakoren bat, kulpaduna izan arren, irteten ezpada zure aurretik zure ontasunaren señalearak sentitu gabe. Egiñdako utsegitearen barkazioa eskatzen ezpadizu, aurreratu zatzaiozka eta eman zaiozu, eta milla bider aurrean jartzzen bazatzu, ager zaiozu neroni baño kariño geiago, erakarri dezazun bide onera. Beste erlijiosoak ez dezaiotela eman arpegira, eta ez zabaldu, egiñ duen utsegitea, ezpada iduki dezatela gordea, estaliaz beren anaia karidadezko mantuarekiñ, zergatik ez dira osasundunak, ezpada gaizki daudenak, medikuaren bear diranak. Egizu agindu dizudan guzia. Agur».

Eskutitz au irakorritakoan galdetu diteke ote dan amarik bere umeentzat onek anbat amorio eta biguñtasun duenik. Era onetan jartzen zuen obraz Franzisko maitagarriak bere Erreglako Vlgarren Berezieran markatua utzi zuen konse-llua: «Ama batek bere semea gorputzaren alde-rik mantentzen eta maite badu, ezta maitatu eta

mantendu bear gure anaia espirituaren alde-  
tik?»).

Eta nola fundatzalle santuak etzion begira-  
tzen bere ikasleen animako aurrerapenari baizik,  
eta nola santutasunari dagokion gaizkia osoro  
gorrotatu, eta ona egiñalean maitatzea, Erregla-  
ren ausle gogor eta setatsuen kontra eman zuen  
sententzia ikaragarri au: «Aita guziz Santua, zuk  
eta zeruko gortear guziak eta ni zure serbitzari  
umill onek madarikatuak izan bitez beren gaitz  
bideakin lan egiten duten guziak lurreratzeko  
zuk zerorren eskuakiñ altxa eta ejemplo oneko  
erlijiosoen bitartez zuti idukiko dezun obra au».

# **Amaseigarren Bereziera**

*San Franziskoren birtuteak (gañerakoak). Obedienzia,*

*garbitasuna, umiltasuna, pobreza, mortifikazioa. Oraziozko doaia. Sortizaren gañean agintea.*

Jainkozko karidatea da erregiña bat bakarrik ez dabillena; beste birtute guziak dira bere alaba eta lagunak, eta bere jargoia altxatzen duenean Franziskoren gisako biotzean, uste izan bear da ikusiko dala zeruko birtute distiatzallez inguratua. Esango degu, bada, zerbait gure Santuaren birtute erlijiozkoen gañean, bukatuaz orrela bere anima ederraren erretratua.

Nork pintatu al izango du obedienzirako gure doatsuaren zela? Ordenaren fundatzallea zanez, aren betiko Buru nagusitza Aita Santuak eman bazion ere, aren deseoa zan beti obeditzea. Bere bidajeetan, nagusitza ematen zion lagun bati, eta Ordenaren gobernua Pedro Katanioren eskuetan utzi zuen ezkerre, aur baten senziltasunarekiñ jarri zan Guardiantzat eman zioten Anjel Rietiren mendean. Eta bizitzaren

azken aldera aditu zizaion esaten konfianzan bere ikasleetako bati: «Zerutik artu det mesede au, beste guzien gaindikakoa; emango balirateke guardiantzat ordu beteko nobizioa, obedituko nioke erlijioso zarrenari beziñ aisa eta leialki».

Gogora ekarri bedi garbitasuneko birtuteari gaztetandik izan zion amorio berezia eta urteakiñ batean azitzen joan zizaiona. Aragi illkorrez jantzita gaudenai Aingeruen gisan bizierazitzen digun birtute maitagarri onek anbesteraño distiatzen zuen argan, non, Tomas Zelanok arriturik deadar egiten du: «Zeñ gauz ederra dan ikustea aren oituren inozentzia, animaren senziltasuna, eta begiradaren garbitasun aingeruzkoa!». Nola baizekien garbitasunarekiñ gertatzen dala lore minberarekin bezela, au da, aizerik txikienak belaskatu eta galtzea, enkargatzen zien erlijiosoai ernaitasun guziarekin kontu egin zezaiotela sentiduai eta irudimenduari, eta begiratzeko ondo nolako trataera zeukaten emakumeakiñ, guzi onetan berak ejemploa emanaz. Aiñ modutsua zan non aseguratatu zien bere anaiai konfianzako jolas aldi batean, etziola begirik ezarri egundaño emakumeari.

Baita ere gogoratuko da Ebanjelioko pobreza-  
ren maitatzalle izan zala. Gai onetan esanda  
daukagunari ezer gitxi eransi bear diogu. Fran-  
ziskok estimatzen zuen birtute au, negar egitera-  
ño, ikusten bazuen eskaleren bat bera baño  
gaizkiago jantzia, zeukan jantzia kentzeraño,  
larrugorrian ikusten zituenak estaltzeko, eta  
beñ batean erlijiosoak Eleiz-errezoak egiteko  
zeukaten liburu bakarra emateraño. Aditurik erli-  
jioso bati isiltxorik esaten: «Franziskoren zelda-  
tik nator», deituta esan zion: «Zergatik deitzen  
dionzu nere zelda? Ezta nereea, eta gaurdandik  
beste bat egongo da bertan». Eta gero esan  
zuen: «Jesu Kristo gure Jaunak berrogei egun eta  
gaubeko baraba eremuan egin zuenean, etzuen  
altxa ez etxe eta ez zeldarik, ezpada gordetzen  
zan arzulo batean. Zeñ gauz ederra dan ikustea  
Franzisko iltzer zegoela, bere buruarengatik itz  
konsolagarri oek esaten: «Eztet gogoan iñoiz  
leialtasuna autsi diodala nere dama Pobrezari».

Ez da gitxiago arritzen gaituen gauza, aren  
paregabeko umiltasuna. Ozta izango da beste  
gizon bat bere inguruan ark bezelako sona sortu  
erazi duenik, bere burua ark anbat despreziatu

duenik, onrak ezereztzat, eta umillazioak mai-teago izan dituenik: Zenbat eta geiago alabatzen zuten, anbat eta geiago beeratzen zan. Beiñ batean lagunari esan zion: «Guazemazu emen-dik, alabaña jende on oek ematen dizkiguten onrakiñ eztegu ezer irabaziko. Guazen beste toki batera gizonen desprezioen billa, ori dalako gure irabazia». Umiltasunez eta ikusketa baten bitartez utzi zion Franziskok apaiz egiteari. Serafiñak baño eskual aundiagoa izatea, salbazioko bidetik animak giatzea eta Jaungoikoaren miseriorden bitartekotza egiteak eskatzen du santutasun bat Franzisko izutzen zuena. Aren izu au agertzen da Ordenako apaiz guziaz izkribatu zien eskutitzean: «Aditu nazazute, anaiak, esaten zien. Baldin Birjiña Maria doatsuak merezitu izan bazuen beste santuai ez bezelako onra berezia ekarri dezaio-gula Munduaren Salbatzallea bere sabel txit garbian eraman zuelako; baldin San Juan Bautista beldurrez beterik joan bazizaion Jesu Kristori Jordango ibaiko ura bere buru gañean ixuritzera; Obi edo Sepulkro Santua beneratzen badegu Jesusen gorputza iru egunean gorde zuelako; zeñ garbiak ez dute egon bear zeruko Jaungoiko

aundia, Serafiñak ikaraz aren aurrean arpegia beren egoakiñ estalita egoten diran Jaungoiko ura ogi eta ardoaren irudien pean idukitzen duten eskuak? Oroitu zaitezte, o apaizak, zein goi mallakoa dan zuen bokazioa, eta izan zaitezte santuak, santua dalako zuek sakrifikatzen dezuten jauskañia. Billatuko banituzke nik aingerua eta apaiza, aurrena apaizari egingo nioke agur, Jaungoikoak oni eman diolako zeruko espirituai eman ez dien eskubidea».

Ala ezagutzen da, apaizaren estaduaren gañean nola baizeukan alako iritzia, eta iruditzen zizaion orrek eskatzen duen diñatasunetik txit urruti zegoela, Asisko penitenzilaria etzala benturatzen Ebanjelioko ordenatik Mezatakora pasatzera. Asisko Obispoa eta frai Leon eziñ geiago leiatzen zitzaizkan, baña berak beti luzatzen zuen, itxedonaz zeruko argi berriak bere bokazioaren gañean, zeñak artu zituen zerutik, zeñ urteetan ezpadakigu ere. Bein batean orazioan zegoela agertu zizaion aingeru bat, eta erakutsiaz baso bat, kristala baño ur garbiagoaz betea, esan zion: «Begira, Franzisko, apaizaren animak au baño are garbiagoa egon bear du».

Ikuskera onek ar erazi zion bere bildurraren moduko asmoa, eta ala beti izan zan apaiz-urren edo diakono San Esteban, San Lorenzo eta San Efran bezela.

Eziñ utzi ginitzake adierazi gabe gure irakurleai humiltasunezko obra bi, San Buenabenturak eta Bernardo Bessek dakarzkitenak. Ona lenbizikoa, Sortaldeko misiotik itzultzean gertatua. Perusatik Boloniara bidean aĩn auldua sentitu zan gure santua, non asto bat artu eta gañean jarri bear izan zuen aurrera segitzeko. Bere lagun frai Leonardo Asiskoak, oro bat nekatua eta nekez jarraitzen ziola, izan zuen pensamentu bat mundukoa, gogoratzean lenagoko denbora: «Lenago gure etxea, zion beregan, orrena baño lenagokoa zan; baño oraiñ guzia aldeerrantziz dago, ori aberean dijoa eta ni oñez». Ozta itz oek bere gogoan pasa zituen, non, Santuak Jaungoikoagandik artutako graziarekin ikusirik aren biotzean pasatzen zan guzia, asto gañetik jetxi eta esan zion: «Ene seme, arrazoi dezu. Ez da egoki ni aberean eta zu oñez joatea, bada munduan zu ni baño noble eta itzal geiagokoa ziñan». Erlijiosoak, arritu eta lotsaturik, belauni-

katuta aitortu zion negarrez bere utsegitea, eta Franziskok an bertan barkatu zion, minkaistutze-ko batere biderik eman gabe.

Denbora artan zala uste degu frai Maseo Mariñangoak prueban para eta ezagutu zuela Santuaren umiltasun eziñ aundiagoa. Franzisko erretiratu oi zan Porziunkula ondoan orduan zegoen baso batera, Jaungoikoarekin libertade geiagorekin itz egitera, eta basotik itzultzen zan batean Maseok, urrutitik ikusi zuen eta bereala berarengana joanik, egiñ zion galdeera au: «Aita, zergatik zuri, eta ez beste iñori?». Fundatzaile santuak nola estimatzen baizuen bere ikasle onenetako eta Ordenako euskarririk sendoena bezela, etzuen gaizki artu Maseoren libertadea; kontrara, biguñtasun guziarekiñ galdetu zion konbenturonz zijoazela: «Ene seme, itz egizu, zer esan nai dezu?». «Esan nai dizudana da, esan zion erlijiosoak, ea zergatik dijoa mundu guzia korrika zuri segika? Nondik dator zuri aditzeko, eta zuk giatuak izateko dagoen deseoa aundi ori? Etzera gizon ederra, ez jakintsuna eta ez leñu argikoa ere; nola bada, diot berriz ere, dijoa mundu guzia zure ondoren?». Santuak

badaukate egia esaten zaienean aditzeko beren modua, eta ez dira sumintzen edo aserratzen, mundutarren gisan, kontrara, egiten zaizkaten oarkerak artzen dituzte gorde eziñ duten atsegi-ñarekiñ. Ori erreparatu zitekean mugaldi artan Santuaren arpegian. Aren kopeta, illundu bearreran, alaitu eta argitu zan. Bat batetan gelditu zan, eta begiak altxaturik, iduki zituen luzaroan josiak ikusten etzan gauza batera, andik berezitu eziñik, billatu izan balu bezela bere bersoetan kantatzen zuen bere biotzeko eta amorio guzieren Jaungoikoa. Kordegabetze ark iraun zion denboran zer pasa zan, eta Jaunaren eta bere mendekoaren arteko jolas artan zer esan zan, da gauza estali bat, Jaungoikoak gordea daukana. Masseok erreparatu zuena zan San Franziskoren arpegian oi ez bezelako mugiera, eta bere begiradak zerakarrela zeruko argitasuna, etzan ordea orrezaz izutu, eta ies egiterik pensatu ere, zekielako bere Aita doatsuak maiz izaten zituela gis artako kordegabetzeak.

Bere zentzura etorri zanean Jainkoaren serbitzaria, bekokiarekin lurra jotzeraño makurtuta bere negar malkoakiñ busti zuen, eta eman zioz-

kan eskerrak Jaungoikoari debozio irazekienare-  
kiñ. Gero altxata Maseorengana itzulirik, esan  
zion: «Ene seme, nai dezu jakin, mundu guziak  
zergatik darraikidan? Ematera noakizu bada  
gauz illun onen argibidea. Onak eta gaistoak beti  
begien aurrean dauzkan Jaungoikoak, anbeste  
milloi gizonen artean ez du arkitu ni beziñ peka-  
tari txar eta ezerezik, eta gizon guziak on bide-  
tzeko zeukan asmoari kunplimentu emateko ni  
baño balio gitxiagokorik, eta orra zergatik bere  
begiak nigan ezarri dituen. Bai, autu du zentzu  
gabea munduko jakinduria lotsa gorrian utzitze-  
ko, argal eta ezereza, aundi eta indartsuak bee-  
ratzeko. Eta zer besterik erakutsi nai izan digu  
onekin, on eta birtute guzia datorrela, ez kriatu-  
retatik, ezpada beragandik, iñork ez duela glo-  
riaztu bear bere burua aren aurrean, eta iñor  
gloriaztutzen bada, gloriaztu bear duela denbora  
guzietan gloria guzia berari bakarrik zor zaion  
Jaungoikoagan?». Errespuesta ederra, Ebanjelio-  
aren argitasuna distiatzen duena, eta Santu aiñ  
aundiaren diñakoa.

Frai Maseo erretiratu zan kontentu beste  
mugaldi batean frai Pacifico bezela, sinismen

osoan geratu zan alabaña, Aita doatsuak bere santutasunezko obra altxa zuela umiltasun kristauaren arroka biziaren gañean.

Sentiduen mortifikazioak osatzen zuen gure Santuan umiltasunetik asitako obra. Tratatzen zuen gorputza bere etsairik aundiena bezela, eman gabetanik ukatu eziñ zezaiokeana baizik. Askotan nastutzen zien autsa eramaten zioten jakiari, esanaz auts anaia garbia dala. Etzuen ura beste edaririk edaten, eta ori ere ozta egarria kentzeko anbat. Galdeturik egun batean ea zergatik zeraman aiñ bizitza latza, erantzun zien: «Gauza txit nekeza dalako gorputzeko premiak estaltzea aragiaren gurariai lekurik eman gabe». Azkeneko asnasetan zegoela, uste izan zuen S. Bernardok bezela eskatu bear ziola barkazioa bere anai astoari, au da, bere gorputzari, aiñ gogor tratatu zuelako. Santuak bakarrik dakite biltzen berengan bata bestearen kontrakoak diruditen birtuteak; eta ala penitenzi zale au zan denbora berean maitagarritasun, gozotasun eta alegeretasunezko ispillua.

Zenbat eta geiago begiratzen zaien San Franziskoren bizitz eta obrari, anbat eta obeto ikusten

da argan distiatzen dutela gizona aundi egiten duten birtuteak, animako aunditasuna eta modestia, umantasuna eta senziltasuna, zeloa eta zentzua, irmotasuna eta biguñtasuna; eta ala ez da arritzeko gauza, Jaungoikoak bere goi argiai aĩñ leialki erantzuten zion anima arkitzean aberatstu zezala bere doai preziotsuenakiñ, nola diran biotzak ezagutzea, etorkizun dauden gauzak somatzea, deabruari, gaitzai eta eriotzari agintzeko eskubidea. Txit arrigarriak dira zeruko doai oek, baña guzien artean guretzat estimagarriagoa, zenbat eta gordeagoa, anbat eta bikañagoa, besteak ortik datozelako, da oraziozko doaia. Franziskok iduki zuen mallarik goienean.

Bakanetan ikusten dira persona batean bilduak Mariaren bizitza oraziozkoa eta Martaren langillezkoa, geienean bata bestea menderatzen du, baña Asisko Santuaren doai berezia izan zan bata bestearekiñ biltzea, eta ala esan al baditeke, biak elkarren parean joatea. Onen egintza anbesterañokoa zan, anbeste apostolu sortu zituen, anbeste parajetara zabaldu zan, anbeste millagro egiñ eta anbeste pekatari konbertitu zituen, non zirudien etzitzaiola denbora-

rik geratzen oraziorako. Errezatu zuen anbeste, eta alako debozio eta negar malkoakiñ, anbeste bider beregandik irten eta idukitzen zituen jolas amorezkoak Salbatzallearekiñ, anbeste kantu amorezko eta esker onezkoetara zabaldu zuen bere anima, non badirudi etzitzaiola geratzen denborarik beste gauzetarako, alaz guziaz ere, esan bear bagenduke zeñ zan Santuagan gauzarik garaiena, orazioa edo apostolutza, esango genduke zala orazioa, berari zion gusto eta jaierra guziz aundiagatik.

Tomas Zelanok eta San Buenabenturak esaten digute nolako arreta jartzen zuen Jainkoaren doai onezaz aprobetxatzeko. Orazioa zan aren biziaren zimendua, artzen zuen asnasea, animako eskallera, nundik igotzen zan gizonetatik Jaungoikoarengana, eta jeisten zan Jaungoikoagandik gizonetara. Etzuen lanbiderik batere asitzen orazio egiñ gabe, eta oni egokatzen ziozkan bere sermoien frutuak, deabruagandik ateratzen zituen garaipenak eta birtutean egiten zituen aurrerapenak. Au izan zan, egiaz, aren anima aiñ denbora gutxian Jaungoikoarekin amorio estue-nean bat egiteraño altxa erazi zuena. Argatik

beti egon zan ernai erantzuteko leialki Jaungoikoaren ispirazioai, beretara lasaitasun guzian emanaz bakarrik aurkitzen zanean, eta bere lagunetatik bereziaz iñorekin zegoenean edo bidajeon zijoanean. Beiñ baño geiagotan ikusi izan zuten bere ikasleak beregandik irtenik, arpegia bestiruditurik, begiak zerura begira aiñ itsatsiak, non etzuen sentitzen mundu onetako gauzarik, edo baita ere airean lurretik zerbait altxaturik, argi errañuarekin burua inguratua zeukala. Aiñ maiz gertatzen zitzaiozkan kordegabetze luze aetan Jaungoikoak agertzen ziozkan gauz estali aundiak, Santuak beretzat gordetzen zituenak, noiz eta Jainkoaren gloriak edo animen protxuak etzuten beartzen aitortzera.

Gau batean erlijioso batek Franzisko bere zeldan arkitu etzuelako, uste izan zuen inguruko basoan egongo zala. Bereala joan zan, eta erdi aldera sartzean, aditu zuen bere Aita doatsuaren boza, ari zala biotzeko zizpiru aundiakiñ erregutzen Ama Birjiñari, arren, erakutsi zeiola bere Seme adoragarria. Aurreratu zan geixeago boza irteten zan tokira, eta ikusi zuen nola zeruko argitasunen artean Ama Birjiñak esan eziñ alako

biguñtasunarekiñ jartzen zuen bere Semea Franziskoren besoetan, eta onek Simon zarrak bezela, artu, adonatu, palakatu, eta erregutzen ziola pekatariak barkatzeko eta salbatzeko. Ikuskarri onen bistan erlijiosoak erdi illean erori ziren lurrean; aia berezkorra du gizon eroriak Jaungoikoari bildur izatea! Santuak Matutietarako konbentura itzultzean, arkitu zuen lurrean etzanda eta zentzu gabe, erakarri zuen ezaguerara, eta aginduzion etzezala esan ikusitako gauzarik batere, baña erlijiosoak pensaturik beregan Jaungoikoaren gloriak isilik egotera baño obeto beartzen zuela itz egitera, kontatu zuen berealaxe ikusi zuen guzia.

Beste mugaldi batean nobiziaduko konbentura San Franziskok zeraman fraide sartu berri batek somatu zuen gauza egoki bat jakiteko zer egiten zuen arratsean. Beren bidajearen luzarapean bat izanik, arkitu ziran gaua kanpoan igaro bearrean, eta etzan ziran lurrean, eta Santuak artu zuenean, aren sokaren punta lotu zuen berearenarekin. «Era onetan, zion beregan, eziñ ezer egingo du nik sentitu gabe»; eta bere somaketarekiñ pozturik, laister bera ere loak artu

zuen. Andik ordu gitxira San Franzisko esnatu zan, eta oarturik sokak lotuak zeudela, poliki poliki askatu zituen, eta joan zan aldean zeuden arbola batzuen azpira orazio egitera. Nobizioak, esnatu zanean ikustean bere burua bakarrik, joan zan bere Aita doatsuaren billa. Arbol tartetik azaltzen zan argi errañu oi ez bezelako batek adierazi zion an zegoela Santua, eta arunz joanik ikusi zuen ikuskarri bat gizonen miñgañak kontatu eziñ dezakeana. Jaungoikoaren Semea, zeruko aingeruz inguratua, bere Ama txit Santa, San Juan Bautista eta San Juan Ebanjelaria zeuden an jolasian lanoro San Franziskorekin; eta gauza arrigarria, ikuskarri berperak ekarri zuen bi bider ondore berpera. Nobizio au, lenago aitatu degun erlijiosoak bezela ikaratu eta gelditu zan zentzugabe, alik eta gure santuak, Jesu Kristok agindurik ostera bizia itzuli zioneraño. Denbora onetan ikusketa desagertu zan, eta Franziskok aginduzion ari ere, etzezala kontatu ikusi zuena. Eta onek, erlijiosoak baño obeto obediturik, itxedon zuen Santua ill bitartean, kontatzeko gertakari miragarri ura.

Jaungoikoak, bere grazien jabe bezela, gogoak ematen dion eran kriaturai partitzen dieztenak, ez du nai era eta bide gabe nastutzea bere graziaren lanak. Asisko Obispoa joan zan egun batean Porziunkulako konbentura, eta iñoren pauso otsik sentitzen etzalako, erdi iriki zuen San Franziskoren zeldako atea, beregandik irtenik zegoela ikusteko asmoarekiñ, baña berealaxe ikusten etzan beso batek aienatu zuen zeldatik urruti, eta bere sentiduak etzitzaizkan ondo jarri, alik eta bere erakeria erlijiosoen aurrean aitortu zuen arteraño.

Negar eta erregu, amorio eta umiltasunaren indarrez Bernandonen Semeak iritxi zuen ostera bereganatzea aurreneko inozentzia, eta bazirudian onekiñ batean beretu zituela gure lenengo gurasoak zeuzkaten pribilejioak kriatuak izan ziran egunean. Bera zegoen Jaungoikoarengana osoro menderatua, eta beeragoko kriatura bihurturik arentzat pekatuak desegiñdu zuen malla edo egoerara; aiñ otxana zegoen aren esanera, non beste alako obediencia arkitzeko, itzuli bearke degu Paraisoko denbora zorioneko artara. Eztago dudarik, San Franziskoren aurretik izandu

zirala Santuak, Adanek galdu zuen aginte eta eskua bildu zutenak: Tebaidako gurasoai beleak serbitzen zien, leoiak obeditzen zioten San Antonioren bozari, San Galok agintzen zien Alpe mendietako artzai; San Kolonbano, Luxibilgo basoa igarotzean txoriak alegeratzen zuten kantu atsegiñgarriakiñ, eta muxarrak salto egiten zioten arboletatik bere eskura; baña iñork etzuen berdiñdu Asisko Penitentea. Gizonak pekatuan erori arteraño gauza kriatu guzien gañean izan zuen eskuala, izan zuen San Franziskok, ez denbora gitxian edo suertez bezela, ezpada iraunkorkiro, alatan non, gauza jakiña da Franziskok Sortitzari agintzen ziola Jabeak bezela, eta Sortitzak obeditzen ziola zentzuduna izan balitz bezela.

Ama Birjiña Aingerueneko konbentutik irtezen zanean Unbriako zelaietara, abereak agur egiten zioten beragan munduaren Egilleari. Nola etzuten ikusten Jainkozko marka baizik, lurreko gauzik etzeukan gorputz me argal artan, eta etzien sentierazten gure erorketa eta gogortasunak erakartzen dien berezko izua, ingurutzen zuten Santua berari begiratzeko eta serbitzeko. Erbi eta untxiak gordetzen ziran aren abituaren

tolesturetan, zelaien bat pasatzean, aditurik ardiak arrebaren izenarekiñ deitzen ziela, korrika zijoazen beragana, artzaiak osoro arriturik geratuaz; eta Franzisko bera, nola baizegoen aspaldian alde egiñik gizonen jolasetatik, poztutzen zan kanpoko abereak egiten ziozkaten palagu eta jostaketakiñ.

Rietiko aintzira-ertzean arrantzale batek erregalatu zion ur-egazti bizi bat. Franziskok txit biotzetik artu zion, eta piska batean eskuetan idukita idiki zituen ies egiñ zezan, baña egaztia etzan mugitu. Orduan Santuak Jaungoikoarenganako amorioz eta esker onez, begiak altxatu zituen zeruronz, eta ordu bete baño geiagoan egon zan kordegabetanik. Bere zentzura etorri zanean, bedeinkatu zuen bere anai egaztia, eta agindu zion zijoala libertade guzian Jaunaren alabantzak kantatzera, eta bereala kantari asiaz joan zan egaka.

Aintzira artan bertan beste arrantzale batek eman zion egun batean orduan atxitu zuen arraitzar bat; Franziskok, eskuetan piska batean idukita, bota zuen ostera urera; baña arraia, andik joan bearrean geratu zan bertan ugañean josta-

ri, Santuagandik alde egiñ nai ezpazuen bezela; eta etzan joan alik eta Santuak agindu eta bedeinkatu zuen arteraño.

Beste batean Senako bidean billatu zuen mutill gazte bat, uso tortola biziak saltzera zera-mazkiala. «Ene seme, esan zion Santuak, ez itzazu eraman eriotzara Eskritura Sagraduan anima garbi, umill eta leialen irudia diran egazti iñozente oriek; eman zaizkidatzu, arren, niri». Mutillak bereala eman ziozkan, eta Franziskok kolkoan sartu, berotu eta palakatu zituen eta esan zien: «Tortola inozente eta garbiak, zergatik utzi zerate arrapatzen? Nik libratuko zaituztet besteren mendetik eta eriotzatik, eta emango dizkitzuet kabiak, ugaritu zaitezten. Ots, ene seme, esan zion berriz gazteari, begira zer sari emango dizun Jaungoikoak oraiñ egiñ dezun liberaltasun onegatik. Egun gitxi barru jantziko dezu penitentiako abittua, eta arkituko dezu gurekin batean borondatezko pobrezaren ondasunean betiko zorionaren prenda segurua». Alde aurrez esan au kunplitu zan bete betean, eta gaztea Erijijsoso txikienen Ordenan sarturik, ill zan santutasunean. Franzisko, gazteari bedeinkazioa emanda,

bideari zerraikala, joan zan Senako murru ondolan zegoen Rabakzianoko konbentura bere uso tortola ederrakiñ. Ara zanean, sartu zuen lurrean eskuan zeraman makilla, eta biaramonean fraideak osoro arritu ziran ikustean makilla aritz-arbol aundi biurtu zala, nun utzi zituen usotxoak, aginduz bertan kabiak egiñ eta pakean bizitzeko. Oek obeditu zioten, eta aiñ ondo konpontzen ziran erlijiosoakiñ, non eskuetatik jana artzen zien. San Franziskoren aritz mirarizkoa, oraindik zutik zegoen XVIIIgarren eunkiaren asieran.

Monte-Kolonboko konbentuaren ondoan zegoen mendiollarren kabia eta ango ama joaten zitzaion egun oro San Franziskori, umeentzat ematen zion jana aren eskutik artzera. Lumaatu ziranean artu zituen guziak, eta ikusi zuen bat besteak baño gizenagoa, mokoaz jo eta jana kentzen ziela. Pena artu zuen, eta errietan eman zion, esanaz: «Asekaitz gogorra, errukarriro illko aiz, eta piztirik jaletzarrenak ere ire aragirik ez ditek progatu naiko». Egund gitxi barru ito zan ura edatera joan zan ontzi batean; eta katu eta txakurrai bota bazien ere, iñork etzion ukittu.

Siriatik itzuli zanean gure Santuak Beneziako aintziran pasatzean ikusi zuen txori sall aundi bat bere aurrean kantari; eta esan zion lagunari: «Gure anai txoriak Jainkoa alabatzen daude, goazen aen artera Eleiz-errezoa egitera». Baña nola aen soñuak eragozten zien bata besteari aditza, aetara itzulita esan zien berriz: «Nere anai txoriak, zaudete ixilik, gure alabantzen zorra Jaungoikoari guk pagatu bitartean». Berea-la ixildu ziran, eta etziran asi ostera kantatzen Santuak baimena eman zien artean.

Albianoko aldeerrian predikatzen ari zan batean, aiñ iskanbilla aundia ateratzen zuten inguru aetan kabiak zeuzkaten enadak, non etzizaion aditzen zer esaten zuen: «Enada seni-deak, esan zien Santuak, zuek pranko itz egin dezute; orain nere txanda da; aditu ezazute Jaungoikoaren itza, eta zaute isilik nik predikatzen dudan bitartean». Enadak isildu ziran, eta etzuten egorik mugitu. San Buenabentura da au kontatzen duena, eta gañera dio, bere denboran izan zala Parisen estudiante bat, ari zan lanean enada baten kantuak zabartzen zuelako esan ziena lagunai: «Dударик gabe ori da San Franzis-

kori predikatzen zegoela pakerik ematen etzioten enadatako bat eta isildu erazi zituenetakoa». Eta enada zegoen alderonz begiraturik, esan zion: «San Franziskoren izenean agintzen dizut zaudela isilik, eta nere eskura atozkidala». Isildu zan txoria, eta joan zitzaion. Mirari artzaz anbesteraño arritu zan estudiantea, non geratu zan mugimentu gabe, eta etzuen pensatu eskuan artzerik, eta andik piska batera egatu zan, eta etzion geiago bere lanik galerazi.

Ama Birjiña Aingerueneko konbentuan San Franziskoren zelda ondoan zegoen piko arbolara joan zan txitxarra xomorro bat kantatzera. Santuak deitu zion eta bereala joan zizaion eskura; eta eskuan zeukala esan zion: «Txitxarra senidea, kanta eta alaba ezazu Jaungoikoa». Obeditu zion, eta etzan isildu Santuak agindu arteraño. Ala igaro zituen zortzi egun, pikotik zeldara, eta zeldatik pikora ibiliaz. Egun oen buruan erlijiosoai esan zien: «Denborarik asko bada txitxarra senideak konbidatzen gaituela Jaungoikoa alabatzera; utzi dezaiogun joaten». Bereala alde egiñ zuen, eta etzan geiago azaldu.

Geroago Albernia mendiko San Franziskoren koba zuloaren aldean kabia zeukan mirotz batek aĩn kariño aundia artu zion Santuari, non, moduren batean egiñ zan beraren arratsetako beillari. Matutietako ordua zetorrenean, beti kantatzen zion zeldako atean, eta etzion utziko beiñ ere egun sentia baño len esnaatu gabe. Santuaren eritasunak azitzen bazijoazen, etzuen kantatuko eguzkia atera bitartean, eta orduan ere ixiltxorik.

Bere azkeneko urteetan Senan zegoela zaldun batek erregalatu zion faisán egazti eder bat. Santua ikusi eta aren itz otsa aditu beziñ laister alako kariñoa artu zion non etzuen beñere aren aldamenetik kendu nai izaten. Askotan eraman zuten maastietara, an libre uzteko, baña bereala ega batean itzultzen zan San Franziskorengana. Erregalatu zioten Santua maiz bisitatzen zuen zaldun beraren adiskide bati, eta etzuen jan nai izaten. San Franziskori osterá bialdu zioten, eta alako poza artu zuen, non egiñ ziozkan milla palagu, eta asi zan txit gogotik jaten.

Askotan, Asistik egun sentian irtetzen zanean inguruetako errietan predikatzerá joateko, asten

zan konbidatzen kriatura guziak arekiñ batean kantatzera Jaungoikoaren alabanzak: «Nere senide loretxuak, esaten zien basoko naslorakia, kanpoko margaritai eta zelaietako bioletai, agur egiozute nerekiñ batean guzion Egilleari»; eta loretxoak makurtzen zituzten beren ari meak, bazerabisten beren ostoak orruntz onuntz inzenu ontzia bezela, eta banatzen zuten beren usai gozo guzia Jaungoikoaren aurrean. «Txitxarrak, uso tortolak eta kurrukak, zion gañera, adoratu dezagun guziok elkaturik bizia eman digun Jauna». Eta txitxarrak, tortolak eta kurrukak asten zuten esker onezko kantua Jaungoikoari.

Piztietarañoakoak ziran erakarriak Asisko penitente umillarengana. Argan errespetatzen zuten Adanen lenbiziko eskualaren argi-erraña, eta Jaungoikoaren edertasun paregabekoarena, alatan non ikusi beziñ laister, manso biurtzen ziran. Irakorleak gogoan idukiko dute Gubbioko otsoaren mudantza. Zenbat ejemplo gis onetako ekarri ditezkean! Kotanellotik Greziora zijoan batean, zeraman bidegiari esan zion, mendi aetan zebiltzan otsoak etziotela ezer egingo. Promes onetan fiaturik eraman zuen Greziora, baña itzule-

ran basoaren toki illunean irten zitzaizkan otso bi, alderaturik, oñak miliskatu ziozkaten, eta gero lagundu etxeraño, nagusiai beren zakurrak bezela. Grezioko biztanleak jakindu zutenean mirarigille ospatsua etorri zitzaiela, joan zitzaiozkan negarrez erregutzera, arren libra zitzala zeramazkiten bi lazeriatatik, au da, abazuzatik eta otsoetatik. Franzisko kupitu zan, eta itz egiñ zien onela: «Jaungoikoaren onra eta gloriagatik aseguratzen dizutet, ezen, penitencia egiten badezute, gaitz oek alde egingo dutela; baña denbora berean ziertozat iduki, baldiñ Jaungoikoaren onegiñak pagatzen badituzute esker txarrarekiñ, zuen kontra bera aserratu, eta kastigu aundiagoak bialduko dizkitzutela». Itz eman zuten agerian penitencia egingo zutela, eta ala beren itza leialki kunplitu zuten bitartean ez otsoak amarrendu zituzten artaldeak, eta ez abazuzak galdu laboreak.

Gera gaitezen emen. Ez genduke bukatuko iñoiz Santuaren bizitzan gertatu ziran gis oetako gauza guziak kontatu bear bagiñituzke; alaz guziaz ere, esan degu bear anbat gure irakorleak, altxarik Jaungoikoaren eskuak tapatzen

duen estalkia, ikusi dezatekean nola aren Ontasun neurrigabeak deitzen dituen kriatura ezerezak beraren perfezioetan part-artzera, eta gure Erredenzioko misterio illunenetako bat, au da Sortitzaren erreskatea, ezagutzera. San Paulok erreskate edo libertade au adierazi zuen Erromarrai zuzendutako eskutitzean: «Sortitza guzia zizpiruz dago agerkeretako egun aundiaren deseoz. Orain gogoaren kontra bada ere, dago gizonaren arrokeriaren mendean, eta penatzen da, baña etorriko da egun bat zeñean libratuko dan bere ondamenaren uztarripetik, ostera sartuaz Jaungoikoaren Semeen libertadean». Au da Apostoloak erakusten diguna. Orain, miresteko gauza izango da baldin pekatariak paratako uztarripean negar egiten duten kriaturak alegeratzen badira, ikustean libertadea ematen ari zaizten Santuak? Arritu bear gaitu leoiak eta artzak bollesian etzatea martirien oñetan eta kalterik egiten ez duten aberiak jarri ditezela zintzo Jaungoikoaren adiskideen aginteetara?

Gauza guzien gañeko aginte eta eskubide au ez da fedearikiñ argitua dagoen arrazoiaren kontrakoa, ala ere, ez da gu gutxiago arritzen

gaituen gauza. Adanen seme bat, jatorrizko pekatuaren ondoren izan dala bete betean, eze-  
*rezetik sortutako gauza guzien Errege*, ez da ino-  
zenzia berriro eskuratuaren doairik preziosoena,  
eta negarrezko ballera onetan gizonak ikusi  
dezakean ikuskarririk ederrena? Egoki eta ede-  
rrak agertu bear zuten gauza guziak beren Egi-  
llearen eskuetatik irten ziranean, eta gizona  
berriz aundigoia abere bakoitzari bere izena  
ematen zionean, eta gauza guziak bere Errege-  
zigorraren mendean zeuzkanean; baña ez da  
gitxiago arritzen gaituen ikuskarria, ikustea Ada-  
nen Seme bat, Franzisko Morikoni, garbitzen  
Jesusen Odolarekin pekatuaren azkeneko man-  
txak, desegiten aurreneko madarikazioaren  
kutsu guziak eta part-artzen mundu onetatik  
Kristo piztu eta garailariaren erregetza betikoan.

Alakoa da San Franziskoren doai, birtute eta  
gallaldien bilkuia, bilkui aiñ egoki eta zoragarria,  
eta munduko edertasun guziaz gaiñdikakoa, non  
Serafiñ irudi onek eztauka berdiñik munduko  
kondairetan; eta beragatik Unbriako eskolako  
maixu Giotto eta Perusinok artu zuten gizon  
berriro libratuaren moldetzat. Seireun urte igaro

dira eta ala ere gu mugitzen, alaitzen eta arri-  
tzen gaitu, eta gure arrigarrizko sentimentuak  
adierazi nai baditugu, baliatu bear degu Errege  
Profetaren itzez, deadar egiñaz berarekiñ: *Mira-  
bilis Deus in sanctis suis*. Bai, Jaungoikoa miraga-  
rria da bere obra guzietan, aiñ miragarria aun-  
dietan nola txikietan, kanpoko belar ostoaren  
gañean zinzilik, eta zeruko argiak distiatzen  
duten ur tantoan, eta millaka ontzi eder bela  
beteaz dijoazen itxaso zabaletan; baña are mira-  
garriagoa da bere santuetan, zeñak diran bera-  
ren graziaren obra bikañenak, eta Ebanjelioko  
argiarekin eta Jesu Kristoren Odolarekiñ senda-  
tu, berritu eta altxatutako gizatasunaren irudide-  
koak.

# Amazazpigarren Bereziara

*Albernia mendia.*

*Emen ezartzen zaiozka  
zauriak San Franziskori.  
(1224)*

Toskanaren sarreran eta Unbriako muga aldean altxatzen da mendi bat, zeñaren gallurra berezitzen da Apeninoetatik, eta oñetik dijoazen bost ibai, Tiber eta Arno sartaldetik, eta Metauro, Foglia eta Marecchia sortaldekotik; ori da Albernia, mendi bedeinkatua, San Franziskoren Tabor eta Kalbarioa pozik deituko giñiokeana, an zeruko meditazioen atsegiñak gozatu, eta an bere odola ixuri zuelako. Albernia mendira bere joanerak eta ango egoerak aiñ oroipen bizia utzi dute, non emen berritu bear degun merezi duen arretarekiñ.

Franziskok aurreneko joanera egiñ zuen Alberniara 1213ko udaberrian Españara zijoala, eta andik Marruekora pasatzeko asmoarekiñ. Gertatu zizaion igarotzea Montefeltroko gazteluaren ateetatik, zaldun guda bat asterako abian

zeudenean. Ate aundiaren gañean zegoen Etxe Jaunaren bandera zabaldua, patioan aditzen ziran eskuzaldien ankaotsak, eta dorre goienetik jotzen zuten tronpeta soñuak, adierazten zuen pesta astera zijoala. Montefeltroko Konde gaztea, aurreko gau guzia arma-beillan bere aurrekoen kapillan igarota zijoan zaldun armatua izatera Florenziako nobleza guziaren aurrean.

Franziskok, nola baizituen txit gogozkoak erlijio eta soldaduzka gisako pest oek, esan zion berekiñ zeraman lagunari: «Anai Leon, igo gaitetan gaztelura, bada Jaungoikoaren laguntzarekiñ egingo degu an zaldun espiritual bat». Zeremonia bukatuta zaldun guziak aparteko patioan bildurik zeudela, Franziskok, aulki batera igorik zuzendu zizten aditzalle aei itz batzuek azalduaz txit egoki Italiako esaera au: «*Tanto é il bene ch'io aspetto, ch'ogi pena m'é diletto*»: «Deseo dedan ondasuna da aiñ aundia, non edozeiñ pena da neretzat atsegiña». Eta aitatu zien Apostoluen, martirien eta konfesoreen ejemploa, nola oek gogo onez jartzen ziran tormentu mota guziak sufritzera zeruba irabazteagatik. Jaun argi

aeak osotoro arriturik, aditzen zituzten aren itzak aingeru batek esanak bezela, alatan, non, aeta-ko batek, Orlando Chiusi, Kasentinoko Konde anima garbi, munduan bizi bazan ere, mundukoa etzanak, sermoia bukatzean lagunetatik berezi eta deiturik, esan zion: «Aita, denbora asko da ordu oni itxedoten negoela; zurekiñ itz egiñ nai nuke nere animaren salbazioaren gañean».

Eta Franziskok nola baizeukan zelo beziñ zentzu aundia, erantzun zion amoriozko farra irriarekiñ: «Atsegiñ aundiarekiñ, ez oraiñ ordea, onra itzatzu zure adiskideak berakiñ festa guzian egonaz, eta bazkal ondorean itz egingo degu gogo dezun guzia». Orlando kondeak Santuaren konseillua segitu zuen, eta bazkaria bukatu zanean Franziskorengana joanik, itz egiten egon zan luzaro zeruko Zorionaren, eta bera iristeko bideen gañean. Kondeari aiñ laburra iruditu zizaion jolasari utzi ziotenean, onek esan zion Santuari: «Nere lurretan daukat mendi bat osoro eremua, sentiduak bildu eta meditaziorako egokia. Ikusi ezazu, eta ona baderitzatzu, emango dizut zuretzat eta zure lagunentzat nere animaren salbazioagatik». Franziskok eskeña ontzat

artu zion, eta bai agindu ere bere erlijiosoetako bi bialduko zituela Albornia-mendira, Españako bidajea berak egiten zuen bitartean.

Bi erlijioso joan ziran Chiusiko gaztelura, zeñaren orma puska izugarriak ikusten diran oraindik Rasina errekaen ertzean eta Albornia-tik milla bat pausora. Orlando kondeak txit ongi artu zituen, eta bildurik berrogeita amar gizon lapur eta lar abereetatik gordetzeko, joan ziran bidezko oen buru bera zala. Mendiko igoera da txit gaitza, alabaña iru aldeetatik guzia da arkaitz uts, soll eta zuzenez betea, eta igo al ditekean laugarren alde dago amilkai izugarriak estaltzen dituzten arbol eta larrez itxia. Igoera perilsua bazan ere, gure bidelariak proba egin zuten, eta etzitzaien damutu. Igotzen zijoazen bezela aen begien aurrean agertzen ziran ikuskarri bata baño bestea nabarbenagoak: alaitzen zituzten, eta etziran aspertzen ango kanpo aundi, latz, ikaragarri eta pintatu eziñ ditezkean aei begira. Iritxi ziran azkenik mendi tontorrera, nun arkitu zuten zelai bat abeto eta pago arbolaz estalia. Toki ura gustatu zitzaien bi erlijiosoai, artu zuten Franziskoren izenean Orlandok

egiñ zien emaitza, bereala antolatu zituzten txaoia eta kapilla bat, eta egiñ zuten Eleiz errezoa, mendiaren jabetesuna orazioarekiñ artze-ko.

Franziskok Españatik itzuli zanean, agindu zien emateko pasatako guziaren kontua, eta alako kolore ederrakiñ pintatu zioten bakardade ura, non esan zien lagunai: «Nere seme maiteak, alderatzen zagu San Migeletako garizuma, eta uste det Jaungoikoak deitzen gaituela Albernian pasatzera, eskeñi ditzaiegun penitenziarekin gure Salbatzalleari, bere Ama gloriotsuari eta Aingeru Santuai». Eta bereala eman zizaion bideari frai Masseo, frai Leon eta frai Angel lagun zituela. Eta frai Masseori esan zion: «Ene seme, zu izango zera gure agintari bidean goazen bitartean. Bidean guk gordeko ditugu konbentuko oiturak, au da, errezatuko degu Eleiz-errezoa eta egongo gera ixilik, utzirik Probidenziaren eskue-tan gure mantenua eta atarbea». Iru erlijiosoak burua makurtu zuten, eta Masseo jarri zan iruren aurrean. Lenbiziko gaua igaro zuten Ordenako konbentu batean, baña bigarreanean nekeak eta eguraldi gaiztoak sar erazi zituen utzia zegoen

Eleiz zar batean. Iru lagunak loak artu zituen, ez ordea Franzisko, bada geratu zan orazio egiten, eta gogor egiñ bear izan zion deabruen eraso portitz bati. Espiritu gaisto oek arrabiaz beterik beren agintea kentzen zielako, agertu zitzaiozkan itxura ikaragarrietan, eta gogorki erasorik, ebaki zuten kolpeka, eta utzi lurreratua erdi illean. Jazarrearen gogorrenean Franziskok biotza zeukan alxia denbora guzietako errege Jesu-senganonz, bere kapitanaren aurrean portizki peleatzen dan soldaduak bezela. «Jesus, nere Jaungoikoa! deadar egiten zuen, eskerrak ematen dizkitzut zure mesede guziakgatik, baña batez ere zure amorioaren prenda segurua nereztat dan oraingo onegatik. Nere pekatuak mundu onetan kastigatzen dizkidatzu, bestean barkatzeko. Nere biotza prest daukazu sufritzeko milla bider geiago, zuk ala nai badezu». San Buenabenturak esaten digu San Franziskok askotan gogor egin bear izaten ziela deabruai, baña espiritu arro oek, aren irmotasuna bentzutu eziñik, beti lotsa gorrian iges egiten zutela.

Biaramon goizean aiñ kemen gabe arkitu zan Franzisko, non eziñ oñez ibili zan. Lagunak joan

ziran aldameneko erri txiki batera, eta billatu zuten nekazari prestu bat astoa eman eta berai laguntzera joan zitzaiena. Eman zitzaiozkan bada bideari: aurrena zijoan San Franzisko asto mansoaren gañean, eta ondoren fraideak eta nekazaria; onek mendiko aldapa igotzen asi zira-nean esan zion Franziskori senzilloro: «Aita, esan zadazu egia, zu zera benetan Franzisko Asiskoa, jendeak berazaz anbeste itz egiten duena?». «Bai», Santuak erantzun zion. «Atsegiñ artzen det, eta saia zaitez jendeak dion bezelakoa izaten, beren ustean engañatuak izan ez ditezen». Franzisko umillak anbeste senzilltasunez arriturik, asto gañetik jetxita belauniko jarri zan nekazariaren aurrean, eta muñ egiñ zion oñetan eman zion konsellu onaren paguan, eta gero igo zan ostera asto gañera.

Bitartean mendian barrentzen ziran bezela, aldapa zan biziagoa, bidea kaskarragoa eta eguzkia beroagoa. Mendietan ibiltzen oitua dagoenak daki zenbat sufritzen dan alako aldarreetan. Nekazariak, beroak eta egarriak erasarnik, deadar egin zuen: «Ni ez naiz geiago! Itzerra noa edateko urik billatzen ez badet!». Baña

eremu artan ur tanto bat ere etzegoen. Franzisko kupittu zan errukarri artzaz, eta besoak zeruronz altxaturik, jarri zan eskatzen konfianza osoarekiñ Jainkoaren probidenziari sokorri zezala tranze estu artan. Eztago izkribatua Jaungoikoa dala Aita, eta Aita bat besterik ez bezelako ona eta kariñotsua, eta maite dituenen erregu txikienetara makurtzen dala? Berealaxe, ezaguturik aren eskaera aditua izan zala, Franzisko itzuli zan nekazariarengana, eta beatzarekiñ arri aundi bat seinalaturik, esan zion: «Ikusten dezu arri ori? Zoaz ara, eta arkituko dezu iturri bat Jaungoikoak bere ontasun eta zugarako urrukimenez sortu duena». Gizonak santuaren itza sinistu zuen, eta begiratzen zion beste Moises bati bezela Jaungoikoarekin zeukan balimentu aundiagatik. Joan zan esandako tokira, eta billatu zuen egiaz ur presko eta gozoko iturria, baña ez al zuen bertatik naiko ura edan, betiko desagertu zan.

Ozta arkitzen da Santuaren bizitzan beste pasarte bat au baño arrigarri eta lilluragarriagorik. Ze kuadroa! Bidelari batzuek baso mortuan galduak, aetako bat egarriak iltzen, beste santu

bat Jainkoari erreguka eta ark aditua, eta guziaren erdian Jaungoikoa bere serbitzarien biziari kontu egiten ama kariñosaren gisan... Irudikai aĩn senzill eta aundi onek, ez du merezi kristau artisten argitasuna sospertzea?

Iritxi ziran azkenik gure bidelariak mendi ton-torrera, nun aztu zitzaizkaten igoeran igaro zituzten nekeak. Franzisko eseri zan aritz zar baten azpian, eta begiraturik bere begien aurrean agertzen zan ikuskai guziz aundiari, zeru urdiñ txit ederra, baso iñoiz aizkortu gabeak, Toskanako zelai galantak, Kortonako ballera eta Perusako aintziraren parte bat, osoro lilluratua geratu zan tokiaren edertasunaz. Alberniako bakartasuna gustatu zizaion, baña geiago mendiaren aunditasun latz itzaltsua. Bitartean txori sall bat ara joan zan, eta zebiltzan egaka bere inguruan, orain jartzen zitzaizkan bizkarrean, gero eskuan, beren egaka eta soñua-kiñ ongi etorria eman nai izan bazioten bezela. Alako jostaketatara oitua bazegoen ere Franzisko, arritu zan, eta ala esan zien lagunai: «Bada-kus, emen geratu bear degula, alabaña gure anai txoriak poztutzen dira gure etorrerarekiñ».

Orlando kondea, jakiñik Franzisko Albernia gañean zegoela, joan zan ara gizon batzuek lagun arturik eta janariz orniturik. Erlijiosoak arkitu zituen orazioan. Bereala Franzisko altxata joan zizaion ongi etorria ematera, eta beste fraideen zeldetatik zerbait aparte zegoen pago eder baten ondora eramanik, esan zion: «Eskerrik asko mendi santu au eman diguzulako; eta mesedeak mesedeai ezarri nai badieztezu, egidazu txaoia bat, tellatutzat arbol aundi onen adarrak dituen». Kondeak bereala agindu zuen Santuaren deseoa kunplitzeko.

Erraz ezagutzen da, ermita edo erregutegi bat pillaretzat arbol-tronko mentondoak, ojibatatzat adar elkar lazotuak, apaiñgarritzat ostonabar, sartaldeko eguzkiak urreztutzen zituenak, alfonbratzat zotal biguñ, eskilluntzi eta garoak, eta goien zeru boilla ikusteko leiatilla bat zeukana, izan bear zuela txit atsegiñgarria San Franziskok bezelako anima osoro oraziora emana zeukanarentzat. Illuntzean kondeak etxeratu bear zuenean, Santuak berriz ere eman ziozkan eskerrak egiñ zion guziagatik, bedeinkatu zuen bera eta langille guziak, eta azkeneko agurra

esatean kondeak arturik bereziro erlijiosoak, esan zien: «Nere anai maiteak, ez det nai mendi onetan mantentzeko bear dezutena billatzeagatik, utzi dezaiozutela sosegu guziarekin zeruko gauzen meditazioari. Nai det, eta beiñ betiko diotsutet, ar dezazutela nere etxetik bear deuzten guzia, beste moduz egingo bazenduteke, neretzat pena aundia izango litzake». Au esanda, jetxi zan Alberniatik bere etxera, eraman zuen jendearekiñ.

Kondeak alde egiñ zuenean Angel, Leon eta Maseo eseri ziran belazian San Franziskoren inguruan, beraren ikasbideak artzeko. Eguzkia ezkutatu zan Apenino mendi tontorren atzean, izarrak distiatzen zuten zeruan, beren argi illuna lurrera bialduaz, ipar aize bada ez badako bat irten zan arpegiak preskatzen zituena, eta munduko otsak itzaltzen ziran mendiaren oñean. Bazirudian anima Jaungoikoaren alderago zegoela. Fraideak zeuden ixilik, aen itz otsak Albernako arkaitzak erantzuteko, edo Santuaren otoitza galerazitzeko bildurrez; azkenik Santua asi zan jolasian, eta esan zien: «Nere anaiak, ez dezazutela gaizki usatu Orlando kondearen libe-

raltasunaz, gure pobrezako botoaren kaltean izan ez dediñ. Zaudete seguru, pobre egiazkoak bagera, jendea guzaz errukituko dala. Pobreza santuarekiñ estu estu laztantzen bagera, oparo emango digute eguneroko ogia, baña igesi bagabiltza beragandik, utziko gaituzte. Jaungoikoa ez da bizimodu onetara deitu gaituena jendeen konbersiorako? Eta au ala izanik, jendearekiñ eztaukagu ajuste edo tratu gisako bat egiñik, bi parteak era berean obligatzen dituena? Guri dagokigu jendeai ejemplo onen ikuskarria ematea, eta gai onetan Jainkoaren mandatariak diran jendeai, gure gorputzeko premiak estaltzeko bear deguna ornitzea. Izan gaitezen bada leialak gure egiñbideen kunplimentuan, da esatea, Ebanjelioko pobreza gordetzen, bera dalako perfezioa eta zeruko aberatstasunen prenda».

Fraideen zeldak, nola baiziran ostoz eta adarrez egiñak, eziñ gorde zitzaketen eguraldi txar eta denboren giro gaisto eta gogortasunetik, eta gañera, etzeukaten ere Aldareko Sakramentu Santua jartzeko toki egokirik. Franziskok ideatu zuen orduan kapilla eta zelda batzuek egitea, eta Orlando berriz joan zizaienean, agertu zion

bere asmoa. Kondeak ontzat artu zion, eta andik egun gitxira inguruetako langille piadoso batzuekin joanik, egiñ erazi zien San Franziskok traza-tutako planoak, Ama Birjiñagandik artu zuela berak aseguratutakoa.

Obra ura egiten ari ziran bitartean, Santua ibili zan mendiaren jira guzian meditaziorako toki egokienak billatzen. Laister arkitu zan arkaitzti aundi baten aurrean, nun ikusten ziran zirritu aundiak, leize izugarriak eta arritzar erortzeko zorian zeudenak. Santuak pensaturik artan misterioaren bat bazegoela, jarri zan orazioan, eta erregutu zion Jaungoikoari erakutsi zeiola, nondik nora sortuak ziran gauza arrigarri aek. Aingeru bat agertu zizaion, eta esan zion: «Gauz oek gertatu ziran Jesusen eriotzan, bada lurrak dardar egiñ zuen eta erriak arrakatu ziran». Ona zergatik zion Santuak Albornia mendiari aiñ jaierra berezia.

Txit gitxik egiñ zuen nola ustekabeko gertae-  
ra batek etzuen galdu erlijioso txikienen erreti-  
roa. Aek geratu ziran mendi zelaitxoaren parean  
altxatzen da arkaitz zorrotz bat itxura gaistokoa,  
besteakgandik bereziturik, eta burua altxarik

bere malkar eta amilkai aundiakgatik guziak mendean dauzkana, alako moduan, non eziñ joan ditekean bertara zubi jasogarriaren bidez baizik. Lapur batek, bere gogortasunagatik jendeak otsoa deitzen zionak billatu zuen an zulo bat, eta aienaturik bertatik ara biltzen ziran piztiak, biurtu zuen bere bizileku, edo obeto gaztelu. Etzan andik irteten, bidean zijoazenai ostutzeko baizik, jana billatzeko bestetarako bere kabia arranoak utzitzen ez duen bezela. Etzizaion gustatu gure erremutarrak auzoan jartzzea. Gaiztoa ikarakorra da, eta gizon prestuen begiradak itxutzen du; eta ala egun batean lapurra joan zizaien erlijiosoai, eta gogorki aginduzien alde egin zezatela mendi artatik, eta etzezaiotela galerazi an zeukan sosegua.

Franziskok añ arrera ona egiñ zion, aditu zion alako pazienziarekiñ, eta itz añ eztitsuak esan ziozkan, non berealaxe aren aserrea gozatu zan. Belaunikatu zan Santuaren aurrean, eta erregutu zion iritxi zeiola Jaungoikoagandik bere gaiztakerien barkazioa, eta utzi zezaiola egun batzuetan berarekin bizitzen, utzi zion bezela. An ikusirik bere begiakiñ fraideak egiten zuten aingeruz-

ko bizitza, bereala mudatu zan osotoro, eta eskatu zien aen bizimodua egitea. San Franziskok, batetango konbersio onetan ikustean graziaren millagroa, artu zuen «Otsoa» amorio osoarekin, jantzi zion bereala penitenziako abittua, eta bere bizitzaren aldaera señaletzat jarri zion frai Agneloren izen gozoa (arkumea). Frai Agnelok, bere bizitzaren gañerako denbora guzia igaro zuen Albernian eta ill zan santutasunean, bere gaiztakerietako lekua orazio eta mortifikaziozkoan biurtu ondorean. Ura bizitu zan arkaitz zorrotzari oraindik deitzen zaio «Frai Otsoaren arkaitza».

Oek dira San Franziskori gertatutako gauzak Albernia mendira egin zuen aurreneko joaneran. Bigarrenean, Ugolino kardenalarekiñ 1220an egiñ zuenean eztigu utzi kontatzea merezi duen oroipenik. Irugarrenean iritxi zan bere gloria eta oñazeen erpiñera, eta ala, bidezko gauza da konta dezagula leialki beraren darraikoi bikañenak eta askaera.

Zan 1224ko abuztua. Franziskok bazituen berrogeita bi urte, eta ainbeste barau eta mortifikazioz zegoen auldua, baña sentiturik gero eta

ixiltasunaren, argi eta amoriaren antsi geiago, Jaungoikoaren espirituak mugitu zuen berriz ere Alberniako mendi gañera joatera. Itotzeko beroa egiten zuen, baña ala ere bereala irten zan Ama Birjiña Aingerueneko konbentutik, arturik berekin frai Leon eta frai Maseo bere lagun jakiñak. Mendian igaro zuen denboran, izan zituen iñoiz baño zeruko mesede geiago. Frai Leonek aseguratzen du, askotan ikusi zuela airean zinzilik zeru lurren artean, batzuetan lurra baño piska bat gorago, eta beste batzuetan begiak iritxi eziñ zuten moduan. Lurra baño goratxogo zegoenean, muñ egiñ oi zion oñetan, eta negar malkoakin bustiaz esaten zion: «Nere Jaungoikoa, nere aita doatsuaren merezimentuakgatik urrukitu zaitez ni naizen bezelako pekatariatz, eta indazu zure graziaren partetxo bat». Osoro goien zegoenean, belaunikatzen zan umilki, eta egiten zuen orazio San Franzisko altxatzen zan tokian bertan. Santua beregandik irtenik egoten zan denbora luze oetan, jarririk pensatzen Pasioko misterioetan kejatzen zizaion biguñki bere Jesusi, fedeagatik bere odola ixuri etzuelako, eta eska-

tzen zion aren antzera aldatzeko grazia. Eta Jau-  
nak agertu zion iritxiko zuela eskatzen zuena.

Ama Birjiña zerura altxatua izan zaneko fes-  
taren arratsean, noiz asten baizuen San Migelen  
onran egiten zuen garizuma, graziaren egikerara  
obeto ematearren, erretiratu zan arkitu zuen  
arzulo malkorrenera. «Jainkoaren ardi maitea,  
esan zion lagunari, utzi nazazu bakarrik, eta ez  
dedilla etorri iñor ni zabartzera; zuk ordea, izan-  
go dezu karidadea ekartzeko niri gauero ogi eta  
ur piska bat. Etorriko zera gau erdian Matutiak  
errezatzeko orduan, eta joko dezu atea esanaz  
*Domine labia mea aperies*, «Jauna, idiki itzatzu  
nere ezpañak». Erantzuten badizut, sar zaite,  
bestela, ostera itzuliko zera».

Frai Leonek, itzultzean sentitu zuen tentazio  
bat egun askotan pakerik eman etziona, eta San-  
tuari aitortzera benturatzen etzana, baña nai  
zuen esaera bat bere eskuz izkribatua idukitzea,  
uste zuelako ark libratuko zuela anbeste kezka-  
tzen zuen tentaziotik. San Franziskok jakin zuen  
Jainkoagandik gertatzen zana eta ark nai zuena,  
eta izkribatu zuen Tau letrarekiñ señalatu zuen  
ondorengo esaera au: *Benedicat tibi Dominus et*

*custodiat te; ostendat faciem suam tibi, et miseretur tui: convertat vultum suum ad te, et det tibi pacem. T. Dominus benedicat te, frater Leo,* «Jaungoikoak bedeinka eta gorde zaitzala, bere arpegia agertu dizazula eta zuzaz errukitu dedilla, zugana bere arpegia itzuli eta pakea dizula. T. Jaungoikoak bedeinka zaitzala anai Leon». «Tori paper au, esan zion, eta gorde ezazu zere bizi guzian». Ez al zuen artu frai Leonek papera, bereala tentazioak alde egiñ zion.

Jesu Kristok bere serbitzari doatsuari egiñ ziozkan eziñ konta al agerkeria guzietan, daude bi Bernardo Bessek kontatzen dizkigunak, eta erlijioso txikienen artean beñere aztuko ez diranak. Lenbizikoan Jauna agertu zan eserita San Franziskok jan oi zuen arriaren gañean, eta egon ziran jolasean biak, bi adiskide elkarrekin egon oi diran moduan. Jauna desagertu zanean, Franziskok Jaungoikoarenganako gero eta errespeto geiagorekiñ, deitu zion frai Leoni, eta esan zion: «Arri au garbitu bear da ur, ardo, esne, olio eta balsamuz, bada Jaungoikoaren Semeak santutu du beraren gañean egonaz, eta aseguratu dit bedeinkatuko duela betiko gure Ordena». Eta

ondorean Jakob Patriarkaren gisan, doskañi zion Jaunari arri ura, igortziaz eta itz oek esanaz: «Egiaz au da Jaungoikoaren aldarea!».

Bigarren agerkeria gertatu zan andik laister, eta izan zan aurrenekoa baño nabarbenagoa. Frai Leon joan zan gau erdian Santuaren arzulo-ko atea jotzera, eta erantzun etziolako, jakiñ naiak menderaturik, begiratu zuen zirrituetatik. O gauza miragarria! Arzuloa zegoen zeruko argiz betea, eta Franzisko belauniko eta besoak gurutzaturik oi bezela. Zurezko errosarioa zeukan zinzilik saietsetik, eskubiko eskua biotzaren gañean, eta ezkerrekoan bere negar malkoakiñ anbeste bider bustitako gurutziltzatua. Zerutik jeisten zan ziargi bizi batek argitzen zion arpegia, eta begiak berriz zeuzkan josiak ikusten etzan, baño aren arreta guzia zeraman gauza batean. Jauna eta Serbitzaria jolastutzen ziran, baño frai Leonek eziñ aditu zuen zer esaten zuten. Bakarrik noizean beiñ aditzen zion esaten, maiz esan oi zuen otoitz labur au: «Zer zera zu, Jauna, eta zer naiz ni!». Gero ikusi zuen zutik jarri, eta nola eskua eramane zuen iru bider kolko-  
ra, eta luzatu beste anbeste bider gar misterioz-

koaren aldera; ondorean itz otsak isildu ziran, argia desegiñ, eta guzia biurtu zan lengo isiltasun eta illunpera.

Frai Leonek sentitu zuen bere barrunbean utsegiteak ematen duen kezka. Begiratu zuen inguruan, etzuen mudantzarik arkitzen. Lengo pagoak berak errañu luze izugarriak lurrean botatzen, arri arretsu aek berak illargiaren argi tristeak jota biurtzen, baña guzia zeritzaion tristeagoa eta illunagoa; begiratu zuen arzuloko atera, eta zegoen lenago beziñ beltza; etzan geratu zeruko bisitaren arrastorik txikienik; etzan ura zeruko atea.

Frai Leonek bere gaizki egiña ezaguturik, erretiratu nai zuen isilik, baña Franziskok igarri-rik, deituta esan zion errierta biguñ antzean: «Jaungoikoaren ardi maitea, zergatik jakiñ nai izan dezue ezkutuan egon bear zuena?». Fraideak aitortu zuen bere utsegitea, eta barkazioa irixitakoan, esan zion: «Ene Aita, mesedez eta Jaungoikoaren onra eta gloriarako, esan zadazu zer adierazi nai duen zuk izan dezun ikuskerak». Santua artaratu zan obedieneziaz eta umiltasunez, alabaña frai Leon aingerukoia zan bere

lagun eta konfesorea. «Ene anaia, esan zion, Jauna agertu zat ikusi dituzun gar oetan, eta beraren perfezio eta nere ezerezaren aian eza- guera aundia eman dit, non deadar egiñ bear izan det au: «Ene Jaungoikoa! Zer zera zu, eta zer naiz ni! Nondik dator zuk beeratu nai izatea lurreko txingurri bat baizik ez naizan oni begira- tzeraño?». Jesu Kristok agertu dizkit misterio aian ezkutatuak non gizonaren animak iaola ere eziñ iritxi ditzakean. Zerura itzuli baño len agur egi- tean esan dit: «Franzisko, egiñ dizkitzudan mesedeen ordañez indazu erregalo bat». «Jauna, ongi dakizu nik deus ez daukadala, eta aspaldi dala gorputz eta animaz zurea naizala». «Sar zazu eskua kolkoan, eta eman zadazu billatzen dezuna». Obeditu nion, eta iru bider ala egiñik, arkitu nituen iruretan urrezko moneda bana, eta eman niozkan. Osoro arriturik, galdetu nion zer adierazten zuen urrezko iru moneda aek, eta erantzun ziran: «Adierazten dute erlijiosoak aian leialki gordetako pobreza, obediencia eta kasti- dadeko iru botoak; baita ere fundatzalle eta guraso egiñ zaitudan iru Ordenak. Ala zuk eman dizkidatzun iru moneden ordañez, berritzen diz-

kitzut emen lenago egiñak daukazkitzudan aginduak. 1.a Maitatuko ditut eta lagunduko diet bereziro zure seme egiten diran guziaz. 2.a Bedeinkatu ditut aen adiskideak eta madarikatu aen persegitzalleak. 3.a Iru familia oek iraungo dute munduaren bukaeraraño».

Itz oek esanda San Franziskok despeditu zuen laguna, debekatuaz kontatzea iñori ikusi zuena, baita ere jakiñ nai izatea Jaungoikoaren eta aren artean igarotzen zana.

Gure irakorleai erregutzen diegu ez dezatela itxi liburua, sortitzaz gorako itxasoan ugarotu erazitzen diegulako apukoarekiñ. Oroitu bitez, gaudela kontatzen santu baten bizitza, gizonen Salbatzallearen antz osoko eta imajiña txit berdiñaren Santu besterik ez bezelako arena, eta ezagutuko dute Jaungoikoak obratu zuela pixu eta neurriarekiñ batere presakatu gabe, eta arkiturik Franziskoren anima aiñ garbi eta otxana igoerazi zuela argitasunez argitasun eta birtutez birtute, eta ala igoera misteriozkoen bidez, eraman zuela txit laister ikusiko degun santutasun goieneneraño.

Gure Santuak zenbat eta geiago pensatzen zuen Jesu Kristoren Laga eta Pasioan, ainbat eta amoriozko labe biziagoa egiten zizaion bere biotza, eta antsi aundiagoa sentitzen zuen Jainkozko moldearekiñ are eta geiago irudikatzeko. Aingeruaren bidez jakiñik Ebanjelioko esaeratan billatuko zuela Jaunak argandik itxedoten zuena, agiñdu zion frai Leoni iriki zezala Ebanjeliotako liburua. Iru bider iriki zuen, eta iruretan Jesu Kristoren Pasioan. Orduan ezagutu zuen San Franziskok, Jesu Kristori aren bizitza ezkutu eta apostolutzakoan jarraitu ondorean, iruditu bear zitzaiola bere martirio eziñ aundiagoan ere, eta ala deadar egiñ zuen: «O nere Jaungoikoa! Prest dago nere biotza».

Biotz on, Franzisko! Etzaitez geratu Kalbario-ko bidean. Ez da asko negar egitea Jesusekiñ Jetsemaniko baratzen, ez da asko aren arpegi Jainkozkoa garbitu eta legortzea Beronikarekiñ; ez da asko Kalbariora igotzen Zirineoarekiñ laguntzea. Sufritzeko zuk daukazun egarria ez da oraindik itzali, igo zaitetz oraindik, igo zaitetz gurutzera, bertan josia izateko Jesu Kristorekiñ.

Presta ezazu biotza, bada iritxi da zuretzat sakrifizio mistikoaren ordua.

Arkitzen gera zeruko misterioz beterikako ikuskarri baten aurrean, zeña adieraztera ez dan benturatzen pekatari errukarri baten mingaña, desonratzeko bildurrez. Gauden bada, ixilik, eta utzi dezaiogun kondailari serafiñdar bati ura konstatzen.

Gurutze santuaren altxaerako pestaren egun sentian (agorraren 14ean) San Franzisko zegoen otoitzean mendiaren ixuraldan. Bat batetan ikusi zuen zerutik jeisten serafiñ bat suzko sei ego txit argiak zeuzkana. Ega bizi batean joan zan Santuaren ondora, geratu zan aidean, eta ego artean agertu zan Jesus gurutziltzatuaren imajiña, zeña ikustean Franziskoren anima izu aundi batek artu zuen. Batetan sentitzen zuen pena eta atsegiña, atsegiña bere biotzeko Jaungoikoa, amorezko Jaungoikoa serafiñaren itxuran begien aurrean zeukalako; eta pena, ikusten zuelako Jesus sufritzen, esku oñak gurutzeari josiak eta biotza lantzaz irikia. Misterio ezkutatu bat zeukan begien aurrean, eta argatik zegoen oso arritua; alabañdan ere, nola elkartu Kalbarioko umi-

Ilazioak gloriako gozaerarekiñ? Azkenik aren animak zeruko argiarekiñ ezagutu zuen ikuskera misteriozko onek zer esan nai zuen, au da, ez gorputzeko neke oñazez ezpada amorioaren garrez biurtu bear zuela osoro bere Maitean.

Ikuskera desegindu zan, baña utzi zion animan su miragarri bat, eta gorputzean zeruko markaren siñale are miragarriagoak. Eta egiaz, berealaxe agertu zitzaizkan gorputzean arestian adoratu zituen bost llagak. Eskuak eta oñak zirudien iltze lodi batekin zulatuak zeuzkala, zeñaren buru beltz-biribilla llagetan ikusten zan, eta esku-oñen azpiko aldian agertzen zan punta luzea, zirudien errematxatua zegoela. Saietseko lлага, zabala eta idikia zegoen, nondik ikusten zan arradiz kolore gorrikoa, odola zeriona Santuaren arropak igarotzeraño.

Llaga Sagraduak ezarriak zeuzkan bada bere gorputzean ikusteko moduan. Zeruko mesede onek para zuen zalantza guziz aundian: agertuko zuen, edo ixilik gorde bear zuen? Eziñ erabaki zuen zer egiñ; bada alde batetik luzaroan gorde eziñgo bazien ere bere lagun maiteenai, bestetik bildurtzen zan Jaunaren gauz ezkutuak

azaltzeaz. Deitu zien bere ikasleetako batzuei, eta aitatu zien gertaera ez itz berekietan, ezpada beste norbaiti pasatakoa bezela. Baña aen arteko batek, Frai Iluminariok, Sortaldera lagundu zionak berak, ematen zituen zizpiroetatik igarririk artu zuela zerutik mesede bereziren bat, esan zion: «Aita, jakizu, ez zuretzat bakarrik, bai lagun urkoarentzat ere agertzen zaizkizula zeruko misterioak. Zuretzat bakarrik gordetzen badituzu, begirozu ez ote dizun Jaungoikoak eskatuko gordetako talentuaren kontua». Arrazoi onek mugialdi aundia egiñ zion animan San Franziskori, eta esan oi bazuen ere *secretum meum mihi* (Nerea da gauza gordea) kontatu zien zearo, bildurrez bada ere, izan zuen ikuskera, aitortuaz gañera Serafiñak agertu ziozkala gauza batzuek egundaño iñori esango etziozkanak. Nork daki Aingeruaren itzak ote ziran aiñ zerukoiak, non iñungo izkuntzan eziñ adierazi eziñ ditezkean? San Franzisko, San Migelen onran egiñdako garizuma bukatzean, jetxi zan menditik Jainkozko amorioak osoro bestiruditua, eta zeramala Jesus gurutziltzatuaren imajiña sillatua Jainko biziaren eskuz ez arrian edo zurean ezpada bere aragian.

Saiatzen zan gordetzen «Errege aundiaren ixill gauza» baña Jaungoikoak, zeñari dagokan bere obren sona barreatzea, egiñ zituen millagroak ugari egiztatzeko Llaga Sagraduen ezartzea.

Kontu aundia zeukan beti oñetakoakiñ eta eskuak estalita erabiltzeko, baña ala ere eziñ ezkutatu izan zituen osotoro zeruko gordairuak. Erlijioso askok, Kardenal batzuek eta Aita Santu Alejandro laugarrenak berak juramentuaren azpian aitortu zuten ikusi zituztela beren begia-kiñ Santuaren llaga beneragarriak, bera bizi zala; eta illda gero, berrogeita amar erlijioso baño geiagok, Santa Klarak bere mojakin eta beste eziñ konta al persona sekularrak, muñ egiñ zien debozioz eta ukitu beren eskuakiñ eze-  
ren utsik izan etzediñ aen sinitsgaiari indarra emateko.

Aiñ ongi gorde zuen Franziskok saietsean zeukan llaga, non bizitu zan bitartean etzion iñork ikusi iskintxoka baizik. Beti kontu egiten zion fraide batek (frai Leonek) esan zion egun batean ken zezala abittua astindu bat emateko, eta arte piadoso oni eskerrak ikusi zion llaga, eta bai neurria artu ere, iru beatz bertan emeki

jarriaz. Buru nagusi ordezkoak (frai Eliasek) era berean iritxi zuen ikustea. Santuaren beste lagun, gizon osoro senzilloak (frai Rufinok) sorbaldan igortzitzen ari zizaiola zeramazkian oñazeak alibiatzeko, ukitu zion ustekabeen saietseko lllagan eta aiñ oñaze bizia sentitu zuen, non, geroztik beti jantzi zuen amilla lasai bat saietsak estaltzen ziozkana. Barrengo soña garbitzen zioten erlijiosoak, arkitzen zuten beti odoldua, eziñ dudatu zitekean bada lllaga bazeukala; eta azkenik ill zanean, guziok kunplitu zezaketean beren deseoa, eta ikusi naierara saietzeko lllaga, eta Jaungoikoaren serbitzariaren gañerakoak.

O Franzisko! Lllaga sagraduaz ornitua zaude-na, zu zera arako Apokalipsisko Aingeru ura San Juanek Sortaldera altxatzen ikusi zuena eramanaz bekokian Jainko biziaren señailea.

Bernandonen semeak zeuzkan Jesu Kristo gure Jaunaren bost lllagak, eta distiatzen zuten aren gorputzean diamante eta perla preziosoak bezela. Ona emen urte bi igaroan jendeak ikusi zuten miraria, arteraño egundaño ikusi etzana, animatan Jainkozko amorioaren mirari bat iritxi ezin ditekeana. Au izan fundatzalle santuaren

gallaldi gloriosoena, eta denbora berean obeto egiztatuenetakoa, bada gertaera onezaz eziñ dudatu diteke, egiarik aundiena ukatu gabe. Eta egiaz, nori gogoak eman bear dio San Buenabentura eta Bernardo Besse bezelako gizon itzaltsuak, Tomas Zelano, Leon, Errufino eta Maseok bezela beren begiz ikusitako gauzaren testigantza egiten dutenak izan dirala engañatuak? Zer protxu edo irabazi iduki zezatekean berak edo gu engañatzean? Eta engañatu bazuten, zergatik Unbriako biztanleak, egia aiñ erraz jakin zezaketela, etzioten kontrarik egiñ? Sinisten zuten, eta arritzen ziran, mirariaren egia, nolerebait esateko esku artean ikusten zutelako, eta badirudi Jaungoikoak berak indartzen zituela sinistamentu onetan, beraren alde egiten zituen mirariakiñ. Pozik kontatuko giñituzke guziak bat utzi gabe, gauza atsegiñgarriagorik ez dagoelako, baña geiegi ez luzatzeagatik, kontatuko ditugu bi, arturik bata San Buenabenturaren *Irakorgaitik* eta bestea Bernardo Bessen *Kondairatik*.

«Sortizak berak, dio S. Buenabenturak, aldatu zituen bere legeak mirariaren oroipena obeto gordetzeko. Albernia zan lenago ekaitzak sor-

tzen ziran mendia, andik jeisten ziran aize bunbadak eta abazuzaz kargatutako lañoak, baña lazeri au geratu zan Aita doatsuak llaga sagra duak artu zituen unetik».

Aditu dezaiozun orain Bernardo Besseri: «Gertaera oi ez bezelako bat pasa zan mendiz aronztik zegoen Dominikoen konbentu batean. Bi Ordenetan oitura dan bezela, afaltegian zegoen zinzilik Santo Domingoren erretratoaren parean beste bat txit ederra San Franziskorena, eta zegoen bere llagakin; konbentuko fraide batek ez beste guziak onratzen zuten imajiña, baña onek nola etzuen sinistatzen mirari onetan, eta ezin eraman zuen alako gauzarik aitatzea ere, artu zuen asmoa kuadrotik kentzeko. Bi bider saiatu zan lan onetan bakarrik eta gabaz, baña alperrik, bada biaramonean arkitu zituen llagak lenago baño ederragoak. Irugarren aldian aiñ aserre bizian asi zan borrarren non urratu zuen pinturako eun-tela, eta bereala irten zan odola aiñ ugari non busti ziozkan arpegia eta eskuak. Mirari arekin izuturik, kordegabetuta erori zan. Fraideak joanda altxa zuten, baña odola ezin geratu izan zuten iñola ere. Sospitxa-

turik orduan ark egiñ zuen utsegitea, aitortu zuten eta eskatu zioten barkazioa San Franziskori. Aen eskaria aditua izan zan, odola geratu zan, urratuak desagertu ziran, eta llaga itxiak artu zuten ostera lenagoko kolorea. Erlijioso sinitsgorra konbertitu zan, bera izan zan lenago ukatu zuen gallaldiaren defensalle bizienetakoa, bisitatu zituen Asisko eta Porziunkulako Eleizak, eta igo zan Alberniako mendi tontorrera, nora eraman zituen odol miraritsua geratzeko serbitu zioten eun zapiaren orri batzuek. Beraren aotik jakindu ditugu berri txe oek guziak».

Ala Jaungoiko guzia al dunak gordetzen zuen bere serbitzari leialaren kausa. Baña ala San Franziskoren llagai nola Porziunkulako induljenziari dagokanez itz bat asko da ez baita erabakitzeke. Erromak, gis onetako eginkizunetan aiñ zentzu aundiarekiñ ibiltzen danak itz egin du. Aditu zaiogun Gregorio IXgarrenari bada beraren sinitsgaiak bienak balio ditu, Aita Santuarena eta San Franziskoren adiskide maitearena dalako.

«Gregorio Apezpiku, Jainkoaren serbitzarien serbitzariak, izkira oek ikusten dituzten Jesu Kris-

toren fededun guziaz osasuna eta Apostolubedeinkazioa».

«Gauz alperra iruditzen zagu San Franzisko konfessore gloriosoa zerura eramán duten merezimentu aundiak izkíra oetan zuei agertzea, ozta, alabaña izango da fededunik oen berri ez duenik. Baña uste izan degu konbeni zizazutela erakustea batez ere Santuen gloria eta argia dan Jesu Kristo gure Jaunak egin zion mesede berezi eta miragarriaren gañean. Jaungoikoaren eskual kreatorallearen birtutez artu zituen bizi zan denboran llaga sagraduak esku-oñetan eta saietsean, eta au ala dalazkoa ikusi erazo da bera illda gero ere. Guk eta gure anai kardenalak daukagun ezaguera ziertoa, eta berak egindako beste milagro, sinismen osoa merezi duten testiguak aseguratzen dituztenak izan dira mugierazi gaituztenak Santuen errunkaran jartzera, gure anai Kardenal, eta gurekiñ orduan zeuden beste apezpikuen iritzia zan bezela. Eta nola txit deseaten baidegun au fededun guziaz sinistatu dezatela, Jesu Kristo gure Jaunagatik, arren, erregutzen, eta zuen pekatuen barkazio osoagatik agintzen dizutegu ez dezazutela sinistatu

onen kontra aditzen dezuten gauzarik, eta jaiera eta erreberentzia aundia izan dezaiozute konfessore santu oni Jaungoikoaren gogokoak egiñ zaitzatekean eran, beraren merezimentu eta bitartekotasunez iritxi dezazuten Jaungoikoagandik ontasuna mundu onetan eta doatsuera bestean. Biterbon emana, gure Aita Santutzako amaikagarren urteko apirillaren bigarren egunean».

1255ko urtean Aita Santu Alejandro IVgarrenak bialdu zien erlijioso txikienai eskutitz bat arestikoa beziñ baliosoa. Bulda onetan aitortzen zuen San Franziskok Llaga sagraduak artu zituen Albornia mendia bere anparupean artzen zuela, eta erregutzen zien erlijiosoai etzezatela beñere utzi toki ura eta gorde zezatela beti Santuak fundatutako konbentua.

Andik bost urtera 1260ko abustuaren 20ean Albornia mendiak ikusi zuen zeremonia guzizko pozez beterik utzi zuena. Orduan Buru nagusi ordezeko San Buenabentura joan zan ara milla erlijioso baño geiagorekiñ. Aldameneko mendimuño guziak erromesez beteak zeuden, eta Arezzo, Florenzia, Fiesoli, Perusa, Asis, Urbino eta Cita-Castelloko Obispo Jaunak donekidatu

edo konsagratu zuten Ama Birjiña Aingeruena-  
ren izenarekiñ Orlando Kondeak 1215an eginda-  
ko Eleizatxo, eta gero mendi guzia prozezioan  
jiraturik bedeinkatu zuten *Serafiñ mendiaren*  
izena emanaz.

Benedikto Xlgarrenak agintzen du San Fran-  
ziskoren Llaga Sagraduen pesta zeblebra dedilla  
urteoro agorraren 17an Ordenako konbentu  
guzietan, eta Paulo Vgarrenak pest au zabaldu  
zuen Eleiza guzira. Era onetan Aita Santuak  
beren eskubide aundiaz usatuaz indartu dute  
millagroaren egiatasuna, eta Serafiñ mendia da  
seireun urte oetan erromesak urbiltzen diran  
tokia. Denbora aetako jendeak San Franziskoren  
kalbario onetara zijoazenean zeukaten fedea  
etzan beñere oztu egungo denbora triste oek  
etorri diran bitartean.

Benturaz gure irakorleak, batez ere errome-  
ria aiñ urrutikoa egiñ ezin dutenak naiko dute  
jakiñ zer moduzkoa dan denbora aetako fedea  
mendi tontor artan altxa duen oroikarria, eta guk  
kunplituko degu berealaxe oen deseo bidezkoa.  
Konbentua da desberdiña solairua bezela. Ataria  
da bajua eta pixua, dirudi anziñako gazteluen

sarrera. Etxurubean sartuta, parez pare ikusten da beste atari bat pillare bik eusten diotena, au da Ama Birjiña Aingeruenekoen Eleizaren sarrera, Albornia-mendiko aurreneko Eleiza. Ategañeko ar-uztaian dago moldura anziñako bat, Llaga Sagraduak estanpatuak dauzkana. Atearen alde bietan daude Orlando Kondearen etxarmak, gurutze bat eta iru lislore, oroipen glorioso pranzesentzat. Konbentuak dauzka gela asko erromesentzat, erlijiosoak ematen die ostatua dijoazen guziaz, eta partitzen dituzte berakiñ, biltzen dituzten limosnak. Esandako Eleizatik sartzten da goiko Eleiza aundian, zeñari asiera eman zion Chiusi Kondeak 1348ko urtean, eta bukatu zuen andik eunki batera Florenziako Senaduak, bada oni utzi zion Aita Santu Eujenio IVgarrenak mendi onen kontua. Au da argi eta zabala eta galeri bat inguruan daukana nondik begiak iritxi ditzakean kanpo guziak ikusten diran. Galeri au luzatzen da Llaga Sagraduen kapillaraño eta onen erdian eta burni erreja bitarte ikusten da suzko egoakiko serafiña San Franziskori agertu zizaion toki bedeinkatua. Egun oro besper ondoran eta arratsetan Matutiak esandakoan Erlijioso-

ak joaten dira prozesioan Eleiza aunditik Llagu Sagraduen Kapillara.

Nork ez du miretsiko emen Jainkoaren Probi-  
denziaren mirari aundienetako bat? Lenagoko  
denboretan ozta zekien iñork Alborniaren izenik,  
baña Asisko Penitenzilariak bertan oña para  
zuen ezkerre, mendi santu onen izena dabill aoz  
ao, eta Judeako mendiaz kanpora, beraren gloria  
paregabekoa da. Emen, Kalbarioan bezela, gizo-  
nen ezpañak beti ari dira Jaungoikoa alabatzen.  
Ordua degu uzteko toki beneragarri oiek, nondik  
ez da iñor jetxitzen bere burua obeago eta gar-  
biago sentitu gabe. Muñ egiñ dezaiogun pensa-  
mentuarekiñ San Franziskok sufritu, San Buena-  
benturak orazio egiñ eta Salbatzallea bera ager-  
tu zan lur oni, eta agur egiñ dezaiogun Errege  
Profetarekin esanaz: «Agur o mendi, grazi milla-  
groetan ugaria. Jaungoikoak autu zaitu beste  
guzien artean bere bizilekutzat, eta beti bertan  
biziko da» (Ps. LXVII).

# Emezortzigarren Bereziara

*San Franziskoren azkeneko urteak.*

*Bere azken nai edo  
testamentua, eta eriotza.*

(1224-1226)

Biursariak bakarrik adierazi ditzateke ongi animaren mugida aundiak; ala ikusi degu Franzisko, sortitzaren edertasunaren aurrean *Eguzkia*-ren kanta ederra bat batetan esaten. Kriatura aul eta galkorrak aïñ arrigarrizko deadar atera erazi baziozkaten, zer izango zan izatez eta beti dirauen edertasuna bere begiak in ikustea? Nola geratu al izango zituen bere biotzetik ies egiten zuten amoriozko sentimentuak? Amorio onek ateratzen zuen beregandik, eta bere amoriozko mugialdietan kantatzen zituen himno bi, esan ditezkeanak izkribatuak zeruko kordegabetzen garretan.

San Bernardino Senakoak gorde dizkigu, eta egokatzen diozka biak San Franziskori, eta guk eztaukagu bear anbat argibide kontra egiteko franziskoarren oituera eta bizieraren azaldari aïñ

leialaren iritziari. Beste kondairatzalle batzuek diote *Stabat Mater* konpondu zuen Jakopone Todiko doatsu, San Franziskoren ikaslearenak dirala. Gure iritzia da Ozanam jakintsuarena bera: «Lenbiziko kantua, danetan ederrena eta asieratzat *Sutan amorioak jartzen nau* daukana, ez dirudi iñork bestek zuzendu duenik, edo geienaz Jakoponek parako zuen berso obean, Frai Pazifikok *Eguzkiaren kantua*-rekiñ egiñ zuen bezela. An ezagutzen dira Santuaren zaldun-ideak eta bere irudikiñaren kolore aberatsak».

Iruditzen du Albernia mendian izan zuen kordegabetzea jostaguda batekiñ, zeñean bera sartzen dan Kristoren menpeko lurrean, eta izan zan zorionez bentzutua.

Bigarrena da askozaz aundiagoa, ez dira arkitzen bertan esaera labur eta San Franziskoren obren bereizgarri izan oi diran bezelakoak. Esan diteke, bada, Jakoponek azaldu zuela bere yoritasunarekin San Franziskoren anziñako kantaren batetik artutako pensamentu eder eta aundi bat, soñulari baten ikasleak aren soñugaia era askotara aldatzen duten moduan. Nola nai ere, dago

paregabeko edertasunez betea. Aditu ditzagun biurtsakiñtza Italiako onen zizpiru batzuek:

«O amorioa, zergatik erittu dezu orrela nere biotza? Ni neregandik osoro kanpora nago; nere barrunbean piztu dezun garrak erretzen nau, eta beti azitzen dijoakit».

«Ezin iges egiñ det, ez atsedeen ere; amorioak lotua nauka».

«Amorioa neretzeagatik, guzia utzi det, eta munduko gauza guziak osoro ofrezitu ondo-rean, nerau eman naitzaio. Mundu guzia nere balitz, batere zalantza gabe emango nuke amorioaren truke».

«Gaurdandik ez diet begiratuko kreaturari, ez daukat begirik eta itzik nere Egillearentzat baik. Nere Amorioa dan Kristoren aurrean osterontzeko edertasuna zingira loia iruditzen zat, zeru lurak galtzen dituzte beren limurkariak, eguzkiak bere argia, kerubiñak bere distiadura, eta Serafiñak bere garrak».

«Kriatura guziak ari zaizkit beti esaten nik amatu bear dedala. Aditzen nagokite belarrietara esaten didatela: *Maita ezazu biotz guziarekiñ, arako beragana eramateko egiñ gaituen ura*».

«O anziñako edertasun, beti berria; O Jesus! Zuk kendu didazu biotza, zuk daramazu nere anima guzia eztakit nora. Nik eztaukat biotza zu maitatzeko bestetarako. O zizpiruz narraion amorioa, amorioz illerazo nazazu!».

«Zerorri ere eziñ libratu izan ziñan amoriotik. Amorez jetxi ziñan lurrera ezkutatuaz zerezko aunditasun, jakiñduria eta ala. Askotan zenbiltzan munduan gizon ordiaren gisan, amorioak eramaten zinduan gizon saldua bezela. Beti agertu zenduen amorioa, eta amorio neurri gabea, zerezaz osotoro azturik».

«Amorioak menderaturik, ez det batere gogor egiten. Sentenzia emana dago, nik amorez ill bear det; eta ez det beste konsuelorik nai, amorez iltzea baizik!».

Uste izan diteke San Agustiñen boza, edo Santa Teresaren amoriozko kantaren asiera aditzen dala.

San Franziskok berrogei eguneko baraua bukatu, eta San Migel Goiangeruaren pesta zelebratu zuenean, utzi zuen Alborniako bakartasuna Unbriara itzultzeko. Zijoan asto gañean, eta ibili zan ala bere azkeneko bi urteetan egin

zituen bidajeetan, eta naiago oi zuen ibili orrela Jesusen Jesusalengo sarrera garaipentsua oroi-tuerazitzen ziolako. Arriturik geratu zan ikustean itxedoten ziotela mendi ondoan Borgo-San-Sepolchoko eta inguruetako jendeak. Eta zan, ikusi zutelako agorraren 14ean mendia argita-sun aundi batez inguratua, sospitxaturik milla-groren bat gertatu zala, irten ziran Santua onra-tzera. Kalbario berri artatik jetxi zanean, uste zuten Jesus gurutziltzatu bizi bat ikusten zutela, eta amorio aundiz bera inguraturik adoratu zituzten aren llaga sagraduak, eta muñ egiñ zio-ten eskuetan eun zapiarekiñ estaliak bazeuzkan ere.

Arezzo ondoko erri txiki batean, aren eskuak ukitze utsa asko izan zan sendatzeko lau urtean urmiñarekiñ zegoen 8 urteko aur bat. Monteaku-ton Alberto konde piadosoari utzi zion bere oroi-pentzat bere amilla pobrea, dudarik gabe aren llagetako odolean aurrena bustia. Erliki piadoso au, denbora joanik pasa zan Toskanako duke aundiaren mendera. Gaztigatu zioten Monte Casalen zegoela aren Ordenako fraide bat oñaze txit biziakiñ, pensatuaz batzuek zala korditoia,

eta besteak gaizkiñak zituela. San Franzisko artzaz kupitu zan, eta bialdu zion serbitzen zioten ogi mokadu bat, eta eria bat batetan geratu zan sendatua. Cita Castelon sendatu zuen gurutzearen siñalea egin utsarekiñ zauria zeukan aur bat. Zauriaren tokian agertu zan arrosa gorri bat, sendaera mirarizkoaren sinitsgaitzak.

Frai Leon bideko lagunak dio ezen, Alborniatik Porziunkula bitartean ikusi zitzaiola burugañean gurutze argi bat, urreak baño geiago distiatzen zuena. Anbeste millagroen artean San Franzisko, lurrean baño obeto zeruan bizi zana, sor eta gor agertzen zan egiten ziozkaten onraguziai.

Azkenik, Cita-Castellon illabete igarorik, itzuli zan Ama Birjiña Aingerueneko bere konbentu maitera. «Gurutztaturik Jesu Kristorekin gorputz-animetan, ez bakarrik erretzen zan Jaungoikoarekiko serafiñezko amorioan, baita ere Kalbarioko doskiñia bezela, zeukan animen salbazioaren egarri txit aundia. Eziñ ibili zan, oñak batetik zulatzen ziozkaten iltzeakgatik, baña eramaten zuten uri eta aldeerritara osoro aul eta erdi illa, eta alaitzen zituen biotzez eramatera nork bere

gurutzeta. Bere jarraileai esan oi zien: «Ene anaiak, asi gaitezen Jaungoiko ona serbitzen, bada oraindano, esan diteke ez degula ezerere beragatik egiñ». Bere apostulutzako nekeak oso-  
toro erasana bazegoen ere, egiñ nai izaten zituen bere konbersioko aurreneko urteetako lanak, nola ziran, pobreaki serbitzea, legenartsuak kontu egitea eta mortifikazio mota guzietara menderatzea. Gorputza sufrimentuarekiñ eroria bazeukan ere, animan zeukan betiko irmotasuna. Pensatzen zuen jazarre berriak idukitzea salbazioaren etsaiarekiñ; uste zuen garaipen berriak iritxi, eta bere asmoa zan zabaltzea mundu guzira Jesu Kristoren erreinaldia, zeren amorioa da ezten bat, eperik eta atsedenek eman gabe, beti aurrera joan erazitzen duena.

San Buenabenturagandik artu degun pasarte eder oni erantsi dezaiozun, Tomas Zelanok izkribatu zuen alabanza laburragoa, baño bestea beziñ arrigarria: «San Franziskoren zeloak etzuen mugarik, guzira zabaltzen zalako, eta Ebanjelioaren argia eraman naiko zuen munduaren azkeneko bazterretaraño». Langille nekatezgarri au, eziñ geiago aula bazegoen ere, ikusten

zan egun bakar batean Unbriako bost edo sei erri pasatzen; aiñ ezia zeukan gorputza arrazoi-  
ra, eta arrazoia Jaungoikoarengana! Ala birtutea  
biurtu zan arentzat bigarren sortitza; eta azal-  
tzen zanean, aren bozak, jantziak, llagak, guziak  
predikatzen zuen argan. Igarotzen zan jende  
artean santutasunezko imajiña bizi bat bezela,  
Jaungoikoaren obrak egiñaz eta banatuaz bere  
inguruan, eta berak nai etzuela, bizitzako usai  
bizitza ematen zuena, zeruko su bat biotzak ira-  
zekitzen zituena, eta lurrin bat inzensuak udan  
banatzen duen modukoa.

Aren merezimentuak geitzeko, urrea garbi-  
tzen duen Jaungoikoak sufrierazi ziozkan neke  
eta eritasun berriak. Denbora asko baño len aren  
gorputza egiñ zan zauri uts bat, ezur utsa. Ai!  
Mundu onetan guzia aitzen da. Begiak asi zizaiz-  
kan aurrena beren serbitzua ukatzen, bada beti-  
ko negar egiñez itzali zan aen argia. Zeramaz-  
kian oñaze aundien artean Franziskok etzuen  
batere erremediorik artu nai izaten, deseaten  
zuelako Apostoloak bezela, erori zedilla Kristo-  
gandik berezitzen zuen lurrezko murrua. Bere  
asmo ura kentzeko preziso izan zan balia ziteze-

la beren agintean Kardenal anparatzalea eta Frai Elias, zeñak kontu egiten zioten ama batek bezelako kariñoarekiñ. Eraman zuten San Damiano konbentuaren ondoan zegoen kanabazko txabola batera, iristeagatik laisterrago Santa Klarak prestatzen ziozkan erremedioak. An egon zan berrogei egunean Maseo, Errufino, Leon bere konfesorea eta Anjel Tankredo lagun zituela. Zer santuen billera ain toki txikian!

An, oñazeen indarrez menderaturik zegoela, aditu zioten zerura zuzentzen otoitz irazeki au: «O nere Jaungoikoa! Egiozu begirada bat zure serbitzari umill oni. Indazu laguntza, eta neke oek guziak pazientzian eramateko grazia». Bereala aditu zan zeruko itz ots bat, erantzun ziona: «Baliteke galestiezia izatea, erreinu bat doan irabazi erazten digun joia? Joia au, bada, dira Jaungoikoak bialtzen dituen sufrimentuak; jakizu onek munduko ondasun guziak baño geiago balio duela, mendi guziak urre, arri guziak diamante, eta ur guziak balsamu biurtuko balira ere». «Bai, Santuak erantzun zion, era onetan estimatzen ditut zuk bialtzen dizkidatzun neke-oñazeak, berak dira mundu onetan ematen dida-

zun kastigua, bestean betiko miserikordia egiteko». «Poztu zaitez bada, ori da zerura daraman bidea». Itz oek aditzean Santua altxa zan berea- la amorio irazeki batez mugiturik, deitu erazi zuen geienez oatu egoten zan Santa Klara, aprobetxa zediñ eriak konsolatzeko aiñ egokiak ziran ikasbide aezaz.

Lurreko aingeru bi aek jolastu ziran luzaroan, pazienzian eramaten diranean neke-oñazeak daukaten merezimentuaren gañean, eta zeñ aundia dan Jaungoikoaren miserikordia, bada aren eskuak bedeinkatzen ditu bere serbitzariak, aen gañean zabaltzen dan guzian.

Ez dago esan bearrik igartzeko nolako ernaitasunarekin, nolako fede biziarekin Birjiña Klarak kontu egiten zion bizitza aiñ estimatuari, Eleizarrentzat aiñ balio aundikoa zan osasunari. Egiñ zion oñetako gisako bat, llagak estali eta ibilian neke gitxiago sentierazitzen ziona, baña erremedio eta arreta guziak alperrik galtzen zituen oñazearen bizitasunak. Frai Eliasek probatu nai izan zuen ea lekualdatzeak obedasunik erakartze ote zion eta eraman erazi zuen Foliñoko konbentura, nun alaitasun piska bat sentitu zuen. Andik las-

ter osteran eraman zuten Ama Birjiña Aingeruene-  
kora, eta emen igaro zuten eri eta penatzen 1225  
urtearen parte aundi bat. Mats biltzetakoan era-  
man zuten San Fabianora, Rieti ondora, matstie-  
tako airearekin zerbait alibiatuko zan ustean.

Aita Santua arkitzen zan egun aetan Rietin  
bere gortear guziakiñ. Giza noble asko eta Elei-  
zako Prinzipeak ere joan ziran Fabianora Jaungoi-  
koaren serbitzari umilla ikustera, eta arekiñ zeu-  
den bitartean, morroiak ajola gabiak joan ziran  
apaiz anima zaiaren mastira, eta jan zituzten  
arkitu zituzten mats mordo guziak. Anima zaia  
osoro naigabeturik, espa ematera joan zizaion  
San Franziskori, zeñak galdetu zion ea zenbaten  
galera uste zuen izan zuela: «Urteoro, esan zion,  
nik biltzen ditut amalau moio ardo gitxi gora  
bera, eta au asko det urte guzirako». «Biotz on,  
erantzun zion San Franziskok, bada Jaungoikoak  
ordainduko dizkizu emengo nere egoerak eraka-  
rri dizkitzun kalteak, eta maastiak emango dizki-  
tzu amalau moioak eta are geiago». Santuaren  
aurrez esan au bete betean kunplitu zan, eta  
maastian geratu ziran mordo banaka batzuetatik,  
apaizak atera zituen ogei moio ardotaraño.

Mirarizko ugaritze onen oroipenean, erriko kargudunak egin erazo zuten konbentu bat mastia zegoen toki artan bertan, eta eleiza Gregorio IXgarrenak berak (Ugolino Kardenalak) konsagratu nai izan zuen.

Atsedean egun batzuek igarotakoan San Franzisko joan zan Rietira, San Pedroren ondorengo zan Honorio IIgarrengana, zeñak txit arrera ona egiñ zion. Etzan geratu ostatuz Aita Santuaren jauregian, ezpada Teobaldo zeritzan mairu kristau berriaren etxean. An aditu zuen, Tomas Zelanonok dionez, San Buenabenturak aitatzen duen aingeru soñu eztitsua. Gau batean arkiturik sukarrak errenditua eta lo eziñ egiñik, Santuak esan zien an zeudenai soñu piska bat jo zezaiotela, bere barrena zerbait alaitzeko, baña etxean soñularirik etzan, eta nola fraideak eskusatzen ziran beren ezjakiñarekin, Jaungoikoak berak gusto eman nai izan zion bere serbitzari umill eta leialari. Agertu zitzaion aingeru bat txarrabeta eskuan zuela, eta soñurako eran parata soñuztaia gañean erabilirik, aiñ soñu gozo eta ezitsuak ateratzen zituen, non Santuaren anima geratu zan orditua bezela, eta sentiduak enura-

tuak bezela. Mirari au eziñ gorde izan zien bere lagunai. San Buenabenturaren kondaira oni *Fioretti* (Loretxuak) eransten diote beste gauza berezi bat, jartzen dituztenean San Franziskoren aoran itz oek: «Aingeruak berriz soñua jo izan bazuen, nere anima, aren ez-titasunez eroturik, irtengo zan nere gorputzetik».

Konsuelo oek instanpatean igarotzen ziran, sufrimentuak ordea gero eta aundiago eta biziagoak. Eraman zuten eria Rieti ondoan zegoen Monte-Colonboko konbentura, eta laguntzen zioten sendagiñen iritzia zan, burni goritua lotokietatik pasa bear zizaiola, begitako miña zerbait arintzeko. Erremedioa gogorra zan, eta egiera ikaragarria; alaz guziaz ere San Franzisko artaratu zan, deseatuaz Jesus gurutziltzatuaren amarez sufritzea, eta pensatuaz ala iritxiko zuela bear anbat ikustea ekitteko berriro bere apostolutzako lanbideai. Burni goritua ikusi zuenean, egiñ zuen bat batetango mugida ikarazko bat, eta barrengo naieza bentzutzeko jarri zan itz egi-ten suari, adiskide bati bezela: «Anai sua, Jaungoikoak eder, argi eta protxugarri egiñ zaituena, ager zaitez samur nerekin ordu onetan, eta zure

egille Jaungoikoari erregutzen diot gitxitu ditza-  
tzula berotasuna, sufritu zaitzakean moduan». Eta gero burni gorituaren aurrean gurutzearen  
señalea egiñik, jarri zan sendagiñaren eskuetan,  
zeñak pasa zion burnia askotan belarrietatik  
bekañetara, eriak kejarik txikiena eman gabe.

Lan au bukatzean, esan zien lagunai: «Alaba-  
tua izan dedilla Jaungoikoa, bada egiaz diotsuet,  
ez dedala sentitu suaren berotasunik, ez oñaze-  
rik txikienik». Eta sendagiñarengana itzulirik,  
erregutu zion egiñ zezala berriz, lenagokoa bear  
anbat ez bazeritzaion. Arri eta zur egiñik geratu  
zan sendagiña anbeste balore ikustean, eta eziñ  
egonik, deadar egiñ zuen: «Egiaz, gaur millagro-  
etako eguna da!». Sendagiñ aditu eta are fede  
geiagoko onek, kariño aundia artu zion bere eria-  
ri. Kontu egiten zion beste iñori baño obeto,  
etzion soldatik artzen bisitakgatik, eta begira-  
tzen ez nekeari eta ez diruari aren sendaera iris-  
te arren. Eta nola Jaungoikoak aiñ oparo Franzis-  
kori eman zion negar malkozko doaia zan, bera-  
ri begietako miña zekarkiona, bisitetako batean  
esan zion: «Aita, utzi zaiozu, arren, negar egitea-  
ri, bestela, bista osoro galduko dezu». Santuak

orduan eman zion aren birtuteari zegokan erantzuerara: «Eta eulien modukoa dan gorputzeko bista au ez galtzeagatik nai dezu jarri nadiñ zeruko argiaren ixuriak galtzeko arriskuan? Ez, egiaz, ez orrelakorik une batean ere».

Sendagiñari bere esker ona agertzeko, konbidatu zuen fraideakin bazkaltzera, eta nola esan baizioten etzeukatela alako moduko gizonai emateko zer janik: «Ez ezazute etsi, esan zien Santuak, eta ikusiko dezute». Eta bereala ekarri zuten zestera bat jaki guziz onez betea, andik bi orduko bidean bizi zan dama batek Jainkoaren serbitzariari bialtzen ziona. Franziskok agindu zuen serbitzeko bere ostalariari, zeñak esan zien praideai: «Nere anaiak, eztakigu zeñ aundia dan gure eriaeren santutasuna, eta zuek beraren lagun maiteak zeratenak ere eziñ iruditu dezakezute zenbateraño sartua dagoen argan Jainkozko birtutea». Sendagiñaren serbitzuak etziran geratu sari gabe. Orduan egin zuen etxe galanta asi zizaion arrakatzen, eta denbora asko baño len erremedio gabe erori bearrean zan. Erremedio eske Jaungoikoarengana joan zan, eta San Franziskoren buruko ille piska bat eraturik, para zuen

irriñartean. Aren fedeak iritxi zuen millagro bat, bada biaramon goizean irriñarterik etzegoen, eta bi ormak sendoro elkarganatu ziran.

Gertaera errenkada oetan ikusten degu beste mirari bat, besteak konsolatu anbat, triste-tzen gaituena, nondik konturatu ditekean ere, millagrorik arrigarrienak ez dirala bear anbat konbertitzeko oek sentitu dituztenak berak. Kon-tatuko degu San Buenabenturan arkitzen dan bezela, eta espiritu berarekin, ondorengoentzat serbitu dezan ikasbidetzat. Eleizak kondenatzen du eskandaloa arkitzen dan edozeiñ tokian, eta sartzen bada Eleizan, bera da aurrena kulpadu-nen kontra deadar egiten duena. Baña portaera onen eta gaiztoak daramatenen artean, dago desberdintza neurri gabea. Gaiztoak gorrotatzen dute birtutea, eta poztutzen dira anima bat eror-tzen danean, Eleizak kontrara, nola beti ama dan, negar egiten du bere ume galduakgatik, saiatzen da erakartzeko beren egiñbideen kun-plimentura, eta kunplimentu onetan ikusten dituenean, estutzen ditu amorez bere biotzean, bada guzia da misericordia eta karidadea.

Fundatzalle santua alaitzen zan beti gure Ama Eleizaren sentimentu oetan; onen prueba da beraren Apostolu bizitza; eta beste askoren artean, orain adierazten degun gertaera. Gertatu zan Rietin, Monte-Colonbotik San Franzisko eramán zuten ango Obispoaren jauregiko gela batean. Eramán zuten kanonigo bat Jedeon zeritzana erdi illean eta angarilletan gela onetara, au zan gizon txoraxka eta munduzale bat eta arteraño apaizari dagokan moduan bizitu etzana, eta erio-gaitzarekiñ sentitu zanean, ikaratu zuten Jaungoikoaren juizioak, eta oetatik libratzeko, joan zan Alberniako llagatuaren balimentu billa. Adiskideak eta Asisko Obispoak ere indartzen zituzten aren erreguak. Franziskok, liburu batean bezela aren biotzaren ondoan irakortzen zuenak, esan zion: «Nola sendatu zaitzake Jaungoikoak, beti ofenditzen bazaozkio? Alaz guziaz ere, zure kausa anparatzen duten anima garbien begirunez, erregutuko diot, zuzaz erruki dedilla. Baña kontu: etzaitezela osterá itzuli lengo okerretara; eskergabekeria alabaña da aize erretzalle bat graziaren iturria leortzen duena». Itz oen ondoren egin zuen gurutzearen

siñalea eriazen gañean, eta bereala altxa zan eta asi zan deadarka Jaungoikoa alabatzen eta esaten: «Sendatua nago!». Baño esan bear degu doakabe ark etzituela kontuan artu Santuaren kiñuak, eta lenagoko gaiztakerietara itzulirik, izan zuen merezitako kastigua. Ill zan errukarriro, aren ondoan erori zan etxe baten estalpeak azpian artu eta plastaturik. O Justiziaren misterioa! O Jaungoikoaren juizioen ondogabea!

San Franziskok bere oñaze eta gaitza pazientzia eziñ aundiagoarekiñ eramanik, artu zuen asmoa ekiteko aspaldian utziak zeuzkan misioai. Bukatzera zijoan 1225ko urtea. Franziskok agur egiñ zion Rieti erri ongillari, eta joan zan fraide batzuekin geratzen zitzaizkan indar piskak enpleatzera zeruko Artzaiaren gisan ardi galduen billa. Badirudi Jaungoikoak eman nai ziela ikuskarritzat Unbria, Lazio eta Napolesko jende sinitskorrai, piztuerazitzeko bertan Kalbarioko sakrifizioaren oroipena. Santu bat ikustea, da argi bat, zeruko ikuskera bat, eta beiñ ikusteko ditxa izan duenak, eziñ inoiz aztu dezake. Zer mugida etzuen egin bear, gurutziltzatu bizia deitzen ziotena ikustek? Eta zeñ pekatari danik

gogorrena ere etzan kupittuko Santua ikuste utsarekiñ? Nork gogor egiñ zezaiokean aren itza- ren eta karidade bentsuteziñaren indarrari? Nork azkenik dudatu zezakean aren misio edo eginki- zun legezkoaz, ikustean pausotik pausora milla- groak egiten, eta gorputzean zeramazkia la eza- rriak llaga sagraduak? Ez genduke beñere buka- tuko kontatu bear bagiñuzke egiñ zituen millagro eta konbersioak; baña gogoangarrienetatik ate- rako ditugu bi, zeñen azkenekoa dan kondairan inportanzia egiazkoa.

Zelanon Abruzoetako probinzian soldadu bat joan zitzaien gure apostoloai ostatua eskeñi eta berarekiñ bazkaltzeko konbidatzera, eta aiñ ziñez egin zuen, non Franziskok baietzkoa eman zion. Santuak maia bedeinkatu zuenean, ostala- riarengana itzulirik, esan zion belarrira: «Ene anaia, zure erreguak aditurik, ona nun naukazun zure etxean; oraiñ bada, ordañez, aditu eta segi itzatzu nere consejuak. Konfesa itzatzu lenbait- len zure pekatuak damu egiazkoarekin, bada Jaungoikoak gaur bertan ordainduko dizu bere pobrei egiñ diezun obra ona». Soldaduak sinis- tu zion, artu zuen absoluzioa Santuaren lagun

bategandik, zuzendu zituen munduko bere egiñbideak, eta prestatu zan benetan Jaungoikoaren tribunalera agertzeko. Eseri zan gero maiean bere bazkaldarrakiñ, eta jaten ari zala, bat batean ill zan. Ala bete zan Santuaren aurrez esana ezezik, Ebanjelioko agindua ere, esaten duenean: «Profeta bat etxean artzen duenak, profeta bezela, artuko du profeten saria» (Math. X, 41).

Badirudi, bere bizitzako denbora onetan sendatu zuela San Franziskok lau urteko aur bat agonian eta sendagiñak etsimena emana zegoe-na, Toskanako Bagnareatik igaro zanean. Juan Fidenza eta Maria Riteli, aur gaxoaren gurasoak, nobleak jaiotzaz eta are geiago beren piedadeagatik, zeruronz begiak altxaturik baliatu nai izan zuten Italia guziak santutzat zeukan Asisko Franziskoren merezimentu eta bitartekotasunaz. Maria Ritellik promes egin zion Jaungoikoari, Juan aurra sendatzen bazan, emango ziola Erlijioso txikieneko Ordenari. Gure Santua, ama nairgabetuaren negarraz kupiturik jarri zan orazio egiten, eta itzuli zion bere semea osotoro sendatua. Gero millagrozkko semeari begira jarririk,

aren aingeruzko arpegi zoragarria, eta Jaungoikoak ze lanbide aundietarako zeukan señalatua bere Eleizan, deadar egiñ zuen billatzen zuen ondasuna arkitu bazuen bezela: «O patu ona! O buenabentura!». Buenabentura izango da geroz mundu guziak Juan Fidenzaren semea ezagutuko duen izena, erlijioso danean, eta gero Albanoko Obispo Kardenal bezela eramango duena, eta izen berean Sixto IVgarrenak kanonizatuko duena (1482). Millagroa señalatu degun ezker, miretsi ditzagun emen elkarte artan Jaungoikoaren Probidenziak zeuzkan asmo miragarriak. Franzisko eta Buenanbentura, zer gloria oroitu arazten duten bi izen oek! Ura da Penitenziako Iru Ordenen fundatzallea, eta au Iru oen berritzallea eta bigarren Aita bezela. San Franziskok berritu zuen erortzen zegoen Eleiza, eta San Buenabentura izango da beraren argikaria. Bietako bakoitzak dauzka eginbide eta birtute bereziak, baña biak dira anima serafiñdarretakoak, eta biak argi egiten dute autuen zeru ikusten ez danean. Izar bi oetatik bata itzaltzera zijoan; bestea orduan jaiotzen zan.

Eta egiaz, Franzisko errenditzen zan bere apostolutzako nekeak mendeaturik, bere betiko gaitzak eta negu gogorrak erasanik (bada zan 1225ko neguaren biotza). Gaitza goora zijoa-kion, alatan non lagunak azken onik izango etzuelako beldurrez, eraman zuten bere jaiete-rrira. Don Gidok ostatua eman nai zion bere jau-regian, baña egin ziozkan alegiñ eta kontu guzia-rekiñ gaitza etzan gitxitzen. Urrengo urteko uda-berrian Frai Eliasek bialdu zuen Senako airea artzera, Asiskoa baño beragoa zalako, baña ez fundatzalle santua sendatzeko esperanza zeuka-lako, bada 1224an Foliñon zegoela, amets miste-rioso batean jakin zuen, Franziskori mundu one-tan bi urteko sufrimentuak bakarrik geratzen zitzaizkala, ezpada deserri onetako azkeneko urteak al zuen guzia gozatu nai ziozkalako.

Tokiaren aukera eziñ izan zitekean ohea. Iru mendi muño gañean egiña itxas-nibel duela 405 metro goorago, Elsa eta Onbrone ibai tartean, Sena dago bero geiegi nola otz gogorretatik gor-dea. Nola zegoen orduan udaberriaren gala guziakin apaiñdua, bazirudien lore erramu bate-tik irten, eta bere mendeko errien erdian erregi-

ña baten gisan gozatzen zala. Eriak artu zituen mendi aetako aire garbi eta ordekaetako urriñ gozoak, baña, ai! obedasunik gabe. Leku aldatzeak, kontu ernaiak, erremedioak, guziak izan ziran alperrak. Llagetako zauriak gurutziltzatzen zuten beraren gorputz inozentea, birikak zeuzkan galduak, urdalla irabiatua, eta bista ia osotero joana. Senako sendagiñak ere pasa zioten bekañetatik burni goritua, baña etzuen iritxi Monte-Colonboko millagroa berritzea baizik.

Andik egun batzuetara izan zuen odolezko errebestatzea osotero auldua utzi zuena. Txit atsekabetuak bere ikasle guziak, eta aen ondoan inguraturik esan zioten San Martiñi bereak bezela: «Aita, zuk uzten bagaituzu, nork erakutsiko digu? Nork konsolatuko gaitu? Ah! Utzi zaiguzu, benik beiñ, zure amorio biguñaren siñale bat, eta bedeinka gaitzatzu, gure etsaietatik gordeak izan gaitezen». Orduan Santuak, osotero kupituri, deitu zion Benito Pirra, bere kapillau eta eritasunean kontu egiten zionari, eta esan zituen iltzer zegoenaren boz aul, baña animako alaitasun aundiarekiñ ondorengo itz oek: «Jaun aundiaren apaiza, izkriba zaiezu nere anai guziai, ala

orain Ordenan daudenai, nola munduaren bukaeraraño sartuko diranai ematen dietedan bedeinkazioa. Ona agertuak itz bitan nere pensamentuak eta atzeneko borondatea: «Maita zaitetze elkar, nik maitatu zaituztedetan, eta amatuko zaituztedetan bezela; maitatu beti Pobreza, nere dama eta erregiña. Egon zaitetze beti Ordenako agintarien eta gure Ama Eleiza Santaren apaizen mendean. Aita, Seme eta Espiritu Santu Jaungoikoaren bedeinkazioa ixuri dedilla zuen gañean. Amen».

Frai Eliasek eskutitz au artu zuenean, etzeukan dudarik, Santuaren atzeneko ordua alderatzen zala. Joan zan presaka Senara, eta Santuak agindurik, berarekin batean Asisa. Atzenearaño bere adiskide eta anparatzalle zan Don Gidok artu zuen bere jauregian, eta uriko agintariak para zituzten kontu artzalleak gau eta egun, Llaga Sagraduak sillatuak zeuzkan gorputzaren erlikiak ostutzeko bildurrez.

Gure Santua etzuen izutzen eriotzak, bizidun guziak izen utsak ikaratzen dituen mandatari triste orri begiratzen zion adiskide batek farra gozo egiñaz adiskideari begiratzen dion bezela.

Etzijoakion pake erriko atea irikitza, eta bere Maitearen jargoi ingurura eramatera? Ala aren agoniaren antsietan bazan zerbait lurrekoa etzana. Eta aren oñazeak aiñ bizi eta luzeak baziran ere, nun, berak aitortzen zuenez, naiagoko zuen borreroak tormentua ematea, alaz guziaz ere billatzen zuen bear anbat indar inguruan zeuzkanak konsolatzeko. Indar au nondik zetorkion adierazten du onako pasarte onek:

Besteetan baño oñaze aundiagoak sentitzen zituen egun batean kontu artzen zion fraide bat anbesteraño kupitu zan artzaz, non esan zion: «Aita, erregutu zaiozu Jaunari etzaitzala tratatu aiñ gogorki, bada deritzat Jainkoaren eskuaren pixu guzia gañean dezula». «Zure senzilltasun eta intenzio ona ezagutuak ezpaneukatzi, erantzun zion Franziskok aserre santuarekiñ, iges egingo nuke emendik, Jaungoikoaren juizioen kontra orrela murmuratzen duenaren ondoan ez egoteagatik». Eta bereala bere indar guziak bildurik bota zuen bere burua lurrera, eta aiñ kolpe aundia artu zuen, nun Santuaren gorputz oñazetua geratu zan osoro minberatua. Eta lurrari muñ egiñda esan zuen: «Eskerrak, Jauna, ematen diz-

kidazun nere sufritu bear guziakgatik. Zure borondatea ala bada, eman zaizkidazu eun bider aundiagoak, bada nere ditxa guzia zuri obeditzea da». Itz oetan dago erretratatua Asisko Penitentzilaria santua. Jaungoikoa neurri gabe amatzea, aren borondate santua egitea, ona emen aren bizitza eder eta eriotza santuaren azalduera.

Ezaguturik munduko bidajearen mugara ia iritxi, eta gorputzeko karzelatik laister irten bearra zala, bildu erazi zituen ikasle guziak Obispoaren jauregiko bere gelan, eta Jakoben gisan, gurutzatu zituen besoak bere amoriozko umeak bedeinkatzeko zorian. Galdetu zien ea nor ukitzen zuen eskubiarekin, erantzun zioten, frai Eliasek. «Ongi da, esan zuen Santuak. Ene seme, nik bedeinkatzen zaitut guzian, eta guziaz gañ, eta zure agintepean Jaunak bedeinkatu dituen bezela nere umeak, ala zugan bedeinkatzen ditut guziak, Jaungoiko, gauza guzien Jaun eta Jabeak bedeinka zaitzala zeruan eta lurrean. Nigan danez, bedeinkatzen zaitut al dedan guzia, Jaungoikoa oroitu dedilla zure obraz, aditu ditzala zure orazioak, eta dizula partea justuen

zorientasunean». Frai Eliasen azkeneko orduan oroitu bear zituen Jaungoikoak Franziskoren agoniako erregu eta merezimentuak.

Santuak etzeuzkan aztuta San Damiango bere alaba maiteak, eta ala bialdu zion Santa Klarari eta aren lagunai bere azkeneko bedeinkazioa, konsellu onez betea zegoen eskutitz batekin. Lan oetan ondo ezagutzen da Franziskoren karidade bizia, bada esan zezakean bere ikasleakgatik gaztetan pobreakgatik esan zuena: «Danak nere biotzean daramatzit». Gañera onetan ikusten da piedade egiazkoaren siñalea, bada erlijioak bakarrik egiten du mudatzea ikutzen duen guzia, pensamentuak altxatzea, eta biotzeko mugida on guziak garbitu, ari eta obetu, eta zerukoia egitea. Bere ume guzientzat zeruko grazia eskatutakoan, Franziskok erregutu zien eraman zezatela, Ordenak asiera izan zuen toki bedeinkatu eta bere bizileku estimatu Ama Birjiña Aingeruenekora; zergatik, San Buenabenturak dion bezela, bere azkeneko asnasia eman nai zuen, zeruko goi argiaren grazia artu zuen tokian.

1226ko agor illaren azkeneko egunetan, angarilla batzuetan jarririk eraman zuten bere Porziunkula maitera. Uri eta konbentuaren arteko bide erdian bezela ziranean, galdetu zuen ea iritxi ziran bere konbersioko aurreneko denboretan legenartsuak kontu egiten egon oi zan ospitalera, eta baietzkoa aditurik, esan zien para zezatela urira begira, eta neke aundirekin eserita, ezkerreko besoa praide baten gañean deskantsatu zuen, eta bestea Asis alderonz luzatu zuen, esanaz itz ospatsu oek:

*Benedicta tu, civitas, á Domino,  
Quia per te multae animae salvabuntur;  
Et in te multi servi Altissimi habitabunt;  
Et de te multi eligentur ad regnum aeternum.  
Pax † tibi*

«Jaungoikoak bedeinka zaitzala Asisko uria, zugatik anima asko salbatuko dirala, bada zugar Jaungoikoaren serbitzari asko biziko dira, eta zure semeetako asko izango dira autuak zerurako. Pakea izan dedilla zurekin».

Bedeinkazio oen artean dijoa izen bat, oroi-  
pen gozokoa San Franziskorentzat, eta oro bat  
liburu au irakorriko duten guzientzat, aren ongi-  
lle aundi Erromako Jakobina Settesoliren izena.  
Porziunkulara iritxi zan bezin laister, izkriba erazi  
zuen ondorengo eskutitz au, nun aldearez  
adieraztu zuen bere eriotzako eguna: «Jakizu,  
nere alaba maitea, Kristo Jesus beti bedeinka-  
tuak agertu didala aldean dedala nere azkeneko  
eguna. Oraindik mundu onetan ikusi nai banazu,  
atoz bereala Ama Birjiña Aingeruenekora. Larun-  
bata baño geroago iristen bazera, ez nazu bizirik  
arkituko. Ekarzazu tela bat edo obeto zilizio bat  
meztitzeko, eta argizaia nere obirako. Baita ere  
erregutzen dizut ekarri dezazula, gaizkitu nintza-  
nean Erroman arrerazten ziñidan orre ura». Onara  
iristean geratu zan ustekabeko bisitarekin  
bat zabartzen dan moduan; eta gero esan zuen:  
«Eskutitz au, alperrik da, bada dama Settesoli  
bidean abiatu da». Eta egiaz, andik laister iritxi  
zan bere seme biakin, eramanez Santuak nai  
zuen guzia, aingeru batek ala agindu ziolako.

Besteri egiñ etziona, Santuak dudarik gabe  
alargun noble aren debozioari begiraturik, agin-

du zuen sar-erazo zezatela konbentuan bere bi semeakin. Txit konsuelo aundia izan zan dama arentzat utzitzea ikusten Alborniako gurutziltzatu, aren kontua idukitzea, oñetako llaga sagra-duak laztandu eta negar malkoz bustitzea; konsueloa, Jesu Kristoren pobreakin zuen karidade aundiari dudarik gabe zor ziona. Agorreko 30aren asteazken goizean, nola aditzera eman bai zuen agintzera zijoala itzultzeko berarekin etorri ziranetako batzuek: «Ene alaba, esan zion, itxodon zazu lau egunean, eta ala gorputz pobre oni atzeneko onrak egiten diozkatzunean, itzuliko zera Erromara zerekiñ ekarri dezun jende guziarekin». Santuaren esan au izan zan Jakobi-narentzat agintea bezela, eta ala itzik trukatu gabe obeditu zion.

Biaramonean (urriaren 1an) Franziskok bilduerazi zituen konbentuko erlijioso guziak, bedeinkatu zituen berriro, eta partitu zuen aekiñ ogi bedeinkatu bat anaitasunaren siñalean. Frai Eliasek bakarrik penaren penaz utzi zuen jan gabe tokatu zitzaion xerra. Frai Leonek eskatu zion, eta gorde zuen arreta aundiarekin, eta kondairak diote, mirarizko sendaera asko egiteko

serbitu zuela. Erlijoso guziak zeuden negarrez; San Franziskok agindu zien alderatzeko bere ikasle zarrenai, Bernardo Kintabali eta Gili (bigarrena, Pedro Katanio, ordurako illa zan) eta esan zien: «Atozte nere seme maiteak, atozte, bedeinkatu zaitzatedan ill baño len». Eta aen buru gañetan eskuak gurutzatuta, bedeinkatu zituen bedeinkazio bereziarekin.

Ostiral arratsean (urriaren 2an) kiñu egiñ zien bere oera alderatzeko. Gauza arrigarria! Gorputza illa bezela zeukan, baño zentzua txit argi eta indartsua. Orduan egiñ zuen emen jartzen degun testamentua, ezpañ iltzer zeudenetatik irten zizaion amorezko zizpirua, bere bizitzako denbora aldi banaak siñalatu zituen obra bikaña. Frai Anjelek izkribatzen zuen, gañerakoak aditzen zuten ixilltasun errespetozkoarekiñ.

«Jaungoikoak eman dit grazia Frai Franzisko naizen oni, asitzeko onela penitentzia egiten. Pekatuzko bizitza neramanean, asko kostatzen zitzadan legenartsuai begiratzea, baño Jaunak aen artera eraman ninduen, eta karidadea beraikiñ egiñ nuen. Eta aekgandik alde egiñ nuenean, gogorra iruditu zitzadana, biurtu zitzadan gozo

gorputz-animentzat. Onen ondoren, denbora gitxira utzi nuen mundua. Eta Jaunak alako fedea eman zidan Eleizatarako, non senzilltasun guziarekiñ adoratzan nuen, esaten niola: «Adoratzan zaitugu, Jesus, Jaun guziz santua, emen, eta munduan dauden Eleiza guzietan, eta bedeinkatzan zaitugu zure gurutze santuaren bidez erredimitu gaituzulako».

«Ondorean Jaunak eman zidan eta ematen dit oraindik alako fedea Erromako Eleiza Santuarekiñ batasunean bizi diran apaizetara, daukaten sillu sagrauagatik, non persegituko banindute ere berangana joango nintzake. Apaizakin arkitzan nintzanean, naiz aek munduko erri kaxkarreretakoak izan, Salomon beziñ jakintsua izan banintzan ere, ez nintzan benturako aen parroketan predikatzera baimenik eman gabe. Nik errespetatzan, amatzan eta onratzan nituen aek eta gañerako apaiz guziak, nere nagusiak bezela. Eta ez itz egiñ neri aen pekatuaz, bada aengan nik Jainkoaren Semea ikustan det, eta apaizak diranez, dira nere maixuak».

«Ala obratzen det, zergatik mundu onetan ez det nik nere begiakin Jaungoikoaren Seme orren

gauzarik ikusten, gure sentiduen mendea dagoenik, berak konsagratu eta artzen duten gorputz-odol adoragarriak baizik, izanik berak bakarrik fededunai emateko eskubidea daukate-nak. Erreberenziatu eta onratu nai det guziaz gañ Aldareko Sakramentu Santua, eta Hostia Santua iduki dedilla kustodia eta sagrario prezio-soetan».

«Jaungoikoaren izen santuari eta Ebanjelioko itzai dagokatenez, billatzen baditut dezenia gitxiko tokietan, bilduta jartzen ditut obeagoetan, eta nere anaiai erregutzen diet oro bat egin dezatela. Onra eta errespetoa zor diegu Jainko-kindari, eta Jainkoaren itza predikatzen digute-nai ere, diralako guretzat zeruko bizitz-erakarle batzuek».

«Lagunak idukitzeko grazia Jaungoikoak egiñ ziranean, etziran iñork erakutsi egiñ bear nuena, ezpada Berak agertu ziran bizi bear nuela Ebanjelio Santuaren erara. Izkribatu nuen Erregla senzilloro, neretik ezer ipiñi gabe, eta Aita Santuak ontzat eman zuen. Bizi modu au artzen zutenak, zeukaten guzia beartsuai ematen zien. Kontentu giñan barrendik eta kanpotik konpon-

dutako tunika batekin, nork bere gustora, eta soka eta gañeko arroparekin, besterik ezer nai gabe. Eleiz gizonak giñanak esaten genduen Eleiz-errezoa Eleiza Santuko beste apaizak bezela, anaia legoak esaten zituzten *Aita gureak*. Gure bizilekua jartzen genduen gogo onez eleiza pobre eta utzietan, eta giñan senzilloak eta obedituak».

«Nere eskuz lana egiten nuen, eta egiñ nai nuke oraindik, eta agintzen diet nere senide guziaz ari ditezela lan presturen batean. Lan egiten ez dakitenak, ikasi dezatela, ez soldata zirzill bat irabazteko, ezpada ejemplo ona eman eta alperkeriatik ies egiteko. Zuen lanaren balioa ematen ezpadizute, zuazte Jaunaren maiera atez ate limosna eskatzen dezutela. Jaungoikoak erakutsi dit beti usatu bear degun agur au: «Jaungoikoak bere pakea dizula».

«Erlijosioak ez ditzatela artu berentzat egingdako Eleiz, etxe edo beste bizilekuak ondo egokutzen ezpadira gure Erreglan artu genduen pobrezia santuarekin, eta artu al baditzateke, bizi ditezela aetan arrotz eta erromesen moduan».

«Obedientzia santuaren izenean debekatzen diet osoro erlijioso guziaz, eta arkitzen diran edozein tokietan eskatzea Erromatik berenez edo besteren bitartez pribilejio edo gallaldiarik batenre Eleiza edo beste tokietarako predikazioen apukoaz, edo persekuzioetatik libratzeagatik. Toki batean artzen ez badituzte, bijoaz beste batera, an Jaungoikoaren bedeinkaziorekin penitentzia egitera».

«Obeditu nai diot irmero Anaitasun onetako Buruzai guzienari, eta onek eman nai didan Guardianari, eta beraren mendean egon nai det alatan, non ez dedan egiñ nai ezer ere beraren baimena gabe, dalako nere maixua. Senzill bat banaiz eta gaizki banago ere, iduki nai det beti aldamenean apaiz bat, Eleiz errezoa egiñ dizadan Erreglak agintzen duen eran. Baldin balitz erlijiosoren bat Erreglaren eran Eleiz errezoa egi ten ez duenik, edo mudanza berriaren bat jarri nai duenik, edo katolikoa ez balitz, Erlijiosoak beartuak daude, edozein tokitan arkitu dezatela, aldeeneko Kustodio edo agintariari eramatera. Onek kontu egingo dio gau eta egun preso bati bezela iges egin ezin dezakean moduan berak

Buruzai guzienari eraman arteraño. Onek obediencia santuaren birtutez oro bat kontu egiñ dezaiola beste erlijiosoen bidez, alik eta eraman bitartean Anaitasun onen Maixu, anparatzalle eta zuzentzalle dan Ostiako Kardenalarengana».

«Eta Erlijiosoak ez dezatela esan «Au beste Erregla bat da», zergatik au ez da nik, frai Franzisko zuen serbitzari umillak, zuei nere anai bedeinkatuai uzten dizutedetan Erreglaren oroi-pen, gaztigu, erregu, itz batean testamentua baizik, guziok ontzat eman genduen erregla obeto gorde dezazuten. Ministro Generalak (Buruzai guzienkikoak), beste Ministro eta Kustodioak obedienciaren pean ez dezaiotela ez kendu eta ez erantsi ezer Erreglari. Eraman dezatela beti izkribu au Erreglari ezarria, eta irakorri dezatela Erreglaren ondoren, izaten dituzten Billera guzietan. Zorrozki debekatzen diet nere anai apaiz eta legoai, eta obediencia santuaren pean agintzen diet ez dezatela azaldu Erregla eta izkribu au esanaz: *ala aditu bear da*, bada Jaunak senzill eta toleskabero agertu ziran bezela, *ala aditu bear dezute senzill eta toleskabero*, eta kunplitu atzeneraño».

«Eta gauz oek zintzo gordetzen dituen Aita zerukoak bedeinkazioz bete dezala zeruan eta lurrean, bedeinkazioz bete dezatela Seme txit maiteak eta Espiritu konsolatzalleak, Zeruko Birtute eta Santu guziak. Eta nik frai Franzisko zuen serbitzari umillak, indartzen dizutet dezakedaneraño, barrendik eta kanpotik bedeinkazio txit santu au. Ala izan dedilla».

Gau gogoangarri artan (urriaren bian) erlijio-soak arriturik zeuden ikustean Santuaren buruko argitasuna, aren pazienzi mudatzen etzana, Jaungoikoarekiko batasuna, eta doidoi aditzen zizaion bozarekin zuzentzen ziezten konsellu kupidagarriak. Eta oroitzen bagera zenbait oñaze eta naigabeen artean gordetzen zuen argitasun ura, sosegu ura, guk ere osotoro arri-turik, negar egiñ eta belauniko jarri bearko degu alabatzeko Jaungoikoa alako gizonaren bizitza azken aiñ ederrarekiñ koroatu zuelako, eta agindu ziolako eriotzari errespetatu zezala aren buruko argitasuna azkeneko uneraño, obiko kiratsetik birjiñ garbitasuna beñere loitu etzutenen santuen gorputzak askotan gorde izan dituen bezela.

Biaramon goizean, au da larunbatean, Ama Birjiñak, zeñari eskeñi baizion egun au Esteratako Billera sonatuan, prestatu zion ordañez izatez doaia eta Jaunaren millagroen millagroa bezela katolikoak begiratu oi duen grazia: Komunio Santua. Komunio onek izan bear zuen aren atzenekoa, eta zeruko betikoaren asiera. Indartsuen ogiarekin bazkaturik eta olio Santuarekiñ igortzirik, bere pensamentua eraman zuen eriotzaz arontz, eta bere anai gorputza, deitzen zion bezela, osotoro aztua gera zediñ, agindu zuen lurpetu zezatela Infernuko arkaitzean, zeña zan arkaitz desonragarria, bertan gaitzgilleak iltzen zituztelako; anbesterañoko gose eta egarria zeukan despreziatu eta oñazpiratua izatearena! Eta alaxe zegoen señalatua ill eta bizi Jainko Gizon egiñaren antz oso osokoa izateko. Gero aldame-nera begiratu, eta beregan pensatzen jarririk, ikusi zuen guzia prest zegoela eternidadeko bidaje aundirako, eta geratu zan soseguz.

Arratsaldean Apenino mendi atzean eguzkia ezkutatzera zijoanean, Santuak deitu zien azkenengo aldiz ikasleai bere oe ondora, konsolatu eta bedeinkatu zituen, esanaz: «Agur ene

semeak, agur guzioi! Uzten zaituztet Jaungoiko-aren bildur santuan, iraun ezazute bertan. Ez dago urruti prueba eta estuasuneko denbora! Zorionekoak asitako onean irauten dutenak! Jainkoarengana nua, ikusteko presa det, bere graziara gomendatzen zaituztet». Erlijiosoak ezin erantzun zioten negarrez eta suspirioz baizik. Agurra egiñ zien ezkerro, aztu zuen lurra zeruan baizik ez pensatzeko, eta bere anima Jau-nagana obeto altxatzeko, agindu zien frai Leoni eta frai Anjeli kantatu zezaiotela *Eguzkiaren Kanta* eta bere senide eriotzarena, zeñari bera-gatik bere ongi etorria ematen zion. Gero tunika kendu eta zilizio utsarekin estalia zegoela, jarrie-razo zien autsa zabaldua zegoen lurraren gañean, pensatuaz bere gorputza txit laister izango zala autsa, baña are geiago ill arteraño bere dama probrezari leial izateagatik. Fraideak aren deseolari igarririk eraman zioten tunika bat sokarekiñ, eta jantzi zituen esker onezko seña-learekiñ. Erregutu zien irakorri zezaiotela Jesu Kristoren Pasioa San Juanen erara, eta irakorrita-koan, berak asi eta errezatu zuen agoniako

bozarekin 141garren Salmoa, naigabezko ujua-kin asi eta esperanzazko itzakiñ bukatzen dana:

«Altxa nuen nere boza Jaunari deitzeko, Jaunari zuzendu niozkan nere erreguak».

«Nere orazioa bere aurrean banatzen det, eta agertzen diot nere naigabea».

«Nere espiritua desalaitzera dijoanean, zuk ezagutzen dituzu nere bideak. Nijoan bide onetan, isilikako lazoak zabaldu dizkirate».

«Begiratzen nuen ea nere eskuian iñor jartzan ote zan, baña etzan, ezagutzen ninduenik. Lesbidea itxi ziraten, eta etzan iñor ni salbatzeko».

«Zuri Jauna, deitu eta esan dizut: Zu zera nere esperanza eta partea bizien lurrean».

«Adi ezazu nere eskaria, osotoro beeratua nago ta. Gorde nazazu nere persegilleetatik, ni baño gogorragoak diralako».

«Atera ezazu nere anima kartzela onetatik, alabatu dezadan zure lzena, Justuak itxedoten daude noiz emango didazun betiko saria».

Itz oek esanik, aren ezpañak betiko itxi ziran, eta animak ega egin zuen Jaungoikoagana. Au gertatu zan urriaren 3an eguzkia sartuta ordu

betera. Zer eriotz ederra! Eta nola berezitzen dan XIIIgarren eunkiaren aurreneko erdia odoldu zuten gertakari izugarrien artean! Anima ez izutu, ezpada betetzen du mugida txit biguñez, eta oroituerazten digu Eskritura Santuko esaera au: «Eztago lurrean gaiztoaren eriotza baño ikuskarri ikaragarriagorik, eta justuaren atzena baño konsolagarriagorik». Franziskorena, zan atsegiñgarriena. Begiratu batera badirudi Berandonen semea izan zala goizegi bildua aurreneko fruta bezela, bada etzituen berrogeita bi urte eta illabete batzuek baizik; baño oroitzen bagera Jakintsuaren esaera onezaz, mantxa gabeko bizia, bizi luzea dala, ezagutu bearko degu denboraz eta merezimentuz kargatua zegoela, eta beragatik zala fruta eldua zerurako.

Eta egiaz, ogei urte baño gitxiagoan eraiñ zien Tebaidako eremutarren penitenziai, Apostulu-gizonen nekeai eta martirien sufrimentuai. Ogei urte baño gitxiagoan para zituen iru Ordena erlijiosoak, ondu oiturak, indartu animetan Jesu Kristoren erreinaldia, eta aldatu munduaren itxura. Gizonen semeen artean etzuen iñork Franziskok beziñ bokazio arrigarriagorik, ez eta

iñork erantzun ere ark beziñ ongi. Baña arekiñ zuzen portatu nai badegu, kontatu bearko diozkagu berak egindako lanak ezezik, beraren ikasbide eta jarraikaiak sortu erazi dituzten eta munduaren bukaeraraño sortu eraziko dituztenak ere. Baña au alde batera utzirik, San Franzisko beti agertzen da (eta ona beraren doai berezia), gure Salbatzalleraren antz irudi oso osokoa, orain lasto tartean jaio zalako, orain bere bizitza agerikoagatik, orain Albernia mendiko bere sufri-mentuakgatik, eta baita moduren batean bere eriotz ondoreko mirariakgatik.

Agur, fedearen gudalari portitza! Agur, amorioaren martiria, zauri sagraduen purpuraz ornitua! Zu zera palma bezela azi eta Libanoko zedroa bezela ugaritzen zeran justua, eta gaurdandik leku berezia izango dezu Eleizako gertakarietan, eta guziaz gaiñ zure semeen biotzetan, nun zure oroipena gizaldiz gizaldi biziko dan.

# Emeretzigarren Bereziara

*San Franziskoren progua.*

*Santutzat aitortua.*

*Aren erliki-aldatzea.*

*Aren obiaren edertasuna.*

(1226-1230)

Beteak zeuden Franziskorentzat graziako misterioak, astera zijoazen gloriakoak. Ez al zuen atzeneko asnasia eman, ark aiñ maite zituen, eta berarekin Jaungoikoa alabatzera ainteste bider gonbidatu zituen txoriandra aetakok Ama Birjiña Aingeruenekoaren tellatura joanda asi ziran kantatzen eztitasun aundiarekin, gloriako aren koroazioa zelebratu nai bazuten bezela. Kapuako probinziako Probinzial frai Agustin Asis jakinduria eta birtute aundikoak ikusi zuen Santuaren anima zerura igotzen izarraren itxuran, eta gaitzak menderatua zeukan oean neke aundiarekiñ eseririk, deadar egin zion, esanaz: «Ene Aita, itxedon nazazu, zurekiñ nua ni ere!». Eta aren anima, gorputzaren eragozpena etenik, joan zan bere Aita doatsuarena-

ri lagun egitera. San Franzisko agertu zizaion oro bat bere adiskide argi Gidori, Gargano mendira erromerian zala, eta esan zion: «Deserri au utzi, eta banua zeru errira». Mirari oek guziak gertatu ziran urriaren irutik laura bitarteko arratsean.

Zanaren gorputza prezio guziz gaindikakoa zan, argatik erlijiosoak balsamutu erazi zuten, luzaragoan iraun zezan desegiñdu gabe. Jakobi-na Settesoli piadosoak pagatu zituen balsamutzearen eta illet-elizkizunaren gastuak. Biotza eta erraiak gorde zituzten Ama Birjiña Aingerue-neko Eleizan Franzis [...].

[...] zierto eta arrigarriak. Eta egiaz, zer dator Probidenziaren bitartekotasun zerukoi onetatik, ezpada Jaungoikoak era onetan ontzat ematen duela bere serbitzariaren santutasuna, eta toki guzietan bera Jaungoikoarekiko bitarteko artzea? Ala pensatzen zuten jende piadosoak, eta arrazoi aundiarekin. Baña ala ere bear zan beste erabaki bat, munduan Jaungoikoaren ordezkoa egiten duenaren tribunalarena, zeñaren erabakiak diran utsik eziñekoak, eta eskubide aproposa bear bearrekoa dan gizon bat alda-rean parata santutzat onratzeko, esan nai degu,

bear dala Erromako Eleizaren erabakdea. Oni bakarrik dagoka, egiaz, bere umeen santutasuna ezagutu eta aitortzea, eta au da benturaz Aita Santuaren koroaren lorerik bikañena. Erregetzako egintz onen bidez Erroma geratzen da pobreakiñ, baztertuakiñ, menderatuakiñ, paratzen ditu beste munduko egoera goienenetan egiñaz beren senideen anparatzalle, eta jarraitu bear dituzten molde, eta ematen die gizonak soma dezakean gloria beñere galtzen ez dan aundiena.

Aita Santuaren epai au denbora asko baño len izan zan gure Doatsuarentzat. Honorio IIIgarrena ill zan 1227ko martxoaren 18an eta biaramonean Ugolino kardenala izan zan guzien itz batera Aita Santutzarako aukeratua, eta eseri zan San Pedroren Kataberan Gregorio IXgarren izenarekiñ. Ordenak galdu zuen Kardenal anparatzalle bat, beste balimentu geiagoko bat billatzeko.

Jaungoikoaren Probidenziak gordetzen zion Gregorio IXgarrenari bere zartzaroaren konsue-lorako eta sufrierazi ziozkan prueben indarrerako, San Franziskoren birtute miragarriak aitor-

tzeko onra eta poz kontentua. Onen Aita Santu-  
tzako asiera naspillatua izan zan. 1228an pazkoa  
denboran sortu zan iskamilla, Alemaniako enpe-  
radorearen mandatariak zirikatua, eta Aita San-  
tuaren agintea eziñ eraman zuten giza noble  
erromar batzuek lagundua, aitona beneragarria-  
ri deserriko bidea ar erazi ziona. Gregorio IXga-  
rrena gorde zan Unbriako errietan, aurrena Rie-  
tin eta urrena Espoleton, emendik joan zan Asis-  
a San Damiano Dama pobreen konbentua bisit-  
tatzera, eta benturaz edo obeto aiñ portizki era-  
soa zan Pedoren ontzia San Franziskori gomen-  
datzera. Nola jende on aek guziok batetan erre-  
gutzen zioten para zezala Santuen lumeruan  
*Asisko Serafiña, Italiako Apostolua eta XIIIgarren*  
*eunkiko Mirarigille aundia* deitzen ziotena, agin-  
du zuen asiera eman zezaiola bertatik kanoniza-  
zioko prestamen edo aurrez egin bear diran billa-  
kinde eta gañerako lanai. Federiko Igarrenare-  
kin zerabizkian despatak erabakitzeko Perusara  
joan zediñ baño len, agindu zien Unbriako Obis-  
poai bildu zezatela San Franzisko Asiskoaren  
dotriña eta egieraen gañean jakiñ zezatekean  
guzia, eta señalatu zuen batzarre bat kausa

onen kontrako aundienak ziran kardenaletakoa, guzia ondo begiratu eta examiñatzeko.

Laburtu ziran lanbide onetan jarri oi diran epeak, neurri onezaz iñor arritu gabe, bada kristau erri guzietan zabaldua zegoen gure doatsua-ren millagroen aomena, eta aek ikusitako persona geienak oraindik bizi ziran. Jesu Kristoren Ordezkoak agerturik egiteko onetan Eleizak fede edo irakasdeko eginbideetan agertu oi duen zentzu aundia, ikusi zuen berberak auzbakidetegian lan au nola zijoan bere bidean; ontzat eman zituen artu ziran billakindeak, eta bere Aita Santutzako aginteaz usaturik, seinalatu zuen 1228ko uztaren 16garren eguna zan iganderako, santua zala erabakitzea edo kanonizazio solemne edo ospatsua. Aita Santua bere kortear guziakin irten zan Perusatik uztaren 15ean Santuaren errian sarrera solemnea egiteko. Tomas Zelanok kontatzen digu pozez gañ egiñik, nolako alegri seña-leakin iriki ziozkan ateak Asisko uriak, erri guziak nola lagundu zion Obispoaren jauregiraño, eta nola egun artan uri osoa etzan bear adiña anbeste giza noble, abade mitradun, obispo eta beste

zenbat persona, Italia guzitik pesta onetara zijo-  
azenai ostatu emateko.

Bigaramon goizean (uztaren 16ean), Aita Santua alako denboratan oi zuen bezela aundita-  
sunarekin joan zan San Jorjeko Eleizara, nun  
zegoen Santuaren gorputza, eta apaiñdua San-  
tuaren erretrato eta banderakiñ. Aita Santua,  
orazio irazekia egiñda igo zan lenaz prestaturik  
zeukan jargoirra, eta bere aotik adierazi zituen  
bizitzan adiskide eta anparatzalle izan zanaren  
birtute eta merezimentuak.

Testo edo esaeratzat artu zituen Errege jakin-  
tsuaren itz oek: «Argi egin zuen Jainkoaren Elei-  
zan, eguzkiak eguerdian bezela». Oktabiano Kar-  
denal Inozenzio IIIgarrenaren lengusuak irakorri  
zuen bereala oituraren kontrara, bidez eta legez  
probatuak zeuden millagroen kondaira. Irakorke-  
ra au izan zan biotz mugida aundia jendeen  
artean egin zuena, eta benturaz egundaño ala-  
korik ikusi etzan modukoa. Millagro aek gertatu  
zizaizten personik geienak an arkitzen ziran, eta  
aditzean deadar egiten zuten esanaz: «Egia da!  
Ori neri gertatu zitzadan!». An arkitzen ziran  
millagro aen testiguak eta pekatari konbertituak,

zeñak toki santuan zeudela batere begiratu gabe, ezin egon ziren ixilik eta arrigarrizko ujuak egiten zituzten. Gero Rainerio Capoccio Kardenalak, Santo Domingo eta San Franziskoren adiskide aundia izan zanak, kontatu zuen San Franziskoren bizitzaren gañean zekien guzia. Guziok pozez negar egiten zuten. Azkenik Aita Santuak, jargoian eserita, burua tiaraz estalita, eskuak eta begiak zeruronz altxaturik, esan zituen jende deboto guzi aren aurrean itz ospatsu oek: «Jaungoiko guzieldun Aita, Seme eta Espiritu Santuaren gloriarako, Birjiña Maria doatsuaren, eta Pedro eta Paulo Apostoluenerako, eta Erromako Eleizaren onrarako erabaki degu gure anai Kardenal eta beste Obispoen iritziaren erara, paratzea Santuen errunkaran Aita Franzisko doatsua, Jaungoikoak zeruan gloriáz koroatua, eta guk lurrian onratzen deguna. Beraren pesta egingo da urriaren lauean».

Itz oek esanda, tiara burutik kendurik, apaizurrenak asi zuen *Te Deum* triunfoko imno aundia, eta Kardenalak eta Erlijoso txikienak kantatu zuten arekiñ batean. Jendeak erantzuten zuten deadar aundiakin, eta eskillá soñu-errepí-

ka alegereak adierazten zien inguretako errieta-koai Santuaren kanonizazioa erabaki zala. Gregorio IX garrena jetxi zan gero jargoitik, eta Santuaren kaja aurrean belaunikaturik, muñ egiñ zion, utzi zuen oitura zan limosna, eta asi zuen mezaren sakrifizio santua. Erlijioso txikienak eskuetan zirioak edo oliba adarrak zituztela inguratzen zuten aldarea, eta kantatzen zuten guziok batetan: *Franciscus pauper et humilio, coelum dives ingreditur, hymnis coelestibus honoratur*: «Franzisko, munduan umill eta pobrea zana, sartzen da aberats zeruan, onratua da aingeruen kantakin».

Meza emandakoan Aita Santuak deitu zion klaroki Santu berriari, esanaz: «Aita San Franzisko, erregutu ezazu gugatik»; eta adierazirik induljenziak, eman zuen bedeinkazioa.

Pesta oek berritu ziran gero San Franziskoren Ordenako konbentu bakoitzean egin zituzten iru eguneko Eleiz-punzio txit aundietan, eta andik txit urte gitxira ozta izango zan mundu guzian Eleiza bat Asisko eskale umillari aldareen bat donekidatua etzeukana. Ala betetzen zuen Jaungoikoak gloriak, geien despreziatu zutena, eta

onetatik argiro ezagutzen da zeñ arrazoi aundia gendukan esateko, Erromak ematen diela justuai gizonak soma dezakean betiko biziera gloriatsuena. Munduko pestak baño errespetagarriagoak eta obeak diran erlijiozko guzien artean, eztago batere kanonizaziokoaren parekorik, eta ezer entendimentuai obeto agertzen dionik zeñ dan Jesukristoren Esposa egiazkoa.

Eta egiaz, Eleiza Katolikak bakarrik egiten ditu santuak, berak bakarrik dauka eskubidea lurrean koroatzeko, Jesu Kristok bakarrik daukan bezela zeruan koroatzeko; eta Eleiza agertzen bazaigu aundia zeruko bizitzarako bataioan sortzen dituenen, are aundiagoa, eta itz batean esateko, Jainkozkoagoa agertzen zaigu, noiz eta, aen autsak obietatik aterarik, adierazten dituen aen garaipenak, eta paraturik gure altareetako jargoietan, gonbidatzen dituen gizaaldi guziak arekiñ batean kantatzera: «Zeñ ederra dan anima garbien arraza! Aren oroipena Jaungoikokak eta gizonak bedeinkatua da, eta ez da beñere galtzen!». Santuen kanonizazioa da, bada, garaipen paregabeko bat, nolerebait esateko, eternidadeko Eleiz atarian egiten dana. San

Franziskorena da beste guziak ez bezelakoa, bertan gertatu ziran darraikoi, kontatu gabe eziñ utzi giñitzakeanakgatik. Orduan ikusi zan aurrena Erromatik kanpora zegoen Aita Santu batek kunplitzen zuela egiera aundi au Santu berriaren obiaren beraren gañean. Gañera Eleizak erabaki zuen osoro auzi au Santua ill zanetik bi urte bete baño len, eta Pika aren ama an aurkitu zan ikusten Jainkoak aututako onen zeruko garaipen au. Ama zorionekoa, pena eta sakrifiziozko bizitzaren ordañez gustatzen zuena mundu onetan ama batek deseatu dezakean saririk gozoena; bera izan zan semeagan koroatua.

Andik iru egunera, Gregorio IXgarrenak bialdu zien munduko Obispo guziai Kanonizazioko Bulda 1228ko uztaren 19an Perusan emana, Bulda bat itzal txit aundiko oroigarri bat ezezik, Santuaren alabantzarik onena dana.

Gogoratuko dira gure irakorleak nola Franziskok agindu zuen bere gorputza lurpetzeko Infernuko mendi-muñoan. Frai Elias asi zanean kunplimentu ematen Santuaren atzeneko borondate oni, Asis guzia altxa zan aren kontra, uste izanaz toki ura aukeratzearekin desprezio egiten zizaio-

la uriari eta bere semearen oroipenari. Juan ziran Aita Santuarengana eta Gregorio IXgarrenak ontzat eman zuen frai Eliasen asmoa, baña agindu zuen Infernuko mendi-muñoa deitu zedilla geroztik Paraisoko mendi-muñoa. Uriko kargudunak Aita Santuaren erabakierara pozez jarririk Paraisoko mendi-muñoa erantsi zioten Aituaren menpeko beste lurrai.

Aita Santuak agindu zion frai Eliasi egiñerazo zezala Eleiza bat bertan gorde bear zan ondasunaren diñakoa. Berak bedeinkatu zuen lenbiziko arria kanonizazioko pestaren bigaramonean, eta bere diru-kutxa ustuz zuen obraen bukaera laguntzeko. Federiko Igarrenaren arm-altxaerak erakarri ziozkan Aita Santuari egun triste eta negargarriak. Bere dirutik emanaz gañera, Aita Santuak erregutu zien fededunai lagundu zezatela beren limosnakin, irabazi zitzaten orretarako eman zituen induljenziak. Frai Eliasek bere alde-tik, Jakobo Aleman zeritzan denbora artako etxagille sonatuenak lagundurik, aurreratu zituen lanak iñork uste baño azkarrago. Eziñ ukatu diteke lanbidea guziz aundia zala *Paraisoko mendi-muñoa* egiten zuten arkaitz gitxi asko desberdi-

ñak, eguzkiaren sart-aldetik uriaren murrakin mugatzen ziranak. Andik kendu bear izan zan arri aundi bat, San Franziskoren gorputza gordea geratu bear zan zuloa egiteko. Mendi-muño gañean, arte aundiz berdindutakoan, altxa zan zimendu sendokiko Eleiza bat Bizanzio erakoa.

Esan diteke egiaz, Eleiz onek arri anbat mirari badituela. Bazirudien lurretik berez sortu zala, bada urte bian ia bukatua zegoen. Ona emen arrizko kantu bat, oroitgarri bat, bidegabe despreziatzen diran denbora aetako fedearen indarra ezezik, gizonaren jenioak, fedearen serbitzuan jartzen danean zenbat dezakean, agertzen duena. Aita Santu deserritu bat, pobrezan fundatutako Ordena bat, eta beragatik ezer ez zeukana, uri bat askotan gerrak ondaturia, eta erri bat Aita Santuaren obediencian egon nai etzutenen persekuzioen mendean zegoena izan ziran Jau-nak aukeratu zituen gordairuzaiak.

1230ko udaberrian Buru nagusiak adierazozion Gregorio IXgarrenari obrak zer modutan zeuden, eta ark agindu zien erara, izkribatu zien erlijioso txikien guziaz eta Prinzipe kristau guziaz aditzera emanaz San Franziskoren gorputz-

aldaera San Jorjeko Eleizatik Eleiza berrira; eta Billera guzienkikoaren sarrera egingo zala urte bereko maiatzaren 25ean. Nola Asisko Serafiñaren sona mundu guzian zabaldua baizegoen, errege katolikoak bialdu zituzten doai baliosoak Eleiz berria apaiñtzeko. Aita Santuarenak guziaz erain zien aberatstasunean. Bera pestara ezin joan zalako, orain adiñ aundiagatik, bada zituen ia eun urte, orain bere eginkizun larriak lekurik ematen etziotelako, eman zien kargua iru kardenalai ipintzeko aren izenean San Franziskoren obi gañean urrezko gurutze bat arri preziosoz apaiñdua eta Gurutze egiazkoaren puskarekiñ aberastua, urre eta zillarrezko kalizak, urrezko aldare marko bat perla eta arri distiariz ornitua, ornamentu kostu txit aundikoak, eta diru asko obren bukaerarako.

Erregali oekiñ batean bialdu zuen eskutitz bat, zeñean irakortzen degun: «Jaunak, bere Esposa bakarra dan Eleizaren gaztetasuna berri-tzeko bere miseriak ugaritzen dituenak, nai du gloriastutzea lurrean millagroakin, zeruan koroatu dituenaren erlikiak; beragatik, eta eziñ konta al kezkek eta pena txit aundiak mendean

bagauzkate ere, esan eziñ bezelako konsuelo eta esker ona arkitzen degu zuen Aita eta gurea, eta benturaz zuena baño gurea geiago dan San Franziskogan ixuri duen glorian. Atsegiñ artu degu jakitean lenago egiñak dauzkan zenbat millagrori erantsi bear zaiola Alemanian gertatutako gizon baten piztuera, eta pozez betetzen gera zabaltzean Santu aiñ aundiaren alabanzak. Ordañez, uste osoa daukagu, munduan zanean anbeste amatu gaituenak, oraiñ amorio utsa dana arpegiz arpegi ikusten dagoenean, kariño bereziagoa izango digula, eta geratu gabe gugatik erregutuko duela... Ontzat ematen degu aren erlikiak ari konsagratuko zaion Eleizara aldatzeko zure deseoa». Eskutitzaren bukaeran zeuden señalatuak induljenziak, eta lan artarako enkarगतuen izenak, frai Elias Buru nagusiaren eta Txikienen Ordenako beste erlijioso batzuen alde. Buldatxo onekiñ argiro ikusi erazotzen da franziskoarrak beti Aita Santuaren obediencian egon badira, ordañez Aita Santuak mesedez bete eta bere anparupean iduki dituela.

Maiatzaren 25ean (larunbat eta Pazkoa Espiritu Santuko bezperan) goizean goiz asi ziran

Aldaerako zeremoniak egiten. Atera zuten gorputza zetzan obitik eta ipini zuten gurdi ederki apainduan, manta gorri txit baliosoaz estalita zegoen uztar idiak zeramatera. Esan zitekean gorputz bizia aldatzen zutela, bada gorputzeko mienbro edo bizakaiak zeukaten bizitzako egoitza edo biguñtasuna, eta llaga sagraduak biziak ziruditen. Aita Santuaren iru ordezekoak, frai Elias eta Aita Santuak enkargatuak inguratzen zuten gurdia, eta ondoren bi illara luzeetan zijoazen Obispoak, apaizak, bi milla erlijioso baño geiago, eta erriko agintariak beren arma gizonakin. Erriko jendea toki guzietan zegoen. Egun aetan Asisko urira joan ziran erromesen irudi bat idukitzeko, asko degu esatea aetako geienak beren etzauntzak uri inguruan egiñ bear izan zituztela. Prozesioan kantatu ziran Santuaren onran Gregorio IXgarrenak ipinitako kantan, eta an gertatutako millagroak irazeki zuten are geiago Santuarenganako jaiera.

Asisko murrak etzuten egundaño alako aunditasunik ikusi. Zergatik esan bearrean gera ondorengo gertaera au? Prozesioa iritxi zan Paraisoko mendi-muñora modu onean, noiz eta

Asistarrak barruntaturik jendearen mugida, eta bildurrak arturik ostuko ote zien ondasun ura, artzen dute arrapaztaka Santuaren gorputza gordea zegoen kaja, badaramate Eleizara, eta ateak itxirik, lurpetu zuten zulo aundi batean, burni errejatzar baten atzean, arkaitz bizian egiñdako obi, berak bakarrik zekienean. Eragabekeria oen bidez, Aita Santuak enkargatutakok eziñ sillatu izan zuten kaja, eta aiñ ederki asizan pesta, bukatu zan sakrilejio gisako gauzarekiñ. Gertaera onen berriak sentimentua aundia eman zion Aita Santuari, eta Asistarren kontra bidezki aserraturik, agindu zien Perusa eta Espoletoko Obispoai kontu estuak artu eta Eleizan sartzeko debekua eta eskumikua bota zitzaiela, baldin amabost egun bitarte erremediatzen ezpazuten egindako utsegitea. Uriak, Santuari zion jaiera geiegiaz eta Santuaren gorputzaz aseguratu naiez pekatu egin bazuen ere, etzuen egon nai izan setaz desobediencian; kontrara bereala bialdu zituen mandatariak Erromara barkazio agirikoa eskatzera, eta guzia barkatua izan zan.

Berez ezer etzan ustekabe onek erakarri zituen ondore txit negargarriak; bada igaro dira seireun urte aldean jakin gabe Santuaren erlikiak dauden toki ziertoa. Jendeen irudimenduak antolatu zituen irakorgai atsegiñgarrienak San Franziskoren gorputzaren doai eta egieraren eta llogen gañean, etzeukaten ordea kondairak eskatzen duen egiatasunik, eta XIXgarren eunkiraño etzaio kendu misterio oni ezkutatua zeukan belo. Ara nola gertatu zan.

1818an Pio VIIgarrenak eman zion eskubidea Aita Jose Boni, Anai txikien konbentualetako Ordenako Buruzai nagusiari beeko Eleizako alda-re nagusipean lurra atera eta mendiaren saiets arkaitztsuak miratzeko. Berrogeita bi gau lanean isiltxorik igarotakoan azaldu zan burni erreja, eta abenduaren 12garrenean agertu zan kaja osoa. Eskeletoa zegoen ukitu gabea, besoak zeuzkan gurutzatuak eta banatzen zuen usai txit gozoa. Kaja zan aundiegia gorputzaren tamañarako. Burukotzat zeukan arri bat, bada jakiña da Santuak etzuela besterik usatzen. Kaja inguruan arkitu zituzten zillarrezko erraztuna anziñako koralina batekin, tela orriak, XIIIgarren eunkiko

diruak eta ogeita zortzi errosario ale, amabi anbarrezkoak eta amasei subeltxezkoak. Etzan arkitu izkira otallaturik, eta etzan bear ere, bada nola Eleiza izendatzen baizan San Franziskoren obia, eta bertan nun nai ikusten zan Asisko Serafiñaren izena izkribatua, alperrikako gauza izango zan izkira otallurik jartzea. Pio VIIgarrenak eman zien enkargua Asisko, Nozerako, Espoletoko, Perusako eta Foliñoko Obispoai jakiteratu zitezela segurtasun guziarekiñ ea ura zan San Franziskoren gorputza, eta berak kausa kontu aundiz ikusi ondoren aitortu zuen solemnidade guziarekiñ 1820ko agorraren 5ean emandako Buldatxo batean, Santuaren Eleizako aldare nagusipean arkitutako gorputza zala dudarik gabe San Franzisko Asiskoarena.

Andik lau urtera, Leon XIIgarrenaren Aita Santutzako lenbizikoan obia biurtu zan Eleiz guziz eder batean, zeñari eman zaion Obiko Eleizaren izena. An, burni erreja beraren atzean, kaja berean, eta anbeste eunkian jendeen beneziorik artu gabe ezkutatuak beti egon ziran tokian arkitzen dira erlikiak. Obitokia dago arri marmol kolorezkoaz ornitua; kaja gañean, eta

obra guziari eusten dion pillarearen ondoan dago aldarea, eta amar moldura lurrezkoak pareta guzietan partituak. Obitoki eta loretegiaren bitartean daude bi tallu marmolezko Pio VIIgarrena eta Pio IXgarrena adierazten dutenak. Egiaz, bi giza noble oek, ez dute esan nai Aita Santuak dirala berak egin zuten oroigarria gordetzen dutenak?

Aita Santuaren anparuari eta Asisko biztanleai eskerrak, Alberniako Santu Ilagatuaren gorpuzta gordetzen da osorik, batere puskarik kendu gabe. Badaude Penitente Santuaren beste erliki batzuek; ona kontaturik bikañenak: Konbentu Sagraduan, bi tunika, pergaminozko orri bat, saietseko Ilagako odolarekiñ mantxatua, etzauntzat serbitzen zion ola. Guinta Pisakoak an pintatu zuen Santuaren erretratoa. Bi zapata pare, bata basauntz larruzkoa, eta bestea oialezkoak Santa Klarak egiñak. Gamelu larruzko zilizioa. Ejitoko Erregek erregalatu zion marfillezko adarra, fededunai deitzeko usatu oi zuena. Frai Leoni eman zion bendizio bere eskuz izkribatua. Santa Klaran, San Damiano kuadro miraritsua. San Franzisko Ripakoan, soka bat. Florenzian

Monte Akatoko kondeari erregalatutako tunika. Parisko kaputxinoen konbentuan lana urdiñarrezko kapotetxoa; beste zenbat gauza Santa Klararen obian billatu ziranak, bada obi au ere nun zegoen iñork etzuen jakindu seireun urtean, eta agertua izan zan San Franziskorenarenetik ogeita amar urtera (1850). Asisko Klarisa monjen abadesak Marsellakoenai arkitze onen gañean izkribatu zion eskutitza da izkribu bat añ balio-soa eta egia añ leialki jartzen duena, non eziñ utzi genezakean para gabe liburu onetan. Ona emen senzilloro berak diona:

«Nere aizpa txit maiteak; seguru nago bada-kizutela gure Santu fundatzalleen erliki asko gordetzeko ditxa daukagula. Jaungoikoak daki nolako antsiarekiñ deseaten genduen iritxi zedilla berak alde aldetik onratzeko eguna, noiz eta Luis Landi Jaunak agindu zuen gure Amaren obia idiki zedilla San Franziskoren Llaga ezartze egunean; oraindik geiago egiñ zuen, bada bera etorri zan zeremoni artan buruzai izatera. Orduan zabaldu giñituen mai baten gañean al genduen errespeto guziarekiñ gure Ama Doatsuaren soñekoa, beloa, zilizioa eta tunika, eta gero gure Serafin

santuaren erlikiak; eta bost orduan ikusi al izan  
giñituen ongi pobrezazko, penitenziazko eta  
munduaren despreziazko prendak. Zer errespe-  
toarekiñ muñ egiñ giñion gure Aitaren tunikari!  
Nola begiratu giñion Santa Klarak egiñ ziozkan  
oñetakoai ibiltzean llagak ematen zioten oña-  
zeak ariñtzeagatik! An beneratu genduen odolez  
bustitako zapia, eta lana zurizko kapote egune-  
rokoa, serbitzariaren kapotea, kondairatzalleak  
dioten bezela, Asisko Obispoak jantzi ziona, bere  
erropa guziak erantzi zituenean, mundu ontako  
gauzarik ezertxo ere izan etzezan, eta Santa Kla-  
rak egiñdako alba San Franziskok jazten zuena  
meza solemneetan Ebanjelioa kantatzen zue-  
nean. O! Ikusiko bazenduteke zer lan piñ, artez-  
ko eta ederra dan! Zeñ trebea izan bear zuen  
Santak gis onetako lanetan! Zer ikasbide ederra  
ematen ziguten anbeste denboran lurpetuak  
egon ziran erliki aek!».

Asisko bi Serafiñen erliki santuak, zaudete  
beti orain gordetzen zaituzten konbentu sagra-  
duetan! San Franzisko, pobreen aita, anpara  
ezazu beti zure ezpaiñ iltzer zeudenak bedeinka-  
tu zuten uri au! Santa Klara, pobren prinzesa,

libra ezazu zure jaieterria bere fedea kendu nai dioten fedegabe berri oetatik!

Erliki santu oetatik alde egiñ baño len, ikusi dezagun zer onra ematen zizaion San Franziskori, eta aren obia ornitzen duten aunditasun egiaz arrigarriak. Sona eman zioten bertan egiten ziran millagro ugariak, eta ala bera izan zan Printzipe eta errien, Aita Santu eta fededunen bilkuia San Luis Franziaiko erregetik asita Austriako Franzisko lenbizikoraño; Gregorio IXgarrendik Pio IXgarreneraño, eta ala ikusi zan Unbriako uri baztertuenetako bat altxatua munduko uririk sonatuenen artera, joaten ziralarik bertara beste Eleiz beneragarri eta anziñakoenetara anbat erromes.

Ez dedilla uste izan gure Santua onratzen zala Unbriako balleran edo konbentuetan baka-rik. Txit laister aren onra zabaldu zan munduko bazter guztietara, eta Kristobal Kolonek Amerika agertu zuen ezkerre zabaldu zan mundu zar eta berri guztian. Alaz guziaz ere Franzia eta España anbesteraño ark maitatu zituenak eta beraren boza aiñ leialki aditu zutenak, etziran Italia baño gitxiago izan aren jaiera eta amorioan. Errege

eta aundizkiak aren izena jartzen zioten beren seme-alabai, jendeak egiten ziozkaten aldareak, munduko pobreak zijoazen bere anparupera, eta Jaungoikoak saristatu nai izan zuen aen konfianza Ordenako kondairetan irakorri ditezkean millagro eta mesede askorekiñ. San Franziskok alako mugida ezarri zien entendimentuai, alako berotasuna piztu erazo zuen biotzetan eta alako itzala egiten zuen bere denborakoen artean, non, merezi izan zuen beste giza noble birekin batean ematea bere izena eunkiari; eta ala XIII-garren eunkia oro bat esaten da Inozenzio III-garrenarena, Santo Domingorena eta San Franziskorena.

Aundia bada ere toki guzietan Santu oni ekartzten zaion onra eta benerazioa, badago uri bat guziaz eraiten diena, uri bat zeñean aren oroipena gordetzen dan atzo ill izan balitz beziñ preskoa; uri bat berarekiñ bat egiñ dana anbesterañ non part artzen duen bere aunditasunean eta deitzen dan *Serafiñ uria*. Gure irakorleak aspaldian ezagutzen dute, da Asis, aren jaiet-erria. Bisitatu dezagun soseguz fedezko espirituarekiñ, bada egunoro itxura eta jabea aldatzen duten

Franziako errien kontrara, Asisek gorde du munduko denbora aldi erdiaren errien itxura. Sarre-rako ate nagusi gañean irakortzen da izkira otallatu bat, munduko iskamilla naspillatuetan ezagutzen ez dana, biguña, zeruko itz otsa bezelakoa: San Franziskok, itxu eta iltzer zegoela bere jaieterriari eman zion bedeinkazioa. Gañerako murrugurua da oro bat ezagungarria. Arratsaldetan or emen boz eztitsuakiñ kantatzen dituzten kantaen batzuek ezpadira, ez dira aditzen eskillak soñuak eta txorien kanta besterik. Karrikak dira aldapadunak eta estuak, eta oraindik ikusten dira beretan anziñako kuadroak San Franzisko edo Santa Klararen bizitzako pasarteren bat adierazten dutenak. Etxerik geienak dira *godo erakoak* XIIIgarren eta XIVgarren eunkian egiñak, leioak dauzkate errejakin konbentueta-koak bezela; emakumeak aritzen dira lanean etxe atarrietan begiak lanetik kendu gabe, ez dirudite iruleak, mojak baizik; geienak alabaña dira San Franziskoren alabak, da esatea, dira Penitenziako Irugarren Ordenan sartuak daudenak.

An guziak Franziskoaz itz egiten du, eta Franziskok Jaungoikoaz. Baña oroikarri guzien artean bikañena da Santuaren obia, aunditasun eta artezko mirari egiazkoa, asieratik arte eta izkirazaleentzat somaketa berriaren iturria izan zana. Ikusi degu Gregorio IXgarrenak para nai izan zuela lenbiziko arria, eta zenbait neke eta buruausteen bidez iritxi zuen Buruzai nagusiak atera zuen Paradisoko mendi-muñoaren arrizko erraietatik, esateko moduan. Obrak etziran bukatu andik amairu urte bitartean (1243) eta San Pedroren beste ondorengo bat, Inozentio IVgarrena, izan zan eleiza eta zerraikion konbentua konsagratu zituena. Geroztik etxea deitzen da Konbentu Sagradua, eta Eleizari eman zizaion Aita Santuaren Kapillaren izena.

Konbentu Sagradua da Italiako joia artezko bat. «Eztago beste bat alakoa, ikusi gabe ezin iduki diteke denbora aetako arte eta gustoaren idearik. Konbentu au, Danteren izkribua eta *Loretxoak* dira Kristiandade gaindadi edo mistikoaren obra nagusia».

Konbentua dago mendi desberdiñ baten tontorrean egiña, bata bestearen gañ paratako bi

illera ar-uztaien gañean, eta dauka bere denborako siñalea. Bere saietera, arrilluzko uztai, ganbara eta klaustro zinzilikakoakiñ badirudi jaun aundi baten gaztelua. Eguzkiaren sart-aldetik dauka aurrean amiltegi bat, zeñaren oñean dijon erreka zistor bat arri kaskar tartean bide luzean. Sixto IVgarrenaren obra dan eguerdi aldeko galeriatik ikusten da Unbriako ballera ederra arboladizko mendiz inguratuakin.

Pillaretxo piñez ornitua dagoen urube ertz batetik sartzen da Eleizan, zeña dan bata bestearen gañean egiñak dauden iru Eleiza: goikoa, beekoa eta obitokia. Lenbiziko biak dira Jakobo Alemanen obra, eta irugarrena, Varledur zeritzan pranzas odoleko etxagille batek egiña. Eleiz oetako bakoitzak dauka bere egitura banaa, eta txit laister igartzen zaio zergatik dan ala, bada adierazten dute Santuaren iru biziera aldiak. Obitokian adierazten da gurutzea. Beekoak, serio eta itzaltsu erromarren antzekoak, oroitu arazten ditu Bernardonen semearen bizitza latz eta penitenziak. Goikoak bere ojiba urratuakiñ, argi ugari, larros aundi, bidriera, otalluz ornituko koruedo ganbara eta aiñ ederki lazotuak dau-

den bordatuakiñ, gogora ekartzen digu aren gloria eta zeruko koroazioa. Lenbizikoak negar egiñerazitzen du; bigarrenak mugierazitzen du itxerodotera konfianza triste batekiñ, zeña dan orazioaren gairik ederrena, eta irugarrenak, zeña dan kordebagetze eta bestiruditzearen siñalea, sentiarazten digu lendanaz betiko zoriontasuna. Ala irurak txit erakidatzen dira batune miragarri onetan arrizko kantu batean adierazteko Asisko Serafiñaren esperanzak, jazarreak eta garaipenak.

Amabi konbentu gizasemeen eta emakumeenak Ordena onetako famili banaatakoak inguratzen dira Santu onen erlikiak gordeak dauden obiaren itzalpean. Konbentu oetako bakoitzak gogoratzen du aren bizitzaren denbora aldi bat; guziak beneratzen dute ordea obi bat bera, eta artzen dute inguruan aurrak beren ama bezela. Ama Birjiña Aingeruenekoa, ordekan goitargiak bezela distiatzen duen bere boillerdiarekiñ; Santa Klara, XIIIgarren eunkiko eleiz ederra, Erlijioso Txikien Felipe Kanbello Spoletokoak ateratako planotik egiña; Chiesa-Nuova (Eleiza berria) Grezi-Eleiza, San Franziskoren bost Ilagaen oroi-

penean bost boillerdiz ornitua, Españako Errege Felipe IIIgarrenaren kostura Morikonitarren purubean egiña, eta azkenik gaztelu arrakatuaren oñean Kaputxinoen eleizatxoak: ona emen oroi-garriak giaritzat serbitzen dutenak joateko Patriarka santuaren obira.

Franziskok ill zanean etzuen eskatu lur piska bat, eta ori tokirik desongarrienean baizik, eta, gauza arrigarria! iru eleizak gordetzen dituzte aren ezurak, eta erri osoak serbitzen dio obitzat. Urkamendiai artezko obra bikañak ordaindu die; borreroari, Jaungoikoaren miserikordiaren ministroak, eta gaitzgilleen deadar ikaragarriak soñu gozo eztitsuenak.

Etxakintza edo arkitekturak bukatu zuen bere lanbidea Santuaren obian. Baña denbora aldi artako gizonak etzuen uste obra oroikarri bat bukatua zegoela arria arriaren gañean jarriarekiñ; prezisoa zan arri aek itz egitea, eta itz egin zezatela pinturaren itzkuntza, ezjakiñak eta txikiak iristen dutena; prezisoa zan para zezatela an zerua ikusteko moduan, arkituaz bertan aingeruak eta santuak jendeen konsuelo eta ikasbiderako. Pintura joan zan, bada, bere txandan

arriaren adiera azaltzera. Goiko bi Eleizen bobedak izan ziran urdiñez pintatuak eta urrezko izarrez apainduak, eta paretetan Eskritura Sagraduko pasarteekin batean ikusten ziran Asisko penitentearenak. Murru aek ukitu eta gaztetu gabe eziñ egon bazitekean bezela, eleiza egiñ zan eskola berri baten asiera, eta artea, berritua eta zeruko argiarekiñ pizkortua, altxa zan indartsu mendimuño onetatik Napolesko kosta aldera zabaltzeko. Pisako Guinta eta Florenziako Juan Cinbaue anziñako Bizanzioko eskolako pintatzaile maixuen ondoren etorri zan Giotto, artzai umilla, Cinbaueren ikaslea eta maixuari erain ziona, Giotto, pinturan egin zuena Jakobo Alemanek etxakintzan egiña, au da, irabiera egiazkoa, usatuaz arte onetan molde garbiago, irudiarrago eta kristautasun geiagokoak.

Giottok ausardi aundiarekiñ egiñ zuen goiko eleizako kuadro gogoangarrietan Santuaren alabantzarik aundiena, aren bizitza Jesu Kristorenaren erakoa; oro bat txit miragarriak dira ondorean beeko eleizako bobedan para zituen kuadroak, irudikatzen dituzte San Franziskoren birtuteak eta garaipena, eta daude jarriak obi

gañean koroaren gisan. Arrigarrizko gauza da ikustea nolako kristau sentimentuarekin ideatu zuen Giottok eta egiteratu bere plana. Arentzat Franziskoren gloriaren zimendu eta motiboa dira beraren birtuteak, eta pinzelak azaldu bear ditu alairo gizonaren argaltasuna geien izutzen duten siñaleakiñ, da esatea, erlijiozko iru boto, Kastidade, Obedienzi eta Pobrezaren pean. Kastidatea, belo aundi eta modestiarekiñ tolestatua daukanarekiñ estalia dagoen emakumean iruditua, dago erretiratua gaztelu batean eskuak elkargaturik otoitzerako zorian, Penitenziak eskuan daukan azotearekiñ amorio loa eta eriotza andik aienatzen dituen bitartean. Obedienziak tunika umill bat jantzirik artzen du Erregla eta arrokeriari jartzen zaion uztarria, pizti biurri bati bezela. Azkenik Pobrezak betiko barauakiñ aurpegi zimurtuarekiñ, ille nastuarekiñ, soka lodi batez gerria lotuarekiñ baña kopeta noble eta txit ederrarekiñ, Pobrezak, Kristoren alargun onek luzatzen dio eskua San Franziskori. Txakur batek, eskaleen berezko etsai onek, zaunka egiten dio, eta bi galai gazte limurik bata gorriz eta bestea urdiñez jantziak tiratzen diozkate arriak eta para

larrak bidean. Kristok ordea ezkontzen ditu bi esposoak, eta Aita Betikoa agertzen da odei tartean, zeru-lurrak joan bear bazuten bezela bi eskale aen ezkontza ikustera.

Giotton ikasleak jarraitu zioten bere maixuaren obrari; aitatu ditzagun aen kuadroen batzuek: *Profetak*, Abdon Donik egiña, Rafaelek Erromako Santa Maria Pakekoan antzeztu zuena; *Jesukristoren Gurutziltzatzea*, Migel Anjelek txit estimatzen zuen pintatzalle Pedro Kaballinik egiña; *Ama Birjiñaren bizitza* Tadeo Godirena; *Santa Maria Magdalena* Buffalmaccorena, eta *San Martiñen Irakorgaia*, Simon Memmirena. Giottinoren pinturak desagertu dira.

Begiratzen zaionean Kaballiniren kuadroari eta ikusi arako iltzer dagoen Jesus gurutziltzatua, eta aingeru aek aiñ triste negarrez gurutze inguruan eta biltzen urrezko ontzietan Jainko Gizonaren odol tantoak, arrizkoa izan bear du batek ez negar egiteko, eta belaunikaturik damuaren siñalean bular joka ez aritzeko. Oraingo denboretan Owerbek pintatzaillak ere eskeñi dio Asisi bere jakinduriaren frutua, eta para du Ama Birjiña Aingeruenekoan.

Alakoa zan Franziskoren itzal eragillea oituretan ezezik artezko obretan ere. Eman zion erregla nagusitzat arteraño azaldu gabe egon zan sentimentu bat amorio serafiñdarra; sortu zuen eskola bat osotoro kristaua, Unbriako eskola, eta atera zuen artista talde bat beren obren menekioa egin ziotenak, uste osoan egonaz Santuaren gloria betikoak aen lanak ere betiko sonatuak egingo zituela.

Azkenik leia onen laguntzan etorri zan Biur-sakiñtza, bere senide Etxakintza eta Pintura berdindu edo benturaz berai eraiñ ziena. San Buenabentura, Dante, Tasso, Jakopone Todikoa, Lope de Vega, Anatolio Segur: ze bersolariak, nolako alabantzak irteten diran aen ezpañetatik Asisko Serafiña kantatzeko! Jarri dezagun ejenplotzat Danteren pasarte sonatu au:

«Tupinoren eta Ubaldu doatsuak aututako mendimuñotik irteten dan errekaren tartean, lur gizen koipatsuzko aldapa jeisten da mendi goienetik».

«Nondik Perusak artzen dituen otz-beroak Eguerdi aldeko atetik, Nozera eta Gualdok mendi

atzean beren uztarri pixuaren pean negar egiten duten».

«Egi onetan, aldapa txikiagoa dan aldetik jaio zan mundura Eguzki bat Ganjesko uretatik irte-ten dan zerukoaren parekoa».

«Eta leku onezaz itz egiñ nai dutenak, ez dezaiotela deitu Asis, ondo adieraziko ez lukea-lako, ezpada Sort-aldea, au bere izen egiazkoa dalako».

Galdetuko balitzaguke Bernandonen semea-ren izena zergatik egiñ dan aiñ estimatua, zerga-tik kristau erriak altxatzen duten, zergatik azke-nik gizaalditik gizaaldira igarotzen diran Jakopo-nen kanta zoragarriak, Danteren, San Buenaben-tura eta Santa Teresaren izkribu goiargituak, Zimabue eta Giottoren kuadroak, erantzungo genduke: «Jaungoikoak altxa nai ditu beeratzen diranak, eta egiten du jendeak onratu ditzatela San Franzisko Asiskoagan beren buruak osotoro ukatu, eta lagun urkoaren neke-premiak alibia-tzen saiatzen diranak».

# **XXgarren Bereziera**

*Begirada bat Ordenaren izaerari:*

- 1. San Franzisko ill zanean;*
- 2. Erreboluzio aundiko denboran;*  
*eta 3. oraingo egunetan.*

Fundatzalleai, beste edozein santuri baño obeto dagokiten gauza da, Jaungoikoagandik artu duten eginbidea zabal dedilla aen eriotz ondorean, beren gloriarekin batean, denborak dijoazen bezela obeto ezagutua izan dedilla, eta aen ejenplo eta itzak sortu ditzala beti Eleizan beren ikasle eta jarraile leialak. Oetako bakoitzagatik esan diteke Abel Patriarkagatik Apostoloak diona: *Illda dagoela ere, oraindik itz egiten du* (Hebr. k. XI), au da, beti Aren bizitza da betiko prediku bat, onerako beti ugaria, gaisto sonatuen betiko prediku bat gaistorako beti ugaria dan bezela.

Onetan dago Asisko Patriarkaren gloria paregabea, bada bizi da beraren obra geroko denboretan aurrera daramaten bere umiengan, betetzen dira aren espirituaz, gerra egiten die utsegi-

ñai deskansu gabe, eta irabazten dituzte Jesu-sentzat gizaaldi berriak. Gauz atsegiñgarria izango litzake, al izatera, billatzea kondairan zenbat anima kendu dizkan, gitxi gora bera, Franziskok deabruari eta infernuari, Jaungoikoari eta zeruari emateko. Orduan ikusiko litzake, gizon batek bakarrak eman diozkala Eleiza gudalariari millaka apostoloak, martiri eta birjiñak, bete zuela mundua ezin konta al Irugarren Ordenako kristau irazekiz, eta zerua santu eta doatsu asko eta askoz. Eta nork ikuskarri onetara ez luke deadar egingo Errege Profetarekiñ: «Zeiñ miragarria dan Jaungoikoa bere Santuetan?».

Baña au eziñ egin degun ezker, bukatuko degu San Franziskoren bizitza emanaz Ordenaren egoeraren berri labur batzuek.

I. Santua ill zan denboran; II. Franzisko erreboluziokoan, eta III. gure egunetan.

Au ikusiko degu batez ere Franzian eta baka-rik lenbiziko Ordenan. Gauza jakiña da gañera Dama pobreak beti Erlijioso txikienak baño gitxiago izan zirala (eta onezaz ez da arrituko aen bizimodu latz eta gogorraren zerbait berri daukana) eta Irugarren Ordenak iduki dituela

beti beste biak batean bildurik baño iru edo lau bider persona geiago.

## I

Amairugarren eunkian gure fede santuaren zabaltzalle pizkorrenak, Franziskoarrak izan ziran, oek atzeratu zituzten Sortaldeko bazterrik urrutietaraño Jesu Kristoren erreinoaren mugak. San Franzisko ill zanean, au da, bere Ordena para zuenetik ogei urte baño len, munduko toki askotan zeuzkaten konbentuak edo egonlekuak: Asian, Jerusalemen, nondik banatu ziran Palestina guzira eta bai irten ere Persiara, Indietara, Txinara eta Tartariara Ebanjelioa predikatzea. Afrikan, aurrena, Marruekoetan eta gero Fez eta Tunezen.

Europan erri aundi geienetan bazan San Franziskoren Ordenako konbenturen bat. Aitatu-ko ditugu bikañenak. Italian, Erroma, Benezia, Florenzia, Milan eta inportanzia gitxiagoko beste batzuek; Españian, Madril, Toledo, Barcelona, Zaragoza, Lerida; Portugalen, Coinbra eta Lis-

boa; Piamonten, Turin; Belgikan, Bruselas eta Lobaina; Bohemian, Praga; Inglaterran, Oxford eta Kilkeni, nun Enrike Ilgarrenak para zituen. Franzian zeuden Franziskoarren konbentuak ondorengo erri onetan, eta jarriak izan ziran señalatzen diran denboretan: Amiensen Halbin, Henancourt eta Lauvynen liberaltasunagatik; Angersen (1216), Arlesen, Bayeuxen, Bourgesen, San Antonio Paduakoak an Aldareko Sakramentuaren eta mandoaren millagro ospatsua egiñ ondorean, Brives, Chartres, Gapen (1213), Le Mans, Lens, Limoges, Mantes-sur-Seinen, nun San Buenabenturak izkribatu zituen bere liburu geienak, eta gordetzen zan Erreboluzio arteraño burukotzat serbitu izan zion arria; Montferrant (1224), Mirepoix (1216), Montpellier (1220), Paris, Angel Pisako doatsua izan zan konbentu onetako aurreneko gardiana (1219), Perpiñan (1214), Guinper, Seez, Soissons, Tolosan, nun San Antoniok denbora piska batean Teologia erakutsi zuen (1222), Tours, nun ikusten dan lenbiziko ongilleak dirala errege Luis VIIIgar [...].